


Mattin eta Mari Treku

# Mattin bertsularia





Mattin Treku (1916-1981)

*Mattin*

Mattin Treku bertsularia 1916-X-11-n sortu zen. Lapurdiko Ahetze herrian, Harrieta etxean. Baina bertako Mulienean bizi izan da gehienik. Eta bertan hil zen 1981-VII-22-an.

Ezkondu 1947-VII-9-an egin zen. Andregaia, Senperen sortu eta Arbonan bizi zen. Mari izena, eta Olandegi ezkongaietako deitura.

Herriko tabernan kantu eta bertsu aritzen ziren zaharrei mutil koxkorretan entzun eta, bera ere kantu eta bertsu hasi zen. Lehenik, bere baitan; eta gero jende aurrean.

Ondoren, 1939-ko gerla finitu eta, plazaz plaza kantatzen hasi zen, bai Iparraldean, bai Hegoaldean ere. Ezponda bertsulariak errana: «zazpi probentzietan ez da eskualdunik, Mattin bertsulariaz deus ez dakienik».

Hortako laguna Xalbador zuen. Matinek hargatik erranen zuen: «hameka bertsu entzuna dauka gurekin Eskual Herriak», Bainan bai Amerikak ere, biak harat joan eta han gaindi bertsutan ibili baitziran, hango euskaldunen atsegingarri.

Mattin 1981-VII-22-an zendu zen, denbora askoan Euskal Herrian ahantziko ez den bertsulari alai eta maitatua.

Mattin bertsularia / Mattin eta Mari Treku ; (hitzaurrea, A.Z.). - [S.l.] : Auspoa ; Donostia-San Sebastián : Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura Zuzendaritza Nagusia, 2006.

361 or. : argk., mus. ; 20 cm. - (Auspoa Liburutegia ; 298)

Edukia: Ahal dena ; Etxe xokotik kantari / Mattin Treku. Mattin, nere gizona / Mari Treku. - Aurkibidea

LG SS 556-2006. - ISBN 84-7907-515-5

I. Treku, Mattin, aut. II. Treku, Mari, aut. III. Zavala, Antonio, pr. IV. Gipuzkoa. Dirección General de Cultura, ed. V. Título. VI. Título: Ahal dena. VII. Título: Etxe xokotik kantari. VIII. Título: Mattin, nire gizona. IX. Serie

821.361-1"19"

821.361-94"19"

© *edizio honena*: AUSPOA Argitaletxea

Gipuzkoako Foru Aldundia

750 aleko tirada

ISBN: 84-7907-515-5

Legezko Gordailua: S.S. 556/06

Fotokonposizioa eta inprimaketa: Itxaropena S.A., Zarautz

**Mattin eta Mari Treku**

# **Mattin bertsularia**

**Auspoa Liburutegia**  
**298**

**Mattin eta Mari Treku**

# **Mattin bertsularia**

**Auspoa Liburutegia**  
**2006**

# Hitzaurrea

---

Laster beteko dira hogeitaz bost urte, uztailaren 22-an, Mattin bertsularia zendu zela. Haren oroipenak bizirik iraun dezan zer egin? Beraren sort herriak eta Euskal Herriak, eta bai bertsulari lagunek ere, zerbait prestatuko dutela ez det dudarik egiten.

Eta Auspoa Liburutegiak? Honek Ahetzeko txoriaren hiru liburu eman zituen argitara duela urte mordo. Bainan aspaldian agortuta daude. Zergatik ez berriro kaleratu, hirurak batera, Auspoaren neurri berriek holakorik onartzen duten ezkerro? Horixe da irakurleari gaur eskaintzen dioguna.

Lehenengo liburua, *Ahal dena* izenburua duena, 1971 urtean agertu zen, eta Auspoaren 108 zenbakia egin zuen. Mattinek paperean emandako bertsu sail andana bat biltzen du, eta jende aurrean kantatutako beste zenbait bertsu ere bai. Azken hauk, jende aurrean kantatuak, mañetofonotik hartuak dira, noski.

Bigarren liburua handik hamar urtera etorri zen, 1981-ean, eta Auspoaren 151 zenbakia du. Hau ere Mattinek paperean eman bertsuek eta jende aurrean kantatuek osatzen dute.

Hirugarrena, berriz, ez da Mattinek izkiriaturia, haren alargunak baizik. Mari beraren izena. Eta liburuarena: *Mattin, nere gizona*. Hau 1982 urtean azaldu zen, Auspoaren 158 zenbakia eginez.

Liburu honek antza badu *Pello Errotaren bizitza bere alabak kontatua* izendatzen danarekin. Hau 1963 urtean agertu zen, eta Auspoaren 32 zenbakia egin zuen. Hontan, alabak bere aita zenaren bizitza kontatzen du; eta bestean, berriz, Mattinen biziaren berri beraren alargunak ematen digu.

Hiru liburu hauen bigarren argitalpena egiten dugu, beraz gaurko hontan. Bainan zuzendua eta gehitua. Zuzendua, liburu guzietan okerrak sartzen baitira, eta hoiiek ongi izkiriitzen ahalegindu geranez. Eta gehitua, lehenengo bietan ez dauden beste bertsu batzuk sartu ditugulako; bai eta Mattinen alargunak idatzitako kontakizun berri batzuk erantsi ere. Marik, izan ere, senar zenaren bizia idatzi eta argitaratu ondoren, tarteka beste gertakari batzuk gogoratzen zituen; eta izkiriatu eta guri igortzen zizkigun.

Hiru liburu hauek nola prestatu ziran, bakoitzaren hitzaurrean adierazten da. Ez du balio, beraz, hemen gauza bera errepika dezagun.

Marik, zorigaitzez, ez du liburu berri hau aragizko begiez ikusiko. Bera ere orain urte bete, 2005-eko urtarrilean, itzali baitzen. Bainan senarrak eta biek zero gainetik onhar dezatela borondate hoberenez eskeintzen dieguna, gu ere *ahal dena* egiten entseiatu gera eta.

Euskal Herrian, berriz, adinean aurrera goazenok, eta Mattin kantuan entzun genuenok, haren oroitzapena berri-berri dezagun; eta ezagutu ez zuten gazteek, ikas dezatela *irriaren giltza* genuen hura nor izan zen.

A. Z.

**Mari Treku**

**Mattin, nere gizona**

**(Lehen argitalpena: Auspoa 158, 1982)**



## Aintzin solasa

---

Ahetzeko Mulienera, Mattinen etxera, 1967-ko ekainean iritxi nintzen lehen aldiz. Egun batzu aurretik Bertsolari-Txapelketa jokatua zen, Mattin ere tartean zela. Berak kantatu bertsoak erakutsi nahi nizkion, magnetofonotik paperera xuxen kopiatuak ote ziren esan zezan, txapelketako bertso guztiak argitaratu asmotan ginen eta.

Ongi hartuak izan ginen. Bazkaldu ere bertan egin ginuen. Ondoan, bertso zahar kantatzeari ekin zion Mattinek; bai berak paperean emandako batzu ere.

Gogoan dut: bazkaldu eta, Mattinek semea, artean hamabost-bat urtekoa, behi zaintzera igorri zuen aitak etxe ondoko larrera. Bainan Mulienean telebisionea ezarri berria zuten, eta mutikoa ezin bada hura ikusi gabe egon. Leihoaren kanpoko aldetik jarri zen, horrela aitaren agindua eta bere gostua batera eginez. Aitak irriparez ikusi zuen semearen manera hura.

Mattinek ezer gutxi behar baitzuen nihor adiskidetzat hartzeko, haren etxean egin bazkari hori aski izan zuen handik aurrera agur goxo bat neri egiteko, han edo hemen bertso saio-  
ren batean elkar ikusten ginuenean.

Urrena, Xalbadorren *Ezin bertzean* prestatzerakoan joango nintzen Mattinen etxera, beraren bertso batzu ere liburu hortan agertu beharrak ziren eta.

Handik puska batera, Mattinen *Ahal dena* liburuaren txanda etorri zen, eta Mulienera zenbait itzuli egin nituen, Ahetzeko bideak ongi ikasi arteraino noski.

Batean, joan etorria egin eta, kartera (portafulla) falta nuela ohartu nintzen. Etxetik atera, autoan sartu eta nihon gelditu

gabe Ahetzeraino joana bainintzen, segurik Mattinen etxean galdua izango nuela pentsatu nuen. Biharamunean joan nintzen Mulienera. Ikusi eta honela egin zidan lehen agurra Mattinek:

–Xantzarik gabeko umea sortu nintzen ni! Behin kartera bat bilatu eta jabea berehala agertu!...

*Etxe xokotik kantari* liburua zela eta, beste zenbait agerrialdi egin nituen Ahetzerara. Mattinek umore ona atxikitzen zuen. Bainan ez zen lehengo gizona, alderatzeko ere. Ageri zuen gaitzek eta ixtripuek menpean hartua zutela. Halere, ez zitzaidan burutik pasa hain laster hegaldatuko zenik. Ez baitzuen bere bigarren liburu hori ikusi ere egin.

Joan etorri hoiien bitartez, Mari, Mattinen andrea ere, ezagutu nuen noski. Bai berak prestatutako jaki goxoak jastatu eta jan ere. Beste gauza batez ere ohartu nintzen: bertso zaharrak Mattinek bezain ongi zakizkiela, beren aire eta guzi. Mattinen osaba zahar Mattin Gariador zenaren berri ere eman zidan.

Beste batean, *Etxe xokotik kantari* liburua prestatzen ari ginela, ni han arribatu nintzen, zenbait puntu galdetu beharrez. Bainan gure lana bukatu baino lehen, Mattin Miarritzerat dializa egiterat ereman behar zuen anbulantza etorri zen. Bera hantxe joan zen, noski; bainan aurretik andreaki gomendatuz nere duda guziak berak argitzeko. Konfiantza osoa zuen, beraz, harekin bertso kontuan ere.

Gertaera edo argibide hoiek Mattinen andrea euskaltzale eta bertsozale suharra zela erakutsi zidaten; eta hori jakiteak ekarriko zuen bere ondorioa.

Mattin itzali ondoren eta *Etxe xokotik kantari* agertu orduko, Mulienera joan ginen, urriaren arratsalde batez, Aranalde adiskidea eta biok, liburu berria eramatera.

Bihotzak duenetik mintzo baita ahoa, Mattin zenaz hasi zitzaigun beraren andrea. Bai guk arretaz entzun ere, denbora berean nik nere buruari honela esaten niolarik:

–Mattin zenaren gertaerak ezin hobeki kondatzen ditu honak. Liburu bikaina egin lezake, hol-hola paperean emango balitu.

Azkenean, haren euskaltzaletasunaren berri lehendik ere bai-bainekien, ausartu ere egin nintzen esatera:

–Errazu, Mari: zergatik ez dituzu hoiek denak izkiriartzen? Mattinen bizia liburu batean, zer gauza ederra!

Honela erantzun zidan:

–Ni ez naiz lan horietarako gauza.

Bainan nik segi:

–Hori nihork ez daki frogatu arte. Izkiria ezazu gertaera bat eta neri igorri. Orduan egi-egia erranen dizut: lan ona bada, aurrera; eta kaxkarra bada, fini. Zuk paperean emanak neronen maxinaz pasa beharko baititut, eta nihor ez baita debaldetan lan egin zale.

Orduan, puska batez pentsaketan egon ondoren, honela galdegin zidan:

–Eta zer gertaera kondatuko dut froga hori egiteko?

Pentsatu beharra orduan neri heldu zitzaidan, eta nolabait ere argi izpiren bat bildu nuen:

–Zuen etxe hontan ohoinak sartu ziren behin batez eta ahal zituzten guziak ereman. Hori zela eta, baditu Mattinek bertsoak emanak. Ohointza hori konda ezazu, Mari, xehetasun guziekin.

Egun hartan horrela partitu ginen. Handik egun batzutara, eskutitz lodi bat etorri zitzaidan. Eta nundik, eta Ahetzetik. Ideki eta irakurtzeari ekin nion. Mattinen etxeko ohointza zen, eta bai ederki kondatua. Nere beste lan guziak alde bat utzi eta maxinaz kopiatzen hasi nintzen. Hartan ari nintzela, nere buruari honela errepikatzen nion:

–Liburu berria badugu, eta ez nolanahikoa!

Handik aurrera, gure arteko har-emanak era hontan ereman genituen: noizean behin ni Mulienera agertu. Mari eta

biok Mattinen gertaera bat edo beste hautatu. Gero, harek hoiek idatzi eta neri igorri. Batzuetan, berari geroztik bururatutako gertaeraren bat ere berdin igorriko zuen. Nik hoiek maxinaz idatzi. Hol-hola jardun gera zenbait hilabetez, zer kondatuak bukatu arte.

Bainan Mattinen andreak bere lana Lapurdiko euskeraz egin du noski, eta ni gipuzkoarra izaki. Horregatik, beharrezkoa zen Bidasoaz ipar aldeko norbaitek liburuari behakoren bat ematea. Emile Larre adiskideak hartu du bere gain zer egin hori. Mila esker!

Bainan ondoren eskaera bat egin zidan: etxeek oinarriak eta zugaitzek erroak bezala, liburuak ere badutela izkutuko lana, eta lan hori nola egina den adieraztea on izango zela, Mattinen etxeakoak eta bion arteko har-emanak bidenabar azalduz.

Eskaera horri erantzun beharrez, aintzin solasa edo hitzaurre hau idatzi dut.

Ez dakit Mari unatuko zen. Nik nerea aitortuko dut: nekerik batere ez eta atsegingarri izan zait lan hau egitea; eta uste osoa dut lan baliosa egin dugula.

Hala, Mattinen andreak nerea izan du lehen gorespena; Emile Larre adiskidearena, bigarrena. Eta segur naiz Euskal Herri osoarena izango duela laster.

Bainan halere gorespenik beharrena falta... Zer bertso kantatu ote dio, irri gozo batekin, zeru gainetik, Mattin gaizoak?

A. Z.

# Bihotzaren barnetik

---

Gogoeta frango eginik, kasik nere buruaz etsitua, nere baitan egin nuen hobe nuela orroitzapen txarrak bazterrerat uztea eta berrixka zonbeit idaztea.

Irakurle maiteak, ez dakit nere kasua konprenituko duzuen: alarguntzea gauza trixtea! Bizi berri bateri lotu behar! Denek badakigu hortaratu behar dugula egunen batez; nehor ez garela lur huntakoak...

Nik ere bizi urosa iragan dut, zuek bezala. Bainan, zorigaitzez, gure Jainkoak bereganatu ninduen nere laguna, bertze dohakabeak bezala.

Ez dut deusen eskasik. Badut etxea, bere alor eta pentze guziekin; behiak, oiloak, xerriak, eta xakurra laguntzat.

Seme bakar bat nere kontsolagarri, prestu eta zintzoa.

Oroz gainetik, ezin ahantzia dut Mattin, nere espos laguna. Mattinen izana eta izena maite nuen errepikatzea! Maite nuen ere haren dohaina! Orai akabo betikotz haren irria, harek kondatzen zituen ixtorioak... Ez dugu entzuten gehiago haren boz ozena!

Askotan egoiten naiz bakarrik. Zer egin? Zer erran? Eta nori? Nigar xorta bat egin eta denak pasatzen dira... Aments bat balitz bezala, iratzartzen naiz eta lotzen idazteari.

Zuek, irakurleak, plazer balin baduzue nere artikulu xume hauk irakurtzea, aitor dautzuet nere bihotzaren barnetik eginak ditudala. Erran dezaket ez naizela profeta. Urrun da hortarik. Halere eskaintzen dautzuet nere lana deneri...

*Mari Treku*

# Lehen urteak

---

1916-an, urriaren hamekan sortu zen Mattin Ahetzekoa, Harrieta laborari etxean.

Bazituen bi arreba, Mari Terexa eta Mari Luixa. Biak ezkonduak dira aspaldian.

Burrasoak, Pantxoa aitak eta amak Mayi Jeanne, hauek ere zenduak orai.

Zonbeit urte etxe hortan iraganik, Mattinen burrasoek deliberatu zuten joaitea handik berrehun metra urruntxago, aitonak erosi etxe tiki batetarat, Kaxandegia deitzen dena.

Bizi moldea sanjatu zen orduan. Aitak gan behar zuen lanerat. Harrobian aritu zen urte batzuek. Nola hargintzan baitzuen jokoa, langile gisa ibiltzen zen jornamean.

Ama, berriz, josten. Maxina buru gainean ezarririk, hurbileko etxetarat gaten zen.

Mozkina gutti zen: behi baten hazteko manera bakarrik.

Hiru haur eskolarat gaten ziren. Eskolatik etorri eta behia behar zen soroan zaindu.

Behin batez, betroin tzar hura susara gertatu zen. Erhoturik, hauzoko behien artean zabilan lasterka.

Mattinek orduan zazpi urte zituen, eta behi debru hura ezin atxeman.

Hor arribatzen da aita lanetik, kexatua:

–Nun da gure behia? –galdegiten dio amari.

–Ez dakit. Hementxet zen duela bortz minuta.

Aitak:

–Orroaz senditzen dut. Nun da Mattin?

–Bere liburuak hartuta, irakurtzen ari zen penttokaren gainean. Ez zazula larderia –erraiten dio amak.

–Ez larderia? Ikusiko dugu. Ez banau animale hura iluna gabe bere tokian sar arazten, sarri zafraldi bat ona merezitua izanen du.

Ez zuen maite Mattinek bere aitaren kolera tzarra. Izitu egiten zen. Zer egin zuen orduan?

Lasterka joan zen, iluna izana gatik, Harrieta etxe hartarat. Ate aintzinean etzan zen bi zakur handiren erdian. Zakur heiek ez zuten saingatu, ezagutzen baitzuten. Mattinek bere baitan egiten zuen:

–Hemen behar ote diat gau guzia pasatu?

Ilargi xuri ederra zen. Boz batzu entzuten ditu urruntxago: aita eta ama haren ondotik zabiltzan. Behiaz baino, griña gehiago bazutela memento hartan!

Zakurrak ere, urratsak senditzearekin, xutitzen dira eta saingaka lotzen. Burrasoek pentsatu zuten beren gau xoria hurbil zutela, eta ikusi ere.

Amak hartu zuen besoetan. Musu emanik, presaka bazoan, lo iterat behar zuela ereman. Lo zagon ba alegia, bi begiak hetsiak. Senditu zituen goizeko lau orenak jotzen herriko elizan. Aita ere, ikustearekin trankildu zen. Bien artean ohean eman zuten. Beti lo, azeria bezain abila zen ordukotz.

Herriko erretorak ere biziki maite zuen gure Mattin. Meza-ren laguntzeko beretter hartu zuen. Ez baitzuen beti obeditzen haren erraneri, aserretu iten zen gure erretora eta erraiten zion:

–Mokokatzen haut frangotan, bainan hire onetan duk.

Ez zuen geroztik ahantzia haren errana. Haurra danik izpiritu argikoa zen.

Herrian eskol emaileak usu sanjatu egiten ziren. Getarian bazuen osaba bat. Ainitz okupatzen zen Mattinez. Egun batez erraiten dio:

–Behauk etorri Getariarat eskolan ibiltzeko. Hemen ez duk deusik ikasiko.

Baietz hitzemanik, badoa harekin.

Lehenbiziko astean, gure mutikoa frango prestu egon ziztaion. Osaba kontent.

Bainan gero gure Mattinek lagunak egin zituen han ere. Pilotan artzen zen eskolatik lekora. Halere frango tenorez sartzen zen osabaren etxerat.

Osabak bazuen magasin bat: liburu, plaiako puxka kategori guzietakoak, eta partikulazki egun guzietako jurnalak. Hoik egun guziez behar zituen etxetarat partitu.

Mattini egun batez erraiten dio:

–Hik, pilotan artzeko orde, eskolatik lekora behar nauzkik jurnal hoik etxe hoitarat ereman.

Gure mutikoak, ez baitzakien errefusatzen, hitz eman zion deskantsuan egoiteko, inen ziozkala.

Bainan noiz? Eskola finitu ordu, bere lagunekin badoa pilotan artzera, bere jurnalak pareta xokoan emanik.

Iluna etorri zen. Etxetako atea hetsiak. Harturik bere eskolako zakua bizkarrean eta jurnalak beso azpian, badoa etxeari buruz.

Osaba han zabilan harat eta hunat kexu kexua. Izebak sukaldetik:

–Ez ahal du min hartu bederen!

–Min hartu? –dio osabak–. Heldu delarik nik irakutsiko diot nola obeditzen den. Eta jan gabe gaineko selauerat igorriko dut bihar goiz arte.

Etxe haren aintzinean bazen berro luze bat eta, ez baitzen Mattin hain handia, xoko xokoan plantatu zen, ikara zuela sartua gorputz guzian. Osabaren oihuak! Zakarra zen inprostean eta harek izitu egiten zuen.



Elektrikako argi handi batek argitzen zuen etxe ingurua; eta, ez zuelakotz argi ikusten alderdi guzietarat, hartzen du sakelako lanpa ttiki bat eta zer kausitzen du? Mattin harrিতua, hari begira!

–Zer ari haiz hor?

Gezur bat pentsatu behar eta erraiten dio:

–Ori: eskolan puni nintzen berandu artio, eta ez nuen bigarren bat izan nahi zure ganik.

–Ganen haiz lo iterat jan gabe. Eta bihar, Uharteko Maria-narekin, merkaturat jinen baituk zaldi karroarekin, harekin igorriko haut etxerat, letra bat eskuan, amari emaiteko.

Gure mutikoa umil umila gan zen selaururat. Eta biharamunean, goizik ernatuta, Ahetzeko bidea hartu.

Mattinen burrasoak ez ziren harritu. Hain zen mutiko debrua, eta osaba gainerat prunta.

Hamabi urtetan eskola utzi zuen Mattinek, eta bere aitarekin plazako etxe batean sartu ziren.

Han bazen gizon adinetako bat, ximple aire bat zuena. Han baziren behiak, eta lanean jokatu ziren, xahar haren hazteko. Dirurik ez zuen nahi; hazi bakarrik.

Goizetan, sega bizkarrean harturik, bazken pikatzerat gaten zen gure Mattin. Gero, baratzean ziren porru, aza, ilar, denak jorratzen zituen. Gizon gazte egina zen orduan.

Gostuko lekuan sartu zen Ahetzeko plazan. Ahal zuen guziez, pilotan artzen zen. Aitak ere maite zuen pilotako jokoak. Ekipak muntatuta, lau lagunetan usu ikusten ziren plazaren erdian. Izerdia heldu zelarik, ostatua hurbil zagon egarriaren kentzeko. Adinetako jendea etortzen zen orduan, arno xorta baten edateko konpañian.

Frangotan kanpotik entzuten ziren kantuak. Baziren ere pertsutan artzen zirenak. Denbora hetan hasi zen Mattin pertsu batzuen moldatzen.

Hogoi urte betetzean, soldado gan behar. Ez zen lotsatu. Bertzek iten zutena, inen zuela harek ere. Aitak eta amak griña bat bazuten, ez zelakotz etxetik urrun ibilia.

Rochefort hirirat deitua izan zen. Usu igortzen zituzten berriak elgarri. Beti berri onak emaiten zituen. Sos pixar batzu aitak igortzen ziozkan. Ez zuen pipatzen, bainan maite zuen lagunekin ateratzea.

Kasernan zen komedia. Ez zen usatua bere soinekoen garbitzen, eta han egin behar, ez bazuen nahi punitua izan.

Behin batez, soldadoen salan zabilan aintzindari bat larde-riaka, behatzen zapatek dirdirutzen zutenez, arropak ongi plegatuak ziren...

Hain zuzen, gure Mattinek paltoan bazaukan botoin bat eroria. Suertez atxeman zuen. Paltoa eman zuen ohearen gainean xabal xabala, eta botoina eskas zuen tokian pausatu, baterere josi gabe.

Aintzindaria pasatu zen agur bat eginez, erranez kontent zela, ikusiz gauzak behar den bezala emanak.

Soldado bat omen zen, hura beti ezin aski ongi muntatuz ari zena. Ohea eta arropak ongi moldatu ondoan, lagunek urratu ziozkaten, bisitatzeko tenorea jin zenean. Gaizoari aste baten permisionea kendu zion aintzindari gaixtoak.

Gerla hasi zen. Denak izituak ziren. Nihork ez zuen guardian egon nahi kanpoan. Alemanek tirokatzen zituzten bazter guziak.

Mattini proposatu zion soldado batek egonen zenez guardiako; emanen ziozkala zonbeit sos.

Harek kuxean on hartu zion, eta egotu gau guzia, baterere beldurrik gabe.

Argitzean, Mattinek laguneri erran zioten:

–Zuek bezalakoeri nik erraiten diat: birika zuriak! Birika zuriak! Gizonak behaik odol pixka bat zainetan!

Kapitain jauna han zabilan begitartea ilun, eta buruz buru egiten du Mattinekin.

–Jauna –dio erraiten Mattinek–, bertze baten partez, nik pasatua dut gan den gaua guardiako. Bazen, ba, bonba alde guzietarik. Halere bizi naiz oraino.

–Xantza duzu zuk bederen. Nik semea galdu dut. Burua bala batek jo dio.

–Handia zen zure seme hori?

–Ba. Bi metra hurbiltzen zituen.

–Ori. Haren ordain izan banintz, aise pasatuko zen bala hori nere gainetik.

Bi urte soldado eginik, sartzen da etxerat. Handi baino zabalagoa zen. Ez zion armadak kalterik egin. Kapitainak ere erran omen zion partitzean:

–Ixtantean pirripitaka joanen haiz, bula bezain arrunda haizelakotz.

Kezkak hasi zitzaizkon eta lanean lotu zen. Sosa biziki maite zuen. Soldadogoan baztertu diruarekin bizikleta erosi zuen. Ainitzek han berean denak gastatu iten zituzten. Mattinek ez. Geroaz orroitu egiten zen.

Osaba Josepe kantoniera zen. Harekin ibiltzen zen bide antolatzen. Behiak uztartu, arkaira gibeletik, hizatzen zen gainerat, akilua eskuan xut atxikiz.

Zonbeit kantu entzunak bide hoitan zabilalarik. Etxeratekoan boza azkartzen zuen, eguna konplituia zuela erakusteko.

Laborari etxe gehienetan eguerdiko salda hartzen zuen. Nun jotzen baitzuen Angelus eta han xuxen gelditzen zen. Bere tresnak pausatu eta behieri belar puxka bat eman.

Gero, deskantsuan bazkaltzen zuten osabak eta biek. Beti sukalde sanja zuten. Etxe guzietako problemak jakiten zituen. Segur kontseilari ona zaukaten berekin. Denen antolatzeari artzen zen. Gero utzi zuen kantoniergoa.

1940-an Mulienea erosi zuten.

–Ai Mulienea! –erraiten zuen–. Hemen pasatzen ditut nere biziko egunik goxoenak.

Handik laster, Jangurdoineko familian sartu zen eta hango alabarekin ezkondu. Alaba hura ni nintzen.



Mattin, soldadogoan.

# Espos lagunak

---

Hamalau urte nituen, eskolako etsaminak bururatu nitue-larik.

Orduan ez baitzen ofizio handirik gure eskualdean, burra-soek seroretarat igortzen gintuzten josten ikasteko.

Baginen hamar bat nexka gazte, elgarrekin gaten ginenak. Ahetze herrian ziren serorak orduan.

Eguna konplitura, etxerat buruz jiten ginen denak. Batzu dena ixtorio, zeren barne hartan ez baitzen sobera jostatu be-har.

Erran behar da ere Ahetzen bazela errota xahar bat. Jendea frango ibiltzen zen bihia ehotzen.

Denbora hartan gerla ondoa zen. Etxe gehienetan ogia be-rek egiten zuten.

Orduan nuen nik ere Mattin ezagutu. Maiz bazuen errota-rat gateko estakurua. Urrunetik entzuten ginuen haren kantua, zeren gure tenoreak xuxen segitzen zituen.

Ordu hartan gure ateraldia igandetean bezperetarat joaitea zen. Handik lekora mutil gazteak pilotan artzen ziren. Guk ere maite ginuen pilota jokoa.

Horra nun partida batean nor ikusten dugun? Mattin!

Hasten da ponduen kondatzen, eta guk ere hurbildu behar ginuela. Haren atakatzen hasten gira:

–Eta zu zer ari zira gure herrian?

–Zer ari naizen? Pilotako estakuruan zueri begira.

Eta nion galdegin:

–Zoin da hemen zuri gustatzen zaitzuna?

–Erran gabe doa, zuri behako bat emaiten nuen.

Halako ahalge bat eman nintuen memento hartan, bainan utzi ginuen elgar ondoko igande artio.

Igandea etorri zenean, lagun batzuek galdegin ninduten Mattin ezagutzen nuenez. Pertsu batzu bazituztela egin arazi beharrak.

Nik baietz, eta gan nintzen haren etxerat.

–Hela! –nuen egin–. Mattin etxean dago?

–Ez, ez da etxean, bainan mezan da orai. Ikusi nahi duzu? –erran zautan Mattinen amak.

–Bai segurki.

Bi minuta gabe horra gure gizona gorri gorria, bere bizikletean etxerat heldua. Bere amari erraiten dio:

–Ama, huna zure erregin beharra. Zer iduritzen zaitzu?

–Ba, hik laster egiten dituk harat hunatak. Ikusiko diagu ondoko egunetan egia dukanez.

Mattinek neri buruz:

–Nun ibilki zira hemen? Galtzea irriskatzen duzu leku huntan.

–Ez; zure bila heldu naiz. Baditut lagun batzu zure beharretan direnak, pertsu batzuen emaiteko. Jin nahi duzu nerekin gure etxerat?

–Jin nahi dutan? Segurki! Bainan zure ama zer gisetako emaztekoa da? Omore onekoa, mokorra edo zer? Aitak ez du makila ate xokoan izanen?

–Ez; ez izan beldurrik. Bazkaltzerat gonbidatzen zaituzte. Ez duzu, hain segur, estimu eskasik izanen.

Arribatzen gira burrasoen gana. Jende frango bazen egun hartan. Denek ezagutzen zuten Mattin.

Bere begi maltzur heiekin ohartu zen kuxean ez zela gaizki erori.

Bazen kantu; pertsuak ere bota zituen han zireneri.

Gero, denboraren buruan, eman zituen galdegin ziozkaten Senpereko pertsuak.

Gure Mattini gustatu zitzaion gure etxeko animazionea. Igande oroz heldu zen agur baten egiterat.

Amari galde batzu egiten ziozkan nitaz. Haren erran guziak gogoan zauzkan ahantzi gabe.

Gero zer gertatu zen? Hamazazpi urte konplitu nituen. Biak elgarren amodioz bete ginen. Harek hogoita zortzi orduan, eta galde hau egin nintuen:

–Orai ene emazte gaitzat nahi duzu izan?

Hitz eman nion segurki baietz.

–Usaia den bezala, behar dauzkitzut egin erreztuna eta beharrietako girgileria hoiek.

Baionan erosi ginuen gure urreria. Lagun bat atxemaiten du karrika batean:

–Nun hintzen, Mattin, nexka gazte horrekin?

–Nun nintzen? To, mutikoa! Nituen sos guziak hunentzat emanak ditiat bijuterian. Gostatzen duk ederki andrea hartzea. Ez zakiat berak ere balio dikan hainbertze.

–Ba! Maite denarentzat ez duk sekulan deusik sobera. Eta nun izatu haiz hunen bila?

–Nihun... Bera etorri duk ni beharrez.

Eta irriz hanpatu zen.

Hogoi urte betetzean esposatu ginen. Familia osoa etorri zen eztaietarat. Laur hogoi presunaz goiti bildu ginen Mulie-nean. Bazkari, afari, denetarik bazen. Musika, denen airoste-ko. Zahar eta gazte denak dantzan arizan ginen, goiza argitu arte. Gure biziko egunik ederrena pasatu zen.

Mattinen desira zen familia eder baten muntatzea. Malur-ski, ez zen hala gertatu. Haur bat gelditu zauku.

Lagun bat bezala zaukan bere semea. Zonbat gauza ziozkan erraiten!

Bai; egiazki denentzat Mattin izan da, aita familiako bat bezala, lagun baketsua, haren bizitzan. Etxean, kanpoan, beti agertu da bihotz onekoa. Haren itxura ez da histuko sekulan.

Mattin, zuk ina duzu mundu huntako pasaia.  
Hoin gora zira! Luzea ahal zen piaia!  
Izar artean bazaude, hartzen dut nik kuraia,  
zeruetan ukaitea merezi duzun saria.

Batzuek dute gizon ederretan gostua.  
Ni, berriz, egarri nintzen zinuen izpiritua.  
Kurriturik ere Eskual Herri xokua,  
ez nuen atxemanen, hain segur, zu bezalakua.

Pulliki hasia dut unatzen burua.  
Ez bada interesatzen nere liburua,  
fuilla bakotxa hartu eta eman zazue, otoi, sua.



# Nere berri

---

Ni naiz Mari Treku, Mattin pertsulari zenaren emaztea, 1927-an sortua Senperen. Nork ez du ezagutzen herri maitagarri hori? Alderdi guzietarat zabaldua dago, oihan handi baten erdian. Udaran milaka bakantzatier jiten dira egun goxo batzuen pasatzera, eta egina duten lakuan freskatzeko, nahiz ez dutan nik luzaz gozatu nere sort lekua.

Neska koxkorra nintzelarik, jin ginen Arbonarat, nere aita zenak eresia zuen etxe batetarat. Jangurdoinea zaukan izena.

Bi alaba zituzten bakarrik, Arbonarat jin zirelarik. Seme baten ukaiteko zoriona izan zuten nere ondotik, bainan aingeru eder hura gure Jainkoak bereganatu zuen.

Sei urteren buruan bi bixkiak sortu ziren: bi neska. Gure amak bazuen zer egin! Halere ez zen deskuraiatu.

Eskolarat joaiteko adina etorria nuen, bainan deliberatu zuen urte bat gibelaraztea. Nere pena! Hauzoko lagunak ikusten nituen, elgarrekin jostatuz, eskolako bidea hartzen, beren zakua bizkarrean, liburuz betea.

Etxean banituen nik ere behar ziren liburu guziak eta kaxima ttikia, bainan bakarrik ikusten nuen nere burua. Iduritzen zitzaitan lanez kargatua nintzela. Bi haur ttipiez okupatu behar. Ez zen heiekin jostatzerik. Nigarrez lotzen zirelarik, nolaz kotsola?

Karroan emanik biak buruz buru, amak manatzen nintuen heien ibiltzeko etxearen inguruan, kasu eginez ez uzkailtzeari. Egun batez, ama xuriketen egiten ari zelarik, ohartu zen kolera gorrian nintzala, eta oiuhu egin nintuen:

–Kasu emazu! Paretaren kontra ez joan! Botatuko dituzu zure ahizpa ttikiak!

Bainan ni beti tentatua pareta hura jo beharrez. Hainbertzerekin, nere karroa erortzen da sahetsaren gainerat. Bi haur tikiak lurrean eroriak ziren, orroaz ari...

Hain xuxen, bazuten lapin marmutxa bat arras polita jostatzeko, eta hura *Patu* hauzoko zakur beltz handiak hartu ta ereman zuen. Lasterka abiatu nintzen ondotik, nere lapinaren kentzerat zakur gaixtoari, orroitu gabe haurrak lurrean nituela.

Nikolaxa, hauzoko emazte bat, ur freskoaren bilat heldu zen gure etxean zen surtsarat. Ohartzearekin nere lasterrak, galdegin nintuen:

–Norat zoazi hola hats hantua?

–Zure Patuk hartua du nere lapin pullita eta kentzera noa. Zu, Nikolaxa, zoazi bi bixkien altxatzerat. Lurrean dire eroriak.

–Eroriak? Ama nun da?

–Ama xuriketen egiten...

–Zato etxerat, xakurra utzita! Zafraldi bat merexi zinuke!

Izituta egotu nintzen berro xokoan, Nikolaxaren errana gogoan. Etxerat heltzean, ama han zagon, bi haurrak besoetan, ezin kontsolatuz, beren kopeta guriak uspel batzuekin ziztuztelarik. Ez nintuen larderiatu. Ikusi zuen penatua nintzela. Sei urte nituen doi doia...

Zazpi urte kunplitzean, eskolan abiatu nintzen. Harrituta egotu nintzen urte bat ni baino lehenago hasiak zirela eta kasik deus ez jakin. Nik etxean amarekin ikasia nuen irakurtzen eta idazten.

Lehenbiziko punimendua izan nuen sobera jakinik. Bertzek hitzik ez zuten ongi erraiten, eta orduan hasten nintzen lagunen partez errepostuaren emaiten. Gure errientsak besotik hartuta eman nintuen ximineraren barnean, eta utzi oren bat bederen, saguak nere ondorat etorri arte erranez.

Zer orroak! Eskapatzen ahal izan banintz, segur izaiten ahal zen ene errientsa, ez ninduela biharamunean berriz ikusiko. Geroztik konprenitu nuen bakotxak beretzat ikasi behar zuela.

Plazer gehiago nuen katiximarat joaitea. Eskuaraz osoki maite nuen irakurtzea. Gure erretora hain zen prestua eta bihotz onekoa!

Komunionea egin nuen hamabi urtetan, 1939-an, gerla hasteko urtean. Ez zen bertze urtetako komunione eguna bezalakoa izan. Jendea dena trixte zagon. *Mobilisation general* egin zuten kuxean.

Aita familiako ainitz partitu zen gerlarat. Zonbat nigar! Menturaz sekulan ez gehiago ikusteko esperantzan. Haur ainitzen bihotzetan orroitzekoa izan zen beren komunioneako eguna.

Geroztik gauzak ainitz kanbiatu ziren. Miseria agertu zen. Gauza guziak kartan eta gainerat negurtuak! Gure gazte denbora erran ditaik ez dugula hanbat dirdiran ikusi.

Halere ez gira asko griñatuak ibiliak. Gure etxe xokoetan deskantsuan egoiten ginen. Laborariek ogi eta arnoa, urtekoa, biltzen zuten. Hauzoak usuago elgarretaratzen ginen, eta denek batean, elgar lagunduz, bizitzeko manera nunbeitik ateratzen ginuen.

Erran bezala, Senperen sortu nintzen. Bainan hogoi urte konplitu arte Arbona herrian iragan ditut, nere haur denboratik adin hortarat heldu artio.

Haurtxoa nintzelarik, banuen hauzoan nere adineko mutiko tiki bat, guziz maite nuena. Prestua zen, jostagina; gainerat ohartu nintzen gazterik bihotz oneko laguna nuela.

Elgarrekin eskolarat joaiten ginen. Kasko abileko mutikoa zen. Kontuetan ez zena soberarik tontoa. Ni, aldiz, askotan duda batek hartzen nintuen, ez bainintzen fida egina nuen lanaren gainean.

Bainan banuen konfientzia bat osoa nere lagun ttikiaren baitan, eta frangotan galdegiten niozkan esplikazione batzu eskolarat sartu aintzin. Ez bainuen larderiarik maite nere profezurraren ganik. Beñat ttikiak egin ahalak egiten zituen neri satifamendu baten emaiteko.

—Errazu, Mari —nintuen erran egun batez—. Ez dakit xuxen eginen ditudan egiteko ditutzun konduak. Nere aita ni baino abilagoa da. Zato gure etxerat. Harekin ikasiko duzu. Menturaz, biak elgarrekin izanez, gauzak hobeki sesituko ditutzu.

Geroztik egun guziez joaiten nintzen Beñaten etxerat. Aita herriko auzapeza baitzen, ez nuen egun guziez kausitzen; bainan semea han zen. Semeak aise ikasten zuen, nahiz ez zen kontseilu eskasian egona. Nolako aita, halako semea. Denek maite dutena.

Familiako gizon arrarua, badu andre bat xarmanta. Seme eta alaba errespetuz altxatuak. Etxean holako estimua duen gizonak, ez ote du bada herriak estimatzen ahal? Uste dut, nere partetik, zerbitzu egiteko familia ainitzek frogatu zutela horren borondate ona.

Nik ere baditut zuri, Beñat, eskerrak bihurtzeko. Zu izan zare nere nahigabetan eta behar orduetan nere laguntzaile lehena. Zure bihotz onari esker ateratu naiz kenka txarretarik. Eman nauzun kuraia eta esperantza, zutarik berriz sortu zauzkit. Zor dautzutan errespetu eta estimuarentzat, milesker, Beñat.

Urteak joan ziren eta horra nun hogoi urtetarat heldua! Nere ezkontzako adina etorria. Ezagutzak egin nituen gazterik Mattin Aheztarrarekin. Zonbeit itzuli eginak Mattinek nere ikustera, Jangurdoinerat.

Ez beti kuraia handirekin. Alemanez estaliak ginen memento hartan, eta ilunduz geroz argiak estali behar ziren. Noiz nahi bidetan patruillak baziren oinez ibilki, eta atxemaiten zizutzenak gaztigatzen zituzten, askotan bortizki.

Egun batez, nere ikustetik etxerat zoalarik gauerdi inguruan, bizpahiru alemanek arrastatu zuten Mattin. Batek bazakien pixka bat frantsesez mintzatzen eta galdegin zion larderia batekin:

–Nundik heldu zare tenore huntan?

Gure gizona ez baitzen arras beldurtia:

–Nere emazte gaiaren bisitaz joana nintzen.

–Kasu egizu bertzaldi batez! Atxemaiten bazaitut, zureak egin du!

Mattinek bere baitan:

–Nereak egin? Ikusiko diagu! Goizago erretiratuko naiz.

Hortan gure alemanek segitu zuten beren bidea.

Horrengatik ez ginen lotsatu eta deliberatu ginen esposatzerat. Gerlak bazterrak murrizturik ere, xahal bat ederra bazen Mulienean. Hura hil zuten eta laurogoi lagunek bazkari bat egin. Gainerat musika soinuan.

Geroztik egun ederrak pasatuak; trixteak ere bai. Trixtezian ez zen egon behar gure Mattinekin. Malur zerbait ikusten bazuen, kuxean bazuen arrazoin bat haren estaltzeko. Bainan orai Mattin hila dugu. Satifamendu bat utzi gaitu halere. Sინeste handikoa zen. Bertze munduak ez du lotsatu. Gure Jainkoaren deia gogotik on hartu du.

Guk, ama semeek, zonbeit aldiz senditzen dugu haren eskasa. Hura zen gure gidaria. Harekin uros bizi ginen. Gure nekeak, gure trabak hari agertzen ginituen. «Orain ere hor baginu –dugu errepikatzen– gure ilunbetarik kentzeko!».

Gure etxea ixil ixilik dago, arbola eihartu hostoetarik berexia bezala. Agian etorriko den udaberriak berriz piztuko gaitu! Badaukat esperantza!...

# Andredena Mariaren kapera

---

Maiatza, urteko hilabeterik ederrena, akabatzen da. Andredena Mariaren otoizteko sasoina dugulakotz, gazte ginelarik, eta geroztik ere, usaia zen Bidarteko eta Ainoako kaperan ibiltzea.

Neska eta mutil, denak oinez joaiten ginen. Ez baitzen ordu hetan, orai bezala, autorik ibiltzeko. Bazkaldu ondoan, gazte andana bat elgarretaratua, edo Arbonatik edo Ahetzetik, alergeraki egiten ginuen gure piaia.

Esposatzeko urtean, maiatzetik uztaile ez baitzen hain urrun, kaperarat joaiteko Mattin gurekin hartu ginuen. Kilo-metrak ez ginituen senditu pasatzen, zuen omorearekin.

Kaperan arribatu orduko, han zen jaun bikarioa. Arrosorioa oso osoa egiten zen, eta denek elgarrekin kantatzen *Ave Maria*. Jendea biltzen zen metaka deboziora hortarat.

Handik ateratu ondoan, bazen denetarik, dela jateko, dela edateko klase guzietarik.

Ostatu ttiki bat moldatzen zuten aterbe batean.

Nola gure jaun espos beharrak toki pollit horiek maite baitzituen, gonbidatu zituen gazte andana bat edatera berekin.

Eta gero zer egin zuen? Han zirenak bere esposetarak gonbidatu. Denek lorietan on hartu zuten, zeren gure denbora hetan ohore bat zen gazteentzat holako egun baten zelebratzea.

Eguna jin zenean, ez zuten ahantzia uztailearen bederatzia. Hor ziren denak jinak, erran bezala, tenoreko, eta besta eder bat iragan ginuen orok batean.

Geroztik gazte andana bat esposatu zen.

Gu ere izan ginen heien esposetan, ez Bidarteko kaperan gonbidaturik, bainan Mattinen etxerat jin ziren gauza beraren ordaintzeko.

(Airea: *Prima eijerra...*)

Aro ederrak pizten dauku bihotza,  
penen histeko hori behar baita.  
Harturik lapitza, ari eleketa,  
iduri poeta,  
beti trixtezian bizitzerik ez da.

Maiatzeko lore eder xuri xuria,  
zure kolorea da paregabia.  
Usain goxo batez zira hedatia,  
emanez grazia,  
otoiztu dezagun zeruko Maria.

Birjina Maria, beira otoi fedia,  
zure beharretan da hemen jendia.  
Zarelakotz beti zu garbi garbia,  
arropa xuria,  
distiratzen duzu zuk mundu guzia.

Orroitu gaitezen hil diren arimentza,  
gure beharretan menturaz dabilta.  
Elgarrekin bilduz nahiko laguntza,  
eginez otoitza;  
fededunendako jin zauku maiatza.

# Mulienea

---

Ahetzeko Mulienea etxea nun dagoen? Hantxet kasko kas-koan. Alde batetik, Larrun mendia bisean bis; eta, bertze aldetik, Bidarteko eta Getariako itsasoari begira.

Etxearen izena? Mulienea. Haize errota izanen zen, hain segur, denboraz, zeren *Moulin* baitu izenaren hastapena. Izan dadin haizea hego, itsas, iduzki aldetik, denek airatzen dute etxearen ingurua.

Goizeko iduzkia agertzean, halako bozkario bat senditzen da gure bihotzetan. Halaber, ilun nabarrean, denak ixiltasunean biltzen gaitu gauaren beltzak gure sukalde xokorat.

1947-an, uztailaren 9-an, ezkondu ginen Mattin eta biak. Haren aita eta amarekin bizitu ginen hiru urte ta erdi. Labo-rantzatik bizi ginen lauak. Bizitza goxo bat ereman dugu elgarrekin. Egun guzia lanean ariturik, aratsa heldu zenean, kartetan artzen ginen, sos pixka bat jokatu. Jokoari gustu gehi-ago atxemaiten ginuen, zerbeit purruxka irabaziz. Artetan ixto-rio zonbeit ere kondatzen ginituen.

Negua zelarik, gaztainak suan emanik, aritzen ginen zoi-nek hobekienik erre. Gero, Mulieneko arnotik edan baso bat edo biga, berdin xahakotik ere. Gure aratsetako filma hola ira-gaiten zen. Denbora hetan ez zen ez telebisionerik, ez eta ere radiorik. Jurnalak noiztenka erosten ziren berrien jakiteko.

Urteak joan ziren eta Mattinen burrasoek gan behar zuten bertze etxe batetarar, xahar baten artatzeko. Orduan ziren ko-mediak! Bi gizonak elgarrekin lanean arituak uzta bildu ordu-ko, semeak amor eman behar. Aitak berekin ereman zituen etxeko gauzik hoberenak, eta Mattin gelditu zen bi behi txar-rekin.



Halere, beti Mattin izatu baita *Mattin kokin*, gauzak arri-matzerat entseiatu da bere denboran.

Lanean ez zen erho hetarik, baina beti buruz jokatzeko zen. Lan bat zelarik itekoa, bera ganen zen aintzinean, ez bazuen finituko ere. Hura ganez geroz, bazakien guk ere segituko ginuela eta noizbeit xantiera bururatuko zela.

Maite zuen arbolak xertatzen. Mahastia gostura apailatzen zuen. Behiak sororat libratu eta loriatua egonen zen heien artean. Zonbeit aldiz, bere animaleak udan kanpoan uzten zituelarik ilargi xuritan, kantuz errepikan artzen zen, bularren egiteko. Hauzoak ere entzuten egoiten ziren haren boza ozenari. Gauaren ihintzak ez zuen lotsatzen. Behar zuen baitezpada kantatu.

Erran behar da Mattinek ile mozten ere bazuela alderdia. Eskolako haur andana bat ere etortzen ziren haren ganat. Maite zuen heien artean. Bazuen beti zerbeit ateraldi heikiekin:

–Nork moldatu hauzki bi beharri handi hoiak?

Edo mihi motza zuen bati, ausikian moztua zuenez, luze-egi zuelakotz. Beti jostakina zen.

Hauzoko adinetako gizon batzu ere jiten ziren gisa berean ile moztera. Gure arnoaren goxoa jastatzen zuten solasen artetik.

Ene aita zenari ere Mattinek mozten ziozkan ileak. Maite zuen ene aitak bere suhia atakatzea. Bazakien, zerbeit erranez geroz, handiagoak entzuten zituela. Behin batez aitak galdegin zion:

–Nolakoa duk ene alaba hau hirekin: prestuxkoa edo mokorra?

–Ori; ez dakit, egia erraiteko. Baina ileak moztekoak dituzularik, zato, otoi, astelehenarekin. Adituko duzu eian ez dakien pertsutan. Berak egiten ditu galdeak eta erreputak.

–Inposible duk! Lehen ez zuan holakoa.

–Lehen ez, orain bai ordean. Bainan laster pasatzen zaio. Erauntsi handiena pasatu arte egoiten naiz, eta gero bera kalmatzen da. Horren gatik, bihotz ona du, ba, zure alabak. Sobera denbora ez du maite koleran egoitea. Kuxean hasten zait galdeka: gose edo egarri naizen... Nola egin dutan itzulia... Jendea kontent utzi dutanez... Erraiten badiot han zen populu guzia tripak ateraia irriz arizan direla, bera ere hasten da, han izan balitz bezala. Ikusten duzu, beraz, ene aita maitea, nola drezatzen diren emaztekiak?

–To! Xantza duk, egiten ahal baduk hola. Ez ditek denek hik bezala erraiten ahal.

Hortan biek elgarri behatuz, irriz hanpatu ziren. Bai; Martinek ere astelehenetan pertsuak aiseago ibiltzen zituen buuruan, bai eta botatu ere menean zitueneri.

Kontent izaiten zen, norbeitek galdegiten bazuen pertsuen kantatzeko.

Pertsutako lanak bizitzen laguntzeko abantail handiak eman diozka, ez bakarrik gure probentzietan, bainan bertze aldeko probentzietan ere, hala nola Gipuzkoan, Bizkaian eta ez dakit nun.

Mattinentzat ez zen mugarik. Denak anai arrebak ziren harrentzat. Beti erraiten nintuen:

–Nik bertzaldean baditut hemen baino adixkide gehiago. Egun batez, Mari, ikusiko duzu: ni han geldituko naiz.

–Eta nik zer egin beharko dut?

–Hola hola segitu zure lanetan.

Bai; maluroski hala gertatu da. Ama semeak hemen gaude biak, trixtura gogoan. Histuko da beharba... Bainan sekulan ez ahantziko!

Mulienea gure etxe maitea! Zonbat adixkidek zaituzte bisitatu! Lau alderdietako haizeek inarrosten zaituzte; bainan zu beti hor zaude xutik, aurdikitzearen beldurrik gabe.

Barnerat sartu eta kaiola batean bezala iduritzen zauku, xoriak beren ohantzerat biltzen diren bezala. Gure biziko zor-tea zurekin iraganen dugu.

Erran dezagun, etxeko semea mundurat jin zenean, zuk entzun ditutzula haren lehenbiziko nigar eta irriak. Haurraren urratsak hazkartuz zoazin, zure paretaren kontra, goizeko iguzkiak berotzean.

Semea handitu zelarik, eskolarat joaitean, iduri zuen behatzen ziniola, zure ate eta leihoak zabalik idekiak zirelaketz, berantetsia bezala arratsean berriz elgarretartzeko.

Arrotzek ere maite dute zure bisitatzea, alde guzietarat duzun bista zoragarriaren gatik: mendi, itsas-bazterraren ferdea eta oihan ederrak inguruan.

Eguberriko izarrek zuten dirdiratzen,  
misterioaren misterioa zutela erakusten.  
Hedoi artean zeru ederra gorri gorria agertzen,  
iduri zuten Mattini buruz zirela hurbiltzen.

Gau erdiko mezan zer bozkarioa,  
orok betan kantatuz beren laudorioa!  
Egun hoi izan zen ezin ahantzizkoa,  
bakotxak irakutsiz bere amodioa.

Jesus Haurra agertzean dugun errespetea,  
Haren ondoan otoitzean gaiten belaunika.  
Gu guzien arimentzat beharrezkoa baita,  
azken eguna jitean ez egiteko *mea culpa*.

Idazten ari bainaiz nigarra begian,  
ezin gelditua zait jausten zaitanian.  
Nahi baitut segitu hasten naizenian,  
Mattinek ikus dezan zerutik agian.

Papera busti gabe banoa ohera,  
lana eta nigarra utzirik aldera.  
Argiak ezartzen nau ni maiz alegera,  
aratsez behar baitut segitu sail bera.

Otoitzez ari nauzu Jainko maiteari,  
ilunbean direner eman dezan argi.  
Loria gaiten denak hor da Eguberri,  
denek adoratzeko Jesus ttiki hori.

Mattin galduz geroztik badauzkat beldurrak  
nere sendimenduak direla gogorrak.  
*Adour* Irratiari diozkat eskerrak,  
hori dela medio jin zaizkit indarrak.

# Osaba xaharraren etxaldea

---

Gure koinatak bazituen bi etxalde: bat bere aitarena eta bertzea osaba xahar bat bakarrik bizi zenarena.

Bere aita hil zenean, koinatak gan behar zuen bere etxerat. Ama han zagon, hura ere bakarrik, eta etxaldea frango handia dago. Osaba ere bizi zen orduan; hartaz ere norbeitek okupatu behar.

Gure aita semeak, elgarrekin bizi zirenak, hasi ziren «hi bahaiz, ni banauk», batek edo bertzeak gan behar zutela osaba xahar haren artatzerat.

Mattin debrua zen oroz gainetik, bainan bere aitak ere ez zuen faltarik malezian. Beraz, nor joanen zen osaba haren ganat? Bixtan dena, Mattinek deliberatu zuen...

Bainan bere aita ere han zagon erne. Zonbat itzuli egiten zituen, dena karkula, dena abilezia, ikusten baitzuen, semea utziz, bera ere laguntzarik gabe gelditzen zela.

Egun batez, Mattinen aita han zabilan osaba xaharraren ontasunen ikusten: holako lurretan semeari egin araziko ziozkala arto, belar eta gauza asko.

Han ibilki zelarik, osaba haren hauzoko gizon bat buruz buru heldu zaio gure gizonari:

–Zer ari haiz hor, Pantxoa, itzul eta biraka? Ez duk hire adina orai holako interpresia bat hartzeko.

–Ez nauk lanean ari. Ikusten ibilki nauk.

–Ederki –dio erraiten hauzoko gizon harek–. Utz, otoi, gazteeri... Gazteez mintzo naizelarik, behar daiat gauza bat galdatu: egia duk hire seme Mattin jitekoa dugula hunarat?

–Oraiko ustez ba...

–Ederki, ederki! Ni ere hemen izanen nauk. Artetan emanen ziozkat zonbeit kontseilu, eta aiseago lotuko duk lanari.

–A! Zonbeit kontseilu? –dio aitak–. Bera ere kontseilu emaiteko hobeago duk, lanean artzeko baino.



Leoni Aire eta Mari Treku.

# Semeak

---

Mattinek bere denboran kantua maite izan du. Esposatu ginelarik, haur baten gisan zen, beti amentsetan. Egun batez, astokerian ari zelarik, erraiten nau:

–Errazu, Mari: nik, urus izaiteko, ez ahal dakizu zer nahi nuken?

–Zer bada? Hau galdea!

–Nere bizia kantuz pasatu, eta familia eder bat nere ondoan.

–Ori, ez zira ongi erori! Bertze sort aldiko beharko duzu galdatu.

Maluruski, ez zen gure nahitarat izan. Hastapenak dorpeak izan ziren. Eroriko baten ondorioz, gaizki etorri zen lehen haurra. Halere medikuak, Andres Narbaitz Donibane Garaziko semeak bataiatu zuen, sineste handikoa zelakotz.

Makurren ondotik etorri zen bozkarioa. Seme bat sortu zen Mulienean. Aitatxi Pantxoak nahi izan zuen bere izena eman bere semearen semeari. Laster hedatu zen berria. Mattin loriatua gan zen erretoraren ikustera.

Erretora ez zen etxean, bainan bazen haren ordaina: aita Mattin, beneditanoa, hura ere Aheztarra, eta hunek galdegiten dio:

–Nun zabilta, Mattin?

–Nun ibilki? Hunaraino etorria naiz. Seme bat sortu zauku, eta nahi nuen jakin noiz bataiatzen ahalko nauzun.

Neskatoa hurbil baitzagon, erraiten dio:

–Ez duzu erretora etorri arte guaitatu nahi?

–Zertako? Haren ordaina ez ote da berdin apez? Eta lehen bai lehen egitea hobe!

Zazpi hilabete bizitu zen gure Pantxoa, Mattinen altzoan zonbeit salto eginik. Aita kantuz lotzean, iduri zuen semeak errepikatzen ziola. Bainan Jainkoak bereganatu zuen zeruko lorian, eta ezarri aingeruen parean. Orduan izan zen Mattinen egiazko pena!

Haurtxoa xuriz beztiturik etzana, irri ezti bat ezpainenetan, aitatxi Pantxoa eta Mattin, arrosorioak eskuetan harturik, luzaz otoitzean aritu ziren, hain maite zuten aingeruari.

Bainan Mattin beti kuraia handikoa izan da. Ez zen lotsatu. Sinestea bazuen. Handik urte bat eta erdiren buruko sortu zen Jean Pierre. Hunek pena guziak histu zituen.

Haurtxoa zelarik oraino, kontseilari ona zen bere semeari buruz. Beti goxoki hartzen zuen, larderiarik gabe, eta nahi zuena egiten. Kurri ibiltzea maite zuen soroz soro.

Semea ttikia zelarik, bizkarrean hartu eta eremaiten zuen aitaixiren ikustera, aitatxi patar kasko batean bizi zelakotz ordu hetan.

Nihungo zinema ederrena ikusirik baino loriatuago etorzen ziren etxerat, bazterraren freskura eta arbolen itzalean ix-tant bat pausaturik.

Zonbat orroitzapen Mattinek guri utziak! Mundu hau akabatu da harentzat, gu eta denendako zen gure Mattin gaizoa, amarentzat seme bat lagun emanik, seme hau emana baitzuen bizi molde berri bati buruz, ikas dezan geroa zer izan ditaiken, burrasoak galtzean.

Bera, aldiz, han dago menturaz, bere seme Pantxoa besoetan, mundu zabalari begira...

Maitatua sobera gutartean zinen,  
utzi nauzu geroztik zonbeit orroitzapen.  
Zinuen bozkario, etzuen iraunen;  
itzalpean bezala gira orai hemen.



Patar kasko hunetan bizi gira biak,  
ama semiak lotuz zuk eman ideiak.  
Ez baitziren segurki hoiak alegiak,  
gure bizi moldeak iduri ezkont gaiak.

Zure seme bakarra ez baita ezkontzen,  
hola segituz ez da etxea emendatzen.  
Menturaz gain hortarik duzu gomendatzen,  
arrotzen eskuetan ez uzteko galtzen.

Mundu hau igaiten da lasterka denentza,  
oraindik ez dezagun galdu esperantza:  
hогоi ta hamar urte badauzka behintza,  
ez dezagula etsi zonbeit urterentza.

Gure Mattin maitea, gain hortarik mia:  
egun batez ezkontzen bazaitzu semia,  
jostetan ikusiko duzula umia,  
horrek piztuko baitu gure Mulienia.

# Alfabetika

---

Mattin Aheztarra, asko bezala ibili izan balitz eskolan, ai zer profezur hauta izanen zen! Bainan horra: ez zuen maite eskolarat joaitea. Seme baten ukaiteko plazerra izan zuen, eta seme hari nahi zuen erakutsi berak zazkien gauza asko. Lehenik, eskuaraz mintzatzen erakutsi. Otoitzak, katixima ere, eta horiek denak eskuaraz.

Sei urtetarat heltzean, horra nun eskolarat joaiteko adina etorria eta han frantsesez beharko mintzatu. Gure mutikoak hitzik ez jakin erdaraz. Aitak erran zion:

–Mutikoa, ez hadila kexa! Ni ere, hi bezala nintuan hire adinean, eta ikusten duk: norat nahi joanikan ere, denetan konprenitzen naitek. Beha zak: egun asti puxka bat baitugu, hasiko gaituk alfabetikaren ikasten.

Liburua hartzen dute; mahainean pausatzen. Mutikoa hasten potretak behar dituela ikusi.

–Ez, ez! Utz, otoi, potretak eta eman gaiten lanari! Lehenbizikoa hau duk: A.

Mutikoak segidan:

–A.

–Bigarrena: B.

Mutikoak:

–B.

Eta hola, dena bururatu arte, errepikatzen tuzte.

–Eta orai bakarrik erranen dituk, zer dakikan ikusteko.

Hasten da polliki polliki, lehenbizikotik gaizki, jadanik ahantzia. Aita asarretua!

–Kasko tzarra! Noizko behar duk sartu hire buruan? Beha zak: inen daiat gauza bat, hobeki konprenituko dituk beharba. Idazten daiat A, astoa. Orroituko haiz?

–Bai, aita.

Gero berriz:

–B, behia.

Baietz eta baietz. Hirugarrena C: zezena. Gure mutikoa hasten da errietan kondatzen:

–A, B, C, astoa, behia, zezena.

Eta gero:

– D, ditarea; E, etxea; F, sua, frantsesez *feu*; G, gatua; H. haizkora; I, idia; J, jokoa; K, kaka.

Gure mutikoa orduan hasten da:

–Kaka, kaka...

–Zer erraiten duk? Behar duk, bai, oraino segitu. Ez duk kaka erran eta denak bururatuko. Goazen aintzina: L, lana; M, maite; N, ninia –haur ttipia–; O, ura, frantsezez *eau*; P, Pendix, hauzoko etxea; Q, ipurdia; R, airea, frantsesez *air*; S. zozoa.

Gure eskolierak gelditzen dira minuta bat. Mutikoak berriz:

–Kaka, kaka, zozoa, kaka, zozoa...

Aitak segituan:

–Nor duk hemen zozoena?

Jean Pierrek umil umila,

–Zoin ote da: ni ala zu?

Mattin itoa irriz:

–Goazen aintzina: T, tanaza; V, aviona. Senditzen duk: aviona pasatzen duk gure etxearen gainean; orroituko haiz V hortaz.

–Ba, bainan zuk aviona erraiten duzu, eta ostion A erran nauzu astoa dela?

–Bon, orai: W, wagona; eta Y. Zer erran nahi dik horrek?

–Ez dakit, aita.

–Hire aitatziren etxea: Yangurdoenea. Eta azken hau denek gogoan atxikitzen ditek. Eian badakiken.

–Azkena?

–Zaude.

–Amen.

–Ez; Z, zero.

Egun guzietz beren artikulua errepatatzen zuten, nun gure mutikoak ikasi baitzuen, batere hutsik egin gabe.

Negua etorri zelarik, aitatxi jin zen gure etxerat: xerria hil zutela eta gan behar ginuela odolkien jastatzerat. Aratsarekin gan ginen. Mahainean ginelarik, izeba zuten xerri lanetako eta harek galde egin zion Jean Pierri eian eskolan abiatua zen. Mattinek, hori aditu zuelarik, erraiten dio izebari:

–Eskolan abiatua? Ez, ez! Segur naiz nihork ez duela horren gisan alfabetika ikasi.

Denak harrituak:

–Nola demontre ikasia du?

–Xuti hadi, Jean Pierre, eta irakuts nola dakikan,

Hasten da lasterka bezala:

–A, astoa; B, behia; C, zezena; eta holako...

Denak irriz lotzen dira hori adituta. Ba gure mutikoak ere denak hutsik egin gabe berriz errepikatu. Orroitzekoa izan ginen gure etxeko profezurraren erakusteko moldea.

Ez zen harritu behar hartaz. Beti holako debrukeriak pentsatzen zituen, nahiz bertzela ere erakutsi ziozkan gauza frango.

Hartze onekoa zen gure semea. Beti umila izan da bere aitarentzat. Haren kontseiluak onhartzen zituen, ikusten baitzuen egiazko aita baten xedeak zirela, seme bati buruz, bere onetan, orroitzeko geroaz, ahalgerik gabe agertzeko gizontasunean.



Mulienea baserria, Ahetze.  
Aintzinean, Mattin eta bere semea.

# Mahastia

---

1939-an gerla zen Frantzian. Gauza guziak nehurtuz ziren. Kartan erosi behar arno, ogi eta gaineratikako guziak. Hemengo laborariek deliberatu zuten mahastiak landatzea.

Mulienean gauza bera egin zuten. Mattinen aita zenak eta biek landare hoberenatarik sartu zituzten, eta artatzen zuten artoski.

Gure Mattin etxeko nagusia gelditu zenean, berak maite zuen bere mahastia moztu, esteka, eta behiekin lurra lantzen ginuen.

Udarat ginenean, mitriola prestatzen zuen. Bere untzia bizkarrean harturik, xixtuz, polliki polliki ostoa ferdeak arrosatzen zituen, bere baitan eginez: hunek merexi dik kasu handia egitea, nahi badiagu uzta ona izan.

Lana bukatu ta, loriaturik egoiten zen: iduzkiak urdindurik uzten zuen kolore paregabea!

Udazkena etortzean, mahatsaren biltzeko tenorea: lerroak molkoz beteak, batzu beltzak, bertzeak xuriak.

Saskiak mahasti buruetan pausatutik, lagun multxo bat muntatzen ginen, bi lagunek lerroa artean harturik. Zer irriak, zer solasak, mahatsa artetan jastatuz! Haur andana bat ere biltzen zen, bisaia eta eskuak denak mahats jusaz orratuak. Gizon eta emazte, denak artzen ziren zoinetik lehenik bete beren otarre ttikia.

Mattin, bere lagun batzuekin, etxean artzen zen, maxinetan mahatsaren lehertzen. Untzi handi batzu betetzen zituzten, urteko arnoa biltzeko gisan.

Gero zen besta. Mahain inguruan hauzoko jende guziak elgarretaratzen ginen, afari on baten egiten, batzu ixtorio kon-

dan, bertzeak kantuz. Mattinek botatzen zuen pertsu ederrik orduan, bere urteko arnoa barnean sartua zuelakotz.

Handik zonbeit egunen buruan, batzuek maite zuten arnoa, irakitzen ari zen hura, jastatzea.

Arnoa barriketan zelarik, ez zuen lagun eskasik. Herriko faturrak ere egun guziez edaten zuen Mattinen arnotik.

Semea handitu zenean, hura ere fatur joan zen. Mattinek maiz bazuen pertsutako galdea. Gure mahastia gibelka hasi zen. Xoriek usu egiten zuten bisita, eta biltzeko tenorean molkoak biluziak.

Orduan deliberatu zuten hobeago zela mahastia ateratzea eta behiak soroan emaita. Geroztik iduzkiak hanbat bizkarra berotu diote. Orroitzapenezko pattar goxoak!

# Ohointza

---

Egun batez etorri ziren jaun Aranalde apeza eta aita Zavala, Mattinen liburu berria, *Etxe xokotik kantari* deitzen dutena, neri present egiteko, eta orduan nahi zuten ixtorio bat idaztea gure etxe Mulienean gure bien bizian gertatutakoa.

Nonbeitik hasi behar eta heiek hautatu zuten hemengo ohointza, duela zonbeit urte pasatua.

Nola semea gurekin baitzen, galde hau egin nintuen:

–Ama, orroitzen zare orduko ixtorio hartaz?

Eta nik baietz, pixka bat gora behera.

–Zu haurra zinen orduan; lau urte doi doia. Bainan nik banituen hogoita lau, eta holako gauzak ez dira aise ahanzten.

Agorrilaren zortzia zen, igandea, Arbonako bestak; eta, urte guziez bezala, bazkaltzera joaiten ginen nere burrasoen etxerat.

Beztitu eta abian ginelarik, heldu zaizkigu bi gizon ile moztera. Mattinek koifurgoan ere bazuen jokoa. Mahain gainean emanik hiru baso eta botoila arnoa, gure Jean Pierre haurra eta biak oinez abiatu ginen, erranez:

–Ixtante artio.

Hogoi lagunez goiti muntatu ginen bazkari on baten aintzinean. Ez zen deusen faltarik egun hartan. Basoak usu husten ziren, eta gure Mattin orduan bero beroa hasten da pertsutan, orroitu gabe etxean norbeitek bisita egiten ziotela.

Eguna hasi zen bururatzen, eta gure pertsulariak, behiak bazkatu behar zituela, omore onean erraiten nau neri:

–Zu zoazi plazarat bertzeak bezala, eta ni sarri etorriko naiz afaltzerat.



Beha egotu ginen gure gizonari: kantuz bazoan bere mobiletaren gainean.

Handik oren bat gabe, horra nun berriz heldu zaukun kexu kexua:

–Mari, zato zalu zalua. Zerbeit debrukeria pasatu da gure etxean. Ohoin batek egin gaitu bisita.

Orduan, bestarat gan beharrak ziren guziak jin ziren bazterren ikustera.

Hauzoak ere hor ziren eta xahar batek galdegin zaukun:

–Xingarrak hor tutzue bederen?

Eta guk baietz, eta ordukotz ebatsiak ziren.

Nola telefonarik ez baiginuen, Mattin joan zen plazarat eta polizari parte eman, eta memento berean etorri ziren. Galdatu zioten nortsu izan zitaken.

Denbora hartan baginuen gipuzkoar bat, gure etxean egoten zena. Nola ez baitzuen sos handirik berekin, hura akusatu zuen.

Polizak kuxean hartu ta meriarat ereman zuten. Larderia frango eta gainerat zafraldi bat ona. Moltsa miatu zioten eta diru gutti atxeman.

Orduan erran zuten ez zela hura izaten ahal; bainan bertze bat bazutela begietan eta hura atakatuko zutela.

Biharamunean heldu dira bertze harekin, bi eskuak estekatuak. Puxka frango bazuen ebatsirik. Ez zen hetan deusik gure gauzetarik. Bainan bazuen herriko faturrak bizikleta bat galdua, eta horrek zuen ebatsia. Harentzat abantaila izan zen egun hartan.

Polizak erranik «bertze egun bat artio», horra nun hauzoko gizon bat, Pello zuen izena, oihuka hasten zaion Mattini:

–Zato hunaraino. Xingar bat bada sasi tzar baten inguruan. Zurea ote da?

# I

Ègun batez etxori zinen, jaun Aranalde apea eta aita Sabala, Mattinen liburu berria "etxe ardiak" deitzen dutena, neri present egiteko, eta orduan nahi zuten iatorio bat idaztea gure etxe "Ysullonian" gure bien lizian gertatutakoa. Eta heyez hautatu zuten hemengo ohoitza, duela zombit urte pasatua, jaun hoik Joan eta, nola semea gurekin baitzen galde hau egiz mituen: "Ama ohoitzen zare orduko iatorio hartaz", eta nik baitz pizka bat gora, behera, zu haurrea zinen orduan lau urte doi-doi, bainan nik banituen hogi-tá lau eta holako gauzak ez dire aize ahaztuta....

Agortutaren zortzia zen, egandea, Arbonak bestak eta urte guziez bezala baghaltzera joaten zinen nere burrasoen etxerat. Breytute eta abian ginelarik, heldu zaitzigu bi gizon ilk moztara, dakizun bezala, gure aita Mattinek "boifurkoan" ere baguen jokoa. Nahai gainean emarik hiru baso eta botoila arnoa, gu biak ainez abiatu zinen erranez ixtante artio.

Hogei lagunez giti muntatu zinen, baghari on boten atzimean etzen deusen faktarik egun hartan, basoak usu husten zinen eta gure Mattin orduan bero beroa hasten da perdsutak, orhoitu gabe etxean

Mari Trekuren esku-izkribua.

norbitok bista egiten zirela. Eguzia hasi zen bururatu  
 eta gure pertsonarik lehiak bazkate lehar zituelak  
 omere onian erraiten nau neri: "Zu goazi plaza  
 bertial begala eta ni sarri etxeriko mai afalterat!"  
 Soha egote ginen gure gizonari, kartuz bazoan  
 bere mobilaren gainean.

Handik oren bat gabe, hora nun berit heldu  
 zaurun koxu, keaua "Mari, gato, gale, galua, zerbit  
 debrukia pasatu da gure etxera, ohon batek egon  
 gaitu bista: orduan bistarat gan beharrek ziren guziak  
 jin ziren bazterean ikustera, hauek ere hor ziren  
 eta sahar batek galdegin zaurun, chingarrak hor  
 tutzu bederen? eta gut baiel eta ordukt ebatsiak ziren  
 Kola telephorarik ez baiginuen, Mater Joan zen plaza  
 eta polizari parte eman, eta memento berian etxerik ziren  
 galdata zuten mortse izan zitaken. Demora hartan  
 baiginuen Guisuykzar bat gure etxera egoten zena, nola  
 ez baitzuen 100 handirik beretik hura akusatari  
 zuen. Polizak huraen hartu ta merikat ereman  
 zuten, larderia frango eta gainerat zafaldi bat  
 ona. Motta miatu zuten eta diru gutti atxeman  
 orduan erran zuten etxera hura izaten dhal: bainan  
 berit bat bazutela begietan eta hura atakatu zitela

Mari Trekuren esku-izkribua.

III

Biharamuorean helpe dire bertze harrakin  
 bi eskua estekataak, pucho frango boquen  
 ebatsirik etzen hetan deusik gure gauztarik,  
 bainan boquen herriko faturrak bicycleta,  
 bat galdua eta horrek zuen ebatsia;  
 harentzat abantaila izantzen egun hartan.  
 Polizak erramik bertze egun bat artio horra  
 mun haueko gizon bat Pello zuen izena  
 oihuka hasten zaien Mattini; gatz humarain  
 chingar bat bada, sasi txar baten inguruan  
 gurea ote da? laster gan eta oharu zen  
 etzela gurea, bainan Mattin Urkia Arbonch  
 erretorearen artatzen han baitzen ontasun bat  
 aste izan zuen gure Mattinek, harrakin zuela  
 bere xingarra eta hor botatu zuela, bainan  
 etzen kolaborik eta segitean polizari parte  
 eman. Hek ez baitziren astoak, kuxian portatze  
 guten, bezperakua zela, inkesta bat bazuten  
 Ezpeletakoa, hasi ziren sasi txar meatzem  
 eta atademak hango xingar, fotografikako  
 aparelak eta carolina bat, hortan pentsatu  
 guten gure oharu trak zuela, bi metro urruntarag,  
 pino luze batzu baziren eta han arrastotak

Mari Trekuren esku-izkribua.

markatzen zuten goardia morlet egona zela  
 gure etxe gaisoa! ate gurutak idelkiak  
 leyoak, sakurea kampsan zena hura ere barnean  
 sartua, garmararat joan eta oheak, peraltak  
 armoniak, linja donak lurrean eta gainat  
 gure moltsa ginuen diruarekin falta.

Ahaintzaren aurtimoko ortziralea Donibane  
 Lohizuriko merkatea, Apatzen usaya zuen  
 merkatea ibiltzeko, bere behi cherri eta  
 emayteki hogien artean, prezioen jakiten eta  
 bertalde maite zuen hogien bitartean. Egun  
 hartan kumutzatzen du de Afonzo Jauna eta  
 harek emaiten dios erre peya bot, morletten  
 ganik zela, kontenturik hartu zuen, ez baitzuen  
 inolakorik egun guzuz sakelara sartzerik. Bainon  
 bazuen bertatik gaitzak! Gure kontu eman berriak  
 ginen eta zuhur ziren bazterrak, bi behiren  
 onzkina ginuen bakarrik. Bere buratik  
 berasosak gurekin luze zirenak joan ziren  
 koinataren bitartean, koinatarei bere bita hil  
 jigarion eta bertze etxe baten jabe izan hura.  
 Partitzean Apatzen atak etxeko mozkien  
 hoterarik berekin ereman zituen, hura baitzuen

Laster gan eta ohartu zen ez zela gurea. Bainan Mattin Urkia, Arbonako erretorearen aitatzik han baitzuen ontasun bat, uste izan zuen gure Mattinek harekin zuela bere xingarra eta hor botatu zuela. Bainan ez zen holakorik eta segituan polizari parte eman.

Hek ez baitziren astoak, kuxean pentsatu zuten bezperakoa zela. Inkesta bat bazuten Ezpeletakoa. Hasi ziren sasi tzar miatzen eta atxeman hango xingar, fotografiako apareila eta karabina bat. Hortan pentsatu zuten gure ohoin berak zirela.

Bi metra urruntxago pino luze batzu baziren, eta han arras-toek markatzen zuten goardian norbeit egona zela.

Gure etxe gaixoa! Ate guziak idekiak; leihoak. Xakurra, kanpoan zena, hura ere barnean sartua. Ganbararat joan eta oheak urratuak. Armarioak, linja, denak lurtean; eta, gainerat, gure moltsa, ginuen diruarekin, falta.

Ohointzaren aintzineko ortziralea, Donibane Lohizuneko merkatua. Mattinek usaia zuen merkatuan ibiltzeko, bere behi, xerri eta emazteki hoiien artean, prezioen jakiten; eta bertzalde, maite zituen hoiien atakatzen.

Egun hartan kurutzatzen du de Monzon jauna, eta harek emaiten dio urre peza bat, norbeiten ganik zela. Kontenturik hartu zuen, ez baitzuen holakorik egun guziez sakelan sartzen.

Bainan bazuen bertzerik gaizoak! Gure kontu eman berriak ginen eta xuhur ziren bazterrak. Bi behiren mozkina ginuen bakarrik.

Bere burrasoak, gurekin bizi zirenak, joan ziren koinataren etxerat. Koinatari bere aita hil zitzaion eta bertze etxe baten jabe izan hura. Partitzean, lehen ere erran bezala, Mattinen aitak etxeko mozkin hoberenak ereman zituen, hura baitzen orduan gure denen nagusia.

Halere gure gizonak ez zuen esperantza galdu. Norbeitek erraiten dio:

–Zer duk? Behia eskas? Atxemanen daiat.

–Behia ba; bainan dirua?

Gogoratu zitzaion hauzoko atso baten gana joaitea. Harek dirua bazuen. Etorkizuna gehiago bazen etxe hartan. Bainan atsoa ez baitzen egun guzietz trenpu berean izaiten, nola galda?

Atea jotzen du eta sartzen. Zer ikusten du? Atsoa besainka botatzen bere moltsa eta bere senarrari erraiten:

–Horra: mezatik lekora botikan eman ditut nituen guziak.

Eta Mattinek bere baitan:

–Ez duk mementoa diruaren galdegiteko.

Bainan ez baitzuen deusek lotsatzen, erraiten dio:

–Ori, Mari, ni ere hortaz heldu nintzen zu ganat.

–Hori erranik ere, badiat oino pixka bat. Zonbat behauk?

–Behi famatu bat dut erosi beharra; eta zure pixka hartarik pixka bat emaiten ahal banauzu, egin nezake nere afera.

–Emanen daiat behaukana –erraiten dio atsoak–. Gero ere behartzen bahaiz, badiat oino xoko hortan.

Erosten dugu behi famatu hura eta lanean hasten. Behia kuxean, mihia luzatua, ezin tira bere tresna. Ahalgeturik, erraiten nau Mattinek:

–Goazen hemendik, nihork ikusi gabe.

Egun hoi zen ohointzaren bezpera. Arats hartan etorri zen atsoaren senarra eta nik nahi nion eman dirua. Bainan nola atsoarekin egina baitzuen tratua, ez nintuen utzi turnatzera.

Gero zen komedia. Besta ederra egin behar ginuela ta akabo! Xingar, moltsa, urre peza hura ere barnean zaukan emana, denez gabetu ginen. Hura zen, hura, miseria!

Gainerat etorri ziren asurantzak pagatzeko. Zer pasaia! Iduri zuten denak lapurrak zirela...

Ez ginen halere lotsatu. Gazte ginen ta elgarrekin penak aiseago jasaiten dira. Eta gogoratu zitzaion pertsu zonbeit

moldatzea. Kazeta *Herria*-n agertu ziren eta jende ainitzek irakurtu<sup>1</sup>.

Handik zonbeit denboraren buruan, Hazparne herrian egin zuten pertsu saio bat, eta han egin zuten ere eske bat, eta ordaindu zituen galdu guziak.

Gero, eskerren bihurtzeko, bertze andana bat ere eman zuen.<sup>2</sup>

Pena guziak ahantzirik, entseiatu da, bai, gazteer, herriari, xahar eta lagun oner, beti omoretsu agertuz irri eginaraziz, gu denen Mattin gaizoa.

---

<sup>1</sup> Ikus liburu huntako 181 orrialdean.

<sup>2</sup> Ikus liburu huntako 189 orrialdean.



# Komisionea

---

Udazkeneko egun xoragarri bat zen. Mattin deliberatu zen behar zuela otea pikatu behientzat, negua trankil pasatzeko.

Igande goiza da. Mezarat joaiteko usaia baitzuen, Marotene botikaren izena, maite zuen komisione batzuen ekartzea, ta nola eskas bainituen olioa oilaskoaren erretzeko eta gasna biharamuneko langileentzat, baietz eta baietz partitzen da nere gizona.

Gan bazen, gan; noiz etortzeko?

Bazen amerikano bat, zonbeit hilabeterentzat Ahetze herrirat etorria; eta, meza finitzean, Mattinek erraiten dio:

–Nahi duk pilotan jokatu goizeko kafe edariekin?

Bertzea kuxean pilotaren bilarat gan zen, eta lotu ziren biak buruz-buruka.

Ordukotz, haatik, komisioneak erosiak omen zituen gure Mattinek, eta bizikletaren gainean emanak.

Egun guzia hantxet, ostatuko paretaren kontra, egotu omen ziren.

Partida finitu eta horra nun gure bi jokolariak sartzen diren ostatuan.

Trankil trankila beren kafearen aintzinean, eta han zuten *Izarra* botoilak hartu omen zuen arin aldi bat ona.

Bi oren hortxet egon ondoan, deliberatzen dute gan behar dutela Arbonarat, hameketakoaren egiterat.

Eta, nola eguerdi baitzen memento hartan, Arbonatik ba-dotzi Urruñarat, han herriko bestak baitziren, bazkari on bat behar zutela egin.

Bainan... bainan... otruntza finitzean, xutitzen dira biak, labea bero beroa egina zuten, eta abiatzen Ahetzerat buruz, nun bide puxka bat egin eta polizak arrestatzen dituen.

–Hea! Xofur hori nun ibilia ote da? Manera txarrak dira hoik guziak! Autoak bide guzia beretzat behar du...

Amerikanoak:

–Ma... ma... ne... ne... ra txarrak? Ez dut uste. Emazte gaiaren ikustera noa memento berean.

Polizak orduan:

–Gizon frexkoa behar dik ikusi nexka gazteak. Eta, horiek hola, sartu zaizte laster etxerat.

Ahetzeko herrirat arribatzean, gure Mattinen bizikleta han zagon paretaren kontra, goizean utzi bezala.

Hartzen du eta etxeari buruz abiatzen, gosetzen hasia baitzen.

Etxean sartzen da pulliki pulliki, miatuz xoko guziak, baitzakien salda segur egina nuela, eta oilaskoa hiltzen ikusia, hura ere errekitzat bazela. Ez bazen olioarekin egina, urinarekin bederen.

Denak menean suertatu zitzaizkon eta lotu zen afaltzen.

Jan ondoan, xutitzen da eta ohetik senditzen nuen erraiten:

–Bapo, gizona! Ez nauk hain gaizki lo iterat joaiteko!

Heldu da ganbararat kantuz murmuran, eta oihu egiten nau:

–Etxe huntan jendea lo dago?

Eta ni itzulia ixil ixila bertze alderat, ez diot erreputarik emaiten, nun hauzoko senar emazteak hor heldu diren ateari joka. Mattin badoa leihorat eta galdatzen:

–Nun ibilki zarete?

–Luik erran gaitu etzinela oinon etxerat sartua eta Mayiren ganat heldu ginen. Zer da? Lo bederen?

-Lo ez dakit. Hilak baino gehiago ez du mintzatu nahi.

Gau guzia lotan bezala pasatu ginuen, eta biharamunean heldu gure ote pikatzailea bere langileekin, eta Mattini galdegiten:

-Zer denbora egin behar du egun?

-Nik ez zakiat. Sukaldean segurik galerna duk.

Eta orduan iduzkia agertu zen egun guziko.



Mattinen andrea eta semea.

# Mobileta berria

---

Bazkal ondo batez, senar emazteak lotzen gira beribil irtorio batez. Mattin mobiletaren alde eta nik bizikleta nuen hautatzen.

Mattinek, lehenbiziko mobileta zahartuxea baitzuen, deliberatu zuen berri bat erostea.

Ortzegunetan gure bidean pasatzen zen autobusa Baionarat gateko, eta erraiten nau:

–Egun banoa. Mobileta eder bat behaut erosi. Erosten badut, hemen naiz etxean... Orai biak eta erdiak dire... Lauak et'erditako... hemen behar nuke izan. Edo bertzenaz autobusaren tenorean, sei orenetan, ez badut iten afera.

Lauak et'erdiak pasatzen dire, seiak ere ba, eta nere gizona baterez heldu.

–Jes! –ene baitan egiten dut–. Min hartu ote du? Ala norbeit atxeman du hor barna, usaia ez galtzeko?

Uda baitzen, behiak deitzi eta igortzen ditut sororat. Hantxet nindagon heieri begira, ene baionesa gogoan.

Ilargi xuria agertu zen. Elizako orenak jotzen ditu hamarrak. Mobiletaren partez senditzen dut *Solex* baten arrabotsa.

Uste izan nuen Mattin zela, bainan hauzoko mutil bat heldu zen, jakinaren gainean mobileta super hura behar zuela begiztatu, eta erraiten nau:

–Zer? Hemen egoki zira? Zoazi oherat. Segur hor dela bere usaiako lagun zonbeitekin.

Hura etxerat gan zen eta ni oherat biluzi gabe, nere muntira aldean.

Orenak joan, huna bi orenak jotzen. Zer senditzen dut kanpoan? Auto bat.

Argiak hilak, jeikitzen naiz atearen hegira, uste istripu zerbeit gertatu zitzaion.

Hortxet urratzeko irriz ari zen bere lagunekin. Autoa idekitzen dute. Zer ikusten dut? Bizikleta.

–Nun duzu mobileta?

–Han utzia. Zaharrari motor berria emanen diote eta zuk izanen duzu desir zinuena.

Baziren hiru lagun. Sukaldean sartzen dira eta gose zirela erraiten naute.

–Nun ibili zaizte? –galdegin nioten.

Mattin hasten da kantuz:

–Mari gaizoa, ez kexa. Ongi ibiliak gira. Denak erranen dauzkitzut. Magasinan izatu naiz, aferak egin, gero ostatuan sartu, han denek ezagutzen ninduten, batek baso bat, bertzeak berdin, ta gero gose nintzen. Laskanoteguy hau eta hunen laguna haragi gorri gorria jaten ari ziren, arno on baten ondotik; ta nik ere hauk bezala egin dut. Gero, janaren ongi disihitzeko, pilotan ari izan gira. Gero zer nahuzu? Autobusaren tenorea pasatu da eta hauek ekarri naute.

Omone gaitzean baitzen, atakutzen nintuen erranez:

–Emazu pertsu bat!

Nik ezetz, bainan hura hasi zen.

Ilarra saltsan berotu lukainkarekin, hura jan zuten, gero etxerat partitu ziren.

Biharamunean, damutu zitzaion mobileta zaharra han utzirik arrimatzeke. Zer egin zuen? Berria erosi.

Bainan egun hartan segituan etorri zen etxerat...

# Buhamiak

---

Ez dut ahanztekoa izanen ortziraile egun hura. Mattin arats hartan pertsutarat gana zen. Berandu, goizeko lauak aldera, sartu zen. Unatua, lotan emaiten da.

Goizeko zazpiak eta erdietan, usaia zuen bezala, behien deiztera jeiki nahi zuen.

–Egun ez –nion erran–. Nihauk eginen ditut.

Gogotik on hartu zuen nere borondate ona.

Behiak deizten ditut. Kafe esnea edaten, horra nun goizean goizik buhamiak heldu diren sukaldeko leihorat.

–Agur, etxeko anderea –naute erraiten–. Ari zira lanean gogotik?

–Gogotik edo bortxaz, ari behar!

Ogia mahain gainean bainuen, atso ausartak galdegiten nau:

–Otoi, ekatzu ogi poxiño bat, zerbeit barnean emanik.

Nola bezperan, ortzirailea, usaia nuen bezala, makaila egi-na bainuen, emaiten diot, ogia bi parte eginik, haren barnean.

–Egarri nauzu. Baso bat arno edan nezake. Biharko ere xingar hexur bat... Gasna biziki maite dut. Segur naiz baduzula armarioaren barnean. Behar dautazu hartarik trantxa pollit bat ezarri, paper pixka batean. Aratsaldeko ongi nuke... Etxeko andere gaizoa, ilar gorria ikusia zaitut hortxet, otarre horren barnean. Nik, eta bereziki nerekin den lagun hunek besta egun bat egiten du ilarra janez...

Ni ere aspertua nintzen hoikien amoina galdeez, eta erraiten diotet:

–Kasu emazue. Nagusia ohean dago eta, ez bazaizte fitesko partitzen hemendik, asarretuko da.

Baten errepostua:

–Ohean balin badun, aski din lo egitea.

Mattin jeikitzen senditu nuen. Pixa egin zuen untzi batetarat eta pulliki pulliki leihorat hurbildu.

Gaineko leihoa xuxen beherekoari parez baitzen, buhamia han zagon bere ogia eta makaila eskuan. Mattinek botatzen dio burutik beheiti bere pixa, arrosatuz burua eta bere poka-  
dua.

Buhamia harritu zen! Hasten da oihuka, madarikatuz denak. Mattinen irria!

–Lo iteko erran naun? Ikusiko dun atzarrita nolakoa naitzen.

Ez ziren satifatu etxe aintzinean oihuka aritzea. Hogoi metra egin eta berriz hasten dira.

Hauzoak ateratu ziren kanporat eta batto etorri zen gure ganat galdeginez:

–Zer pasatzen da hemen?

Mattinek, urratua irriz:

–Bataioa! Bataioa!...

Mattin maitea:

zure ixtorioak buruan,  
trixtatzen naute orduan,  
bainan badaukat goguan  
laster izaitea zure onduan.

Zu partitu zinen mundu huntarik,  
ama semeak hemen utzirik;  
geroztik ditugu begiak usu bustirik,  
sukaldea dugula sekulakotz husturik.

# Urte Zaharra

---

Urte Zaharra akabatzerat doa. Laster Urte Berria.

Badu zonbeit denbora, gure Mattin Sarako gazteriarekin ibiltzen zela urte on desiratzen etxez etxe.

Gazte andana bat fandangotan, akordeonista soinulariarekin. Fandangoaren artean, Mattin pertsutan artzen zen. Maite zuen handizki Saratar jendea!

Pertsuaren ondotik, sukaldetako bisita egiten zuen, bazenez zintzuraren freskatzeko zerbeit; berdin salda bero xorta bat.

Supazter xokoan, xaharrak egoiten ziren haren arribadari beha. Muxu goxo batzuekin errezebitzen zuten. Lorietan entzuten zituzten Mattinen pertsuak. Munduko filma ederrenari baino gustu gehiago hartzen zuten haren ditxoeri.

Hasi aratsaldeko bi orenetarik, zazpiak artio ibiltzen ziren Urte Berri bezperan. Afari on bat egin lagunekin eta gero oherat.

Biharamunean, zazpitan jeiki, baratzuri salda hartu ta berri beren itzuliaren egitera gan behar.

Urte batez, uria jauts ahala ari zuen. Soroz soro ibili behar. Ur erreka bat bazen pasatzeko.

Mutil gazteak jauzika ibilki ziren. Mattin ordukotz adinean joaiki. Batek erraiten dio:

–Pasa zaite bide hertxi hortarik. Luzeago izanen da, bainan hobe duzu. Bertzela, irriskatzen duzu urerat erortzea.

Mattin, berotzen hasia, espantuka hasten da:

–Ni erori? Ez diat uste!

Sartzen da erreka barnean. Harri zabal batzu baziren. Heikien gainetik abiatzen da eta patatras!



Urak gorasko baitziren, trenpa aldi bat ona hartu zuen.

Bi mutillek hartu zuten besotik eta kenka txarretik atera.

Ilun beltza zen memento hartan. Hain xuxen, bisean bis, etxe batetako argiak piztu ziren eta hango nagusiak deitu zituen, bozak entzun eta:

–Zatozte barnerat. Hain segur, zerbeit hartuko duzue?

–Nik segurik zure arropak, prestatzen balin banauzkitzu  
–dio Mattinek.

–Zer arribatu zaitzu?

–Ori: *patinage artistique* egin dut urean diren harri xabal hoiien gainean.

Etxeko andreak laster ekarri ziozkan arropak. Iduri zuten harentzat eginak.

Urte pare baten buruko, utzi zuen Sarako itzulia.

Gazteek ere orduko ohidurak abandonatu dituzte.

Halere, Sarako Mentta hoitarat noiztenka gaten ginelarik, adinetako jendeek galdegiten zioten noiz behar zuten berriz ikusi urte berrikari; ez zirela gehiago ohartzten noiz pasatzen zen urte xaharra.

Mattinek:

–Ez; ez naiz berriz hasiko. Zaharregi naiz orai. Begote gazteak!

Nola urte hau bururatuko baita laster, Mattinen adixkide Euskal Herriko jende guzieri, bihotz bihotzez urte berri on!

Ez ditut ahanzteko Sarako egunak,  
bai heiek zintuela funtsezko lagunak,  
urtatsetan agurtuz adixkide denak,  
zorion beroenak, zer orroitzapenak!

# Behi gorria

---

Mattin tratulari ona zen, makiña bat merkatu kurritua. Miga gazteak erosten zituen eta uztarrarian hezten. Hauzoko gizon batek erraiten zion:

–Zuk ahuntzak ere uztartuko zinuzke, adarrak izanez gerroz.

Beti muntatu nahiak zituen behi gorri eder hoietarik.

Mattiu deitzen zen tratulant Aheztarrak erakusten dio, merkatu egun batez, behi xarmant bat, gure Mattini osoki gus-tatzen zitzaiona.

Hasten dira solasean biak, bat bertzea bezain tirantea.

Tratua finitzeko, badoatzi ostaturat. Han lagunak atxemaiten tuzte, eta hasten dira gure bi gizonak espantuen atakutzen.

–Fini zazue hortik, hasia duzuen lana. Mattiu, zuk eremai-ki diozu behia etxerat eta horra afera arrimatua.

Bainan Mattiu ez zen oraino arras akort. Nolazpeit finkatzen dute behiaren balioa.

Aratsa hurbiltzean, desir ginuen behi famatua etxeratu zen. *Gorri* eman ginion izena.

Biharamunean uztartu ginuen Gorri. Idi baten heinekoa zen. Hain zen azkarra!

Hauzoek aditu zutenean behia erosi ginuela, etorri ziren ikustera.

Batek maingueria zuela heien behiak, bertze batek umatua zela, galdegiten gintuzten lanerako.

Prestu prestua norat nahi gateko on zen. Bainan bazuen lagun bat berekin segitzen zuena: gure *Juki* handia, zakur *berger* aleman maitagarri bat.

Lurra itzultzen zutelarik, gure Jukik Gorrik bezenbat urrats egiten zuen, uste zuelarik laguntzen zuela bere ondoan izanez.

Nagusiak oihu bat egiten zuenean behieri, xuxen iraultzeko bere hildoa, zakurrak kuxean Gorri autsikitzen zuen, obedi arazteko,

Lana finitu arte itzul eta biraka, mihia luzatua, irakusten zuen bere borondatea. Buruetan arribatzean, bere Gorriren muturreko arrapoa milikatuz garbitzen zion.

Handik laster, gure behia umatu zen. Xahal bat ederra egin zuen. Hartarik egin beharra ginuen ondoko egunetako uztar behi eder bat.

Ongi erdi zen. Aratsa izanki eta oherat joan ginen.

Gure behiaz luzaz solasean arizanik, Mattin jeikitzen da, ikusteko bere ama umeak. Umea xutik, saltoka abiatua. Bainen ama! Lurrean etzana zabal zabala!

Pusako bat eman zion higitzeko, bainen debaldetan. Hila zen ordukotz!

Mattinen pena! Nigarrez ari zen. Laster marexalari telefonatu zion, eta laster hura ere etorri zen. Berantegi! Gure behia deusetako orai!

Kanporat ereman ginuen eta estali. Bi egun han egon zen.

Gure Jukik ez zuen kitatu. Haren ondoan egon zen, jan edan gabe, begia trixterik.

Gero ereman zuten erretzerat. Akabo gure Gorri!

Xantza guziek segitzeko, denbora ederra izanki eta pika-tzen dugu belarra.

Gure Mattinek ondoko astean gan behar zuen Eskualtzaleen Biltzarrerat eta belarrak nahi zituen sartu orduko.

Bainen aste guzia uria egin zuen eta urak atera... Gure belar metak joaiki ziren igerika xalupak bezala, eta soro guzia garbitu.

Lagunek erran zioten:

–Ez duk xantzarik, Mattin! Lehenik behia hil, eta orai belarra urak ereman.

Mattinek, bere pena gordez, ihardetsi zioten:

–Zer nahi duzue? Gure Jainkoak bazakien, behia hilez geroz, ez nuela belar beharrik!

# Ateraldiak

---

Semea ttikia zelarik, bere aita Mattinek segitzen zuen eskolarat, bizikletean.

Felix hauzoko gizon bat kurutzatzen du eta harek erraiten dio:

–Nundik heldu zira, Mattin, tenore huntan?

–To, zer nahuk? Mutikoaren segi nintuan, bazkaldu diat arrebaren etxean eta orai banoak atsoaren ganat.

Harek, bere muntrari behako bat emanik, erraiten dio:

–Zaude oinon oren erdi bat gehixago eta berriz tenorea duzu bilarat gateko...

\* \* \*

Mattinek, teatro eder bati begira baino gustu gehiago hartzen zuen bere behien erdian.

Tratuan usu artzen zen. Feria egun batez behi andana batzu baziren lerroan estekaturik. Makiñunak zabiltzan erosdunen artean.

Mattinek bat begiztatu zuen. Hura zen ederra! Saltzaileari erraiten dio:

–Gaizo behia, zer gertatu zaio? Begi batetik ikusten du barkarik?

–Hori ez da deusik! –erraiten dio makiñunak–. Beira zozu ongi horren larruari: behi fina eta gainerat gaztea...

–Zure ustez zonbat urte ditu? –galdetzen dio Mattinek.

–Zazpi urte, adin gordinean oraino...

Mattinek erosten du behia. Handik laster jakiten du bere behiaren umea hauzorat saldua zela. Hango nausiari erraiten dio:

–Zuk erositia duzu behi okerraren umea?

Harek:

–Bai.

–Gaztea da oraino? –dio Mattinek.

Hauzoko gizon hura irriz karkailaka hasi zen...

–Makiñunaren arabera hameka urte.

–Hameka urte? Ez da posible! Amak zazpi ditu bakarrik...

Ondoko merkatuan, buruz buru egiten du bere saltzailearekin:

–Errazu: zure behia Ama Birjina baino gehiago da? Amak zazpi urte eta eta haren umeak hameka?

\* \* \*

Bertze hau Mattinek kondatua. Haren aitaxiren denboran bazen atso bat, Sebedin zuen izena, eta hura sorgina deitzen zuten.

Denak laztuta egoiten ziren, harek kondatzen zituen sorgin ixtorio eta sorginek ordu hetan egiten zituzten sorginkeriez.

Denbora hetan, jendea oinez ibiltzen zen mezetan; eta, zerbeit jakin nahi zutenean zer aro egin behar zuen edo berdin norbeiten berriak, kuxean Sebedinen ganat joanen zirela hasten ziren elgarren artean.

Sebedinen hauzoko gizon bat, egun batez, aro ederra izanez, belar pikatzen hasi zen.

Errekan bazen iturri bat eta Sebedin xuriketen egiten ari zen.

Belar pikatzaileak opotsa gerrian zaukan, harria barnean, batere urik gabe. Sebedinek hartzen dio eta urez betetzen. Gizonak ordu berean atsoaren arpegirat botatzen du, erranez:

–Erraiten baitute sorgina haizela, ez dun haatik pentsatu zer egin gogo nuen?

Geroztik gure gizona trankildu zen, ez zela erraiten zuten bezain sorgina...

\* \* \*

Bertze hau ere Mattini entzuna. Bi adixkide elgarrekin solasean. batek bertzeari:

–Ba ahal dakizu zoin mementotan erraiten diren gezurrik handienak?

–Batere ez dakit –dio lagunak.

–Beraz, erranen dautzut –dio bertzeak–. Bat, ihizi ondoan; bi, gerla denboran: hiru, boza aintzinetik...

\* \* \*

Egun batez, herri batean kantuz ari zelarik, eman zioten gaia:

–Zu esposatua zira eta emazu pertsu bat zure emaztearen gainean.

Aldeko lagunak erraiten dio:

–Zu esposatua? Ez duzu sekulan zurekin ibiltzen!

Mattinek errepusta:

–Andrea nerekin ibiltzea eta esposetarat pokadilloarekin joatea berdin da.

Bertzeak irri egin zuen eta ixililik utzi.

\* \* \*

Mattinek ez ongi bat senditu zuenean, joan zen medikurat.

Ondoko astean Xalbadorrekin gan behar zuen pertsutan artzera eta harek erran zion:

–Zendako joan haiz medikurat? Joanez geroz, beti zerbeit atxemaiten die.

Xalbador ere eritu zen. Medikuak rejiman eman zuen hura ere.

Urte batez, senar emazteak Arbonarat etorri ziren ardiekin bazketarat. Etxean ahantzirik bizar egiteko tresnak, etorri zen Xalbador gure etxerat. Nola San Martinak baitziren, Mattinek senar emazteak gonbidatu zituen bazkaltzerat.

Bazkaltzen ari ginelarik, Mattinek galdegiten dio Xalbadorri:

–Zertan haiz osasunean? Medikuak zer erran dauk?

–Erran nauk sendatuko naizela; bainan luze.

Bertzeak beretik:

–To, xantza duk! Hik bederen badakik ez haizela kuxean hilen...

\* \* \*

Bidean zoalarik, ezantza depota baten aintzinean gelditzen da Mattin. Gizon bat sahetsean trufaka hasten zaio:

–Errazu, Mattin: lehengoan ikusi dut zure autoa pasatzen batere xofurrik gabe. Nun zinen?

–A, zer nahuzu? Asto handiak ikusten ditudalarik, gordezten nauzu...

\* \* \*

Mattin Aheztarra nork ez du ezagutu? Behin bi gizon ari ziren solasean, Mattinen ixtorio baten kondairan. Batek zion:



–Horren talenduarekin abokat bat eginen zen.

Neska gazte bat aldean zagon eta harek, bururatzeko hasia zuten saila, erran zuen:

–Apez izan balitz ere. kofesor ona izanen zen.

Denak irriz lotu ziren.

Zerbeit makur balin bazen ere, han behar zuen, gauzak be-ti ongi jujatuz.

Etxean ere griña bat bazuen urtea hastean: urte ondarraraino zer nola iragan behar zuen gure bizi moldeak.

\* \* \*

Ameriketarat joan zirenean, Mattin eta Xalbadorrek Xarles Iriart zuten beren gidaria. Dena kontseilu, dena manamendu artzen zitzaioten beren xefa.

Egun batez, garbitzeko sala batean zirelarik, Xarles Iriart ohartzen da Mattinek lazoki hortzak brozaten zituela, eta erraiten dio:

–Errak, Mattin: hortz horiek nola garbitzen dituk? Badakik eta, ontsa garbitzen badituk, hatsa hobeki hartuko dukala.

Bertzea ez baitzen lotsatzen erreputaren emaiteko, erraiten dio:

–Gaizo astoa! Zer duk: hik hortzetarik hatsa hartzen? Nik ez behintzat...

Eta Xarles *tanpa* ixildu!

\* \* \*

Igande batez, Getariako osabak, koziner ona baitzen, gonbidatzen ditu Mattin –gaztea zen oraino– bere ait'amarekin, bazkaltzerat.

Mattinek katiximan ikasia zuen ortziraletan mehe eta barur egin behar zela. Orduko usaia zen ortziraletan arraina ja-

teko. Laborari etxe gehienetan makailla jaten zen, ilar edo patata zonbeitekin.

Igande hartan, osabak, salda ondoan, ekartzen du plata eder bat ongi apaindua eta zerbizatzen hasten da.

Mattinek, ikustearekin usaiatzeko kanpoko jateko moldea, erraiten du:

–Zer? Igandearekin arraina?

Denak irriz hasi ziren, zeren Mattinek uste zuen arraina mehe eta barur egunetan baizik ez zela jaten, etxean hala egiten zelakotz bakarrik.

Nola osaba hura *Dames de France*-ko komis ibiltzen baitzen, pasatzean etortzen zen gure etxerat eta galdegiten Mattini:

–Gosaria prest duk?

–Bai; nahi duzunean.

Osabak atakatzeko:

–Zer duk jateko: arraina?

\* \* \*

Herriko bestak zirelarik, Xalbador eta Mattin gehienetan han izaten ziren pertsuetan artzeko.

Bazkal denboran, pilota partida artean, pertsu batzu botatzen zituzten jendeen jostarazteko.

Pilota partidaren ondotik, musika soinua. Han ere maitezuten aurkitzea gazteen artean, nahiz holakoetan adinetako jendeek ere dantzatzeko duten. Gure pertsulariak, airosturik, dantzan eta fandangotan artzen ziren.

Egun batez, Mattinek, dena debrukeria baitzen, erraiten nau:

–Barda dantzatu dut atso lodi lodi batekin. Hain zen lodia, nun nere beso laburrek ez baitzuten inguratzen ahal haren gerrizabala. Bainan ez naiz batere unatu harekin.

–Nolaz ez? –nion ihardetsi.

–Ori! Bulardegi bat bazuen izigarria! Nere kokotsa haren bularraren gainean pausatzen nuen, hain justu neurrirat hel-tzen bainintzen, eta etzen lokartzerik. Astokeria batzu erraiten niozkan artetan, eta, irriz lotzen zelarik, haren bularrak eta ne-re burua saltoka hasten baitziren.

–Eta gau guzia harekin arizan zinen? –nion galdegin.

–Ez, ez. Xalbador hurbil egotu zen nere zinemari begira eta laster joan ginen ostaturat. Gaiak ez zuen parerik izan. Jendearen irria beharko zinuen ikusi!...

\* \* \*

Ixtorio hau Mattinek kondatua. Behin batez bazen gizon bat beti Bitoria eta Bitoria aipatzen zuena. Lagun batzuen artean edaten ari zelarik, erraiten diote:

–Heldu den astean joan behar diat Bitoriarat. Merkatu hauta han egiten omen die.

Merkatu egunean badoa gure gizona kurios, diru pixka bat sakelari harturik.

Han arribatzearekin, mundu bat zabilan harat eta hunat. Xoko guzietan baziren gauza klase guzietarik.

Urruntxago, karrika buruan, gizon bat dena oihi eta balentria, pisuak bazituela saltzeko. Paketa koxkor batzu zuteneri galdeka ari zen:

–Etor nere ganat. Nik baditut pisuak, xuxen erakutsiko dutenak zuen paketek zer karga duten.

Emazte gazte bat hurbiltzen da eta emaiten dio.

–Horra: zuk ere kilo batentzat erosiko zinuen gauza hau, eta ehun grama eskas ditu. Ikusten duzu zenbat ebatsi zaituzten?

Gizon batek, hori aditzearekin:

–Nik ere behar diat kontrolatu, eian neri ere ebatsi nauten, emazte horri bezala.

Emaiten dio pisatzeko.

–Zuk ere kasu egizu. Berdin tronpatu zauzte. Ene iduriko, nere pisuak dira xuxenenak.

Gure komertsanta begira zagon Juanito erraiten zioten gizon sudur luze bati. Kexu kexua zabilan harat eta hunat bere egin beharrak ez jakin nun egin. Bere sahetsean ohartzen da paper puxka bati. Hartzen du eskuetan eta bere depota barnean emaiten. Jendeen artean bazoan, kurioski eginik bere paketa eta tinki tinkia emanik besoaren azpian.

Bertze komertsant debru hura ohartu zen hari ere, eta deitzen du bere ganat.

–Zuk ere baduzu hor, bertzeak bezala, paketa bat? Ekatzu neri, ikus dezadan, jendea ez dezaten engana beren parabolekin.

Emaiten dio.

–Zortzi ehun eta berrogoi ta hamar grama! Eskas oraino! Gero eta makurrago? Bada posible?

Gure martxantak jotzen du paketa famatu hura eta urratzen zaio. Alde guzietarat igortzen du barnean zuen gauza hura, eta berak ere hartu zuen parte on bat. Bere aintzinean zuen Juanito gaizoari muturreko bat ona eman zion. Trixterik giberat jin zen,

Lagunek, ikustearekin, galdegiten diote:

–Juanito, zer berri zuan Bitorian?

–To, mutikoak! Pullitik pasatzen duk han!

–Zer bada?

–Ez baduk aldian kilo bat kaka egiten, zafraldi bat ona hartzen duk!

\* \* \*

Hau ere Mattinek kondatua. Manex eta Mariak berrogoita hamar urte ezkonduak direla. Urrezko ezteiak nahi dituzte zelebratu, eta deliberatzen dute behar tuztela beren espos egunean zituzten lagun guziak, bizi zirenak segurik, egun hortarat gonbidatu.

Lehenik meza, gero afaria. Azkenik, hotelean lo egin, espos egunean egin zuten bezala.

Eguna etorri zenean, bizi ziren lagun guziak mezan aurkitu ziren. Gero, ongi afaldu. Omoreak ez zuen parerik.

Hor zirenak ez baitziren gazteak, denak partitu ziren bakotxa beren etxerat, salbu gure Manex eta Maria. Hoik hotelerat joan ziren.

Luzesko biluzirik bere erromatismoaren gatik, Maria badao oherat. Manex, aldiz, jartzen da fotilean deskantsuan, zigarroa behar duela erre. Mariak orduan:

–Bainan, Manex; ez zira orroitzen duela berrogoi ta hamar urte, ganbaran sartu ordu, ez nintuzun galtzerdien kentzeko minuta bat utzi?

–Ai, Maria, Maria! Orai, nahi baduzu berri pare bat trikotatu, uzten zaitut nahiko astia...

\* \* \*

Mattin Aheztarrak, merkatutik etxerakoan, buruz buru egiten du Manex, ostatu batetik ateratzean.

–Agur, Manex! Zure urrats hortan badut uste norbeiten laguntzaren beharra izanen duzun...

–Izi...ga...rri duzu... ba! Denek ikus...ten naute moz...ko...rra naizenean. Bainan e...ga...rri nai...ze...nean, nihor ez da ohartzen!

\* \* \*

“Nolako aita, halako semea” erran zaharretarik. Laparraren umea martxuka!... Mattin aita semeak usu egoiten ziren elgarrekin bat bertzearen berrien kondatzen.

Egun batez, semea Bidarten fatur ibilki zelarik, kurutze gorria (*Croix Rouge*) deitzen den ekipako batek galdatzen du gure semeari nahi zuenez heiekin batean parte hartu. Abantail handia ekartzen zela, partikulazki oraiko mendean, dela auto-ko ixtripu, mainatze eta holako. Salbatzaile hoitarik ainitz eskas izanez, baietz hitzeman zuen eta etsamina pasatu.

Etsamina ondoan, ekipako nagusiak deliberatu zuen teatro ttiki baten muntatzea. Zer gai hauta? Magasin batetako arrain gorri saltzaile! Hau komedia! Behin ere teatroan ez jokatua!

Bat emaiten dute nagusia, arrain gorriena; gure semea saltzailea... eta, gainerat, zozoarena egin behar.

Etxerat heldu da debruak hartua: nihundik ez duela egiten ahalko delako zozoarena! Aitari erraiten dio:

–Nola beharko dut egin manera horretan? Zail izango da!

–Mutikoa, ez hadila kexa –dio Mattinek– Aise eginen duk! Segi zak hola hola...

\* \* \*

Behin batez Mattin solasean zagon gizon batekin, erdaraz baizik mintzatzen ez zakienarekin.

Mattinek:

–*Qu’est ce que vous pensez: les femmes à la politique?*

Bertzeak:

–*Je suis entièrement d’accord.*

Mattinek, irri maltzur batean:

–Orduan ikusiko dugu pollitik!

\* \* \*

Mattini ixtripu izigarri hura gertatu zitzaiolarik. jende frango izatu zitzaion bisitaz. Halere memoriua beti xuxen zaukan. Lagun batek galdegin zion:

–Errazu, Mattin: memento lazgarri hartan ez zira izitu, bertze mundua zure begien aintzinean ikustean?

–Izitu? Baterez! Izan nintzen San Pedroren ateraino, eta harek gibelerat igorri nintuen, ttipiegi nintzela eta pixka bat handitzean hartuko nintuela...

Gure Mattin Aheztarra,  
norat ote joan zira?  
Nere gogoa trixterik dago  
zeruetarat begira,  
hedoi arteko dirdira,  
iduri baitu izarra! (*bis*)

Urtxo zuriaren pare  
hegaldatu izan zare,  
zure hegalak hautsiak diren,  
ez da berririk batere;  
esperantza galdu gabe,  
parabisuetan zaude? (*bis*)

Garen gu bi alarguntsa,  
otoitzez galdez laguntza,  
zure arima bakean daike,  
badugula esperantza;  
atxik zazue guretza  
xoko bat, gure egoitza. (*bis*)

Jiten denean orena  
ez gaitzazue kondena;  
gure hemengo berriak eta  
hor duzuen zoriona,

elgarrekin iragana  
berrituko dugu dena. (*bis*)

Zure hauzoko Battitta,  
bi urte hil izan baita,  
elgarren lagun zinezten eta  
zinezten funtsezko aita,  
zuen parerikan ez da,  
konprenitzea errex da. (*bis*)



# Pertsu lanean

---

Beti danik Eskual Herrian izan dira pertsulariak. Bainan nor ziren? Zer gisetarat kantatzen zuten? Horiek guk ez ditugu ezagutu... Gure haur denborakoak ziren Matxin Senpertia eta Panpale Luhusokoa.

Matxin ezagutu nuen ene ahizpa bi bitxien bataioan. Sei urte nituen doi doia. Halere ordukotz kantua maite nuen, eta Matxinen ondoan bazkaldu nuen, hobeki entzuteko haren ateraldiak.

Urteak joan ziren. Han hemenka aditzen ziren bakar batzu ditxo eta pertsu moldatzen artzen zirenak.

Bainan beti izaten baita norbeit ofizio batean sustengatzailer, hemen ere hala gertatu zen Erandorena jauna. Oso pertsuzalea baita eta pertsuaren balioa konprenitzen baitu barnatik.

Egun batez deliberatu zuen behar zituela hemengo pertsulari fama zuten guziak elgarretarat bildu; eta hala entseiatu zen. Ez ditu pazientziarik gabe egin. Egun, baten etxean, bihar bertze batean, eta hola andana bat atxeman arte. Bere egin ahalak egin zituen, eta nolazpeit hamar bat nere orroitean bildu zituen.

Lehenbiziko pertsu saioa egin zuen 1946-an, Donibane Lohizunen. Han zirenak: Etxahun, Xiberoko; Xalbador, Urepele; Iriarte eta Zubikoa, biak Bankakoak; Capdeville, Arruntzako, hunek ordukotz adin handia zuen: Inzaby, Iriart eta Xetre, hiruak Hazpandarrak; Errexil, Urruñarra, eta gure Matxin. Geroztik denak elgarren lagun egin ziren.

Pertsu saio horiek on egin zuten, partikulazki publikoarentzat. Hemengo jendeak baziren, egundaino aditu ez zituztenak beren denboran.

Bazuen Ernandorena jaunak talendu gai emaiten: banazka, hironazka eta hobekienik buruz buruka. Alde batetik publikoak hola frogatu zituen Xalbador eta Mattin, biak zirela hoberenak: jostakinak, berdin irri bezala nigar eginarazteko, asko gaietan.

Elgarren karatera ezagutzen zuten. Gogoan zituztenak aise botatzen zituzten elgarri, batere karratxurik gabe. Bazakiten, gaia eman ordu, bat bertzearen atakadan hasi beharko zutela; eta, batek zerbeit erran ordu, bertzeak handiagoa botatzen zuen, eta jendea orduan jostarazten zuten. Ez da Eskual Herrian xokorik, Xalbador eta Mattinek kurritu ez dutenik. Denetan maitatuak ziren. Askok tokitan «Laurel eta Hardy» deitzen zituzten.

Nork ez ditu entzun plazetan edo lagun arteko bazkari batzuetan? Jendea metaka biltzen zen heien inguruan. Zinez elgar maite zuten! Elgarri ziren estekatuak. Bat bertzea gabe deus ez zirela iduritzen zitzaieten.

Gogoan ditudalarik! Zonbat eta zonbat itzuli eginak biek, batean egunez eta bertzean gauaz; beren piaia, ixtorioz edo pertsu berriak moldatuak elgarri kantuz. Bidea luzea izana gatik, ohartu gabe kilometrak pasatzen ziren, solasean iraganez.

Behin batez, Donapaleuko ondoan den herri batetarat joanak ziren kermeza batetarat. Beti jan edanak ausarki bazituzten. Besta finituxea zen. Mattin katarro tzar batekin zen. Sakelako mokanesa ateratzen hasi zen, zintzatu beharrez. Bisean bis zuen gizon batek, uste izan zuen moltsaren hartzera abian zela pagatzeko beren otruntza, eta erran zion:

–Ez zazula holakorik egin. Ene inguruan direneri, nik pagatuko ditut.

Xalbador aldean baitzuen, boza apaletik Mattini buruz erran zion:

–Gaizo zozoa! Ohartzen nauk ez dukala nik bezala ezagutzen. Ez zuan aise lerratuko pagatzera,... nere gisa.

Egun hartan kermeza zen. Ondoko igandean herriko bestak. Nekatu egiten ziren erematen zuten bizi moduan.

Handik laster fama puxka bat bildu zuten eta Gipuzko alderat galdegin zituzten. Bizkaian eta Naparroan ere bai.

Beren hastapeneko pertsulari lagunak Basarri eta Uztapide ziren. Lagun oso onak.

Basarriekin asko gauzez argitu izan dira, gizon jakintsun handia zelakotz. Mattinentzat profezur baten pare izan da haren erakaskuntza.

Uztapide ere pertsulari fama handikoa da, estimu neurririk gabekoa. Haren solasak funtsezkoak dira. Kontseilari zuzena. Mattin nahi izan zaio beti jarraiki. Manuel Uztapideren konpañian ez da sekulan aspertzerik.

Gero eta gehiago galde izan zituzten mugaz bertzaldera. Nola Xalbador urrun bizi baitzen Mattinen ganik, frangotan Urruñako ostatu batean gelditu egiten ziren, tenore berean joateko gisan. Hantxet pokadilloa jan eta batek han berean uzten zuen autoa, eta biak batean gaten ziren.

Zonbeit aldiz, Xalbadorrek pertsuak etxean moldatuak izaten zituen eta gogoan atxikiak; eta Mattini, bidean joaiki zirelarik, kantatu egiten ziozkan. Harriturik egoiten zen Mattin, zonbat aldiz ausnarratuak izaiten zituen, hoin aise kantatzeko.

Ernandorena jaunak segitzen zituen gure pertsulariak, nun nahi kausiturik ere. Egun batez erraiten diote:

–Gan behar dugu Basarri, Uztapide, Xalbador eta Mattinek Pariserat. Hango Eskual Etxea behar dugu bisitatu.

Joan ziren. Mundu bat omen zen bildua. Meza ere entzun omen zuten ostatuan berean. Mattinek beti beretik:

–To, gure herrian ere, ostatuan emaiten balu meza gure erretorak, beharba jende gehiago bilduko luke.

Gero, *Lido* Pariseko teatro ederrenetarik bat izanki eta harat gan behar zutela abiatu ziren. Bainan han behar zen, sar-

tzekotz, jaun handiak bezala muntatuak izan. Bertzela ez zen sartzetik. Hain xuxen, ate zaina Baigorriarra zen, eta harek ezagutzen zituen gure bi gizon famatuak eta sartzerat utzi.

Jarri orduko, Xalbador lo zurrungan eman zen. Mattin aldiz erne ernea, hango neska ederrak ikusita. Heien gorputz ederra! Dena lore, dena argi. Xutik egotu omen zen espektakula denbora guzian.

Geroztik ere izatu ziren Parisen, orduan Basarriren partez Mitxelena, beti Ernandorena jaunarekin.

Memento xoragarriak iragan dituzte beren denboran. Bixtan da, ez nekerik gabe frangotan. Erran ditake beren biziko pasaia konplutuxea zutela, eta gauza guziek badutela fin bat.



Xalbador eta Mattin, beren lagun batzuekin, Ameriketean.

# Ameriketarat

---

Xarles Iriart, Donibane-Garazikoa, okupatzen zen pape-rez, Ameriketarat gan behar zuten jendeentzat.

Egun batez, 1960-an, deliberatzen du behar dituela Mattin eta Xalbador berekin ereman hango tokien bisitatzeko. Gure bi pertsulariek baietz eta baietz, on hartzen dute haren mandatua. Han hilabete bat ederra pasatu zuten.

Pariseraino treinean joan ziren. Han arribatuta, *Boeing 707* egundaino ibiliak ez ziren aireko abion ederrean hegaldatu ziren Californiarat.

Zer goxotasuna barne hartan! *Hotesse de l'air* nexka paregabeak jenden artean harat hunat, zerbeit eskas zutenez galdeginez edo berdin irri pollit bat erakutsiz. Gure anbasadoreak trebatzen baitziren ixtorio pullit batzuen heieri kondatzen.

Bisitatu zituzten Reno, Backersfield, San Francisco eta bertze ainitz leku eder. Hango zabaldurak! Bistaz ikus ahali-kako eremuak. Etxeak taulaz eginak, lur ikararen gatik.

Zer arrakasta ez dute izan gure pertsulariek! Kilometrak jendek egiten zituzten heien agurtzeko. *Pique-nique* asko baze, zikiro besta eta gaineratikako. Eskualdunek zinez han estimatzen dute elgarretaratzea, pertsu, kantu eta musika, orotarik jostagailutzat.

Xoko guzietarik heldu ziren jendeak, Mattin eta Xalbador mintzatu beharrez, asko baitziren sekulakotz han geldituak bi-zi moldearen gatik.

Aste guziez gure amerikanoek berriak igortzen zituzten. Zer egun xoragarriak! Alde guzietarik lagun arteko batasun bat: batzuek bazkaltzerat, bertzeek afaltzerat, eta hola iragan zen hilabete osoa.

Bainan guretzat ez zen arras berdina izan. Mattinek, partitu aintzin, bere osaba eman zuen etxearen zaintzeko. Egun hartan berean heldu zauku osaba bere autoan. Hartzen ditu bere puxkak, eta bazuen ere gauza bat ezin konprenitzen ahal ez nuena, eta galdegin nion:

–Zer duzu kartoin luze horren barnean?

Harek errepusta:

–Xirioa.

Eta ez nuen kasurik egin. Aratsa etorri zenean, afaldu ta gure osaba oherat badoa; semea ere bai.

Ni baxeren egiten lotu nintzen. Ur eskasian, etxe aintzinean den punparat gan nintzen bila, kuraia handirekin, artzain ona nuelakotz zaintzeko.

Sukalderat sartuta, leihoak hurbiltzen ditud arras hetsi gabe. Zer entzuten dut? Arrabots bat etxe aintzinean. Lotzen dira beren gisako solas bitxi batean:

–Pitxi, pitxi, pitxi...

Orduan ni izitu! Nola osaba gainean lo baitzagon, xerri gizendu baten pare korrokan zen. Oihu egiten diot:

–Osaba, iratzar zaite. Norbeit bada gure etxe aintzinean.

Hura zen bezalakoarekin, saltoan jeikitzen da eta leihorat agertzen.

–Gabon, jauna –diote gure gizonek. Hiru segurik baziren.

Gure osaba ez baitzen konplimendu gose, erraiten diote:

–Nun ibilki zaizte tenore huntan? Ez ahal dakizue Mattin gaur Ameriketako bidean doala?

–Barkatu; ez ginakien. Bainan andrea bederen etxean da?

Han nintzen ba, osabaren gibelean, daldaratan. Eta harek:

–Bai, etxean da. Aspaldi lo dago. Zer nahi duzue?

Hitz hoik aditzearekin, gibelerat partitu ziren, deus erran gabe.

Gure osaba ez baitzen trankil, jausten da beheiti. Bere kartoin luze hura hartzen du eta idekitzen. Zer zuen? Karabina bat... Badoo kanporat, bere autoa han baitzuen. Magasin batetako *representant* bat zen. Tiro bat tiratu aireari, enkas hor baziren.

Barnerat eta, behereko ganbaran atea dardaraka. Zer pasatzen da? Osaba, semea, ni, denak izituak gaude! Pulliki pulliki hurbiltzen gira ateari buruz eta pusaka hasten.

Hura, bere karabina, kartutxa emanik, prest dago tiratzeko, noiz aterako den barnean den debrukeriari. Ikusi bai ikusi, zer ikusten dugu? Gure xakur ttikia, ganbaran preso gelditua. Zer hatsa hartu ginuen memento hartan, erranez elgarri ez ginuela Mattini idatzi behar holako berririk!

Hilabetea pasatu zen. Gure amerikanoa heldu da etxerat.

–Zer berri da Ahetzen? Ongi pasatu duzue bakantza denbora?

–Ongi? Ez zuk bezala, ez.

–Zer da bada: makur zerbeit?

–Ez, ez. Zu gan zinen egunean, etorri dira gizon batzu zure galdez. Gu izitu gira, ustez gaiztakeri zerbeit egin beharrez ote ziren.

–Ez kexa. Ni segur naiz ixilka heldu zirela tenore hartan nihork ikusi gabe, eta berriz etorriko direla.

Ez zuen huts egin. Ondoko igandean, Mattin Luzaiderat gan zen pertsutan artzerat. Aratsean hor heldu dira berriz. Leihorat gan nintzen. Semea eta biak ginen bakarrik. Galdegiten dute:

–Mattin etxean dago?

Nik baietz. Ez zen Luzaidetik oinon etorria.

–Ikusten ahal dugu?

–Ez. Maluruski, sukar handi batekin dago ohean. Medikak errana dio ez jeikitzeke. Zatozte igandean, hamarrak aintzinean. Itsasurat gan beharra da.

Igandea heldu da. Hamarrak pasatzen dira. Mattin partitzen da Itsasurat. Horra nun gure gizonak heldu diren, hurgan eta:

–Egun ikusiko dugu, beraz, Mattin?

–Zoazte Itsasurat. Han atxemanen duzue.

Gan ziren eta Mattinekin mintzatu. Mattinek:

–Zuek zaizte gure etxean ibiliak, ni Ameriketara nintzelarik?

–Bai –diote gizonak.

–To, mutillak! Baduk pullitik pasatua gure etxean. Balukek filma baten iteko parada.

Hek harritu. Mattinek pentsatu bezala, pertsuak nahi zizuten egitea. Denen ahanzteko, elgarrekin hameketakoa egin zuten omore onean.

Zu hilikan ere segitzen du pertsulariak,  
jendeari egin araziz nigar eta irriak.  
Izanikan milaka poeta zu iduriak,  
ez tuzte sendatuko zuk neri eman zauriak.

Sendatuko naizela badut esperantza,  
gain hortarik igorriko nauzula laguntza.  
Ikusten zaitut otoitzean jende beharrentza,  
zuk bezala izaiteko zerua saritza.

Zu galtzean xoko bat hemen dago hutsa,  
geroztik joan zaizkit gogoa eta funtsa.  
Hil artio zuen izpiritu aberatsa,  
irri batekin utzi ninduen, emanik azken hatsa.



# Belarretarat

---

Urdazubitik mutil gazte bat etorri zen, Mattin pertsutarako galdez.

–Arratsalde on, etxeko andrea, Mattin etxean dago?

–Ez. Belarretarat gana da. Laster etorriko da, hain segur. *Ttiki* gure xakurra hemen dago. Nagusia, seguraz ere, norbeitin gelditua da solasean. Beira zozu gure xakurrari –nion erran–. Buzolaren orratza bezala ibiltzen du horrek burua.

–Zer derasazu? –erraiten nau.

–Ba, traktorrean gana da. Etxekoaren arrabotsa entzun arte, ez da partituko hemendik.

–Ori, hortxetan heldu da batto! Bertze bat ere ondotik. Hoitan da seguraz zuen nagusia?

–Ez.

Ordu hartan gure xakurrak bi beharriak xut ezarri zituen eta jauzika partitu.

–Orai da, orai, gure Mattin. Ikusiko duzu hemen dugula bortz minuta gabe.

Urrunetik ezagutu zuen. Ez zen bakarrik traktorraren arrabotsa, bainan kantuz ari zen: «Xarmegarria zira, eder eta gazte...».

–Bai! Zinez xarmegarria da horren boza! –nintuen erran mutillak.

–Agur, Mattin! Belarrak idortu dira?

–Egun ez. Biharko esperantzan nago.

–Zure galdez nabil. Etorriko zira gure herriko bestetarat?

–Belarrak sartzen baditut, hitz emaiten zaitut jinen naizela.

Biharamun goizean, leihoak idekitzean, iduzki eder bat agertzen da Mulieneko etxe aintzinean. Zerua urdin urdina zen.

–A! Egun belarrak sartuko ditugu, hola segitzen badu.

Goizean botatu zituen traktorrarekin; eta aratsaldean, bildurik, kargatu ginituen denen arte. Belarretari guziak egarrituak ziren. Bazen soroaren errekan ur xirripa bat. Beti halako tintaka bat sendi zen haren ondorat hurbiltzean.

Botoilak bete ginituen ur fresko hartarik. Iduri zuten izerdiz bustiak. Hain ziren distirantak, edari paregabeekin.

Bero izigarria zen egun hartan. Haritz handi baten itzalpean jarririk, xapelak kendu ginituen.

Gizon adinetako bat bazen, itsusia zinez! Apoak bezain aho zabala zuen, eta gainerat hortzik gabea, animale afrus horrek bezala.

Mattinen atakadan hasi zen, buru kaskoa pelatua zuelakotz, erranez:

–Ez diat egundaino ilargi xuritan, arratsaldeko bortz orenetan, nere pokadilloa jan.

–Ba, eta gainerat hortzekin! –erraiten dio Mattinek.

# Autoaren gidatzaile

---

Ekainaren hogoita laua zen, semearen komunionekeo eguna. Mattinek Xalbador gonbidatu zuen bazkaltzerat. Etorri ere zen Urepeldar lagun batekin autoan. Harek berdin gonbidatu baitzuen haren alabak egin zuen egunean.

Bazkal ondo gaitza; denak omorean! Batzuek ihizi solas, zoinek sasoinen uso gehiago etxerat bilduak; bertzeek, berriez, arrantzan amorroinak eta angirak bizirik sarearen barnean bildurik, itzul eta biraka ibilki zirela.

Batek, espantu handiagoa erran beharrez, aldean zagoen eta ihardetsi zioten:

–Nik ikusi ditiat, olio berotuaren barnean zirenak, eskapatu beharrez.

Zer gaiak pertsuen moldatzeko! Bainan gure pertsulariek bazuten bertze solasik. Biek zuten ideia auto bana erosteko. Bainan permisa noiz ukanen zuten?

Hain zuzen, Xalbadorrek biharamunean zuen permisako eguna. Tenorez erretiratu zen etxerat. Gau guzia amentsetan pasatu omen zuen, bere *J. V. quatre* hura gogoan. Aspaldian itzuli bat egin nahia baitzuen hor barna.

Handik aste baten buruko, gure bi adixkideak elgarretaratu ziren. Bixtan da gure Xalbador bere autoarekin jin zela. Zigarreta ezpainetan zuelarik, ez zuen nihungo *Mercedes* ederenaren jelosirik. Mattinek galdegin zion:

–Nola pasatu duk egun hori?

–Arras ontsa... Koda? Katixima bezain ongi banakian. Xo-furgoan ere maneran egin diat nere itzulia.

Mattinek, bere xapela buruan higituz:

–Neri ere gogoa emaiten dautak, kuxean *auto-école* hortan hasteko.

Lagun batzu baitziren heiekin, batek erraiten dio:

–Hik, Mattin, autoa gidatu? Ttipiegi haiz. Ez haiz helduko bolantaren menean.

Ixtant bat pentsaketan egonik, gogoratu zitzaion:

–Emanen diat zerbeit haltatzeko nere azpian. Ikusiko duk ez dutan nik ere bertzeek bezala eginen.

Ondoko ortziralean, Donibane Lohizuneko merkatua. Mattinek usaia zuen aste gehienetan joateko. Maite zuen gauzen prezioen jakitea. Lagun frango ikusten zuen karia hortarat.

Lagunak utzirik, badoa deskantsuan *auto-école*-ko moniturraren mintzatzera:

–Agur, jaun Ara. Heldu naiz zure ganat. Behar nauzu egun batez hartu, autoaren gidatzen ikasteko.

–Nahi duzunean –dio moniturrak–. Heldu den asteartean, zato goizeko hamar orenetako.

Eguna etorri zenean, gure gizona, mobileta harturik, badoa eskolarat. Kodaren ikasten pasatua zuen aste guzia. Kasiko onekoa baitzen, aise ikasi zuen.

Donibanen arribatzean, han zagon bere nagusia ate aintzinean. Sartzen dira biak autoaren barnean. Esplikazioneak emanik, abiatzen dira, ez sobera xuxen bidean, zeren gure xofur berriak ez baitzituen ezagutzen bitezak, beha kolpe bat eman gabe.

–Egungo baduzu aski. Orai zonbeit kestione koda horren gainean.

Hura bazakien dudarik gabe. Etxeratekoan, bere buruarekin egiten zuen:

–Ez nuke hain gaizki, koda bezain ongi banaki autoaren gidatzen.

Hola egin zituen dotzena bat itzuli. Moniturrak orduan:

–Bihar zato goizik. Lau edo bortz izanen zarete permisaren pasatzeko.

Lehenbiziko biek ez zuten pasatu. Hirugarrena, Mattinen aldia zen. Inspekturra aintzinean, Mattinen ondoan, jartzen da. Moniturra gibelean. Hogoï metra egin orduko, argi gorriak. Zanza! Arrasta kolpe bat izigarria emaiten du gure xofurrak.

Moniturra gibeletik hasten zaio zimiko batzuen egiten, inspekturra ohartu gabe.

Berriz partitzen da, eskuko arrasta laxatu gabe. Inspekturrak orduan:

–Badiat uste hunekin zinema egin beharko dutan.

Halere, gure Mattin ez zen lotsatu. Bazoan aintzina, bate-re beldurrik gabe. Hiru itzuli karrikan eginik, geldi arazten du. Arrastatzen da, ba, bainan arrasta kolpea ez zuen goxoegi, ez.

Bere moniturrak hitzemana zion, usaian bezala gidatuz, aise iraganen zuela. Egun hartan, pixka bat zainetan emana zen. Halere, inspektur jaunak laudorioak eman ziozkan, reflexa bazuela erranez; eta merezitu zuen delako permisa hura.

Moniturrarekin lagun zelakotz hameketako on bat eginik, etxerat etorri zen, bere permisaren ageria eskuan.

Handik ondoan, bi zalditako furgoneta bat erosi zuen. Egun guziez ibiltzen zen harekilan.

Egun batez bazoan Urruñarat, hango bikarioaren ikustera, pertsu saio bat zutelakotz ondoko igande batez.

Bidarteko bide handian arribatzean, estopa ez errespetaturik, espaiñol kamion zisterna handi baten kontra sartu zen, eta Getariako aldetik heldu zen auto ttiki bat ere gainerat etorri zitzaion, eta gure gizonaren autoa xehatu.

Mattin gaizoa odoletan han zagon. Eskuko erria hautsia. Berin puxkak nun nahi bazituen sartuak. Poliza etorri zen.

Medikua ere bai. Klinikarat nahi zuen sar arazi. Bainan gure Mattinek, ni ikusi gabe ez zuen joan nahi.

Etixerat etorri zen koinatarekin, dena odoletan. Garbitu nuen eta prest eman, zeren aratsaldeko lau orenetan operatu behar zuen, eskuko zaina moztua zuelakotz. Kuraia handirekin joan zen.

Operazioneko mahain gainean eman zutenean, Darricau jaun medikuari pertsu bat eman zion. Beharba ez zuen nihork egundaino eman izan pertsurik operazione denboran.

–Naizen guzia emaiten naiz gure Jainko maiteari eta zure eskuen artean konfidantzarekin –zion erran jaun medikuari; eta segidan pertsu bat eman, lokartu aintzinean.

Ez zion dirurik hartu, egin zion lanarentzat; bainan egun batez ordaindu behar ziozkan pertsu batzuekin. Gogotik egin zuen. Estimua handia zuen Darricau jaunarentzat.

Biharamunean sartu zen etxerat Xanpunekin, xuri xuria. Egundaino ordu artio ez zuen hainbertze pikurik hartu, eta aratsean gan behar zuten Xanpunek eta biek Senpereko trinket batean pertsutan artzerat. Jan edanek ongi eginik, kantuzko lana ere egin zuten deus ez balitz bezala, zeren Mattinek bazuen kuraia handia minaren jasaiteko. Ikustekoa omen zen, bere erria xut, plastarekin inguratua.

Norbeitek Xanpuni galdegin omen zion egun hartan:

–Errazu, Xanpun: aise eremaiten diozu arrazoinean Mattini?

–Nere ustez bai! Bainan debruaren pare da hau. Emanen dautzut konparazione bat. Dakizun bezala, arbola bat botatu lurrerat, hura botatuz geroztik lurrean da. Bainan hunek haren erroetarik ere behar du arrazoina atera. Eta zer egingen dut orduan? Irri!

Sendatu zen laster, ondorio txarrik gabe.

Bainan bere autoa burdin pusketan zen, eta erosi zuen orduan 4-L bat. Harekin ere zonbat eta zonbat kaskako!

Gipuzkoarat joaiki zelarik, aleman auto bat jo zuen gibeletik. Hura han berean gelditu zen panan, motorra gibelean zuelakotz. Paperak ongi beterik asurantzako, gure Mattin aintzina partitu zen. Tola pixka bat funditurik ere, motorra beti azkar.

Beti mokokatzen nintuen, etxean arribatzean, ez nituela garajeko atea aski zabaltzen; beti hoikien kontra arraskatzen zituela portierak.

Baionatik heldu ginelarik bide zabalean, denak nahi zituen aintzindu; eta gizon bizardun moko mehe batek ateratzen du burua autoaren barnetik eta erraiten dio:

–Gizon asto handia! Kurritu gogo duk eskuinetik ala ezkerretik?

–Nun nahitik! Bide guzia ene eskuko diat.

Eta segitu zuen aintzina.



Semearen lehen komunionean

# Bideak

---

Jendeeri entzun izan dut milaka aldiz: Mattin kokin!

Bai; Mattin kokina zen. Aski zen hari behako bat emaita, eta laster ohartu egiten zen haren begietan bazela halako behatze bizi bat, dena malezia, dena karkula eta gainerat abila.

Ez zuen balio hari erraitea:

–To, hik ez ahal dakik? Holako toki batean ez dukala ikusi zer edo zer?

Ez; ez zuen deus erranen. Bainan haren begiek potret batean bezala hartua zuten nihork uste ez zuen argitasun bat.

Lapurdiko seme bat zen gure Mattin, denek ezagutzen zutena. Zonbeit aldiz ibilia mugaz bestaldean ere. Hango jendeak, han sortuak izana gatik ere, ez ziren hura bezala hango herrietan ibiliak; eta Mattinek, solasean hasi eta, esplikazione frango emaiten ziozkaten norat joan behar baitzuten eta harat joaiteko bideetako xehetasunak.

Harrituak egoiten ziren, zoin aise gogoan hartzen zituen: dela *auto-route* edo handik ateratuta zer bidexka segitu behar zen eta holako...

Behin batez, Lazkao-txiki eta biek gan behar zuten deskartean zen herri batetarat. Lazkao-txikik hartua zuen karta; Mattinek ez. Bainan Mattinek, ordukotz, kartaren itzulia gogoan zaukan.

Lazkao-txiki badoa aintzinean, bere autoan bakarrik; Mattin ondotik, zeren aratsean bi aldetarat behar baitzuten partitu.

Bihurgune batean arribatzen direlarik, Lazkao-txiki gelditzen da, bere karta hartzen du eta hasten zaio Mattini erraiten:



–Hunarat gan behar diagu, marrak emaiten duenaren araberan.

Mattinek:

–Ez. Horrat ganez geroz, gibelerat heldu gaituk.

Halere Lazkao-txiki obeditu zuen. Bainan gaizki. Handik berriz itzuli behar izan zuten. Mattinek ez zaukan kartarik, bainan lehen ibilia baitzen leku hoietan, eta ez zituen ahan-tziak.

Lazkao-txikik orduan:

–Nolaz, bada, hartzen dituk hoin aise xoko guzietako harat hunatak?

Mattinek:

–Galda zotek Ezponda eta Xanpuni; hek erranen haute. Heiekin gaten naizelarik, kuxean hasten zaizkitak: holako toki-  
rat joaiteko, zonbat kilometra dituk?

Mattinek zalu zalua:

–Hunenbeste. Holako bihurtune batean ikusiko duzue horma bat, eta urrunxago patar kasko batetarik erakutsiko zautet halako herria, lehen ibilia naizena eta egun joan behar duguna. Handik bi kilometra inguruan, behereko xilo xiloan duk. Harat arribatu gabe, baduk etxe eder bat. Lehen ez zuan holakoa. Baserri etxe xahar bat zuan, eta orai dena berritan ezarria ditek. Horko jendeak biziki sanoak dituk. Ez diagu deusen eskasik izanen. Frangotan hartua diat oilo salda ona, baso arnoa ondolik. Urrunxago joan eta baduk bertze ostatu ttipi bat. Handik goizeko oren batean partitu ninduan bakarrik mobiletan. Ez gero orai bezala autoan. Uriak uriari ibilia nauk nere tresnaren gainean. Zerbeit gertatzen bazitzautean, ez zuan ez elektririk, asko tokitan mendiak iduri baitzuten gehiago iluntzen zutela bidea. Uraren arrabotsa senditzen zuan bakarrik. Etxeak bakan, jendeak lo, ni pasatzen nintzen tenorean. Ez nauk izipera izana nere denboran. Orai ere nahi nitek or-

duko zalutasuna banu! Zer nahuzue? Betikotz ez gaituk izaiten ahal! Utz dezagun gazteeri segida. Guk bezain bat herri kurritu artean, joanen zaiotek denbora.

–Orroitzen nauk egun batez –zioten erran Xanpun eta Ezpondi–. Xalbador eta biak gan beharrak gintuan Irunerat, aratseko hamarrak alderako. Negu beltza zuan. Xalbador ez ageri, bakarrik gan ninduan. Han arribatu orduko, besta muntatzaileek galdegiten nautek:

–Nun da Xalbador?

–Batere ez dakit. Ez du deus berririk igorri.

Batek dio bertzeari:

–Hura ez bada heldu gaur hunarat, ez dugu bestarik egingo.

Hau komedia! Nihork ez jakin haren etxeko bidea. Bainan bazen batto xuxen zakiena. Hura zen Mattin, eta erraiten diote:

–Bada hemen norbeit, taxigoa egiten duena?

Gizon bat presentatzen da. Mattinek hartzen du paper bat lapitzarekin. Hasi Irundik eta Urepeleraino markatu ziozkan kilometrak, herri guzien izenak, bihurgune guziak seinaltatuz...

–Eta orai –zion erran Mattinek xofurrari– zoazi trankil Urepeleraino. Kasu egiten baduzu, nik eman xehetasunekin ez duzu tronpatzerik.

Taxia harturik abiatzen da bakarrik gure gizona. Batere nihun gelditu gabe, gure xofurra arribatzen da Urepeleko plazan. Ostatu batean galdegiten du Xalbadorrenea. Handik laster heldu zen etxe aintzinerat.

–Argiak itzaliak, segur lo egiterat joanak dituk tenore huntan –zion bilariak.

Halere atea jotzen du. Xalbador agertzen zaio.

–Nor da hemen tenore huntan? –galdatzen dio Xalbadorrenek.

–Ni naiz! Zure bilat heldu naiz –dio xofurrak–. Zu gabe ez dute bestarik egingo Irunen.

–Mattin han duzue? –dio Xalbadorrek.

–Bai; aspaldi han dago.

Zalu zalua bizarra egiten du eta prestatzen da Xalbador. Hamar orenetako xuxen arribatu ziren Irunen, bide luzea eginik. Denak harrituak ziren, eta partikulazki kontent.

Besta ederra iragan zen egun hartan. Eta gai emaileak bazuen zer eman, jendeen jostarazteko...

# Sarako Mentta

---

Igande batez, denbora ederra izanez, Mattin eta biak joan ginen Sarako Mentta batetarat, erosi behar ginituela xerriarentzat irina, saski handixko bat artoaren garraiatzeko eta gaineratikoak sukaldeko asko puxkateria.

Solasean joan ginen bide guzian, bazterrerri begiratu, hain zen denbora sano eta garbi. Ez pentsaturik gerokorik izanen zela!

Menttarat arribatu gabe, zer ikusten dugu? Autoak lerro lerro geldituak... Gaineko kaskoan guardak!

Denak miatu egiten zituzten egun hartan eta puska gehienak kentzen. Egun hartan tzarrean ziren azkarki, ordena zutela gauza guzien konfiskatzeko.

Gure Mattin orduan hasi zen karkulen egiten:

–Behin etorri behar hunaraino eta ez dugu itzulia hutsik egin behar. Goazen aintzina. Geroak emanen du ikustera. Nagusia han balin bada, harekin egonen gira bulta on bat, eta oren pare baten buruko ihesi joanen dira segur gure guarda debru tzar horiek.

Mentta hartarat arribatzen gira. Gure autoa uzten dugu arbola baten itzal pean, hurbiltzen gira etxe aintzinera.

Jendea, multzo batean bilduak begira egoiki ziren bertze alderako kaskoari. Ez bazituzten utzi nahi beren gauzak guarderi, itzuli egin behar zuten erosi tokirat.

–Hau duk komedia! –zion gure Mattinek nagusiari buruz.

–Ez kexa –erran zuen nagusi jaunak–. Zatozte barnerat. Baxo bana edanen dugu elgarrekin. Anartean gure enplegatuek zerbitzatuko zauzte behar dituztuen guziak.

Edaten ari ginelarik, laurogoi urteko gizon bat han zen gu-ri begira. Harek ere edan zuen gurekin eta Mattini erran zion:

–Eremaiten banauzu egun etxerat, segur izaiten ahal zira ez zauztela gaur deusik kentzen ahalko. Zeren bihar guarda hoitarik baten haurra gure etxerat ekarriko dute egun pasa, eta hortakotz ederrak aditzekoa izanen da orduan.

Saratarra zen delako gizon kuraios hura. Herri hortan deitzen zuten *Belea*.

Mahain ttiki baten ondoan jarri ginen deskantsuan.

Hango nagusiak maite zuen pertsutan artzea. Mattini hasi zen gaiak emaiten eta biak lotu ziren ondarrean zirtoka.

Gure ondoan baziren lau lagun jaten ari. Batto, ehun kilo hurbil zituena. Jan eta jan ari zen, ogi puska bat eskuan, xorritxo, gasna... Arnoa ere aise edaten zuen. Bere burua urgui-luaz hanpatua zaukan.

Ohartu zen memento batean Mattin kanporat begira zago-la, zango puntan gainean. Trufatu beharrez, bere laguneri erran zuen:

–Mattinek eltzekaria gehiago jan izan balu, iduritzen zait handituko zela gehixago.

Mattin ordukotz ohartua zen hartaz musikatzen zela eta ihardesten dio:

–Hik jan duk, ba, eltzekaria ausarki; bainan kuiazkoa!

Denak irri karkailan hasi ziren eta gu etxerat partitu.

Xantza ginuelarik, guardek utzi ginduzten pasatzera, *Bele-ari* esker!

Autoan gintuen gurekin gasna eta *Belea*,  
galdurik ginauzkan memento hartan boza eta elea.  
Elgarri behatuz, iduri ginuen hiruek tetelea,  
espakada ederra izan zen zelakotz mintzatzailea.

# Piarres Lafitte zena

---

Piarres Lafitte kalonjea sortua zen maiatzaren 21-ean, 1901-ean, Luhuson. Bere sort etxea zuen Salaberria. Aita, Joseph, sortzez Baigorriarra, guarda zen; ama, aldiz, Mari Viela, Uztariztarra. Piarresen ama erixka izanez, amañotan behar izan zuten eman, haur ttipia zelarik, Elisabeth Irigoien Senpereko emazte bati.

Zortzi urte zituelarik, bere aita eta ama hilabete bat barne galdu zituen. Alfred bere anaia ere ez du luzaz goxatu. Orduan da Itorrotzerat igorria, Eugene Viela bere osabaren familiarat. Gelditzen da etxerik gabe, bererik gabe. Goizik hautatzen du berak besterendako izaitea.

Belokeko seminario ttipian sartzen da 1912-ko urriaren 3-an, apeztasunerako bidea hartuz. Han ezagutu zuen Mgr. Saint Pierre Milafrangar apezpikua. Harekin hasi zen eskuararen ikaskuntzan, eta handik laster erakasle ezarri zuten, hartze onekoa baitzen.

1926-tik eta 1985-era ez da gelditu niholaz ere. Beti omen zuen zerbeit ikasteko. Berari entzun izan diot frangotan. Mintzo zen frantsesez, eskuaraz, latina, greka eta alemana. Españolez ere ainitz irakurto du. Biarnesa berdin. Eskual gramatika bazakien barnatik, bai eta ooren buru hiztegia, euskal literatura, historia, kantuak, pastoralak eta bertsularitza ere.

Zonbat eta zonbat bertsu saiotan ikusi dut jarraikitzen. Ikusi ere dut jujari, bere lagun zituela Oxobi, Arrangoitzeko erretora, Elizalde apezza, eta bertzea Constantin medikua, xiberotarra.

Maite nuen aditzen nuelarik Lafittek erraiten: «Gure Mattin!». Plazerrekin mintzatzen ziren elgarrekin. Hain zen ka-

lonje jauna sano eta alai, jakintsuna izana gatik. Ez zuen berexkuntzarik ttipiagoentzat.

Estimu haundia zaukan Mattinek Piarres Lafitterentzat. Etxerat itzultzean, bazuen beti zerbeit ikasia jaun profeta haren ganik. Tenorea lasterregi igaiten zen holako baten konpainian.

Mattinen omenaldietan beti han aurkitzen zen mezaren laguntzaile Orroit naiz, 1978-an Mattini omenaldia egin ziotelarik, Labeguerie, Itzaina eta herritarren artean. Lafitte, aita Zavala eta herriko erretora Perugorria meza emaile ziren, Idieder zütela predikari.

Eta hunek predikuan erran zuen nola egun batez, herri batean, Mattin bertsutan hasi zela eta, nola maite baitzuen arrailarian artzea, aski handiak bota zituen. Idiederrek entzun orduko erran zion:

–Errazu, Mattin; uste duzu holakoak erran ondoan zeruetan sartzea?

–Bai, jauna. Iduritzen zaut –ihardesten dio Mattinek– *idieder* bat sartzan den lekutik, nolaz ez ditaiken, ba, asto ttiki bat pasa!

Jende guziak irriz hasi ziren, eta partikulazki ohartu nintzen Piarres Lafitteri. Bere burua paparoan joz, hura ere, bertzeak bezala, irriz ari zela eta luzaz! Hortarik ageri zen zoin jostakina zen, urguillurik gabea, mintzatzen errexa eta talendu handiko gizona. Goi mailako jakintsuna!

Eritegian zelarik, dena paper eta liburuz beteak zituen xoko guziak. Maite zuen irakurtzea, idaztea... Berrogoi urtez bederen idatzi du kazetetan: *Eskualduna*, *Aintzina*, *Errepikan* eta *Gure Herria*. 1944-an *Herria* sortu zuen, laguntzaile batzuekin.

Entzun dugularik berri trixtea, jendek erraiten zuten:

–Eskual Herriko artzain nagusia galdu dugu!

A, jaun kalonjea! Zuri jarraikiak ziren adixkide guzien bihotzak gelditu dira dolutan eta orroitzapenez beteak. Orai, zeruko izarren erdian, pausa dadila zure arima bakean!

Piarres Lafitte zena, hor zaitut goguan,  
zuk egin zerbitzuak gorderik barruan.  
Sekulan ahantziko ez dutalakuan,  
pagatuko zauzkitzu, oi, azken orduan!



Mungienea baserria.  
Aintzinean Mattin eta bere semea.



# Denentzat berdina

---

Mattinek, hil aintzineko astean, erraiten nau:

–Ai, Mari. Zonbeit nigar egin ditutzu arrazoin batzuen gatik; bainan gehiago eginen tutzu, ni mundu huntarik joan eta. Zonbat maite nauzun, orduan ohartuko zira.

Hala ere zen. Hain zen maitagarria. Denentzat berdina zen. Xakurrek ere bazuten harentzat errespetua.

Norapeit gaten zelarik, gure zakur Juki, bide hegian zen pezoin baten gainean jartzen zen, hura etxerat etorri arte.

Emanik ogi puxka bat, hezur edo berdin gustatzen zitzaion zerbeit, goseak egonen zen, hura ikusi artio.

Urrundik ezagutzen zuen haren mobiletaren arrabotsa. Autoan balin bazen ere, buztana higitzen zuen laster, eta neri buruz bere gisako abertimendu bat emaiten.

Biak ginenean kurri hor barna, hauzoek erraiten gintuzten gure zakurra oihuka artzen zela.

Etxea zaintzen zuen ongi. Buhamiak hurbiltzean beren mihise paketa edo sukaldeko argenteria saltzerat, gure zakurra erroderi ausikika lotzen zen, eta gure buhamiak laster partitzen ziren izituta. Gaurko egunean ere galdegiten dituzte gure Jukiren berriak.

Zakur hori Mattinen koinatak, Ezpeletako fatur zelarik, ekarri zion. Etxe batean bi zituzten eta batto guretzat.

Ttiki ttikia zelarik, Mattinen besoetan lo egiten zuen. Mahain gainean pausatu eta gurekin jan eta edan egiten zuen.

Handitu eta, kadiran jarri gu bezala eta handik jaten zuen, bi besoak plateraren bi aldeetan zituelarik. Kafea ere maite zuen.

Mattinek erraiten zituenak, denak konprenitzen zituen.

Izigarri handia egin zen. Mattin bezain gora bai. Eta, xutitzen zenean, hura baino gorago. Ederra zakurra; *berger* alemana.

Mattinek uzten bazuen paltoa lurrean, haren gainean etzaten zen eta etzion nihork hura kenduko. Norbeit hurbiltzen zenean, hortzak erakusten zizkion. Ez zen handik mugituko, Mattin etorri artio.

Bainan gaizoa hil zen. Hamalau urte zituen eta ez zuen gehiago indarrik.

Bertze bat ekarri zuen orduan Mattinek, gorri ttiki bat: Kiki.

Harek ere ez zuen mintzatzten, bainan Mattinen manerak laster hartu zituen.

Mattin bere makilekin abiatzen zelarik kurri, zangoetan emaiten zen eta bazakien lagundu behar zuela.

Bide sahetsean jartzen zelarik, Kiki han zuen ondoan. Ez zuen nihork hurbildu behar haren ondorat.

Azkeneko ixtripua izan zuelarik, begira egotu nintzen bierr: nagusia kantuz traktorraren gainean eta xakurra xaingaz ondotik. Ez nuen pentsatzen azken aldikotz ikusten nituela biak.

Handik oren baten buruko, heldu zaizkit: Mattin traktorraren azpian sartua zela.

Gan nintzenean ikustera, han ziren biak lurrean, Kiki hari milikaka. Iduri zuen sendagile bat.

Anbulantza jin zenean, nahi zuen harekin joan. Usaia zuen autoan promenatzen. Xakurra ez zen mugitu traktorraren ondotik, semeak tresna hura etxerat ekarri artio.

Gero ere gaten zen ixtripua gertatua zen etxe hartarat, us-tez nagusia han atxemanen zuela. Gibelerat heldu zen trixte trixtea eta sukaldeko mahainaren azpian sartzen.

Mattinek goizetan telefonatzen nintuen klinikatik, eta xakurra oihuka hasten zen eta ene alderat etortzen. Ezagutzen baitzuen bere lagunaren boza.

Mattin denentzat berdina zen. Behiak ere behar zituen. Filma eder bati baino gusturago egoten zen heiki begira. Xixtuz hasten zen. Orduan pentsatzen nuen zerbeit gogoan ibiltzen zuela, bere gustukoa, bixtan da.

Delako Juki handi harek ere maite zuen Mattinen xixtu egiteko manera hura. Solfeja bezala hartzen zuen soinu hoi, eta urratsa egiten pontukatuz.

Familian omore ona erakutsi du beti. Ez da gure semea kontseilu faltan zozoa gelditu. Sofritu zuen ainitz, hura Pariserat joatean. Gero, nahi bezala, bere ondorat jin zen.

Batto jin eta bertzea joan! Hola da gure munduko bizia.

# Semea Parisen

---

Mulienea ontasunez ttipiegi baita, semea igorri zuen fatur Bidartera. Bi urte pasatu zituen han eta postako nagusiak konkurrak pasarazi ziozkan.

Konkurretan on hartua izan zen. Bainan nahi bazuen segitu lan hortan, behar zuen Parisera joan.

Etixerat etorri zenean, paperak irakutsi ziozkan aitari, erranez:

–Aita, orai zer egin behar dut? Pariserat gan behar dut ala etxean egon?

Mattin, burua apaldua, ixilik zagon. Halako kolpe bat bezala sendi zen haren baitan. Nigarra jautsi zitzaion bi begietarik. Hartu zuen semea bi besoen artean:

–Jean Pierre gaizoa! Nahi hintudan fatur ikusi hire onetan, zonbeit sos irabazteko. Orai nahi duk ateratu lagunekin eta ainitz behar duk bizitzeko. Fatur nahi nian, ba, bainan ez Pariserat joaitenko. Zer nahi duk? Legeak hala manatzen dik eta gan beharko! Ikusten diat, hi harat ganez geroz, neke izanen dela berriz itzultzea. Gure etxea akabo izanen duk hi gabe. Ez diat kuraiarik izanen bakarrik lotzeko lanari.

Eguna etorri zenean, bihotza bete betea ginuen hiruek. Ez jakin zer erran elgarri. Arropak harturik, autoan abiatzen dira aita semeak, begitartea trixterik.

Miarritzeko garan utzi zuen lagun batzuekin. Mattin serio serioa etxerat sartu zen. Treinaren arrabotsa senditzen bezala ginuen gure beharrietan. Zazpi oren bideko!

Batzuentzat Parise parabisua bezala dago. Aldiz bertzerentzat presondegian sartzea!

Semea Parisen zelarik, Mattin trixterik zagon etxean.

Hamarrak inguruan, herriko faturra pasatzen zen gure bidean.

Mattin han zen bide hegian, bere buruko boneta itzulkatuz.

Autoa arribatu gabe ere, hurbiltzen zen haren ganat.

Faturrak, besoa luzatuz, emaiten zion Pariseko semearen letra.

Sukalde xokoan jarririk, idekitzen zuen. Lunetak emanik hasten zen irakurtzen, aste guzietako kazeta balu bezala.

Irakurtu ondoan, laster lotzen zen lanari. Nihork ez zuen hurbildu behar haren ondorat. Idazten ari zelarik, behako bat emaiten nion artetan.

Batzuetan irriz ari zen. Ixtant baten buruan, xixtu arin batekin pentsaketan artzen zen, bere lapitza eskuan.

Uzten nuen ixilik, iduri baitzuen Frantziako ministroari ari zela izkribatzen.

Bere lana akabatzean, dei bat egiten nintuen, nik ere bahuenez zerbeit emaiteko letraren ondarrean.

Bien sinadura emanik, hesten ginuen gure artikulua.

Aita semeek astean bietan elgarri berriak igortzen zituzten, eta beti eskuaraz.

Zonbat letra galdu ote ditut kasu egin eskasian? Halere karta bat begiratu dut orroitzapentzat:

*«Paris, le 7 Février 77.*

Semeak Parisetik burrasoeri:

Hemen ez gaude gu eri.

Badugu kondatzeko ainitz berri,  
egin dugulakotz ainitz irri.

Ene ondoan ditut Ahetzeko lagunak.

Horiekin pasatu ditut orenik goxoenak.  
Parisen nahi nuke holakoak izaita denak:  
gizon zintzoak eta zuzenak.  
Agur eta laster arte.  
Ttaco, Pantxika, Panpili».

Astean behin ukaiten zituenean berriak, zoratu egiten zen:  
–Mari, larunbat aratsean gure gizonaren bila gan behar dut gararat.

Ettxerat arribatzean, sanja zen bien begitartea. Autoaren barnean egoiten ziren, beren ixtorioak ezin finituz.

Bortz urte, luze ziren zinez!

Egun batez, Parisen bazkaltzen ari zelarik, gure Jean Pierrrek abisu bat izan zuen: nahi zuenez Miarritzera etorri.

Gogotik on hartu zuen,

Laster jakindu ginuen berri on hori, Bai; gure Mattin ere alegeratu zen, eta biziari berriz gustu hartu.

# Ura

---

Maiatzeko egun eder batez, iguzkiak azkar berotzen zuen. Nor arribatzen da gure etxe aintzinean? Aita Zavala!

–Nun zabilta? –nion galdegin.

–Zuen ikustera, hemen pasatzen nintzen eta.

–Sar zaite. Pozten nau Mattinen adixkideak hemen ikustek. Hura itzalirikan ere, haren omena bederen beti bizi dela. Gorritua zaude? Zerk atsegin egingo zaitu?

–Ur fresko pixka batek...

–A! Hori, hori! Eta zoin uretik nahi duzu edan?

–Zoin uretik? –nintuen eman arrapostu.

–A, bai! Baditut bi ur klase: batto, hirikoa erraiten duguna; eta bertzea, Mattinen surtsa.

–Mattinen surtsa? Zer da hori? Ximik deitzen den ur famatu hura?

–Ez, ez. Orai erranen dautzut. Mattinek beti erraiten zuen bazuela sorgin aire bat, eta ur miatzen ere bazuen jokoak. Beha zazu etxe aintzinean den putxu zimentazko horri. Sei metra barna atxeman zuen delako surtsa hura, eta ez nola nahizkoa! Botoilean eman ez geroz, izerditan ezartzen da. Hain dago freskoa. Nahi duzun bezenbat edanikan ere, ez du kalterik egiten.

Baso bat edan zuen gostuan eta galdegin nintuen:

–Zer joko mota zuen, beraz, uraren miatzeko?

–Ez gauza espantagarria! Urritzarekin zuen bere jukotria. Bi eskuen artean tiratzen zuen bi aldetarat, eta, hura erortzen zelarik gain behera, orduan zerbeit bazaukan: surtsaren bideak. Eta askok galdegiten zioten: «Segur haiz hor atxeman du-

kala?». «Hunen arabera ba... Eta nahi duzue jakin zonbat metra barna izango den?». «Nolaz hori?».

Egiten zituen sei, hamar, dotzena bat ere berdin, urrats aintzina; eta, bere urritza erortzean, orduan gelditzen zen, neurri hartan irriskatzen zuela izaitea.

Hola artzen zelakotz, etxe ainitzetan galdegiten zuten, eta kontenturik uzten zituen denak, zilaturaz geroz baxotzak beren etxetan ur garbia edaten baitzuten.

–Eta zonbat galdegiten zuen lanaren saria?

–Ez gauza handirik. Ez zen atrebitzen pretenitzea sobera, ez zuelakotz diplomarik.

Akabo orduan malda behereko ur xirripa, *ttir-ttir-ttir* senditzen ginuena, eta hango iturri ederra, arbol zabalen erdian zagoena. Hauzoak ere etortzen ziren beren bokata xuritzerat. Denek elgarrekin laguntasun bat baginuen. Solasean artzen ginen, bokata joz iturriko harriari.

Pitxer koxkorak betetzen ginituen ur fresko hartarik, etxerat eremaiteko.

Mattin ere zonbeit aldiz etortzen zen gure laguntzeko, bokata bizkarrean hartu eta. Guk baino aiseago erabiltzen zuen.

Han ginelarik, ixtorio frango kondatzen zuen. Gure xuriketak ohartu gabe egiten ginituen. Gero, patar kaskoan gelditzen ginen hatsa hartuz eta gure agurren egiteko.

Gure Mattinek erran nintuen, Ameriketara joan aintzin:

–Handik etortzean, gure etxea sanjatuko da. Hitz eman daukuten soldata pixkarekin, barnean ezarriko dugu ur kurrantea. Hango manerak ikusiko ditut, plegu txarretarat aise erortzen baita; eta, beharba, xuriketen egiteko maxina ere erotsiko dugu.

Erran bezala, geroztik denak egin zituen bere nahiaren arabera. Lana erreztu. Handik laster eritu zen. Halere beti zerbeit eskas.



Hauzoan bazuen lagun bat, hura ere ixtripuz ezindua. Biak elgarrekin kontsolatzen ziren. Harrizko alki bat egin ginuen, biak elgarrekin deskantsuan egoiteko. Bazuten ixtorio!

Bisean bis, oihan ederra zabal zabalik edergailutzat. Zonbat itzuli eginak hor barna, dela egur pikatze, iratzeketa, oinjoak ere bilduak milaka aldiz...

Zer egualdi eginen zuen ere bazakiten. Mendiari begira egoiten ziren. Zerua bezain urdin zirelarik, zer gauza ederra mendiak! Ez zen nihorat joaiterik gauza ederragoak ikusteko!

Zonbeit aldiz egona ni ere, harrizko alkiaren gainean. Mattinek deitzen nintuen:

–Zure bokata egin artio, zato nere ondorat. Berdin ez duzu errekarat joaiterik, lehen bezala. Ikusten duzu mendeak nola sanjatu diren?

Mendeak ba, bainan gure bizi moldea ere... Mattin hil zen, etxea hil zen! Orai hor dago gure alki hutsa. Ez da mintzatzeko, bainan ez du gutiago pentsatzen.

Halere eskerrik asko, aita Zavala.

Biak egon gira istaño bat jarririk, handik begiratzuz, mundu guzia ikusten baginu bezala.

Bai, egiazki, Mattinek maite zuen bere etxe xokoa. Han zen bizi eta han hil nahi zuen...

Kukuaren kukua aditzen delarik,  
xoxoaren xixtua sasien barnetik,  
alegeratzen dute entzutearekin,  
primadera ekarri dutela berekin.

Iñarak hegaldaka dabilta airean,  
noiztenka pausatuz jazko ohatzean;  
heieri begiratzuz nago otoitzean,  
zer senditzen dutan nik orai bihotzean.

Hegaztin xarmagarri, nun ote zabilta?  
Berri onak ditutzu ala berdin hitsa?  
Negua konparatuz da gure bizitza,  
sekulakotz ixildu da Mattinen hitza.

Laborarien gisan ari naiz lanean,  
nere seme bakarra dutala bermean,  
Mattinen hitz xuhurrak tugula gogoan,  
kontseilari ona zen etxen ta kanpoan.

Jainkoari galdatzen diot nik grazia:  
osasun ta bakea luzaz izaitia.  
Horik dira batian gauza berezia,  
urte goxo batzuek hemen pasatzia.

# Nigar egiteko mementoa

---

Zorigaitzez, egun bat etortzen da denentzat, mundu hau, eta lagun hoberena izana gatik, utzi behar baita sekulakotz. Xalbador eta Mattini ere hala gertatu zen.

Fama handia bildu zuten eskuin eta ezker. Omenaldiak ere egin ziozkaten, bai Urepelen Xalbadorri eta Mattini Ahetzen.

Orroitzekoa zuen Mattinek Azaroaren zazpia! Goizetik Xanpun jaun andreekin gan zen Urepelerat. Ni ez nintzen joaiten ahal izan. Lorientuak partitu ziren, egun xoragarri bat behar zutela pasatu.

Han arribatu ziren mezako tenoreko. Mattin harrিতuta egotu zen, meza denboran Xalbadorri begira, haren kartsutasuna otoitzean, komuniatzerakoan!

Bazkaldu ere elgarren ondoan egin zuten, omere onean, gerokorik pentsatu gabe.

Jendea bildu zen nasai plaza estalirak. Pertsulariak denak trenpu gaitzean ziren, zoinek pertsu ederragoa bota beharrez.

Pertsu saioa bururatzean, Xalbador eskastu zen taula gainetik. Nihork ez zuen asmatu zer gisetaz faltatu zen lagunaren artetik.

Halere norbeit ohartu zen: Mixel Labeguerie. Ondotik joan zen, bainan ordukotz Xalbador trenpu-txartua zen eta laster hil zen. Han zagon populu guzia deiardaka hasi omen zen.

Mattin hurbildu zen bere lagun izanaren ondorat, ezin sinetsiz hila zenez ala aments egiten zuen.

Ettxerateko bidea hartu zuen Xanpun lagunarekin. Egin zituzten kilometrak beti solas berekoak ziren: Xalbador hila zela.

Mulienerat arribatzean, gure Mattin eta Xanpun jaun andereak sartu ziren trixterik eta galdetu nioten:

–Nola ibili zaizte Urepelen?

Galde hori egitearekin, halako behatze samin bat agertu zen hiruen aurpegian. Laster konprenitu nuen bazela zerbeit joaiki ez zenik.

Xanpunek orduan:

–Xalbadorren omentzerat izatu gira eta Xalbador supituki hil zauku.

Ene barnean halako ukaldi bat senditu nuen. Mattin, aldiz, nere ondoan jarri zen, begiak nigarrez beteak.

Zonbeit egunez ez zuen lorik egiten ahal izan. Norbeitek menbro bat moztu baliote bezala senditzen zuen bere baitan.

Bai; egiazki hila zen Xalbador, eta ehorzketak egin ziren hiru egunen buruan. Gure Mattinek egun hura ez zuen alegrantziazkoa. Galdegin zioten pertsu zonbeit kantatzeko meza denboran. Ihardetsi zioten:

–Kantatzeko gogorik ez dut. Ene lekua utz nezake nahi duenarentzat. Kantatzeko baino, nigar egiteko mementoa jina dut. Ene barneko opila ezin dut iretsi. Halere entseiu bat eginen dut bertzeen artean.

Kantatu ere zuen. Ez zen baitezpadako kantua: bainan zen haren otoitza, haren azken agurra bere lagunari, haren ondorat iragan artio.

Azaroaren hameka etorri zen, Ahetzeko bestak. Egun horrek orroitarazten zuen. Ez zuen gogorik izan bestarat joaitako. Doluan jarri zen. Ordainez, Xalbador gogoan zuelakotz, pertsu moldatzen hasi zen egun hortan, eta egin ere bai.

Ezin ditaike konpreni Mattinek zonbat sufritu zuen, niheri erakutsi gabe, Xalbador bere lagunaren galtzeaz. Luzaz etsitua egotu zen, hura gabe deus ez zela; Xalbador artzaina zela Mattinentza, eta Mattin bildotsa Xalbadorrentza.

# Mixel Labeguerie

---

Bazkaltzeko lur sagarra bildu eta sartzen naiz sukalderat.  
Zer ikusten dut? Mattin idazten.

–Zer ari zira? –galdegin nion.

–Zer ari naizen? Berri trixte bat behar dautzut anontzatu.

–Eta zer?

–Maitek deitu nau telefonoaz, bi pertsu behar ditudala egin eguerdiko, radiotik abisatzeko nola Mixel Labeguerie hil den.

Laztu ninduen. Nigarra begian zagon eta kantatu behar. Hain maite zuen bere lagun eskualtzaleak bihotza urratu zion memento hortan. Eta huna bi pertsu eman zituenak:

Mixel, azken agur bat bihotz bihotzetik,  
zer griñak zinituen Euskadiz badakit.  
Zonbeit lan ibilia eskuararen gatik,  
behar baino goizago joan zira mundutik.

Trixterik nago hemen, Mixel, zu goguan,  
gizon hoberik ez zen neretzat munduan.  
Zonbeit aldiz egonak elgarren onduan,  
menturaz ikusiko girare zeruan.

Handik urte baten buruan, Jainkoak deitu zuen Mixelen ondorat.

# Oiartzungo omenaldia

---

Xalbador hil zen. Mattinek geroztik suerte txarrak izan ditu. Bainan bere ixtripu guzien artetik ez zen ahantzia izan.

Gan den ekainaren zazpian, Oiartzunen, hango herritar guzien izenean, egin zioten omenaldi bat ederra, plaza berri xoragarri hartan. Bazuen hogoita hamabortz urte herri hortan pertsutan ibiltzen zela.

Baionan *dializan* zelarik, etorri ziren Kaxka, Mitxelena eta bertze lagun bat. Omenaldi bat egin gogo ziotela eta eian onartuko zioten.

Bakarrik nintzen etxean ta ez nakien nola ibiliko zenez. Erran nioten berriz etortzeko.

Etorri ziren, bai, laster. Mattinek onetsi zioten: ez zela soberarik ongi. Bainan halere, gure Jainkoak bizirik uzten bazuen, joango zela.

Anbulantzako xofurrari aipatu zion eta harek eremanen zuela; andrea eta biak jinen zirela.

Dotzena bat lagun muntatu ginen Oiartzunat joaiteko.

Plaza berriaren ondoan, han zagon jaun Aranalde apeza Mattinen goait.

Nola Mattinek bere makila etxean ahantzi baitzuen, Aranalde apezak laster ekarri zion nunbeitik. Ez zuen deusen eskasik izan.

Salda bero xorta bat hartu zuen, harek eskainirik. Beti aita familiako baten pare kontsideratzen zuen jaun Aranalde apeza.

Tenorea etorri zenean, jende ainitz bildu zen Mattinen inguruan.

Ernandorena jauna ere etorri zen egun hartan. Eskutitza bat eman nintuen Mattini emaiteko, ez zelakotz bazkaltzen egonen.

Kaxka ere jin zen gure gana. Lore buketa eder bat eman nintuen besoetan; eta Uztapide, Jean Pierre eta ni sartu ginen hiruak, *matador* gisa, korrida batean balitz bezala. Jarri ginen elgarren ondoan.

Pertsu saio ederra izan zen egun hartan. Ondarrean, Mattinek Uztapideri bota ziozkan bi pertsu: aita bat bezala estimatzen zuela; hura galduz geroz, lagunaren hutsak bihotza eritu eginen ziola.

Ez dakit Mattini bihotza eritu zitzaionez. Nik dakitana da Uztapideri ezpainak dar dar hasi zitzaizkola eta nigar malkoak jautsi bi begietarik.

Ondarrean, zonbat orroitzapen izan zituen alde guzietarik!

Pertsu saioa akabatzean, joan ginen bazkaltzera.

Uztapide eta Mattin elgarren ondoan plantatu ziren. Han zen egiazko lagun artea! Denak omorean, kantu asko xaramelatu ziren.

Beste pertsulari andana bat ere bazen, hala nola Lazkano, Azpillaga, Mitxelena, Etxeberria, Lazkao-txiki...

Hau ere Mattinen bixki laguna. Zonbat eta zonbat irri egin araziak, biak zirenean, gaiak gisa hartakoak zituztelarik.

Besta bururatu zen *Agur, jaunak* kantatzearekin.

Zonbeit egunen buruan, sozietateak muntaturik, Mattinek izan zuen pertsulari gazteen Mulienean errezibitzeko plazerra.

Bi autobusetan etorri ziren. Baziren xistulariak, dantzari gazteekin. Alegeratu zuten gure etxe aintzina. Gero bazkaria zuten Arrangoitzeko ikastolan, eguna bururatzeko. Ezin ahantzizko eguna.

Bainan Usurbilekoa izan zuen azken itzulia. Antton Aranburu bere emazte gaiarekin jin zen: Usurbilerat joan behar zuela.

Lotsatua zen egun hartako. Ez zuen esperantzarik sendatzeko.

Halere, azken agur bat egin nahi zion Usurbileri. Hain maite zituen hango herritar guziak.

Milesker, Antton Aranburu; eta milesker, Arantxa maitea. Zure pertsuak kantatuko ahal ditu zeruan!



Oiartzungo omenaldian. Ezkerretik: Jean Pierre, Mattinen semea; Kaxka; Azpillaga; Mari, Mattinen andrea; Mattin; Uztapide.



# Mattin Gariador

---

Beti danik han edo hemen izan dira pertsulariak, hala nola Mattin Gariador. Xifonie deitzen zuten ezagutzen zutenek.

Nor zen Mattin Gariador? Mattin Treku pertsulariaren amaren lehen kusina. Gure Mattinen amaren aita eta Gariadorren ama, biak anai arrebak ziren, Ahetzen sortuak, Ganikotxenean.

Gariador familiak bazituen bi seme eta bi alaba, lauak ezkonduak. Orai arreba bat bakarrik dago bizirik, hura Arrangoitzen. Bizi den arreba horrek bi seme oso langileak baditu, hek ere ezkonduak. Seme bakotzak, beren etxe ederra muntaturik, segitzen dute beren ofizioa.

Mattin Gariador zenaren emaztea, aldiz, bere seme baten ganat erretiraturik dago, adinean joaiki delakotz.

Bazituzten hiru seme eta bi alaba. Denboraz, baserria atxikitzen zuten, denak etxean zirelarik. Bainan orai! Aita hil zen, ama bakarrik zagon, zer egin? Ezinduek egiten duten bezala, utzi behar!

Hain zen etxe pollita! Bide hegian, pilota plaza sahetseko paretari lotua.

Arrangoitzeko herri bestak egin izan dire nere orroitean. Urte batez mundua bildu zen antzara jokoa egin zutelarik. Ondotik, Mattin Gariador eta Capdeville xaharrak pertsutan egin zuten saio bat guziz pozgarria. Zer esku zartak heien ateraldieri!

Bazen ere musika soinua gazteentzat.

Erran zitaken Mattin Gariador gizon argitu bat zela. Maitze zuen familia. Bestan zelarik, besta gizona zen. Lanean zelarik ere, langilea zen.

Bere eguna bururatu eta, gauaz joaiten zen Miarritzera, hiriko guardiano. Bere kasketa buruan emanik, iduri zuen polizako jaun hoietarik. Nun nahi kausitzen bazen, mintza errexa zen.

Frangotan gure etxerat etortzen zen ote pikatzera, bere behi eta maxinarekin.

Eguna nekagarria izanikan ere, gure bi Mattinek, sukaldean sartuz geroz, bazuten zer konda elgarrekin otruntza denboran. Kafe on batek pizten baitu askotan bihotza, hura edan eta biak lotzen ziren lehenengo kantu xahar edo berdin ditxotan.

Nola gure sukaldean usu gertatzen baita liburu edo jurnalak izaitea, irakurtzen lotuko zen, partitzeko tenorea etorri arte. Zer erran behar da? Irakurtzea oso maite zuela. Zer nahi mota enteresatzen zitzaion. Irakur gaia izanez geroz, hartzen zuen astia bukatu artio.

Bere ama zena, Graxiana, zuen berdina, bere laurogoi urterekin ere. Urte guzietan etortzen zen Mulienerat San Martine-tako. Gure herriko patroina ez zuen ahanzten.

Bi, hiru egun lehenago, oinez *ttaka ttaka* jiten zen Arrangoitzetik Ahetzerat, bere bixkotx paketa beso azpian ezartzen zuelarik. Ez zen alferra izeba xaharra! Nahi izaiten zuen besten karietarat xoko guziak garbiak izaitea. Arribatu bezain laster, lotzen zen bazter guzien mugitzen.

Bainan kasu! Atxemaiten bazuen paper buztan bat ixtorio zerbeitekin eta bertze muturra eskas, hura eskuratu arte ez zuen barkatuko.

Gure Mattinek maite zuen izeba Graxiana atakatzea. Nola izeba hura pekada baino gogorrago baitzen, beharritat behar zitzaion mintzatu. Halere, gostuko hitzak aiseago konprenitzen zituen.

Gure Mattinek, zerbeit erran beharrez, galdegiten dio:

–Errazu, izeba maitea: zure seme hoiek nola konportatu dire gazte denboran, zure ustez?

–Nere semeak? Ez ziteian ez edan, ez pipatzen. Hoiak zuten bizio pixka nesketan, eta hura bera joan zaiotek. Adu duk hori?

–Bai, bai –zian erran Mattinek–. Bainan pilotan ere bazuten jokoa? Ez ziren hain segur anjeluseko beti erretiratzan...

–Ez. Hala duk. Bainan unatu eta hobeki lo egiten ziteian.

Bestak bururatu ondoan, ez zen lotsatua izaiten gure izeba. Senperen bazuen bertze seme bat, hura ere gazte denboran izana. Oinez oihanak pasatzen zituen lorietan, erranez ez zuela errematismarik eta hobeki bisitatzen zituela, bazterraren zabaldua eta gainerat aire ona iresten. Bai; maite zuen Mulierat etortzea, maite zuen bere iloba.

Gure Mattinen amak urtero behar zuen etorri gure ganat. Hau ere ez dut ahanztekoa.

Mattinek borrogoita zazpi urte zituelarik izan zuen autoaren gidatzeko permisa. Iduzki ederrak airosturik, biak joan ginen gure autoan itzuli baten egiterat, zeren Mattinek erosi berria zuen bere lehenbiziko taxia.

Behi bat saldua ginuen Arrangoitzerat. Gure piaiaz balia egin ginuen itzulia Arbonan gaindi. Nagusia ez ginuen ikusi, bainan behia han zagon estekatua, bazka puxka bat aintzinean. Etxerateko bidea hartu ginuen Arrangoitzen barna.

Hain xuxen, nor ikusten dugu etxe aintzinean? Mattin Xifonie. Laster ezagutu gintuen. Alabainan ez baitzakien permisa gure Mattinek bazuela. Oihu eginez deitu gintuen:

–Zatozte hunat! Baso txiki bat hartuko duzue!

Gonbida horrek ez zuen bietan erraite beharrik izan. Sukaldean sartu orduko, ohartu ginen bazela mogimentu zerbeit. Jendez betea zagon.

Jarri ginen deskantsuan, xurruptuz Gariadorren edari famatua. Han ziren guziak lanean ari ziren. Mattin Xifoniek ba-

zuen bortz kintaleko xerria hila egun hartan, eta besta egin beharra zuten lana bukatzean.

Alaba gaztena, ezkondu berria, hurbildu zen gure ganat. Ordukotz loditua izanki. Gure Mattini hasi zen arrailerian, eian ez zen deusez ohartzan, zeren alaba hura omore onekoa baitzen. Zer erran zion gure gizonari! Aditu zituen ederrak!

Besta segida ikusten zuen laster. Bainan bataiorat ez zen izatu. Beti galdeak bazituen pertsutarako. Lagun arteko memento horiek ez zituen galtzekoak. Denen adixkidea zen, bainan pertsulari lagunak zituen oroz gainekoak.

Handik laster Gariadorren ama eritu zen, eta hil laurogoita zortzi urtetan.

Seme Mattin Xifonie, aldiz, denbora gutti barne bere amaren ondoan pausatua izan zen, hirurogoita bortz urtetan. 1901-ean sortua zen. Orain hamasei urte gure artetik joana zaukula.

Agian gure Jainkoak zeruetan dagotzin pertsulari denak bereganatuko ahal ditu eta ezarriko betiereko zorionean.

# Ikus arte!

---

Mattinen bizia izan da zinez bakezko bizia! Hogoita hamalau urte uztailaren bederatzian ezkondu ginela. Urteak johan dira amentsaren pare. Bozkariotan ereman dugu gure bizia elgarrekin, pena zonbeit artetan jasanez. Jasaten errexak ziren harekin nahigabeak. Berak gordetzen zituen ahalaz, neri atsegin egiteko.

Lagunek, alegera ikusten zutelarik, erraiten zioten:

–Hi futitzen haiz? Bizi ederra iragaiten duk, hire kantueri esker.

–Bai, hala duk. Bainan zuek zertako ez duzue nik bezala egiten? –ihardesten zioten Mattinek–. Kantua denentzat libro duk... Bainan kantatu behar dik! Kilometra frango egiten diat, gauak gauari, zuek trankil ohean lo zaiztelarik. Nik ere maite nitek pausua, zuek bezala. Bainan badiat bertzerik gogoan: maite ditiat lagunak; maite kantatzea. Ene bozak dirauno Eskual Herri osoa nahi nitek zerbitzatu.

Mattinek osasun ona izan du. Jan edanek ez zioten kalterik egiten, adin bat arte segurik. Osagarria azkar atxikitzeke usuegi zituen lagun arteko otruntza erregearenak, basoak beti gaindika pagatzaileen bortxaz.

Egun batez, bere burua ez ongi sendi izanez, erraiten nau:

–Ez dakit zer dutan. Beti egarria naiz.

Sukarra hartu nion. Baterez!

–Medikua beharko duzu ikusi –nion erran.

–Medikua zertako? Ez dut nihundik minik sendi.

Halere deliberatu zen joaitea. Narbaitz Andres bere mediku hautatuak analizak egin arazi ziozkan. Handik zonbeit

egunen buruan, jakindu zuen bazuela azukrea, delako diabetak hura.

Gogoetatu zen puxka bat. Medikuak rejiman eman zuen. Maite zituen gauz on guziak debekatu ziozkan. Ixtant bat karkulan egonik, galdatzen dio medikuari:

–Uste duzu rejima hoi segituz hobetuko naizela, dena pilula hartuz, janariaren ordain?

–Ez dautzut jan gabe egoiteko manatzen; bainan kasu egiteko –zion erran Narbaitzek–, eta partikulazki alkoolari.

–Zer egin behar dut, lagun artean naizelarik: hek edaten gostuan eta ni heieri begira?

Hain xuxen, memento hartan San Martinak ziren. Bere lagun Xalbador eta Loiato Hazpandarra jin zitzaizkon bazkaltzerat. Gure gizonak rejima hasi zuen egun hartan. Zonbeit egunen buruan, jautsi zitzaion bere azukrea.

Kuraia berriz harturik, abiatu zen bere kantuzko lanari. Asko tokitan bortxatu nahi zuten edaterat; Mattinek ez.

–Zer zira: eritu? –galdegiten zioten lagun zonbeitek.

–Bai, bai! Xaharrerria hasia dut.

–Zer duzu?

–Zer dutan? –dio Mattinek–. Beihalakoak erraiten zuena: hiruetan hogoi urtetik goiti izaiten diren guziak. Ez nau horrek kexarazten ainitz. Jiten ahal banaiz, zonbeit urtez segurik ikusiko nauzue zuen artean.

Handik laster, medikuak sar arazi zuen klinika batetarat, bere azukrea normalerat ekarrarazteko. Sekulan baino gorago zuen! Hango medikua harritua zagon, erranez ez zela satisfos haren analizez.

Mattinek erreputa:

–Ez zarela kontent? Nik zer behar dut erran orduan?

Ettxerat utzi zuen sartzera eta pullikitu zen.

Lanean hasi zen, bere semea lagun. Deliberatzen du traktor bat behar duela erosi, bertzeak sobera gastu zuelakotz. Ekarri zutenean, laster abiatu zen bere egun guzietako lanen egiten.

Hauzoan bazuen gizon bat dena balentria. Mattinek pentsatu zuen behar ziola erakutsi bere maxina.

Badoa arratsalde batez, bere traktorraren gainean kantari, bere xakur ttikia ondotik.

Handik oren erdi baten buruko, heldu zait oihezaina hats hantua: Mattin traktorraren azpian zagola ezin ateratuz, ez jakin bizi hala hila zen.

Anbulantza etorri zen kuxean. Mattin lurrean zagon, sofrikarioak ezin jasanez. Xakurra han zuen bere ondoan, milikatuz haren zauriak.

Berrogoita zortzi egun pasatu zituen klinikan, Jesus kuruzean bezala, higitu gabe ohean. Errainak xehatuak, alde guziak kolpatuak! Hariztatu zuten, dela sudurretik, besotik, bottoila frango hustuak odol emaiten eta hazkurri.

Pullikitu zelarik, hari guziak kendu ziozkaten eta ohean hasi zen mugitzen.

Infirmier neska gazteak, lan gutixko zutenean, atea zerrata jiten ziren Mattinen atakatzerat. Ixtorio frango kondatzen ziozkaten. Orduan hasi zitzaion morala azkartzen.

Eriak ere etortzen ziren haren ganat, kurri ibiltzen ahal zirenak. Jakina zuten pertsularia zela infirmierek erranik, eta gustatzen zitzaizkoten haren ateraldiak.

Arats batez, Mixel Labeguerie eta Mixel Itzaina jin ziren haren ikustera. Ixil ixilik galdatu nion Mixel Labeguerie-ri zer pentsatzen zuen Mattinez; bazen esperantzarik, berriz pizten ikusteko.

Medikua zenaz geroz hura ere, eskuak hartu ziozkan eta behatzeri begiratu. Irri ezti batekin erran nintuen:

–Laster altxatuko da hemendik eta pullikiturik joanen da etxerat.

Konfientzia osoa hartu nuen gizon haren baitan. Hala gertatu ere baitzen: pullikitu zen, bainan ez sendatu!

Etxerat etorri ondoan, *réeducation* hartarat behar izan zuen gan. Mutil gazte bat, Basile deitzen dena, hura ere ixripuz gaizki gelditua eta biak joaiten ziren Bidarterat, kine baten ganat.

Andana bat baziren sala handi batean, gizon eta emazte, denak elgarrekin, lurrean etzanak. Irria frango egiten zuten beren gimnastika denboran. Emazte lodi bat bazuten berekin batean. Hari astokeria zerbeit erranez, anbiantzan pasatzen zuten beren aratsaldea.

Ibili zen hola hilabete pare bat, bainan Mattinen errainak ez ziren gehiago arrimatu. Baionako *Delay* klinikarat gan behar izan zuen.

Bi egunetarik behin, dializarat gan behar zuen. Anbulantza jiten zen etxerat haren bila. Bortxaz egiten zuen piaia hori; ez zuen on handirik senditzen.

Noizetik noizerat, Narbaitz Andres jiten zitzaion ikustera. Han ziren ganbara luze batean, denak lerro lerro estekatuak. Bai zinez! Behar zen kuraia, estatu trixte horren ikusteko.

Halere, bere min guzien artetik, deneri irri egin arazten zuen. Bere ondoan ziren lagunak maite zuten. Nihor ez zen kapable, hura bezala, ateraldi edo ixtorio kondairan artzeko.

Hil delarik, denek nigar egin dute, Mattinen eskasa sendi zutela erranez, alegeratzeko.

Bai, ikusten zuen bere bizia laburtzen ari zela. Memento batzuek trixtatzen zen, sofrikarioak nausitzen zitzaizkionean.

–Mari –nintuen erran egun batez–. Ni hiltzen naizenean, nere pertsulari lagunak nahi nuke eremaitea hil harrirat.

Nigarrez hasi nintzen.



–Zertako egiten duzu nigar? Nik ez dut trixteziaren beharrik. Zoazi katedralerat otoitz egiterat.

Hamabortz egun iraun zuen manera peningarri batean. Artatzaileak hurbiltzean, beti galdatzen zioten:

–Noiz bada eginen duzue zerbeit ene sofrikarioen kentzeko?

Batek, besoa altxaturik, esperantza eman zion:

–Luza gabe ikusiko zaitut kurri ibiltzen lehen bezala.

Ez dakit sinetsi ala trufaz hartu zion; denetarat ekarria baitzen kuraia handirekin. Deitu nintuen bere ondorat:

–Bihar, faltarik gabe, ekar netzazu nere makilak, pixka bat ibil nadin ganbara barnean.

Mandatu hura ez nuen ahanzi, eta makilak eman niozkan bere ohearen ondoan. Zorigaitzez, debaldetan izan zen. Soberra min zuen!

Goiz guzietz telefonatzen nintuen, bi, hiru aldiz bederen, medikuen bisita ondoan. Goiz batez deitzen nau manera berezi batez:

–Mari, zato ene bila, Zurekin naiz hobekiena. Hil behar badut ere, zure besoetan nahi nuke!

Ene nigarraren suspira senditzen zuen telefonaren buruan.

–Zaude ixilik, emaztekoa! Ez naiz oinon hein hortan. Hau ere korreituko dut, bertzeak egin ditudan bezala. Kontxita zure laguna eta biak zatozte aratsaldean, usaia duzuen bezala. Hemen izanen naiz bizirik.

Bi egunen buruan operatu zuten eta orduan eman zuen azken hatsa.

Memento hartan, lantzeta ukaldi bat bezala senditu nuen ene bihotzean sartzen. Hotz batek hartu nintuen gorpuz guzian. Ez nakien zer egin. Haren arropak eskuan nituelarik, us-te nuen ohoin batek hartu nintuela nere Mattin gaizoa! Makilak, aldiz, ohe xokoan zauden, nik eman bezala.

Kontxitak Mattinen arropak eta nik haren makilak, atera ginen ganbaratik, medikuarekin solasak eginik. Ez nuen urratsik egiten ahal. Bi zangoak moztuak bezala nituen.

Kitatu nituen behin betikotz orroitzapenezko klinikan pasatu egunak. Nigarrez hurtua, gorde nahi nuen harek bezala. Ezin zen posible. Gaindiak hartu nintuen.

Etxerat ekarri zutenean, mundu bat bildu zen azken agurraren egiteko. Narbaitz Andres haren medikua ere jin zen.

Radiotik entzunik, Arantxa Aranburu ere etorri zen. Egun batzu pasatu zituen gure etxean. Mattinek hain maite zuen bere Arantxa! Kuraia handia eman nintuen neskatxa maitagarriak, eta otoitz egin ginuen elgarrekin.

Erran ditaik, gure orroitean, egundaino Ahetzeko pilota plazan ez dela ikusi enterramendurik, Mattin Aheztarrarena baizik.

Ikus arte, Mattin! Atera nezazu ilunbetarik, eta otoi ezezta gain hortarik ene nigar malkoak...

Urriak zuen gau beltz ilunak nintuen utzi pentsatzen, holakoetan gertakariak maiz baitira gogoratzen. Haizea eta uri parrastak negua du seinalatzen, gorputz guzia dardara batek barna baitu inarosten, lur ikararen sendimenduak ditazkela konparatzen.

Urria hunen zazpia baitzen, igandea zen eguna, Mattinek zuen itzuliño bat egin beharra hor barna. Harturikan bere traktorra eta xakurra laguna, haren gainean kantatuz zoan, hura zen haren dohaina, dohakabeak pentsatu gabe distenguaren orena.

Haren lagun bat etorri zautan berriaren ekartzera:  
«Zure senarra kolpatua da, kasik baitoa hiltzera».  
Memento hartan ezin sinetsiz tanpez noan erortzera,  
orduan nintzen otoitzez hasi Jainkoari galdatzera  
zonbeit minuta bizirik zagon hurbildu arte ondora.

Lurrean zagon zabal zabala, sofrikarioz betea,  
bere traktorra urruntxago zen, ondoan xakur maitea.  
Ikus orduko erran nintuen: «Gozatu behaut etxea,  
nere gorputza ahal bezala, ez da izanen errexa,  
pauza nezazu deskantsa nadin, ta eman ohe berexa».

Adituz geroz bi hitz horiek laster nuen konprenitu  
neretzat naukan maite bakarra behar nuela kitatu.  
Ezin jasanez zauzkan zauriak ez zintazkela sendatu,  
bainan halere ez nuen nahi haren ganik apartatu,  
hatsa zueno ez baitzitaiken esperantza nihoiz galdu.

Adios, beraz, Mattin maitea, jin zaitzu ezin bertzea,  
mundu huntarik gan behar zinuen zorigaitzaren dorpea,  
ama semeak nigarrez utziz, bihotza bete betea;  
kotsolatzeko aski baitugu zutaz guk maiz orroitzea,  
horko gakoak atxiki tzazu eta ideki atea.

# Gogorapenak

---

Mattin gizon ttiki borobilla deitzen zen Ahetzeko lorea.

Bere inguruan pertsulari lagunek ornatzen zuten, buketa eder bat bezala konparaturik, ostoa ferdeak iduriz.

Hetan zuen esperantza, heien artean bizi zen, bihotza alegeratzen zitzaion, hura zen harentzat egiazko amentsa.

Maite zuen kantatzea xaharreri, gazteeri. Berotu egiten zen eskuak txalotzean. Estraordinarioa zen gainerat.

Orai Mattinentzat ez da gehiago pertsurik. Beharba zerutik Donostirat begira dago aurtengo omenaldiari.

Mugartegiren aldia zen aurten. Bizi izaitearekin bisita egingen zion. Pertsu zonbeit emanen ere hain segur gorestekoa, pertsulariak merezi zuen saria.

Bai, Mattinek maite zituen pertsulari guziak. Denak berdin estimatzen zituen, batere berexkuntzarik gabe.

Eri handi zelarik, memoria ongi zaukan halere. Lehen erran dutan bezala, egun batez erran nintuen:

–Ni hiltzen naizenean, ene ehorts egunean nahi nuke ene pertsulari lagunek hil harriatarat eremaita.

Hala egin zuten. Haren nahia ihardetsia izan zen.

Hogoita hamarrez goiti, pertsulari bakotzak beren azken agurra egin zioten egun hartan.

Beti erraiten zuen:

–Zorretan gelditzen naiz, hoiak neri egiten nauzkiten ongiatzat. Nolaz? Zer gisetaz pagatuko ditut?

Ongi izanez geroz, bere bihotz sendikorra bi parte egingen zuen bere lagunentzat.

–Ikus artio! –erraiten dute menturaz Xalbador eta Mattinek, Donostian kausituko diren guziera, eta kantatuko elgarrekin gloriaren himnoa.

Radiotik entzun dut aurtengo omenaldia,  
Mugartegik zuen dudarik gabe ondo merezia.  
Holako pertsularia aipatu gabe ezin utzia;  
ene partetik goresteko zor zitzaion guzia.

Pertsulari paregabea, ibili zira herriz herri,  
hameka aldiz jendeari egin araziz nigar eta irri.  
Zuk bezalako bertutea duena da zinez kontsolagarri,  
desiratzen zaitut izaitea ororentzat pozgarri.

Pertsularia izan da neretzat beti danik lehena,  
penak direnean hitz batekin histen dakiena.  
Uros izaitea da munduan gauzik beharrena,  
ez izan arren ez ditaike sekulan nihor kondena.

Nik ere banaukan kantari bat fina eta gozoa,  
pertsulari batentzat ez baitzen arras zozoa.  
Haren hitza aditzean ez zen segur faltsoa,  
maite zituen lagunak, maite Eskual Herri osoa.

# Kristo kurutzean bezala

---

Emazte bat jin zitzaitan egun batez, Mattinen liburuak banituenez galdeka.

Baietz, bazirela haren doia ihardetsi nion.

–Ez ahal dakizu norentzat ditudan?

–Norentzat bada?

–Haren lagun ziren bi erirentzat. Mattin, hilik ere, erien gogo bihotzetan beti piztua dago.

Handik zonbeit egunen buruan, eri hetarik bat jin zen gure etxerat.

–Agur, etxeko anderea. Bizi zirea? Beti jin nahia nintzen zure ikustera.

–Ikusten nauzun bezala, hemen nago, gogo trixterik.

–Ez otoi trixta soberetan. Mattin segur naiz zeruan ere beti berdin alegera dela. Baginuen denek haren beharra. Bere sofrikarioen gatik ere, beti baziren haren ahotik hitz pollit batzu ateratzen zirenak, eta orduan gure oinazeek iduri zuten eztitzen zirela. Bera ere, sofritzen zuelarik, eni gomendatzen zen, eta amultsuki lotzen nintzaion ene seme bati bezala, us-tez nere partetik ezeztatuko nizkiola hain barnetik sendi zituena doloreak. Iduritzen zait ikusten dutala oraino Kristo kurutzean bezala estekatua eta bere omorea atxikitzen, inguruan zireneri kuraia emaiteko. Bai zinez! Baginuen holako baten beharra! Haren ixtorioak ditugu gogoan, haren liburua irakurtzen dugu ahalik eta maizena, bihotzez gure artean dugu oraino. Haren boza ere entzuten dugu disketan. Mattin bezalakoak ez dira sekulan ahanzten. Agian gure Jainkoak bertze holako Mattin bat sortaraziko dauku munduan eta partikulazki Eskual Herrian.

Adios, Mattin maitea, hurbil da uztaila,  
herioa orduan jin zen zure bila.  
Jendea ospez, oihuka galdez ote zinen hila.  
Hori ikusi eta iduri zen beila.

Xanti zure lagunak utzi du mundua,  
harekin igorri dut nik nere mezua:  
bihotz bihotzez onart dezazun milaka musua,  
otoi, begira zaude zabalik besua.

San Martinen lekuan jarria zeruan,  
zure adixkideak bildurik ondoan,  
kanta zazue beldurrik gabe deskantsu osoan,  
hark eman kapa haren geriza xokoan.

Uzten zaitut erranez ikusi artio,  
nigarra egiteak ez baitu balio!  
Kantatu dugu milaka aldiz, ez nuen hastio,  
seinalatzen ginuen bien amodio!

# Jean Mixel

---

Ixtripu izigarria gertatu da Ahetzen, Abendoaren hamekan.

Hameka urteko mutiko bat, Ahetzeko Belardi baserrikoa, eskolatik heldu zelarik, auto batek jo eta hil du bide bazterrean.

Galerna itsusi bat zen. Elektrikako argi guziak bat batean itzali ziren, eta uria jauts ahala ari zen.

Urak ateratu dira memento hartan eta bidean zabaldu, eta mutiko gaixoa suertatu da hantxet berean. Autoak jo eta urean igerika ari zen haur dohakabea.

Inkestak eta guziak eginik, etxerat ekarri dute. Amaren pena eta haurrideena ere!

Jean Mixel zuen izena. Mutiko gotor ernea, langilea gainerat. Gizon adinetako batek bezala traktorra gidatzen zuen. Beti presta zen.

Gure Mattinek osoki maite zuen. Eri zelarik, noiz nahi etortzen zen haren laguntzerat. Biak elgarri atakadan artzen ziren.

Jan aintzinean, Mattinek erremedioak hartzen zituen, pilulak eta. Jean Mixelek galde egiten zion:

–Zertako hartzen tutzu hoik denak?

–Eri bainauk. Laster hil behar diat.

Ondoko aldian, Jean Mixelek ikusi zuen Mattin beti bezala bere erremedioak hartzen eta:

–Beti eri zirela eta ez zira hila oino?

–Zer nahi duk? Kuxean hiltzea?



–Ez, ez. Bainan beti erraiten baituzu.

Semea lanetik etorria ez zelarik, Mattinek telefonaz deitzen zion:

–Etortzen ahal haiz gure emaztekoa laguntzerat? Jean Pierre eskas duk etxean.

Segidan jiten zen, amari erranez:

–Ama, Mattinen etxean dut egitekoa.

Arrozoin oneko haurra zen. Jateko mementoan, bere erre-medio, behar zituen ogi, haragi eta arnoa ere, negurriz emaiten zion Jean Mixelek Mattini, bere onetan.

Eskolatik lekora, ahal zuen guziez etortzen zen haren ikus-tera.

Menturaz, Mattin begira zagon Jean Mixelen zeruetara sartzeari.

Aingeruen artean gerta dadila agian!

Sukaldean badaukat potreta pullita:  
Mattin eta Jean Mixel elgarri behaka.  
Bihotza arrailtzen zait horri pentsatuta;  
zeruetan eginen zutela bisita.

Ixtripu lazgarria hameka urtetan:  
auto batek aurdiki du hori bet betan.  
Gorputza lurrean ta aurpegia lotan,  
iduritzen zitzaitan haizela amentsetan.

Distiratzen zituen horrek bi etxiak;  
gure ganat jitean zer alegrantziak!  
Zonbeit oren egonak Mattin eta biak,  
iduri zutela hoik aita ta semiak.

Jaungoikoaren deia etortzen delarik,  
mundu hau utzi behar, hor ez da dudarik.  
Jaunaren justizian ez da eskapurik.  
orena jin artio gauden prestaturik.

# Manuel Uztapide

---

Ekaina hilabetea zen. Goizean goiz pizten dut nere radioa. Plazer batek hartzen bainau egun guzietako berriak jakitean. Bat batean, zer? Nor? Ezin sesituz nindagon. Aments bat egin ote dut? Zer entzuten dut? Uztapide hila zela. Bai; Uztapide-ren heriotzaren berriak aditzen nituen.

Gaindiak hartu ninduen eta nigarrez lotu... Zuk ere, Manuel, utzi behar gaituzu! Zu baitzinen bertsolari guzien aita ordea! Zinuen nortasun, jakitate eta bihotz, bi parte urratua, lagun guzientzat zabaldua! Zuk egin ongi guziak noizko behar ditugu ordaindu?

Zure etxean bertsu saioetan elgarretarat biltzen ginenean, denek lehenbiziko eskerrak gizon prestu eta maitagarriari ginizkion eskeintzen. Iduritzen zait ikusten dutala oraino ere. Ez zuen urguilurik; ez zuen bere burua bertzeak baino gehiago zela irakutsi nahi. Baina bizkitartean hala zen, bai gorputzez bai eta izpirituz.

Orroit naiz egun batez, Uztapidez eta Basarriz mintzo ginearik Mattin eta biak, hari entzunik gizon hoieri esker arribatu zela bere bertsutako doi hortarat. Bien artean gertatzen zelarik, etxerat sartzean kontent izaiten zen eta erraiten nintuen:

–Zer egun goxoa pasatu dutan egun, Mari!

–Nola pasatu duzu, beraz? Zerbeit ixtorio berri ikasi duzu segur zure profezurren ganik?

–Bai, eta gogoan atxikiko. Ez ditut ahantziak izanen. Nun edo han bertsoan artzen naizen egunean, heieri ikasi hitz baliak enplegatuko baititut. Zer etsenplua!

Nik ere denbora berean estimatzen nituen hari entzun solasak. Zeren Mattinek ere izpiritua aski abila baitzaukan. Bai-

nan jakitatez ez zen hek bezain aberatsa. Uztapidek eta Basarrik zuten jakitatea beharrezkoa zen. Jenden aintzinean gizon umil eta errespetutsuak ziren. Norbait noiz edo ordu gertatzen bazen dudan edo ezjakinean, xinpleki esplikatuko zuten bat ala bertzeak lagunari zor zioten erakuskuntza.

Mugarik ez zen hoiien artean. Gure aldekoak, Xalbador eta Mattin, joaiten ziren Gipuzkoa, Bizkaia edo Naparroarat. Berdin Uztapide eta Basarri etortzen ziren Lapurdi, Baxenabarre edo Xiberorat. Izan dire lauak Parisen, Ernandorena jaunak gonbidaturik. Erran behar da egiazki elgar maitete zutela.

Oiartzun herrirat gogotik joaiten ziren gure bi anbasadoreak. Zonbat itzuli eginak Uztapideren etxean! Han ez zuten deusen eskasik. Xuleta erreak asko janak, arno on bat edanez. Hazkurria ongi harturik, elgarrekin joaiten ziren bertsutako lanera.

Handik laster Xalbador eritu zen. Zorigaitzez, bere omenaldi egunean tanpez hil zen. Denen bihotzetan markatua egonen da haren suertea. Geroztik gure Mattinek ainitz sofritu zuen: lagunaren galtzea, batetik; bere ixtripu izigarria, bertzetik.

Lehen erran dutan bezela, hil baino hilabete lehenago Oiartzun herriak omenaldi bat egin zion. Deneri igorri zuen azken agurra taulen gainetik. Agurtu ere Uztapide bere laguna, aita bat kitatzen balu bezala. Gu ere, ama semeak, Uztapideren ondoan egondu ginen, haren umeak bagine bezala. Ohartu nintzen Uztapideri nigar malkoak heldu zitzaizkola, Mattinek harentzat zaukan amodioa ikusiz.

Zonbeit egunen buruan etorri zen gure etxerat lagun batekin. Zer laguntasuna sendi zen heien artean! Baso arnoa aintzinean, bixkotxak barnean bustiz, beren miseriak elgarri kondatzen zituzten. Memento hartan ez zen tristeziarik sendi heien bihotzetan.

Gauza guziek badute fin bat. Mattin hil zen hilabete baten buruan. Orai, Uztapideren aldia. Zer huts handia Eskual Herriarentzat!

Uztapidek eskuara erabiltzen zuen eder eta garbia. Jendeak irakutsi du zer estimuko gizona izan den bertso saioetan, omenaldi eta ehorts egunean. Populu guzia oroituko da luzaz egin izan dituen zerbitzuez.

Nik ere igorri dut nere mezua zure familiari. Zure ehorts egunean ez naiz aurkitu ahal izan, ez jakinaren eskasian aski goiz. Barka nezazu, otoi, eta barkamendu galdeginen zaitut hiltzen naizenean, merezitzen badut zuk bezala zerua.

# Mattin maiteari

---

Doluzko penarekin nigarretan nago,  
holakorik ez nuen uste neretako.  
Zorte trixteak gaitu lotzen garraitzeko,  
jasaiten neke baita bihotzarendako!

Urte bat iragana alargun naizela,  
egunak joan dira minutak bezala,  
biziari gosturik ezin har nihola,  
deusek ez bainauke gaur nihundik kontsola!

Omia Saindu kari lore batzuekin  
pausatuko daukitzut zure tonban, Mattin.  
Semiak eta biek otoitz elgarrekin,  
“Gure Aita” erranez, zu ganat hel dadin.

San Martin patroina da zure herrikoa,  
zure izena baitzen hainbat aipatua.  
Gure Jainkoak zaitu horkotz galdatua,  
agian zeruetan zare maitatua!

Zure orroitzapenak ezarri ditut liburuan,  
hitz goxoak atxikiz neretzat sekretuan.  
Markatuak dira barna memoriuan,  
biek errepikatzeko sartzearekin zeruan.

Ez dakit xuxen arizan naizen lanean,  
gogorat etorriak eman ditut barnean.  
Zu ordaintzeko bortxatu behar nekean,  
kontsolatzeko utzi bainauzu buru ordaina lurrean.

Ez zaitut ahanzten ahal, oi Mattin maitea,  
nigarrez hanpatua daukat bihotza betea.  
Penak zonbat pisatzen duen ez da errex irestea;  
frogatu ez duenak hobe du ez pentsatzea.

Huntan utzi behar dut nere artikulu gaia,  
ez baitut segitzeko lan huntan ideia.  
Dutan eskolarekin artzeko behar da izan kuraia,  
irakurtu nahi duenak beha kolpe bat entseia.

# Azkena

---

Mila bederatzi ehun eta laurogoi ta bi urtea,  
sasoin ederra iragan da ta sartzerat goaz negura.  
Uztailean zen bero azkarra, gorritu gaitu bizkarra,  
pasatu zaukun hilabetea maiz etortzen zait gogora,  
ahantzi gabe markatua da nere biziko denbora.

Urte bat orai Mattin gaizoa joan zaukula mundutik,  
egun guziez zuri pentsatzen nigarrez nago geroztik.  
Zuk zin aukazun alaitasuna ezin kendu dut burutik,  
aitortzen zaitut, adi nezazu, erraiten dut bihotzetik,  
penen histeko laguntza otoi igor nezazu zerutik.

Uztailean zen omenaldia neretzat baitzen handia,  
meza ederra kantatutzean ageri baitzen fedia.  
Zure lagunak zu omentzeko ziren denak etorriak,  
zure ordainez eskertu ditut, hain ziren agurgarriak,  
iduri zuten zeruetara bi begiak itzuliak.

Eskertzen zauztet bihotz bihotzez, Mattinen lagun maiteak,  
handia eta estimagarri zen zuen eginbidea.  
Zuentzat zuen amodioa berexkuntzarik gabea,  
denak utzita egin izan du Jaungoikoaren legea,  
orroitu gaitez hori dugula gu guzieren erregea.



Gauza guziek izaten dute beren azken abisua,  
zituen dohain berezi denak ezin ditut ordaindua,  
Mattinen lagun zinezten denak har zazue etsenplua,  
bere biziko gertakariez egina dut liburua,  
nahi duenak irakur dezan hemen den artikulua.

**Mattin Treku**

# **Ahal dena**

**(Lehen argitalpena: Auspoa 108, 1971)**

**Auspoa Liburutegia**

# Mattin bertsolaria

---

Ez da izango, nik uste, Mattin bertsolaria ezagutzen ez duan euskaldunik. Eta, holakorik balitz, beretzako kalte; beraren alaitasunak zerbait falta duala esan genezake.

Bertsozaleoi, behintzat, makiña bat une eder-goza pasa arazi dizkigu bere umore ederrarekin; edo, berak dion bezela, esateko, bere *onbore* paregabearekin. Bozkario ta alaitasun banatzaile pizkorra gure Mattin... Ba ote da mundu hontan lantegi hoberik?

Mattinek ere bere kezak eta arantzak izango ditu noski. Horregatik, bai egia Lazkao-txikik behin batez kantatu ziona:

Pozak kantatzen dakiena ta  
penak gordetzen dakiña.

Baiñan oraindaño Euskal Herriak ez zion ezeren aitormenik egin; euskaldun guziok Mattinekin zorretan bizi giñan. Aitormen hori Donostian egingo zaio, 1971-garrengo ilbeltzaren 16-an, omenaldi eder bat eskeiñiz. Baiñan Azpillagak behin batez esan ziona:

Alako batez aipa zaituzte  
bañan bazendun ordua.

Eta Lasartek:

iñortxok ere ez dizu egingo  
merezi baiño geiago.

\* \* \*

Liburu hau egiteko *Herria* aldizkariaren zenbakiak azter-tzen ari giñala, honako lerro hauek aurkitu genituan, Mattini buruz, E. B. dalako batek firmatuak<sup>1</sup>:

«Urrundik so egin eta, gizon ttipitto lodi bat duzu ikusiko. Bainan hurbiltzearekin, haren begiak dira bakarrik ageri: begi batzu dena ma-lezia, halako irri maltzur batekin. Haren begiek ere ikusi zaituzte; ohartu dira berehala nun dukezun lotkia pertsu baten botatzeko».

Hau egia ote dan erabakitzeko, aski litzake, nik uste, libu-ruaren azalean jarri degun erretrato edo potretari begiratzea. Gero honela jarraitzen du *E. B.* dalako horrek:

«Irri eginarazteko, Mattin nagusi!

Aipa ditzan apez, mutxurdin, donado, ostaler edo guardak, Matti-nek irri eginaraziko du, tripako mina jauzi arte. Aski nigar baita mun-duan, badugu segur holako baten beharra, penen ahanzteko!».

\* \* \*

Mattin bertsolaria Lapurdiko Ahetze herrian eta Harrieta baserrian sortu zan mundura, 1916-X-11-n. Izen-deiturak Mattin Treku ditu.

Bere aita ere etxe berean sortua zan: Harrietan. Baiñan aita-ren aita gipuzkoarra zan, Lezokoa, karlisten bigarren gerra den-boran, mutil koskorra zalarik, gurasoekin Ahetzera etorria.

1940 urtean, Mattinen familia Mulienea esaten zaion ba-serrira aldatu zan. Arrezkeroztik bertan bizi da Mattin.

Mulienea hitz hori, erdi euskera eta erdi erdera izango da, *moulin* frantzesez errota baita. Baiñan an errotarik iñoiz izan bada, aize errota beharko zuan. Kaxko batean baita.

---

<sup>1</sup> *Herria*, 1963-III-21.

Gure Euskal Herri menditsu honetan, jende asko, hala beharrez, mendi zoko triste ilunetan bizi da. Baiñan Lapurdin holakorik gutxi dago. Zabaldegi ederrak, urrutiko bistak, eguzkia egun guzian...

Eta Mattinen etxe inguruan ere berdin. Begiek ez dute han oztoporik, Gipuzkoako ta Naparroako mendiak jo arte: Jaizkibel, Aiako Arria, Larrun, Ibantelli, Artxuria edo *Peña Plata*, Artzamendi, Baigura...

Eta ara bitartean, muiño eta malda bigun haietan, arta so-roak, ariztiak, maasti bat edo beste, garamenak... Eta han eta hemen baserri txuri gorri politak, irriparez bezela...

Inguru argia, zabala, atsegina, alaia, bihotz pizgarria... Nolako tokia, halako nagusia...

Mattin 1947-VII-9-an ezkondu zan. Andregaia, Senperen sortu eta Arbonan bizi zana. Mari izena, eta Olandegi ezkon-gaietako deitura. Ondorengo bakarra dute bizirik: semea, Jean Pierre izenekoa.

\* \* \*

Bertsotarako zaletasuna eta doaia jatorritik datorkio Mattini.

Mattinen amaren lehengusu bat –haren ama eta Mattinen amaren aita, anai arrebak– bertsolaria zan. Harek ere Mattin izena; eta deitura, Gariador. Zenbait bertso baditu paperetan emanak. Arrangoitzekoa zan.

Bestalde, amaren aldeko aitonari bertso asko ikasi zizkion Mattinek. Erruz zekizkiana omen zan. Eta, era berean, Mattin ere bertso eta doiñu zaharretan asko dakiana da.

Aiton horren osaba bat ere bertsolaria zan. Mattin hura ere. Eta deitura, Inhargué. Baiñan *Xexenko* esaten zioten. Ahetzekoa zan.

\* \* \*

Noiz hasi ote zan Mattin bertso kantatzen? Gai onetzaz oso idazlan polita egin digu Lafitte jaunak, Oxobi zanari ikasi zizkionak paperean ezarriz. Ondoko orrialdeetan aurkituko du irakurleak.

Baiñan argitasun gehiago bildu nairik. Mattini berari galdetu diogu. Ona haren erantzuna:

«Hamazazpi urte nituen, eta Sarako bestak hemen Eskual Herriko famatuenak izaten ziren. Eta bertsulariak izaten zirela ta nik ere gogoia naukan beti bertsolariak entzuteko. Ta goizean eguerdi arte arbi jorran aritu, etxean bazkaldu ta aratsaldean bizikletan joan nintzen.

Bainan egun hartan bertsulari bakarra zen, Panpale erraiten ziotena, Luhusokoa, Larralde deitura. Ez zuen lagunik, bere lehengo lagun denak hil eta.

Bertsutan bakarrik ari zen, erranez orduko gazteak ez zutela bertsutarako alderdirik; nahiago zutela ostatura gan, mozkortu eta han egon; ez zirela lehengoak bezalako gazteak...

Ni berriz ez nintzen atrebitzen, deus ere edan ez nuelako. Zerbait ere edan izan banu, kuraiia gehiago izango nuen horretarako. Bainan orduan lagunek behartu ninduten, eta haren aldean jarri mahain baten gainean. Eta hantxet, nahi ta nahi ez, hasi egin behar... Orduantxe hasi nintzen lehendabiziko plazan, Panpale harekin...».

A. Z.

# Liburu hau nola egin dan

---

Liburu honek bi motatako bertsoak ditu: Mattinek paperean emanak edo jarriak, eta jendearen aurrean kantatuak.

Paperean emanak, batzuk argitaratu gabe zeuden eta Mattinen eskutik izan ditugu; besteak *Herria* astekarian agertuak ziran, eta guk orain handik kopiatu.

Liburura baiño lehen, Mattinek berriro ikusi nahi izan ditu, lehengo okerrak zuzendu eta bere gustora uzteko.

Zer esanik ez, bertso gehiago ere baditu paperetan emanak. Baiñan ez ditugu danak aurkitu ahal izan.

Mattinek beste bi bertso sailen berri eman digu. Bati buzur honela esan digu:

«Soldado joan baino lehen, neskatxa batekin eta bertzearekin ibiltzen ginen; ta gero, soldado nintzela, izkribatzen nioten, ez andregai ta ez deus ere, lagun bezala. Ta egun batean bi neskatxeri bertso berak igorri niozkaten, hek ez baitzuten elgar ezagutzen».

Baiñan, tamalez, bertso haietatik lehendabizikoaz bakarrik oroitu da orain:

Zure karta harturik nago lorietan,  
irakurtu ta egon naiz istant bat gogoetan;  
zer pentsamendu nuen gogo bihotzetan  
esplikatu dautzut bertsu berrietan.

Beste aldi batez, mutil batek hala eskatuta, Mattinek neskatxa bati jarri zizkion bertsoak. Hauetatik, bertso oso batez eta beste baten erdiaz oroitu da:

Maitia, nik ez dakit zer egin zuretzat,  
zuk aldiz axolarik eztuzu enetzat;  
huna hortaz zer dion gaur ene bihotzak:  
enganatzen nauela amodio hotzak.

Errepusta eman nauzu etzinakiela,  
joaitian bezin asto jin nintzen gibela.

\* \* \*

Jendearen aurreko bertsoak, berriz, lehenengo magnetofonoz hartu eta gero paperean idatziak dira. Bertso asko kopia-tu ondoren, mordo hartatik, liburuan hobeki emango zutenak berezi ditugu.

Badakigu liburu hontako bertsoak baiño hobeak ere izango dituala Mattinek, an eta hemen kantatuak. Guk Mattinen liburu bat egin nahi izan degu, ahalik eta onena... Bateren batek liburu hoberik prestatu ditekeala irizten badio, ez dezaiola berriketari ekin, lanari baizik...

Bertso saio batzuk magnetofonoz gerok bilduak genituan; eta beste zenbait gure adiskide on batzueri zor dizkiegu: Kanboko Mixel Itzaina, Baionako *Musée Basque* deritzaiona, Aier-rako Emile Larre, Osintxuko Gorrotxategi bertsolaria, Leitzaiko Jose Mari Aleman... Milla esker danori!

Era orretan berezitatuko bertsoak ere, Mattinek berriro ikusi ditu, zerbait oker kopiaturik bazegoan zuzentzeko. magnetofonoan illun entzuten zana argitzeko, eta bere gustora jartzeko.

Baiñan saio batzuk beste bertsolariren batekin kantatuak baitziran, bertsolari oiek ere ikusi dituzte bakoitzak bere bertsoak.

\* \* \*



Beste zenbait liburutan, Xalbadorren *Ezin bertzean* deritzaionean adibidez, bi bertso mota hauek, paperean emanak eta jendearen aurrean kantatuak, alkarrengandik aparte jarri izan ditugu.

Oraingo hontan, berriz, ez ditugu berezi nahi izan. Bakoi-tza noiz kantatua edo noiz paperean emana zan begiratu degu; eta zaharrenetatik asi eta aurtengo saioetan kantatutako bertsoak eskeini arte, hor du irakurleak Mattinen bertso lanaren erakusbide bat.

\* \* \*

Bertso sail bakoitzaren ondoan doiñua ezarri da. Mattinek kantatu, magnetofonoz hartu eta Manuel Yaben eta Ambrosio Zatarain-ek solfeoz idatzi. Milla esker bi jaun haueri.

Doiñu batzuk ezagunak dira: *Oxalde ta Etxahun*, *Iduzki denean*, *Iparragirre abilla dela* eta abar. Hala ere, Mattinek zenbait aldaketa egiten baititu, doiñu zahar hoiiek bere gisara kantatuz, haren ahotik atera bezelaxe idatzi nahi izan ditugu.

\* \* \*

Azkenik, liburuaren izenburua Mattinek berak asmatua dala esan nahi genduke. Bera liburuaren aita eta bera aitajau-na, eliz bataioetan ez bezela...

*Ahal dena...* Izenburu egokia, mamitsua eta zer pentsaturik ematen duana. Hobe litzake, Mattinek bezela, gu danok euskeraren alde *ahal dena* egingo bagendu...

A. Z.

Hor goien ezarri den *Maitia*, *nik ez dakit* bertsoaren  
doinua



# Lagunen aitorpena

---

Manuel Lasarte bertsolariaren omenaldian, 1971garren urteko martxoaren 19an, Donostiako *Urbia* jatetxeko bazkalondoan, hurrengo omenaldirako aukeratua Mattin zala adierazi zanean, lehenengo, txalo zaparrada luze eta ia berriak gortzeraiño bat entzun zan, eta hurrena bertsolariak bere lagun Mattinen gorespenak kantatzeari ekin zioten.

Orduko bertsoak ere liburu hontan behar zutela dudarik ez da. Hona hemen:

## *Basarri:*

Botazioan erantzun ori entzun det arpegi alaiz,  
emen gizonak omentzen dira bere sasoiz edo garaiz;  
ni Mattinentzat pentsatzen ere egondua naiz oso maiz,  
nere paltarik ezta izango, zintzo asko etorriko naiz!

## *Matxain:*

Gogoan daukat, Mattin maitea, nik zuri zer esan nizun,  
gizonak badu mundu onetan makiña bat eginkizun;  
lengo urtean bigarren mallan jendeak zu utzi zizun,  
zedorrek ez dakizu erriak, Mattin, zenbat nahi dizun.

## *Lopategi:*

Bertsua ongi bialdutzeko ez du guk ainbeste neke,  
diruz neurtzera jua ezker ezin leike saldu merke;  
jaia neretzat balitza ere poz geiagorik ez nuke,  
omenaldi bat merezi zuen umore onaren truke.

*Xalbador:*

Auteskunde horrek ukitu nau bihotza bete betean,  
pozaren pozaz sentitzen baitut malkoa begitartean;  
ni ihaz omendu ninduten ta Mattin hurrengo urtean,  
hola Gipuzkoan hartzen gaituzte beren besuen artean.

*Agirre:*

Baserrik zion bere tokia ordun nai duela bete,  
neri're etzait nai ordurako pasatuko urtebete;  
siñistu gero Mattin ez dula nik baño geiago maite,  
nik ere orduan kantatuko det preso sartzen ez banaute.

*Uztapide:*

Mattin, zuretzat eztu atzenik guk daukagun biotz naiak,  
mugaz arunzko ta ununzkuak nola baigeran anaiak;  
bertsolaritan gutxi dirade zu zeran bezin alaiak,  
urrengo urtian ibilli bearko neska-mutillaren gaiak!

*Azpillaga:*

O, Ahetzeko urretxindorra, Lapurdiko aingerua,  
munduan bizi zeralarikan arkitzen dezu zerua;  
omenaldirik ikusi gabe kantatu dezu mordua,  
alako baten aipa zaituzte baña bazendun ordua!

*Gorrotxategi:*

Prantzes txiki xeblebre au degu jende dena daramana,  
euskeran alde bere denboran ainbat alegiñ emana;  
biotz-biotzez besarkada bat, ene Mattintxo laztana,  
albotik Kristonak esan arren aserratutzen eztana!

*Arozamena:*

Gu bezelaxen jaiotzetikan zerade bertsolariya,  
pozaren pozez, Mattin maitea, esango dizut egiya:  
irriparra ezpañetan dezu eta biotza argiya,  
urrengo urtean goratuko deu Euskal Erriko txoriya.

*Lazkano:*

Bertsolari bat aukeratzeko gaur bagenduen aukera,  
eta gizon bat obeagorik ezin diteke atera;  
baldin umorez zure berdintsu lagunak jartzen bagera,  
txistu ta guzi etorri bear Mattinen omenajera.

*Lazkao-txiki:*

Bulto txikia daduka bañan ain da gizon atsegiña,  
bere lagunez biotz barrendik egiten du alegiña;  
gizon bezela aingerua da, txoria balitz pinpiña,  
pozak kantatzen dakiena ta penak gordetzen dakiña.

*Garmendia:*

Mattin jaun ori maitatzen det nik ezagutu ezkerozti,  
ta urrengo urtean omendutzeko bera izango da noski;  
pena artzen det zu bizitzea Bidasoaren arunzti,  
bañan zuretzat oroitua da Gipuzkua ta Donosti.

*Jose Lizaso:*

Nere ustetan ondo jua dira auteskundean juzkuak,  
orregatikan alaitu dira len triste zeuden barruak;  
urtebetera omenaldiya eta gaurtikan txaluak,  
mugaz arunzko anaiak ere maite ditu Gipuzkuak.

*Bitor Agirre, Brinkolakoa:*

Nere biotzak badauka zerbait Mattin orri kantatzeko,  
eta belarrin itzein nai diot berak gogoan artzeko;  
Jaunak osasun eman deiola gaur bezela etortzeko,  
ta koroï aundi bat eingo degu kalbo ori tapatzeko.

*Lasarte:*

Etzaitezela, Mattin, estutu, naiko denbora badago,  
iñortxok ere ez dizu egingo merezi baño geiago;  
omenaldi bat bear zenduen zuk orain baño lenago,  
ni ere pozik etorriko naiz Jainkoak sano banago.

Hurrena Mattinek berak kantatu zuan:

Omenaldirik eztut izandu behiñ ere oraiñ arte,  
eta oraintxe ikaran nago ni izendatu bainaute;  
badakizue euskaldun denak nola ditudan nik maite,  
eskerrik asko bertze aldiko errukitu bazerate.

Beste bertso bana ere kantatu zuten bertsolariak, batzuek  
Mattinentzat eta besteak jendeari azken agurra emateko. Ma-  
ttini buruz izan ziranak eskeintzen ditugu hemen.

*Basarri:*

Mattin lagunak eginkizuna ederki asko bete du:  
kantuz txioka Euskal Erria alaitasunez mantendu;  
datorren urtez bear degula gure lagun au omendu,  
zure emazte maitagarriak zer pentsatuko ote du?

*Lopategi:*

Egin bearrak bete ditugu, oraintxe gaude lasaiak:  
errelebua egiña dute gaur ta biarko artzaiak;  
ametsik asko sortu zaizkigu, elduko dira garaiak,  
bin-bitartean izan gaitela Mattin dan bezin alaiak!

*Mattin:*

Gazte maite oik eskertzen ditut zarrak aurren pasatzeko,  
hortako ere idea behar gauza horren pentsatzeko;  
eta neri gogoia jin zait berriz hunat etortzeko,  
Donostiako anai-arrebak, bertso batzuk kantatzeko;  
pentsamendua hau daukat beti: triste denak alaitzeko.

*Lazkao-Txiki:*

Len autatua umilla gendun, gaur autatua apala,  
oraiñ ikusi nolakua dan Euskal Erriko egala;  
datorrenean Mattinentzat da, aurten Lasarte bezala,  
sinis zazute Euskal Errian mugarik ez dagoala.

*Jose Lizaso:*

Anai-arreba biotzekoak, jarri gera lanerako,  
gaur e ederki gabiltza bañan poz bat daukagu geroko;  
Mattin, etzaitugu apartatu errukitu geralako,  
Euskal Erriko anai artian merezi zenduelako.

Bertsu hauk kantatu ziran doiñuak:









5/8

3

3



# Mattinen bertsolari lehen urratsak

---

Oxobi zenak kondatu bezala aipatuko ditugu lehen urrats horiek.

Oxobi zena Arrangoitzeko erretor zelarik, Uztaril-egun batez Ahetzerat joan zen bazkariz, herri hortako laborari bategomiturik, ogi-joitea zuelakoan.

Langilek lana egin-eta, guziak oro mahainerat, airos eta alegera.

Jan artean, arnoa lagun, bazela ixtorio eta zirtu!

Usaian bezala, gizon batzu, irri egiteko, elgarri ditzoka ari ziran, kitzikan.

Eta horra nun, ordu arte ixilik beha egona zen mutiko ttipi gottor bat hasten den zaharrekin ditzoka, lehenik erdi herabe, bainan gero ta ausartago, bazkaltiar guzien jostagarri.

Dobladura (rima) aise heldu zitzaion, behar ziren gatz-biperrekin.

Alde orotarik atakatzen zuten mutikoa, ea zer arrapostu bitxi aterako zuen, eta denek, fin eta min, hartzen zuten beren botaren errefera.

Azkenean zonbaitek pentsatu zuten Mattin erraiten zioten ditzolari harrigarri horrek, berdin, hasian hasi, emanen zituela zenbait bertso.

Hupatu omen zuten kadira baten gainera, handik bota zitzan hiruzpalau kobla.

Nahiz doi bat durduzatua, bere buruaz laster jabetu zen eta lotu lanari.

Egia egiari zor, jalgi zituen bertso batzu akerraren adarrak bezain makurrak ziren luzegiz ala laburregiz; bainan, ordai-

nez, azkeneko xixta hura beti xorrotx eta dobladura gehienak xuxen.

Jendeak, den bezala erraiteko, ez zuen neurriaren hanbat axolarik.

–Emak hor, Mattin!

–Biba hi, Mattin!

–Oraino bertze bat, Mattin!

Ez zen bertze oihurik entzuten bazkaltiarren ganik.

Mahain-buruan, etxeko jaunaren ondoan, Oxobi kar, kar, kar irriz, begi-beharriak armaturik, mutikoari so!

Irriz bainan gogoetatua; azkenean, serio-seriosa, erraiten dio etxeko nausiari:

–Baduela talendu ttipitto horrek! Bertsolari on baten gaia badu: boza ona, gogoia erne, mihia zalu. Mendiko pottoka bezala hez baledi eta oihaneko arbola bezala xederra, hein one-rat hel litake eta kobleri ederra bilaka.

Ondoko egunetan Mattin hori Arrangoitzeko apez-etxerat agertu zen. Oxobi zaharrak erakatsi omen zion zer zen *poto* egitea, nola hauta ponduak, nola neurt bertsoa hitz batzu behar arau luzatuz ala laburtuz, airearekin adosteko gisan.

Mattinek oharpen horien gogoan hartzeko ez zuen heien bietan aditzearen beharrik. Laster bere hegalez airatzeko prest izan zen, xoria bezala bere baitarik eskualdunentzat kantatzeko.

*Piarres Lafitte*

# Zonbeiten abilezia<sup>1</sup>

---

Mattinek: Alemanen denboran ogirik ez zen izaten, ta prefetak ordena ematen zuen baserrietan irina biltzeko, arto ta ogi, jende behareri partitzeko. Ta herri batean tokatu omen zen meriara bildu ta handik faltatzea; ta orduan neri bertsoak eman arazi...

1

Lapurdi dugu Euskal Herriko probentzietan lehena,  
horko sujet bat deklaratzeko harturik nago ordena;  
huna nolakoa den herria aipatutzerat nohana:  
erdi erdian karrika du ta inguruetan oihana.

2

Mila bederatzi ehun eta berroita hiruko urtia,  
egundaino ez da, ez, ikusi holako izurritia;  
orai artian ez ginuen aski pena edo desgrazia,  
hamabortz bat egunez gainerat dugu ogi eskasia.

3

Prefeturatik etorria da herrietarat ordena:  
dadukanari galdetu eta lagun deusik ez duena;  
eta nork errefusaturen du emaiten ahal duena,  
batere maitatzen baldin badu bere protsimo laguna?

4

Galde ttipia aski izan da guziak urrikaltzeko,  
bi hiru egun naikoak ziren behar zenaren biltzeko;  
manua zuten bildu gauzaren meriarat ekartzeko,  
eta han diren enplegatuek zuzen errepartitzeko.

---

<sup>1</sup> Mattinen eskutik bildu bertsoak.

5

Jaun errepartitzaile hoieri huna zer zaien gertatu,  
herri guzian ere berria laster zitzaukun hedatu;  
ogi piska bat, irina eta artotik berriz lau zaku  
beren sala hetsi hautarikan zaizkotela faltatu.

6

Enplegatu bat mintzatu eta ez baita segur motela:  
zerbeite gisaz jende guzia enganatu behautela;  
lehen lehenik poliza xefa abertituko dutela,  
gauaz norbaitek herriko etxea arroatu diotela.

7

Poliza xefak erran diote: «Ez zaitez tuela, ez, lotsa!  
Guk billaturen dugu segurki nork egin duen ohointza!». Hasi dirare laste asko bainan ez argiturikan ontsa,  
falta dutenak libro utzi ta inozentia akusa.

8

Herriko etxera joan ondoan han zen espedientzia:  
zilo ederrarekin ahal zela irina zaukan untzia;  
eskaleretan gaindikan zuen arrastoa're utzia,  
ez badu dena bidean galdu ez zuen urrun etxia.

9

Batek tratua egin du eta dirua kobra bertziak,  
matrikula frango bazuen horien abileziak;  
beren ustean ongi eginak zituzten gauza guziak,  
ez bazituen oro salatu emazte mihi luziak.

10

Espedientzia horixe dugu apur batian orroitzeko,  
hartua dugun xede hori da segurki atxikitzeko;  
gisa hortako emazte bati ez geiago fidatzeko,  
hoitarikan bat aski omen da zazpi gizonen galtzeko.



11

Zazpigarrenak debekatzen du nehun deusik ebastia:  
hura bera edo bertze hainbertze jabiari turnatzia,  
egin denaren damutasuna bihotzetikan hartzia,  
nai ez badugu gure arima betikotz kondenatzia.

12

Esplikatzerat noha nola den munduko diferentzia:  
ohointzan ere ez dira berdin handia eta ttipia;  
ttipiarentzat mehatxu frango eta gainera gatia,  
handiarentzat guziak libro, beti zabalik atia.

Bertsu hauk kantatzeko doinua:



# On hartzea

---

1939-1945-ngo gerra ondoren Bidasoaz iparraldean bertsolari-txapelketak antolatzen hasi zena Ernandorena jauna izan zen. Lehenengoa Donibane Lohizunen eta Hazparnen egin zen, 1946-IX-22 eta 1946-XI-17-an. Etxahunek irabazi zuen txapela.

Mattinek ere kantatu zuen. Baina aurretik bost bertsoekin erantzun zion Ernandorenaren deiari. Bertso hoiek *Herria* astekarian agertu ziran, 1946-IX-5-ean.

1

Agur, adixkidea, jaun Ernandorena,  
zure ganik hartu dut egun nik ordena:  
kantu lana altxatzeko ahalik gorena,  
frogatuaz nor garen pertsutan onena.

2

Ihardestera noa onbore onean,  
gostu ona baitut nik kantuzko lanean;  
parte hartzen dut zure obra ederrean,  
zure serbitzari naiz nahi duzunean.

3

Oren hoik izanen tut ezin ahantziak,  
satifatuko ditut ene gutiziak,  
kantuz ohoratzeko zazpi probintziak;  
bitartean har tzatzu nere goraintziak.

4

Nere etorreraz naiz gipuzkoanoa,  
nere aitona baitzen han Lezon jaioa;  
karlixtaren denboran Ahetzera joa,  
bertan familla hazi-ta utzi zun mundua.

5

Beraz etorriko naiz jai eder hortara,  
kantuzko gudu hortan parte bat hartzera;  
bitarte hortan pizkor egongo al gera;  
zure adixkide fidel: Mattin Aheztarra.

# Jakintsun bati<sup>1</sup>

---

1

Bere ustian jakintsuna den jaun bati diot ikasi:  
«Eskualdun gaituk, nai badek, bainan frantses ordia lenbizi!  
Bertze horiek zer nahi ditek? Huna jin dituk ihesi!»,  
Jakin zazue arrazoin hori ez nion aise iretsi!

2

Nere aitaxi Lezon sortua –han esaten dute jaio–,  
sakramenduak ere bai hartu komunione ta bataio;  
karlisten gerla zela medio Ahetzera baitzuen jo,  
gerizaketa dabilenari ondo-etorri zor zaio.

3

Jakintsun hori mintzo zelarik ni ere han nintzen alaino,  
orduko pena ezin iretsiz nigarrez nago oraino;  
nere arraza zabaltzen baita Ahetzetik Lezoraino,  
gipuzkoar bat nahiago dut Norteko frantses bat baino.

---

<sup>1</sup> Donibane Lohizunen kantatuak, 1947-an. Hernandorena jaunak bialduak.

# Ahetze maitiarentza<sup>1</sup>

Airea: Iduzki denean...

---

1  
Lau bortz pertsu berri Ahetze maitiarentza  
zer ziniokete orai kanta banetza?

Jende beharrentza  
zabaldu bihotza:  
amodio hutsa!  
Ez da aberatsa,  
bainan bizi ontsa;  
hau da nere amentsa!

2  
Alderdi pollita hegoko partekoa:  
parre parrean du Larrun mendi kaskoa.

Itzuliz pausoa  
bixtan itsasoa,  
Getariakoa...  
Bidarte hauzoa,  
geriza osoa.  
O zer leku goxoa!

3  
Anaiak bezala gira Arbonarekin,  
Senpere aldean oihan haundi hoiekin;

etxaldeak berdin  
alor ederrekin,  
mahastiak urdin...  
Nahi nuke jakin  
bazka-lekuak fin  
nun diren hemen bezin...

4

Jiten direnean hiritar kanpokuak,  
mezan kausitu-ta dagotzi harrituak:  
eliza-kantuak  
eta predikuak  
guk eskuarazkuak;  
segi, mutikuak,  
fedea handikuak,  
lagun gaitzan Jainkuak!

5

Nere predikua huntan dut akabatzen,  
xapela buruan dutalarik ezartzen...  
Zubiko pentsatzen,  
Xalbador kantatzen,  
on dira ni bezen...  
Klarki dut aitortzen:  
ikaran naiz aurten  
kenduko ote nauten<sup>2</sup>.

Bertsu hauk kantatzeko doinua:

---

<sup>1</sup> *Herria*, 1948-VIII-12.

<sup>2</sup> Urte hartan Mattinek zuen txapela Bidasoaz iparraldeko bertsolarie-  
tan. Txapelketa hiru herritan jokatua zen; Ezpeletan, Donibane Garazin eta  
Donibane Lohizunen, azkeneko hontan 1947-X-5-ean, bertsolari hauekin:  
Iriarte, Mattin, Etxahun, Zubikoa, Meltxor, Errexil, Iriart, Arnaud Larra-  
mendy, Bernard Larramendy, Sein eta Etchemendy.

Mattin bildur zan hurrengo txapelketan, 1948 urtean, Zubikoak edo  
Xalbadorrek kenduko zioten txapela.





# Ahetzeko ohointza

---

Mattinek: Egun hartan hauzo herrira, andrearen etxera, jogan ginen bazkaltzera, eguerdiko ordu bata inguru; eta gero ni ganaduen moldatzeko ta lanak egitera etorri nintzen bostak aldean, bazkalduta.

Ta hemen agertu ziren bi txakur txiki; nik barruan utzi zakurrak eta kanpoan ziren! Sartu eta, armarioak denak idekiak arrapatu nituen; bertze ganbarara gan eta han ere denak idekiak eta denak itzulipurdika: oheak eta dena. Ta moltsa falta arrapatu nuen. Bainan hurrengo goiza arte ez nintzen akordatu txingarrak ere falta zirela; txingarrak ere eremanak. Aberatsak ez ginen ta zen pizarra ereman!

Gero pertsuak eman nituen eta *Herria* gazetara igorri<sup>1</sup>.

\* \* \*

Jaunak:

Pertsu hauk irakurtzean ikusiko duzue zer gertatu zautan.

Nola gogoetatua eta nahi gabeak itoa bainaiz, nahi nuke pertsu haukien bitartez nere Eskual Herriko adixkide guzieri parte eman.

Eta zueri, jaunak, ez bazauzte segurik leku gehiegi harzzen, galde egiten zauztet *Herria* astekarian agert araztea.

Zuen adixkide dagon:

Mattin

---

<sup>1</sup> *Herria*, 1954-VIII-19.

1

Kantuz hastera doha Ahetzetik Mattin,  
Agorrilain zortzian, igandearekin,  
bihotza arraildua, pena handirekin;  
neure kasua zer den nai duenak jakin,  
esplikatuko ditut denak hastetik fin.

2

Besta kari izan naiz Arbonan bazkaltzen,  
ate leioak hetsirik trankil joana nintzen;  
kantu zahar ta pertsu, orotarik bazen;  
ordu hartan ez nuen, ez, segur pentsatzen  
norbeit ai zitzaitala etxe arrotzen...

3

Neure etxen sartzea etzen, ez, pullita:  
behera eta gaina itzulipurdika;  
kasik aldi txartu naiz hori ikusita;  
bainan ohartu nintzen, begira jarrita,  
ohoin zonbeitek egin zautala bisita.

4

Tireta ta gaminet ideki baikitu;  
gakoz zirenak ere jauzarazi ditu;  
linja, ohe, ohako, ez zait iduritu  
gauza bat ere baden ez denik mugitu;  
moltsa atxeman arte ez da, ez, gelditu.

5

Hoita hamabi mila, paper ta urretan,  
ez da suma handia gaurko egunetan;  
bainan badakizue denak bazter huntan:  
ongi izerditurik pentze alorretan,  
nekez baztertzen dira etxe xuhurretan.

6

Ohoin horrek xokoak bilatzen badazki,  
moltsa erematia ez zitzaion aski.  
Dilindan nahuzkanak bi xingarra azpi,  
uda azken huntako, ez banintzen gaizki,  
hoik ere sukaldetik eremanak nauzki...

7

Andrea eta biak, haurrarekin hiru,  
bat bertzia bezen trixte orai girare gu;  
ederki nekaturik uda eta negu,  
sos batzu bazterrera eman baditugu,  
gelditu girare ez jateko ez diru...

8

Segidan eman diot polizari parte,  
bainan ohoinak ez du hortaz ainitz kalte;  
gosta behar zitzaion atxeman balute,  
ordean arrastorik ez baitzuten bate,  
mementoko hoik ere etsitua dute...

9

Etxe arroatua oi zer gauza beltza!  
Barnetik eskastuak jateko ta moltsa.  
Han bizitzeko ere kasik gira lotsa!  
Frogatu ez duenak ez dezake pentsa  
estatu trixte hunek uzten duen latza!

10

Beti karkula eta bertziaz pentsaketan,  
gosturik ere ez dut etxeko lanetan;  
gaurik ez dut pasatzen soseguzko lotan,  
odola irakitzen ari zaut zainetan,  
hortarik ageri da zer kuraia dutan!

11

Neure andre maitea, ez dezagun etsi,  
osasuna bederen ez gaitu ebatsi.  
Hau ere elgarrekin beharko iretsi,  
galdeginez Jaunari biendako grazi;  
berritz ere gogotik behar dugu hasi!

12

Zuri oihuz ari naiz, oi Ama Birjina,  
mundutar ta zeruko denen Erregina!  
Otoizturen zaitugu, egiten dut zina,  
orai arte bezala, hemendik aintzina:  
otoi, ezti gaitzatzu gure bihotz mina.

13

Jesus jauna hil baitzen Galbari mendian,  
gurutze batean, bi ohoinen erdian,  
batto gonbertitu zen memento berian;  
hau ere egin dadin desir dut agian,  
parte bat ukan dezan zeruko lorian...

14

Kontseilu bat zueri, oi gazte maiteak;  
ez zatzuela idek bertzien atearak,  
noizbeit jinen baitira kondu emaitak;  
Luziferrek lotzeko prest ditu gateak,  
harekin pagatzeko munduko kalteak.

15

Idek errexak dira baserri xaharrak,  
ate leioak askotan berritu beharrak;  
nihor gabe ez utzi zuen etxe txarrak,  
nun nahi badirela-ta sujeta tzarrak  
frogatu du ederki Mattin Aheztarrak!

## Ahetezko Ohointza

Kantuz hastera dola, ahetezko Mattin  
Agordilain zortziak igandearhin <sup>1</sup> 2017  
Bihotza araildua pena handirehin <sup>3</sup> 13  
Keure hasua zendea nai duenak jakin  
Espirituak ditut denak hastetiko jin

Besta hari izan naiz Arlonan bazkaltzen  
Ate leyoak hetsirik Frankil joana nintzen  
Kantu zahar da pertse oratarik bazen  
Ordu hartan ez nuen nik segur gontzatzen  
Norbit hai zitzaizala etche arrotzen <sup>3</sup>

Keure etchen sartzea etzen ez pullita  
Behera eta gaima itzulipurditua  
Karik aldi behartu naiz hori itusita  
Bainan ohartu nintzen begira jarrita  
Ohoin zorbitek egin zaitala bisita <sup>4</sup>

Kieta da gaminet idelki baikitua  
Gahoz zirenak ere janzarazi ditu  
Lainja ohe ohako ez zait iduritu

Gauza bat ere baden ez denik megitza  
Moltsa atxeman arte ez da ez gelditu  
5

Hoita hamabi mila paper xa urretan  
Ez da suma handia gaurko egunetan  
Bainan badatizue denek bazter hauetan  
Ongi izertuturik potze alorretan  
Kinez baztertzen dira etche chuhurretan  
6

Ohoim horek chokoak lilatzen badazki  
Moltsa eremata ez zitzaion ashi  
Dilindan mahuz handik li chingarra azpi  
Uda adhen huntako ez basintzen gaitxi  
Hoik ele suhaldetih eremanak nauzki  
7

Atxlea eta biak, haurarekin hian,  
Prat bertzia bezen trichte, oru girare qu:  
Ederki nekhatunih, uda eta nequ,  
Los batzu bazterera, eman baditugu,  
Gelditu girare ez, jateko ez diru...  
8

Legidan eman diot, poligari patte:  
Bainan ohoimaki ez du, hortaz haintz patte

Gasta behar zitzaien, atxeman balute;  
Ondean arrotorik, ez baitzuten bate  
Omentoko haik ere, etritua dute...

9

Getche arrotua, oi zer gauza beltza!  
Barrutik eskarreahi, jateko eta moltza:  
Hean bizitzeko ere, hasik gien lotza!  
Inogatu ez duenahi, ez dezake pentsa  
Estatu trichte hunk, ezten duen lotza!

10

Bati markula eta bertziag pentsaketan,  
Gostanik ere ez dut, etcheho lanetan;  
Ganik ez dut paratzen osoguzko lotan;  
Odo la irakitzoren hari gait gaitan;  
Hostarik ageri da, zer buraya dutan!

11

Keue anche maitza, ez dezagun etsi!  
Osasuna beduen, ez gaitu ebatzi:  
Hean ere elgarrekin beharke itetsi!  
Galdeginez Jaunari, biendako grazi;  
Berritz ere gabetik, behar duqu hari!

12

zuen siberu hari nair, oi Ana Biginal.

Moundutaa ta zeuko, denen Bregina!  
Itxaitzturen gaitzugu (egitar du zina)  
Orai arte bezala, hemendik ointzina;  
Itxoi ezti gaitzazu, que bihotz mina!

Jesus jauna, hil baitzen Gabari-mendian  
Glerutze batesan bi, ohoien erdian:  
Batto gonbertitu zen, memento berian:  
Bau ere egin dadin, desir dut agian;  
Parte bat urhan dezan, zeuko berian...

Kontseilu bat zuei, oi gazte maitzak!  
Ez gatzuela idek bertzien atak  
Kobit zinez baitira, monde emaitzak;  
Suzifernek lotzeko, prest ditue gategak  
Honenkin pagatzeko, munduko haltzak

Idek erechak dia, basen chaharrek  
Lte luyrak arhotan, beritu beharrek  
Orhor gabe ez utzi, guen etche dcharrak,  
Hau nahi badirala, ta sujeta dgararak.  
Sinogatu du edertsi, Mattin lheztararak

Mattin



# Esker minak<sup>1</sup>

---

Mattinek: Etxeko ohointza horren ondoren, Hazparnen bertsulari besta batean eske bat egin zen nere alde. Ta gero, eskerrak emateko, bertze sei bertsu hauk eman nituen, eta lehen bezala *Herria* aldizkarian publikatu.

Honela dio *Herria* astekari horrek:

Mattin Aheztarrak, bere nahi gabea parte hartu duteneri, ordaintzat eskaintzen ditu pertsu hok:

1

Goibel batean uzten ninduen mundu huntako biziak,  
nintuen diru ta jatekoak ohoin batek ebatsiak;  
bainan handizki fagoratu nau Jaungoikoaren graziak,  
pertsuen bidez abertitzeko adixkide on guziak.

2

Gertakariak agertu ditut ezin atxikiz gorderik,  
min hunendako ez baitzen nihun erremedio hoberik;  
atsegabea handi bada're huntaz ez dago dudarik:  
jasaten errexagoa dela partekatua delarik.

3

Griña gaixtoan iragan ditut egun batzu frango txarrak,  
lagundu nahi izan nautenak agertu zaizkit bakarrak;  
zueri esker bildu baititut hau jasaiteko indarrak,  
begitik orain ezin geldit zoramenduzko nigarrak.

---

<sup>1</sup> *Herria*, 1954-IX-16.

4

Bihotz handiak kausitu ditut aberats ala pobretan,  
maitetasuna nolakoa den erakusten da obretan;  
galdu guziak ordaindu ditut, erran dezaket, sobretan,  
nere burua senditzen dut gaur esker onezko zorretan.

5

Bekatoros bat naiz nehorri ta bertzentzat griña guzia,  
Zeruko Aita, barka zadazu hartzen dudan ausartzia:  
urrikari dut gaixtagin horren mundu huntako bizia,  
salba dadien emozu, otoi, gonbertitzeko grazia.

6

Agurtzen ditut asmuz bederen nitaz oroitu direnak,  
izatu dudan nahigabeen parte hartu duten denak;  
ordainez orai on harzkizue eskerrik anaikorrenak,  
sendimendu hauk dauzka bihotzak Mattin Aheztarrarenak.

# Pilotaz<sup>1</sup>

Airea: Iparragirre abilla dela...

---

1

Pertsu kantatzen hastera noa pilotarien gainean,  
sujeta baten beira nindagon joan deneko aspaldian.

Lau gizon direnien  
plaza baten erdian  
galtza xuritan abian  
lanian,

libertimendu ederragorik ez da guretzat mundian.

2

Zango ta beso, buru ta begi, belaunak eta gerriak,  
zaluak eta azkarrak izan behar tu pilotariak.

Batzuek aintzinetik,  
bota eta airetik;  
bertzeak gibelariak  
handiak...

Partida batian ikusten dira bakotxaren negurriak!

3

Berri berritan entzunak ditut gizon batzuen erranak,  
Etxemendi ta Haran direla gibelesko hoberenak.

Zango eta begiak,  
beso izigarriak...  
Gaur hoiek dituzte famak  
onenak...

Haranbillet ta Agerrek oino emanen dazkote lanak!

---

<sup>1</sup> *Herria*, 1957-III-21.

4

Haranbillet ta Agerri ditut zorionak desiratzen;  
hoiek bezala joko ez du edozoinek begiratzen.

Hogoi bat urte pasan  
trinketa eta plazan  
ikusten dira jokutzen,  
finkatzen...

Oraiko gazte gutixko baita oraino hoitarat heltzen.

5

Ene eskerrak Vivier, Laduxe, Garmendia ta Dongaitzi;  
Zugazti eta gainerakoak, Mattinen partez goraintzi.

Zonbait izen famatu  
ez baditut aipatu,  
orroit eskasez tut utzi,  
ahantzi...

Gaixtakeriaz ez dut egin ta ez otoi nihori gaitzi!

6

Baratze bati konparatzen dut nik Eskual Herri guzia,  
lur eder huntan eraina dago pilotarien hazia.

Zahar eta gaztiak,  
orroit gaiten guziak  
Jainkoari galdatzia  
grazia,

baratz eder hau begira gaitzan lore hoietaz jauntzia.

7

Gure lur hautan arrotza frango askotan igaiten dia,  
xoraturikan ere egoiten plazara doan jendia:

ikusiz plekariak,  
nahun pare gabiak.  
oro oihuz hasten dia,  
egia:

Gora pilota joko ederra ta gora Eskual Herria!

Bertsu hauk kantatzeko doinua:

The image displays six staves of musical notation, likely for a vocal melody. The key signature is G major (one sharp) and the time signature is 6/8. The notation includes various rhythmic values such as quarter notes, eighth notes, and sixteenth notes, along with rests and accents. The melody is written on a single treble clef staff across six lines.

# Oxobi zenari<sup>1</sup>

---

Oxobi zer zen nik eztut segur irakurtu liburuan,  
hameka aldiz gertatu bainaiz apezaren inguruan.  
Hura ikusita gaiztoa al zela ia askotan nindaguan,  
bainan segurki probatua dut, ongi ikusi onduan,  
bihotz hobeko gizonik ba nik eztut uste zen munduan.

Jainkoak emanik gizon bakoitxak baitu bere alderdiak,  
partikularrak izandu ditu gure Oxobi haundiak.  
Eskuara maite zuela badakit ta maite bertsulariak,  
hortaz oroituz orai hemen bustitzen zaizkit begiak,  
etzatzula, otoi, hiltzerat utzi eman diguzun argiak.

---

<sup>1</sup> Parisen, 1958-ko maiatzean.

# Ahetzeri herriko bozez<sup>1</sup>

Airea: Mutil koxkor bat itsu aurreko...

---

1

Bozak direla kausa Ahetze orai jarria da sutan,  
gauza ttipitik makur handiak etortzen dira batzutan!  
Satan zaharra bestan dabila gure herri trixte huntan...  
Galdatzen naute nik egun hortaz eian zer pentsatzen dutan;  
guziek ongi jakin dezaten hastera noha pertsutan.

2

Zori txarrean egin zituzten boz emateko legeak:  
holako egun batek ez ditu asko hobetzen jendeak.  
Karraxu frango agertzen dira lehen zaudenak gordeak,  
elgarrekilan samurrarazten hauzo eta ahideak;  
ahul-aire bat segur hartzen du girstinoen fedek.

3

Gauza pullitik ezin erran da holako itsuskeriaz:  
ahurtara bat bezik ez eta elgar hil nahi mihiatz...  
Fedek dio gaizki egina ordain dezagun ongiaz,  
ta ari gira batek bertzea zangoperatu nahiaz...  
Fantesia da gaixtoena hor, axola guti herriaz...

4

Gazte batzuek arizan dira farisauaren lanean:  
beren buruak zeruan ezar, bestiak ifernu labean...  
Zuhurtziari pixka bat beira, Jainkoaren izenean;  
gure buruak ez saildu egin gauza horien gainean,  
den justuena erortzen baita zazpi aldiz egunean

---

<sup>1</sup> *Herria*, 1959-III-19.

5

Zahar lagunak gomendatzen tut hartzeko pazientzia,  
Jainkoak hamar manamendutan eman baikaitu bizia.  
Hau sesitzeko aski ginuke bortzgarrenaz oroitzia:  
gaizkirik egin daukuteneri hobea da barkatzia,  
oroituz nola Kristok gu gatik jasan zuen gurutzia.

6

Goibel huntarik argi gaitzala guzien jabe den Jaunak,  
makurrik gabe ahantzaraziz holako bozka egunak,  
zitalkeriaz beteak izan ez diton biharamunak;  
karraxu denak alde bat utzi ta pentsamendu ilunak,  
izan gaitezen adixkide on eta elgarren lagunak.

7

Gazte maiteak goza ditela ukan duten atseginaz,  
atsegabea kontsolatzen da orroitzen bada arimaz;  
Jainko onari galdatzen diot, bitarteko den Birjinaz,  
zeru gainetik urrikal dadin batzuk bertzer egin minaz,  
bake gozoan geldi gaitezen Bazko on bana eginaz.



# Herri bateko bozak<sup>1</sup>

---

Mattinek: Herri batean bozak pasatu ziren; ondoren hango batzu nigana jin ziren, herrian nola zabiltzan eta zer gertatzen zen, eta pertsuak emateko.

1

Pertsu paratzen hastera noha . . . . herri maitean,  
jende guzia nola dabilan joan deneko bi urtean;  
herriko bozak izan gintuen zorionaren kaltean,  
gerla gorrian bizi gira gaur lehen ginenak bakean.

2

Edozoin libro izaiten baita nahi bada presentatu,  
batzuk bertzeak hautsi beharrez bi lixta ginen muntatu;  
berriek bozik aski ez bilduz zaharrak aise pasatu,  
orai ondotik ari zauzkigu guk ina nahiz mendratu.

3

Kontseilu gaia herritarra zen, mera beharra arrotza,  
gizon jakintsun argituia ta izpirituia zorrotza;  
merian dabil gure aferak ez dabiltzala hain ontsa,  
despendioak nola diren ta zer izaritan den moltsa.

4

Jakin nahi du Herriko Etxeko liburu guzien lixta,  
potret iteko jin arazi du Auberte fotografixta,  
heieri beira kontsolatzeko gogoia ez bada bixta;  
hori bederen gaizoak behar du hondarra ez dadin trixta.

---

<sup>1</sup> Mattinen eskutik bildu bertsoak.

5

Suma ederra gastatuia du bere fantesi hoietan;  
seinalea da, dirua ere izan behar du sobretan;  
kapital hori gastatu balu beharragoko obretan,  
bertze aldiko estimua're izanen zuen dobletan.

6

Pasatu balitz zer inen zuen ez dakit horren iderik,  
behar bada ez guk egin dugun ura, argi ta biderik;  
ura beretzat nahiko zuen dretxo zutener kendurik,  
gauza xuxenik pasa litake ez balitz gizon hoberik.

7

Bake saildu bat desiratzen du aspaldi mundu osoak,  
eta gu berriz elgarri gerlan jendeki eta hauzoak;  
elgarrekilan pasa ditzagun herrian urte gozoak,  
soberakinik sinetsi gabe arrotzen ele faltsoak.

8

Elgarretarik urruntzen gaitu gure urguilu trixteak,  
ondore onik ez du izanen hola elgarri aitzeak;  
umildurikan hurbil gaitezen batzuek ala bertzeak,  
zori on hori ekar gaitzala Jesus Haurraren sortzeak!

# Txarteletan<sup>1</sup>

---

Telesforo Monzon-ek: Lehen, Eskual Herriko herri gehienetan, Bazkoak egiteko txartela behar zen. Bainan, txartela emaitako, jaun erretorak behar zuen jakin lehenik ea gizon horrek katixima ongi ote zakien; ta katixima ez bazakien, etzion txartelik emanen. Beraz, lege zaharrearan gare egun, ta horra jaun erretorak nola dei egin dion herriko gizon bati. Jaun erretorak gizon horri eginen diozka hiru galdera, ta gizonak errepusta emanen. Herriko jaun erretora, Xalbador; eta herriko gizon hori, Mattin.

*Xal.:*

Etsaminatu izan tut ongi beti oraidinokoak,  
zuk ere, Mattin, gaur egin gogo omen dituzu Bazkoak;  
jakinduriak hortan badira segur baitezpadakoak,  
nai nuke jakin zuk badakizun zer adin duen Jainkoak.

*Mat.:*

Bertzela ez gira azkarrak eta dotrina hortan flakoak,  
hunek zerratzen hasi tu finki zeruetako gakoak;  
erranen zaitut nik dakidana zer adin duen Jainkoak:  
nik baino bia gutiago tu Jainkoa Senperekoak<sup>2</sup>.

*Xal.:*

Nola zauden hor, Mattin laguna, tente ene inguruan,  
jakin behazu: xuxen ebiltzen behar da jakin munduan;  
ote dakizu, zu jakintsuna, zer galde eginen duan:  
Erradaazu zuzen zuzena nortsu dagon ifernuan.

---

<sup>1</sup> Urruña, 1959

<sup>2</sup> Jainkoa, Senpereko gizon baten izengoitia.

*Mat.:*

Nere laguna, erranen ditut nik burura etorriak:  
zonbeit erretzen izan behar tu ifernuko su gorriak;  
han diren hoiek ez ditu joak mundu huntan miseriak,  
beraz ez gira aise sartuko han Xalbador eta biak.

*Xal.:*

Orai arteko errepostuak ongi dituzu ezarri,  
ea txartela merexi duzun nik ikusiko dut sarri;  
hau ere erran beharko duzu zure galdezka denari:  
mutxurdinak zer salatzen dio maizenik konfesorrari?

*Mat.:*

Nik ez tut ongi ezagutzen-ta mutxurdin direlakoak,  
esposatzeko izatu dira hoik memorioz flakuak;  
nihundik ere ezin onetsi gizon horien tratuak,  
ardurenian erraten tuzte bertzek egin bekatuak.

Bertsu hauk kantatzeko doinua:



# Sorginaren errepostak<sup>1</sup>

---

Telesforo Monzon-ek: Sorginik ba ote, ez ote, Eskual Herrian? Sorgin bat ba omen zen izigarri izen handikoa. Denak asmatzen, denak jakiten lehenari buruz, oraikoari buruz eta geroari buruz. Herriko gizon batek ez arras sinetsi sorgin zahar harek denak zakizkienik. Eta nahi frogatu. Gaki da sorginaren etxol hartarat, eta eginen diozka hiru galdera, ikusteko ea sorginak asmatuko diozkan hiru galdera hoieri errepostak. Gizon hori Zubikoa<sup>2</sup> izanen da; eta sorgina, Mattin.

*Zub.:*

Nere aurrian gizon koskor bat gorputzez ondo egiña;  
txarra danikan etzat iduitzen, itxura daduka fiña;  
baña izena aspalditikan jarri zioten sorgiña,  
orain pentsazu, kapable bazera, zenbat dan nere adiña.

*Mat.:*

Nere gostuko etzen izanen hoi baino gauza hobia,  
nik baino gutio dakitenak gauza hoietan badia;  
izpiritua zalu dut eta kontu egiten abia:  
hunek adina izan behar du bere andriain doblia.

*Zub.:*

Bera bakarrik aspertutzen da, andreetara segidan;  
aspaldi hontan hola dabilla, beti horien jiran;  
orai artio aukera ederrak emen denian baitziran,  
ia pentsazu garai honetan neria zer lan ari dan.

---

<sup>1</sup> Urruña, 1959.

<sup>2</sup> Zubikoa, Simon Ibarra izen-deituraz, Sunbillan jaio eta Bankan bizia.

*Mat.:*

Nere gogua sorgiñen gisa zalusko baita ibiltzen,  
eta zu, Simon, zaude oraintxe nere erranen aditzen;  
huni andria zer ari zaion berari etzaio iduritzen:  
ari da hantxe hunek astian zikindu heien garbitzen.

*Zub.:*

Gure sorgiñak errespuestak laixter daduzka goguan,  
dударik gabe talentu asko sartua dauka buruan;  
orai artio mintzatutzen haiz profeta baten moduan,  
ia pentsazu biar idortzeko zer denbor'gingo duan.

*Mat.:*

Aitzazu, Simun, hau entzun arte otoi etzaitela lotsa,  
honetarako zabal derauzkat gogoa eta bihotza;  
bihar goizian egingo ditu garbia eta izotza,  
zu ohetikan jeiki orduko idortuko dira ontsa.

# Espos batzueri<sup>1</sup>

---

Mattinek: Etorri zen mutil gazte bat Jatsutik, Uztaritzeko ondotik, bere lantokiko mutil bat esposatzen zela ta nahi ziozkala bertsu batzu kantatu, ta aber nik jarriko nituen, harek berak bodetan kantatzeko. Aidea: Luis Ligeix bertsolariaren kantore batena: «Oihan beltzian zoinen den eijer...».

1

Gaurko eguna nahi bainuke zerbeit gisaz ohoratu,  
jakitaterik ez daukat eta ez naiz aise menturatu;  
jende maiteak, galdatzen zauz tet zonbeit minuta barkatu,  
espos gaztier nahi nituzke bertsu batzuek kantatu.

2

Jaun espos gazte maitagarria, xantiereko laguna,  
sekulan ez dut nik ahantziko hemen iragan eguna;  
leial ta zintzo agertu duzu beti zure bihotz ona,  
gu guzieri partitu duzu zure gaurko zoriona.

3

Zure biziko handiena da gaur egin duzun urratsa,  
neska gazte bat hartu baituzu bizi guztikotz andretza;  
buruan asko erabil zazu goizean entzun otoitza,  
hortarik kanpo ez dadin ibil sekulan zure bihotza.

4

Andere espos ohoragarri, umila eta ez tia,  
orai artean neskatxa zinen, orai zira emazia:  
senarrarekin ereman zazu zorionean bizia,  
egin ahala bilatuz beti familiako bakia.

---

<sup>1</sup> Mattinen eskutik bildu bertsoak.



5

Begi eztian begira zaude hartu duzun senarrari,  
nik hortaz zerbeit erraiten badut otoi ez zitela harri;  
noiz edo ordu huts in dezake, gertatzen dena orori,  
huts batzu aise barka ditaizke bihotzez maite denari.

6

Espos egun hau izatu dute bien bihotzen lotgarri;  
inen zirela hitz eman dute, esku eman ez elgarri,  
zorionean partzuer eta penetan kontsolagarri;  
hitz bakar batez erran dezadan: elgarren atsegingarri.

7

Basate xerto elgarri lotuz egiten baita arbola,  
gure mundu hau hasiz geroztik publatu izan da hola;  
espos maiteak, aitortzen zautzet hor dudarik ez dagola,  
egun batez bat eginen dela biek duzuen odola.

8

Arbola hori beira dezala zeru gainetik Jainkoak,  
gisa berean arbola hortan jinen diren fruituak;  
desiratzen dut etor ditezen neska eta mutikoak,  
osagarri dun, umil ta goxo, ait-amak idurikoak.

9

Aski erranik baitut nik uste ixiltzen naiz azkenean,  
ezin ixildu izaiten bainaiz behin hasten naizenean;  
azken desira egiten zautzet gu guzien izenean:  
bizi luze bat munduan pasa gaurko zorion berean!

Bertsu hauk kantatzeko doinua:



# Ahazetek Mattinek Xalbadorri<sup>1</sup>

---

1

Aldudera-ino izatua naiz igandean Ahazetek;  
eta, Xalbador lagun maitea, hauzoan zure etxetik.  
Ez nuen uste deusek gibela nintzazken zu ikustetik,  
geroztik hunat griñan bizi naiz, aitortzen dut bihotzetik.

2

Aldudera-ta hauxe da zutaz lehenik entzun duguna:  
«Sukarrarekin oian da bera eta gaizkiago ama;  
pena da, bainan ezin ditake Xalbador etor gaur huna».  
Ez ginduela izanen zure entzuteko zoriona.

3

Berri txar hori laster pasa zen guzien beharrietan,  
guziak ginen doluan jarri, hain ginenak lorietan.  
Halako latz bat ere sendi zen gure buruzagietan:  
kobla ederren itzaina falta zela pertsularietan.

4

Bertsoetara zer nahi jende bazen horrat etorria.  
egin ahalak egin ditugu sortu nahiz onboria.  
Beti bezala arizan gira zirto ta bitzikeria,  
hoiekin ere kontentatzen da gu iduriko jendia!

5

Bertzalde bazen igandean hor zer nahi gizon argitu:  
mera, zenatur, mediku, apez, kalonje ta apezpiku.  
Sujeta hoiki axala baizik ez ginioten hunkitu,  
bertze bertsurik entzunen zuten zuk bixtan izan bazintu!

---

<sup>1</sup>*Herria*, 1963-IV-11.

6

Nik, lagun gisa, aitortu gabe zuri ez nindaiké pasa,  
Alduden zutaz jenden artean erabilki zen solasa:  
«Hura da, hura, bertsolaria; harek badu gero klasa;  
bai egiazki ageri dela gaur Xalbadorren eskasa».

7

Ahalaz beti maite izan dut gauza xuxen jujatzia:  
zuk bertsoari emaiten duzu merezi duen jauntzia.  
Eta zu gabe gu nola ginen errex da konparatzia:  
iduri zuen haitza neguan hostotarik biluzia.

8

Zorion dena ez daiké egin mundu huntako biziaz,  
zerua ere irabazteko daukagu penitentziaz.  
Heldu zauzkigun nahi-gabeak hartzeko pazientziaz,  
otoitz dezagun Zeruko Aita lagunt gaitzala graziaz.

9

Zonbeit pertsotan erran derautzut zutaz sendi nuen pena,  
bainan luzatuz unagarri da predikurik hoberena.  
Ikus artio, lagun maitea, huntan finitzen dut dena,  
besarkada bat zuri igorritz, ditaiken anaikorrena.

# Sanjakor bati

---

Mattinek: Mutil batek andregaiia bazuen, bainan gero karteroak ebatsi egin zion. Orduan mutillak bertsuak jarri arazi zizkidan. Ez ziren inprentatu; ate azpiz eta hola partitu ziren.

Horrela esan zigun Mattinek. Bainan zer bertso ziran arras ahaztuta zegoan. Hala ere ez dira galdu; horra nola eta nondik agertu diran:

Baten batek *Herria* astekarira bialdu zituan, *Damatit soldadoa* firmarekin. Ta aldizkari hontako zuzendariak, Lafitte jaunak, bertan argitaratu, 1963-X-31-n.

Bainan handik pixka batera Mattinen eskutitza hartu zuen. Bertso hoiek berak jarriak zirala esaten zion.

Hori dana jakinik, *Herria*-ren zenbaki hori billatu eta handik honera kopiatu beste lanik ez degu guk izan...

1

Bertsu berri paratzen orai naiz abian,  
Lapurdin bi presuna gazteren gainian;  
ezkontzeko fametan ziren aspaldian,  
neskaren ama azpiz ari zen lanian,  
erreusitu ere baitu azkenian.

2

Oi laborari gazte estimagarria,  
zure estatua da urrikalgarria!  
Emazte-gaiak kartaz dio igorria  
arruntegi zakola jaun laboraria,  
pietuna duela gizon-gai berria.

3

Duela zazpi urte elgarri egina  
fidela izaiteko bihotzetik zina!  
Orai dena hautsi da, iduri berina.  
Ez zinuen emanen hainbertze xangrina,  
ukan izan bazinu amodio fina.

4

Amak egin diozka bere arrangurak:  
«Zertaz behaun ezkondu laneko lekurat?  
Pentsaketak egin-ta jar hadi konturat:  
neke handirik gabe, trankil ta gosturat,  
ezarriko hintuzke herriko faturrak!».

5

Atsoa alabari beti elekteta:  
«Egin behar hintuzke huntaz bi gogoeta;  
ez hadiela ibil lurreko lan-keta,  
fatur zahar horrekin seguro soldata;  
urte laburrik barne berriz erretreta!».

6

Osagarrian eta lanarentzat lotsa,  
neke handirik gabe bizi nahi ontsa,  
ez dakite denbora nun ez nola pasa!  
Horrek barreatzen du askoren bihotza;  
hortakotz da munduan hoinbertze dibortza!

7

Faturrari mintzo zen bihotzez atsoa:  
«Zuretzat ongi laike alaba gaixoa!».  
Gogotik on hartu du, ez baita astoa,  
bere baitan eginez: «Ez dukek gaixtoa,  
haginak lanpustean haragi freskoa!».

8

Orai uros zirezte biak ezkont berri,  
penak ere ondotik jin ditaizke sarri.  
Pasa ditake berdin zure senarrari  
pasatu izan dena lehengo haurreri:  
gostu hobea hartzen hauzoko saldari.

9

Laborari gaztea, ez ukan dolurik:  
lili hoi galdu arren ez duzu malurrik.  
Afruntu horren gatik ez galdu bururik!  
Zer jaliko zinuen sanjakor hortarik?  
Eskual Herrian bada andre-gai hoberik.

10

Bertsu hok eman ditut orok kantatzeko,  
eta gazte zonbaitek etsenplu hartzeko,  
holako prenderi ez sobra fidatzeko,  
Ez badute ideirik laster ezkontzeko,  
esperantzan ez otoi denbora galtzeko!

# Hiru penitentzi<sup>1</sup>

---

Sujet emaileak: Apez bat zira. Zoin laizke emazteeri eman zinezazken hiru penitentziarik bortitzenak?

*Mat.:*

Bokazionerik nahiz ez ukan apezgoan behaut hasi, ta, emazteak, eman behar tut zuer gaur hiru penitentzi: nahi balin baduzue etxian trankil eta uros bizi, zuek apal zaizte pixka bat eta senarrak utzi nagusi.

Apez horiek baitakizkate andre hoiien alegiak, pixkat xuxendu nahi nituzke hoiek tuzten alderdiak: naski gaitz berak joak baitira hiruetaritan biak, emendaturik ez otoi konda hauzoetako berriak.

Gauzak barnatik erraten ditut behin hasten naizenian, aiherkunde bat hartua baitut emazte hoiien gainian; bide makurrean dabiltzana ezarri nai xuxenian, ezpirituan bi aldiz pasa zerbeit erran aintzinian.

Bertsu hauk kantatzeko doinua:

---

<sup>1</sup> Aldude, 1963-XII-25.





# Bozak<sup>1</sup>

Airea: Kantore berri xarmant batzuek...

---

Mattinek: Herri batean bozak ziren, eta bi banda, bat bertzearen kontra, ta batek neri eman arazi bertsoak. Maxinaz kopiak egin eta zabaldu ziren.

1

Kantore berri baten paratzen oraintxe nauzu abian,  
okasione bati begira nagon gan den aspaldian;  
jende guzia asaldua baitago gure herrian,  
esperantza dut sosegatuko direla denak agian,  
bozak pasa direnian.

2

Gizon batzuen egitateaz asko gaude harriturik:  
kontseilu hortan sartuak ziren populuak hautaturik;  
orai kanpora atera dire lagun onez nardaturik,  
lixta berria ere muntatu aintzinekua ukaturik,  
arrotz bat buru harturik.

3

Orai arteko merarekin bakean ginenak bizi,  
gezurra itzain gizon batzuek nahi gintuzten nahasi;  
bainan garbiki seinale da gaur, nahi duenak sinetsi,  
nunbeitik jin den gizon arrotz bat gure herriko nagusi  
ez dugula nai ikusi.

---

<sup>1</sup>Mattinen eskutik bildut bertsoak.

4

Etkez etxe zabilan jaun hoi bildu nahiz gure bozak,  
bainan askotan kausitu ditu frango begitarte hotzak;  
uste baitzuen gu beiratuko gintuela horren lotsak,  
desafioka ez direla biltzen euskaldunaren bihotzak  
ikasiko dik arrotzak.

5

Bere burua goratzen zuen bertzien kontra hitz inik,  
hoi bertzerikan ez zela zion itzal gabeko gizonik;  
asko lotsatu nahi zituen mehatxu batzu eginik;  
onez onian ezin denian, hortaz erranen dautzut nik:  
bortxaka ez da gauz onik.

6

Jaun arrotz horrek afruntu hori barkatuko du agian,  
guziak ezin pasa baitira presentatzen direnien;  
konfidentzia emanen diogu horri berdin bertzaldian;  
bitarte hortan obra on batzu egin detzala herrian  
guzien zorionian.

7

Gaurko egunak ez beza otoi makurrik ekar nihori,  
hemendik goiti bizi gaitezen esku emanez elgarri;  
segurki uko ez nahiz egin gure eskual odolari,  
konfidentzia eman diogu lehenagoko berari:  
gora Xarlo Abeberry!

Bertsu hauk kantatzeko doinua:





# Senar-emazteak<sup>1</sup>

---

Mixel Itzainak: Mattin eta Xalbador atzo Baigorri eztaietan ginituen. Eta galdatuko diotegu jarriko ditugun atzo ezkondu ziren jaun eta andere esposaren plazan. Xalbador, zu izanen zira jaun esposa, atzo ezkondua; eta zu, Mattin, andere esposa, atzo ezkondua. Segur baduzue gauza unkigarririk erraiteko elgarri.

*Xal.:*

Hauxe da egun xoragarria argitu duen neretza!  
badakizue engoitik zer den gizonen naturaleza;  
gure bideen bateratzaile lehenik izan da apeza,  
bai azkenean bete izan da aspaldi nuen amentsa!

*Mat.:*

Nere senarra, zuri kantatzen oraintxe nauzu hasiko:  
ni ere hortaz kontent naizela aitor dut lendabiziko.  
Zuretzat dena amodio naiz, nol'eztuzu sinetsiko?  
Atzotik zuri dena eman naiz eta denbora guziko!

*Xal.:*

Bien artean gaur iragan da gauza bat miresgarria;  
lagun maitea, badakizua hori zonbat den haundia?  
Biek etxe bat egiten dugu, hori ez laike kanbia;  
nik egin dizut ezkoa eta zu zira hango argia!

*Mat.:*

Nik ez nakian oraino zer zen espos-biharamuna,  
hauxe da, bada, hau zoriona elgarrekilan duguna!  
Nik otoitzean pasatua dut kasik atzoko eguna,  
gure Jainkoak eman baiteraut desira nuen laguna!

---

<sup>1</sup> Kanbo, 1965.

*Xal.:*

Gauaz izarrak ageri dira ainitz disdiran zeruan,  
eta izarrikan ederrena egun zu zaitut onduan;  
zuretzat amodio beroa daukat nik bihotz xokuan,  
ni baino gizon urusagorik segur ez dago munduan!

*Mat.:*

Nere bizia egin nai nuen zu bizi ziren etxian,  
amodio bat partikularra bainuen nik bihotzian;  
senar-emazte biziko gira elgarrekilan aisian,  
gaur bezin goxo balin bazira zure denbora guzian.

*Xal.:*

Zonbaitek eskontzaren kontrako ainitz gauza badakite,  
honek zonbaiti kartzen duela abantail bezenbat kalte;  
bainan ni baino urosagorik mundu huntan ez ditaikete,  
baldin zuk beti banezakezu egun nauzun bezain maite.

\* \* \*

Mixel Itzainak: Oixtiko ezkon berriak, Mattin eta Xalbador, atxemaiten ditugu hamabortz urteren buruan.

*Xal.:*

Oi, lenagoko egun goxoa orai balitz berritz haste!  
Bainan geroztik joan zaizkigu ainitz egun eta aste.  
Maitasunaren iraupenari deusik konpara ez daikete,  
zendako ez nuzu, lagun maitea, len ninduzun bezain maite?

*Mat.:*

Senar maitia, nik errepusta emanen dautzut gaur fite,  
lenago hola ezkondu zienek hori ongi badakite;  
eta jenderi esplikatzeko horixe badakit nik e;  
zu ere aise goxoago zinen duela hamabortz urte!

*Xal.:*

Orduan bezain maitagarria, Maria, etzira egun,  
etzira orduan bezain goxoa, ez orduan bezain legun!  
Alta apezak ere predikuz aski esplikatu zauzun;  
orai eztuzu zuk egun hartan zinuen hainbat goxotasun!

*Mat.:*

Senar maitia, elgarrekilan pasatu dugu zonbeit gau,  
eta goguan, gaizua, har zak orai erran behautan hau:  
geroztik huna nahi bezala ni senarrak ibilki nau,  
jakin zazue sobera ona izatuak galdu bainau!

*Xal.:*

Ni baino gizon urosagorik orduan etzen munduan,  
ez eta naski aingerurikan ere etzagon zeruan;  
pottaka jan nai ninduen eta nik ere bera nai nuan,  
urriki hau bezik ez dut egun: jan izan banu orduan!

*Mat.:*

Gu biak esposatu ginela baditu hamabortz urte,  
denborak ere kanbiatu diren ordutikan baditake;  
potta galdeka hasten zitzautan ohera joan eta fite,  
eta gaur berriz esker txarra ta «Aldetikan bazter zaitel!».

*Xal.:*

Oraino ere, lagun maitea, zutaz ez dezaket etsi;  
idortasun hoi axalean da, ez nauzu barnez gaitzetsi;  
egun zernahi erranik ere laudatuko nauzu etzi,  
ez dut posible zure ganikan eskerniorik merexi.

Bertsu hauk kantatzeko doinua:







# Errexil zenari<sup>1</sup>

---

Aizu, Errexil, lagun maitea, zutaz kantatzen ai gira,  
lenago zu e etortzen zinen kantatzera gure erdira;  
hau da bihotzez orai Mattinek egiten dautzun desira:  
zeru gainetik egon zaitezen gure bertsuer begira.

Zuk badakizu guk lagun gisa zenbat zintugun, bai, maite,  
ta elgarrekin kantatu dugu zonbeit bertsu orai arte;  
gure artian ongi zinena apartatu zira fite,  
ez adiorik, lagun maitea, ta beraz ikusi arte!

Bertsu hauk kantatzeko doinua:

---

<sup>1</sup> Errexil bertsolaria, Gipuzkoako Errezillen jaio eta Lapurdiko Urruñan bizi ta il zana.

Kanbo, 1965.

The image shows a musical score for a piece in G major and 5/8 time. The score is written on six staves. The first staff begins with a treble clef, a key signature of one sharp (F#), and a 5/8 time signature. The music consists of eighth and quarter notes, often beamed together. The second staff is marked with a fermata over the first note and a section marker 'A'. The third staff continues the melodic line. The fourth staff features a fermata over the first note. The fifth staff is marked with section markers 'B' and 'C', and a fermata over the first note. The sixth staff concludes the piece with a final cadence. The notation includes various rhythmic values, accidentals, and dynamic markings like accents.

# Mutxurdin bati

---

Mixel Itzainak: Mattin, urerat erori zira eta itotzera zoazi. Zure azpiko aldean mutxurdin bat ari da beherago, xuriketa garbitzen. Eta zure salbatzera egiteko ordeztu, erraiten dautzu, mokoka hasten zaizu, ura zikintzen diozula. Halarik ere, ito aintzin bizpahiru bertsu kantatzen dizkiozu.

*Mat.:*

Izigarrizko zorigaitza zaut oraintxetto neri jina:  
urerat eroria nintzen ta handik atera ezina.  
Neskazar bati hemendik ai naiz oihera eta irrintzina,  
bainan halere ezin urrikal aldean den mutxurdina!

Harek ezpaitu ongi ikusten ni lanjerian nagola,  
hari etzaio axolarikan galduik e ene odola;  
lagundu gabe hantxet uzten nau erasia dariola,  
bere errenkura hauxe dauka: ura zikintzen diotala!

Laguntza bat dut azken orduan nik hareri proposatu,  
eta laguntzarik egin gabe mutxurdinak ni ukatu;  
mundu huntarik horren eskasian behar baitut nik partitu,  
enaiz harritzen neskazar hori ez dela, ez, esposatu.

Urain barnian ikusten dut nik gaur itotzera noala,  
ta ito gabe hauxe kantatu nahi nuke berehala:  
mutxurdina, zu egoten bazai bakarrikan hola-hola,  
Jainkoak surat egorriko du fruitu gabeko arbola!

Bertsu hauk kantatzeko doinua:

---

<sup>1</sup> Kanbo, 1965.



# Bas-ahuntza

---

Mattinek: Arruntz Uztaritzeko kartier bat da. Eliza ta apeza ere bada, bainan Herriko Etxea Uztaritzen. Ihiztari-andana zen hor ta bas-ahuntza bazela, ikusia zutela; ta hilko zutela ta, jateko, besta jarri behar zutela... Bainan gero bas-ahuntzik ez arrapatu; bas-ahuntza bizirik...

Bi uztariztar etorri ziren, ta sujet horren gainean bertsuak eman arazi zizkidaten. Bainan ez naiz orroitzen zer eman nuen.

Orduan Lafitte apez jaunari eskutitza egin nion, gertaeraren berri eman ez eta, bera Uztaritzen bizi baita, bertso hoienez aztarrenik biltzen saiatuko ote zen galdetuz.

Banakien noski ate ona jotzen nuela. Lafitte jaunak, bertsoak ez-ezik, ohar batzuk ere bialdu zizkidan, gertaeraren azalgarri. Mila esker berari.

Honela dio Lafitte jaunak:

9-XI-71.

Adixkide jauna:

L. Dassance-k egin du inkesta ostaturaz ostatu, eta azkenean Bernardin Iriberry-k jakin du nori bertsoak galde egin.

Kopia batetik harturik igortzen dauzkitzut berehala.

Bertzerik gabe, agur handi bat:

P. Lafitte.

Bertsoeri datxikola, bidaltzen dautzut ihizi horren egiteaz “kridatu” zen abisua, meztatik landa aintzineko igandean.

Huna ihizi-aldi hortarako herriko mutilak egin zuen “krida” edo deia:

*«Une battue au cerf et au chevreuil est organisée sur le territoire d’Ustaritz le dimanche 14 novembre 1965.»*

*Elle devrait permettre un banquet prévu pour le samedi 20 au soir au restaurant Chicana d'Arrauntz.*

*Tous les amateurs de ce gibier peuvent se faire inscrire jusqu'au jeudi soir, dernier délai, soit à Ustaritz chez Mr. Celan, à Herauritz chez Laborde Dominique, à Arrauntz chez Mr. Iriberry, dit Chicana.*

*La Société de chasse se fera un plaisir d'accueillir les chefs de famille cultivateurs dans la commune, qui bénéficieront, sur le prix du repas, de la fourniture gracieuse de la viande».*

Bernardin Iriberry oihan-zainak irakurtu zuen dei hori 1965-eko hazilaren 7-an. *Xikana* erraiten diote, haren aita-ginarrebaren izengoitia izaki-eta.

Jan-aldia (*le banquet prévu*) Pettitenean egin beharra zen, Iriberry horren ostatuan.

*Pettan*, ihiztarietarik baten izengoitia da.

1

Zonbeit bertso berriren hasten niz kantatzen,  
sujet eder bat baita orai Uztaritzen:  
zonbeitek laket dute ihizin ibiltzen,  
haragi ona baita ihizitik biltzen;  
desafiatu denak ez dituzte hiltzen.

2

Pettan guziek dute ezagutzen ontsa:  
basa-ihizientzat hori ez da lotsa.  
Igandean izan da, bildurik laguntza,  
aintzinetikan gogoz hil dute ahuntza,  
berek jan behar heiek saltoka dabilta.

3

Hori gertatu zaiku komedi polita!  
Ihiztari horiek beti espantuka,  
ustez segura zuten plana tiratu-ta.  
Ainitz enganatzen da sobra fidatu-ta:  
ihizia hil aintzin jaleik ez gomita!



4

Pettanek bazeraukan hiltzeko gogua,  
bainan basa-ahuntza gaitza da zalua.  
Harek enganatu du gure urgulua.  
Erran zuhur hau ez da arras oraingua:  
Ez sal, bera hil gabe, hartzaren larrua.

5

Ez otoi nolanahi ihizin abia!  
Zakurrak e hortako onak behar dia,  
arrastoan batzuek tronpatzen baitia:  
ahuntza utzi eta segi azeria.  
Egin beharko zaie eskola berria.

6

Ostaler jauna, zuri huna bi abisu,  
ihiztari horier egiteko kasu.  
«Astoa hil beharko, ahuntzik ez dugu!».  
Ororen kontentatzen lan izanen duzu,  
gonbidatu guziak jiten bazauzkitzu.

Bertsu hauk kantatzeko doinua:



# Kukusoa<sup>1</sup>

---

Mixel Itzainak: Mattin, kukuso bat zira. Erranen daukuzu nola pasatzen duzun eguna, nun etzaten ziren, nun askaiten duzun, nun bazkaiten...

*Mat.:*

Kukuso gisa jarrita hemen nago segur pentsaketan:  
udan ongi naiz bainan gaizkixko segur neguko otzetan;  
aratsean baino aise azkarro izaten bainaiz goizetan,  
otruntza ederrak gauaz eginez zonbeit gizon ta atsotan.

Negu partian nik gauak beti ezteramazkat barurik,  
ta nere ustez ez dut ba eiten nehorri ere malurik;  
pixka pixka bat tentatzen ditut atso zar hoiek segurik,  
nere ihizin aitzen baitira beren argia pizturik.

Ai zer aseak egiten tudan hoiek daudelarik lotan!  
Ni ongi hazten naizelarikan kexatzen dira frangotan:  
batean belaunean bilatzen naute, bertzian berdin zangotan,  
eta ni berriz laster gordetzen beso azpiko bilotan.

Bertsu hauk kantatzeko doinua:





# Portuges bati<sup>1</sup>

---

Jean Haritschelharrek: Aste huntako *Herria*-n leitu, eta funtsean leituko dautzut, hor duzu zure sujetu, eta sujet serio-sa, zeren-ta sujet serio-setan ere on zirelaketz.

«Larunbatean Ezpeletako mendi maldan den oiha batean, Espainiako mugari hurbil, aurkitu dute gizon gazte baten gorputza. Jandarmek inkesta egin dute, eta laster jakin portuges bat zela, ixilka etorria. Ez du iduri izan duela ez kolperik, ez bertze tratamendu gaixtorik. Itxuren arabera, oinez bide luzea eginik, eta beharbada ez aski janik, lehertua gelditu da lurrean, eta han zendu».

(Mattinek aho petik: Orai hango makurra beharko dut zuzendu!)

Orai zuk, Mattin, kantatuko dauzkuzu, otoi, portuges horren azken auhenak, ikusten zielarik bere buria hiltzera zoala, hiru edo lau bertsutan. Hor sujet sarkorra duzu.

*Mat.:*

Sujet eder bat emana naute pixka bat kanbiatzeko, nahiz adinik aski banuken nik ere serioteko; errana naute gizon gazte hoi bertsutetan aipatzeko, Portugaletik nola heldu zen ogia irabazteko.

Portugalen e naski bizia ibilki baita balantzan, mundu hunetan soinuak dauku dener irakusten dantzan; ta hura ere hunat heldu zen, bai, zerbeiten esperantzan, t'harek gauzuak zer pents'ote du biziaren akabantzan?

---

<sup>1</sup>Baigorri, 1967.

Hura're naski zerbeit goguan Frantzi alderat heldu zen,  
gure bizian ensaiatzia denentzat ez al da zuzen?  
Bainan Jinkoak uste gabian bizia baitaiku kentzen,  
nun nahikua izan zadien Jaungoikoaren haurra zen!

Azken bertsua kantatuko dut harentzat umil umila:  
sendo etxetik partitu eta bidian gelditu hila;  
orai harentzat bihotz barnetik ni otoizketa nabila,  
bertze desirik ez dut egiten: zeruan gerta dadila!

Bertsu hauk kantatzeko doinua:

The image displays six staves of musical notation in G major (one sharp) and 5/8 time. The notation is as follows:

- Staff 1:** Starts with a treble clef and a key signature of one sharp (F#). The first measure contains a whole note chord (G4, B4, D5). The second measure contains a quarter note G4, a quarter note B4, and a quarter note D5. The third measure contains a quarter note G4, a quarter note B4, and a quarter note D5.
- Staff 2:** The first measure contains a quarter note G4, a quarter note B4, and a quarter note D5. The second measure contains a quarter note G4, a quarter note B4, and a quarter note D5. The third measure contains a quarter note G4, a quarter note B4, and a quarter note D5.
- Staff 3:** The first measure contains a quarter note G4, a quarter note B4, and a quarter note D5. The second measure contains a quarter note G4, a quarter note B4, and a quarter note D5. The third measure contains a quarter note G4, a quarter note B4, and a quarter note D5.
- Staff 4:** The first measure contains a quarter note G4, a quarter note B4, and a quarter note D5. The second measure contains a quarter note G4, a quarter note B4, and a quarter note D5. The third measure contains a quarter note G4, a quarter note B4, and a quarter note D5.
- Staff 5:** The first measure contains a quarter note G4, a quarter note B4, and a quarter note D5. The second measure contains a quarter note G4, a quarter note B4, and a quarter note D5. The third measure contains a quarter note G4, a quarter note B4, and a quarter note D5.
- Staff 6:** The first measure contains a quarter note G4, a quarter note B4, and a quarter note D5. The second measure contains a quarter note G4, a quarter note B4, and a quarter note D5. The third measure contains a quarter note G4, a quarter note B4, and a quarter note D5.



# Eskuara ala latina?<sup>1</sup>

---

Jean Haritschelarrek: Badakizie orai eskuara badugula mezako liturjian. Xalbador ateratzen da eskuararen alde. Ta Mattinek, nahiz eztién deusik konprenitzen, nahiago du latina.

*Xal:*

Giristinoak bizitzen ginen lehenago amentsetan,  
deus ez konpreniturik ere fede baitzen apezetan;  
nola latinez kantatzen zuten batzutan eta bertzetan,  
kontensko nago orai eskuara dabilkatela mezetan.

*Mat.:*

Nere laguna, Xalbador ona, kasik amentsetan dago,  
horrek latina baino aise eskuara du nahiago;  
erraten tuen gauza hoietan konprenitzen du gorago,  
nahiz lenago izaten baitzen gaur baino saildu geiago.

*Xal.:*

Sainduak saildu utz ditzagun ta ezta dena hortan fini,  
gure gustua ere egin dadin ez ote da ba komeni?  
Oraiko meza aberatsago ainitz iduri zait eni,  
ez dea xuxen Jaunaren hitza denek dezagun konpreni?

*Mat.:*

Gaizo Xalbador ari baitzauku gaur eskuararen gainian,  
nik errepusta emanen diot hortaz onbore onian:  
gure Jainkoak entzuten dauku meza ari zaukunan,  
lenago aise hobeki baitzen denek lenguaia berian.

---

<sup>1</sup>Baigorri, 1967.

*Xal.:*

Zer lenguaietan meza entzun Jainkoak ez dauku erran,  
erran derauku egin dezagun nork guhauren araberan;  
mezaren balioa dezakete latin hitz hoiak ereman,  
eder zaut eni meza entzutea bakotxak bere mintzairan.

*Mat.:*

Gaizo laguna, erran behar dut orai pentsatzen dutana,  
nik dadukatan jakitatea zeruetarik ukana:  
moda berriko jokia daukak gaur hik gogoan dukana,  
apez horiek uzten ai tiztek latina eta sotana.

*Xal.:*

Kontzilioko moda hau etzen Mattinendako egina,  
igande batzuz ikusten dugu mezaren erdirat jina,  
ukondoaren pausa lekuan emanik buru izkina...  
Hunentzat orduan berdintsu da eskuara eta latina!

*Mat.:*

Xalbador hunek bere laguna nunbeit nai du zirikatu,  
eta nik gauza horren gainian eztirot nahi barkatu;  
bere burua hola du eta aise du horrek karkulatu,  
hire burutik hik etzakala hire laguna jujatu!

Bertsu hauk kantatzeko doinua:



Honela  
ere bai

# Aberatsa<sup>1</sup>

---

J. M. Aranaldek: Mattini tokatzen zaion gaia jarriko diogu: aberatsa.

*Mat.:*

Horrek zertsu gai emango zuen nik ezpainezaken pentsa,  
amodiorikan behin ere ez tut izan sosarentza;  
diru hori da gogo txarreko izaten gehientza,  
ni diru guttirekin bizi naiz bañan gogoz aberatsa.

Gauza horrerri pentsatzen daude Euskal Herrin gehienak,  
nik asko berri ikasia dut txiki eta haundienak;  
askok ez izanarekin ere kausitzen dituzte penak,  
ikusi ditut nik dirudunak pobre bizitzen direnak.

Nik gauza hauxe pentsatutzen dut nekatu gabe burua,  
nik ez tut asko estimatutzen aberatsaren gradua;  
beti diruen kontatzen hantxe bere denbora badau;  
baldin ez bada aprobetxatzen zertarako da dirua?

Bertsu hauk kantatzeko doinua:

---

<sup>1</sup>Ernani, 1969-VIII-9.



# Gazteeri<sup>1</sup>

---

Teodoro Ernadorenak: hemengo gazteei iru bertso, ea heritik kanpora alde egin gabe bertan kabia egiten duten.

*Mat.:*

Mutil gazteak, nere bertsu hau ondo har zazue goguan,  
gora-bera asko ikusten baita izaten dela munduan:  
urruti baino gauza hobeak baitirare inguruan,  
herrian bertan gelditutzia hartu zazute buruan.

Beti urruti senditzen dira ta entzuten alegiak,  
uste bertakuak txarrak diren ta urrutikoak hobiak;  
denak probatu egiten ditu kurri dabilan jendiak,  
oso aberats dira urruti ta bertara gan ta pobriak.

Mutil gazteak, hauxe nai nuke egun gogoan hartzea,  
nik puxka bat probatua baitut mundu huntako bizitzea:  
hobe duzue lekuan bertan gero're saiatutzea,  
andre pulit bana hartu eta bertan egin ohantzea.

Bertsu hauk kantatzeko doinua:

---

<sup>1</sup> Leitza, 1970-IV-26.



# Pobrea ta aberatsa<sup>1</sup>

---

Mariano Izetak: Mattin izanen da pobrea; eta Azpillaga, aberatsa. Ez dakigu zer gertatzen den, baiñan Mattin, arras pobrea izanagatik, Azpillaga baiño aunitzez hobekiago bizi da. Orai berek erranen dute. Bostna bertso, Mattinek asiera.

*Mat.:*

Ni pobre sortu izan naiz eta geroztik pobre gelditu,  
jatekoa ere gutti nuen ta hartako ez naiz haunditu;  
zu, Azpillaga, sostuna zera, halaxe zait iduritu,  
ni puska hobeki bizi nitake zure diruak banitu.

*Azp.:*

Baiñan zuk, Mattin, arren etzazu eskatu orrelakorik;  
gizon txikia zera, egia, baiña ez dago flakorik;  
gizon txikiak jaten ere ez du ia gastatzen dirurik,  
len daukanakin ik aski daukak ta ez duk bear besterik.

*Mat.:*

Ni eskoletan enaiz ibili gauza ainitz ikasteko,  
eta gainera suerterik ez izan nik aberasteko.  
Borondaterik ba ote duk hik pixkat neri partitzeko?  
Karitatea egin behar duk zerua irabazteko.

*Azp.:*

Nik diru asko, ta diru gabe dago onen boltxikua,  
baiña aberats batena baiño alaiago du burua;  
milla pezeta dan bezelaxe estimatzen du durua,  
pobre aiñ ondo bizi dan batek zertarako dik dirua?

---

<sup>1</sup>Elizondo, 1970-V-17.



*Mat.:*

Ni beti hola ibiltzen bainaiz aberatsaren tentatzen,  
aberatsa hobeki dagola batere ez dut pentsatzen;  
dutan apurra parrandan beti gostura baitut gastatzen,  
eta hau berriz etxe zokuan bere diruen kontatzen.

*Azp.:*

Mattiñek beti griña ori du, dakigu berak esanik,  
iñork ez dio gorrotorikan orren txikia izanik;  
atzo egindako diru pixarrak gaur nolatan dauzkan janik,  
onen semiak ez dute onen dirua gastatzen lanik.

*Mat.:*

Beiñe dirurik ezpaitu gorde Mattin bizi dan etxiak,  
hortaz ohartu dira aspaldi semeak eta bertziak;  
nik beti aise iretsi ditut lanetik irabaziak,  
eta errexki kontatu ditut nik nere aitak utziak.

*Azp.:*

Gizon beartsu deabruzko au beti ari da tentatzen,  
ta iseka bat asmatutzen du: nik ez dudala gastatzen;  
prailleak eta monja guziak nerongana eskatzen,  
nik lanik asko bazedukiat pobre guziak mantentzen!

*Mat.:*

Gure aberatsa orai jua zauku praile ta mojetaraino,  
nik berriz dotrinan ikasi dut hoietarik egundaino  
kaamelu bat orratz zilotik pasako dela alaino,  
zu bezalako aberatsen bat zeruko atean baino.

*Azp.:*

Zeruko atea orren errexa dala al zak iruritu?  
Orrek, al balu, patarrarekin bere muturra garbitu!  
Iñork ematen dizkan guztiak berela zurrupatzte'itu,  
alkolizatuta iya il zan nere diruak balitu!

Bertsu hauk kantatzeko doinua:

A

B

C

# Mattin eta San Pedro<sup>1</sup>

---

Antton Aranburuk: Mattin izango da zeruan ate joka dato-  
rrena, zeruko atarian agertzen dana; eta Lazkano San Pedro  
izango da. Iruna bertso kantatuko dituzte, Mattin asita.

*Mat.:*

Zeruko ate ondoan naiz ni aspaldion zai egoki,  
ta San Pedrori atia jo diot ustez puliki puliki;  
bertsu kantatuz ta otoitz iñez munduan nintzen ibilki,  
eta orain zeruko atia, Pedro, behar diuzu ireki.

*Laz.:*

Atsekabe bat eman didazu, nere lagun zar maitea,  
adiskideak izatea gaur ekarri digun kaltea!  
Leku txikia biezu baña zerua dago betea,  
obeko dezu purgatoiora edo infernura joatea.

*Mat.:*

Beraz zeruan ez dala diozu nik behar dudan lekua,  
alta etzen ba izigarria nik ein dudan bekatua;  
ta harritzen naiz nola atezain jarri zu bezalakua:  
bere nausia, bizi zelarik, hiru bider ukatua.

*Laz.:*

Lengo munduan Zeruko Aita etzendun ondo serbitu,  
eta oraingoz oker aundiak gauz orrek ekartzen ditu;  
ainbat pekatun karga dezu ta ezin zindezke kabitu,  
berriz onera etortzerako purgatoioan garbitu.

---

<sup>1</sup>Ursbil, 1970-VII-4.

*Mat.:*

Jaungoiko ona ez ote da ba gaur nitaz urrikalduko?  
Egin ditudan bekatu hoiek ez ote tu barkatuko?  
Bertsu koxkor bat euskara garbiz atetik diot kantatuko,  
eta zuk nahi baduzu ta ez ni zeruan naiz sartuko!

*Laz.:*

Mundu orretan zenbat pertsona ez ote dezu engaña?  
Eta bestean izango dezu oker guzien ordaña;  
begiratuta aingeru baten itxura daduka baña,  
onek okerrak egiñak ditu iru bat etsaiek aña.

Bertsu hauk kantatzeko doinua:

The image displays a musical score for a single melodic line in G major (one sharp) and 3/4 time. The score is organized into six horizontal staves. The first staff begins with a treble clef, a key signature of one sharp (F#), and a 3/4 time signature. The melody consists of quarter and eighth notes, with some notes beamed together. The second staff continues the melody with similar rhythmic patterns. The third staff features a mix of quarter and eighth notes, including a quarter rest. The fourth staff is characterized by a steady eighth-note pattern. The fifth staff continues with eighth notes and includes a quarter rest. The sixth and final staff concludes the piece with a quarter note followed by a quarter rest, ending with a double bar line.

# Kasinetik etxerat<sup>1</sup>

---

Antton Aranburuk: Mattin, lengo larunbatean jornala jaso zenduan lan-tokian; eta, zuzenean etxera joan baiño lenago, Biarritzko Kasinoan dana galdu zenduan. Aber andreari zer esaten diozun.

*Mat.:*

Kasinuan nola ibili naizen denek duzue aditu:  
jornala altxa nuen nik eta hura jokutzen gelditu;  
bertsulariain andriak ere etxian kontuak ditu,  
jornal txikia nola nuen nik han uste nuen haunditu.

Hori badaki nol'izaten den joko-etxetan jendiak,  
ni baiño leno bertze asko're han badira ibiliak;  
eta jokatzuz irriskatu nik jorialian irabaziak,  
etxera gabe hantxet utzi tut tristeki nere guziak.

Umil umila arrimatu naiz ni andriaren onduan,  
hura erritan azkar hasi zait demoniua goguan;  
bañan nolazpeit sartu diot nik azkenian hau buruan:  
jornal doblia ekarriko dut nik etxerat hurrenguan,

Bertsu hauk kantatzeko doinua:

---

<sup>1</sup>Usurbil, 1970-VII-4.



# Astoa<sup>1</sup>

---

Antton Aranburuk: Ta Mattini azken gai bezela jarriko diogu, hiru bertso kanta ditzan: astoa!

*Mat.:*

Jende maitiak, jakin zazue asto-kontuz gabiltzala,  
eta hementxe bilatzen dute arbola danen itzala;  
eta bertsutan esango det nik jendiak jakin dezala;  
gaur iñork hemen eztu esango asto haundia naizala.

Nere denboran baserrietan asto asko ikusia,  
eta guk ere deramakigu naski astoen bizia;  
gaur ere hemen astokerian bertsutan bainaiz hasia,  
beharriz eztut itxurik bañan astoaren irrintzia!

Holako gaien aitatzeko die gisa hortako egunak,  
asto-kontura dira gaur ere hemen kantatzen tugunak;  
eta hau ere esan behar dut, adixkide ezagunak,  
neoni frango astoa naiz bañan bertan baditut lagunak!

---

<sup>1</sup>Usurbil, 1970-VII-4.



# Moda-denda<sup>1</sup>

---

Juan Mari Lekuonak: Mattinek Donostian moda-denda bat jarri du, *boutique* esaten dioten holakoa; moda-denda bat, peluka ta guzi. Hiru bertso.

*Mat.:*

Modaren esplikatzen behar dut nik hasi,  
    behar dut nik hasi,  
gazte maiteak, hori behautzue ikusi;  
oraiko moda hori ezpaita itsusi,  
modan emanak ditut arrop'eta guzi;  
gaztiek orai modan bihar dute bizi!

Moda gustagarri da gazte horietan,  
    gazte horietan,  
dendarat heldu zaizkit denak lorietan;  
pintur'urdiña eman behar begietan,  
eta luzetasuna bada ilietan;  
neska geienak berriz ezpain gorrietan.

Gaztien gostukoa da beti moda berri,  
    beti moda berri,  
moda segitzen dut nik berdin arropari;  
pulitagoa dela neri zaut iduri,  
aski duzue beiratzea neska gaztieri:  
zoñen pulitak diran ixterrak ageri!

Bertsu hauk kantatzeko doinua:

---

<sup>1</sup> Oiartzun, 1971-VI-6.

A page of musical notation consisting of seven staves. The key signature is G major (one sharp) and the time signature is 2/4. The notation includes various rhythmic patterns such as eighth notes, quarter notes, and sixteenth notes, along with rests and a fermata. The first staff begins with a treble clef, a key signature of one sharp, and a 2/4 time signature. The music concludes with a double bar line and a fermata on the final note of the seventh staff.

# Aita ta semea<sup>1</sup>

---

Juan Mari Lekuonak: Mattin hemengo mutil bat da. Afrikan soldadu dagoela, emakume beltz batekin ezkondu da. Bere baserrira dator emakume beltzarekin, eta atarian aitarekin, Uztapiderekin, topo egiten du. Hiruna bertso. Mattin haste.

*Mat.:*

Bertsu koxkor bat orai banuke hemen nere aitarentza,  
ni mutil zahar egongo naizen hori ez zazula pentsa;  
amodioa nik ere badut neskatxa gaztiarentza,  
andre bat ona ekarritzen dut hori izan arren beltza.

*Uzt.:*

Nere semea Afrika juan zan soldadutza serbitzera,  
beti ezkontza ibiltzen zuen len e itzetik itzera;  
etxia etzun asko maitatzen baña etorri da atzera,  
auxen da prenda ekarri dezuna soldaduzkatik etxera!

*Mat.:*

Nere berriak emango ditut andregaiaren gainian,  
zuk ere ondo hartuko duzu etxian sartzen denian;  
amodioa ezta juzkatzen presunaren kolorian,  
pintura beltza izana gatik ohitua da lanian.

*Uzt.:*

Onek andrea aukeratzeko izan du begi zorrotza;  
utsa razako bat izan balitz, ekarri digu arrotza!  
Ardi beltz ori artalde ontan ez al da izango lotsa?  
Jakin nai nuke zer ertengo dan nik gero orren bildotsa!

---

<sup>1</sup> Oiartzun, 1971-VI-6.

*Mat.:*

Amore-kontu ni amentsetan aiturik egun eta gau,  
aita maitea, zure belarriz orain entzun behazu hau:  
Afrika denian etzien izango naaski horrelako lau,  
polit polita ez dago bañan horrek bihotzez maite nau!

*Uzt.:*

Esan bezela soldaduzkara bialdu gendun mutilla,  
polita ez du andrea baña biotz ona ta umilla.  
Afrikaraño juan bear al zan orrelako baten billa?  
Berakin bizi bear du eta semia or konpon dedilla!

# Desafioa<sup>1</sup>

---

Antton Aranburuk: Beste aldeko periodikuak irakurri badituzute, jakiñaren gaiñean egongo zerate Mattin boseadore sartu zaigula. Baten faltan bi ditugu orain: Mattin eta Urtain. Herri guziak jakin nahi du zein dan gehien: Mattin edo Urtain. Ta Mattinek hiru bertsotan desafioa bota dio Urtaiñi.

*Mat.:*

Desafioa degu egun arratsian,  
egun arratsian,  
Urtainen kontra jarri bainaiz fantesian;  
horixe asmatua nadukan etxian,  
eta probatuko dut memento gutxian  
Urtain botako duala jota kokotzian.

Urtain nolakoa den nik ondo badakit,  
nik ondo badakit,  
bainan ajola gutti daukat harengatik;  
Mattinek kolpia nola botatu bazakik,  
harek ez du eginen manera beretik:  
kolpea botako nau buruan gaiñetik.

Pixkat atakatzia harek eztu kalte,  
harek eztu kalte,  
haren kontra jokatzia Mattinek du maite;  
hura azkarra dela neri esan naute,  
bañan inportarikan neri etzait bate;  
hura kanpeon dago nik nai detan arte!

---

<sup>1</sup>Usurbil, 1971-VII-3.

# Aita ta seme kalpar-luzea<sup>1</sup>

---

Gai emaleak: Gorrotxategi da oraingo kalpar-luze hoieta-ko bat; eta Mattin, berriz, bere ama, eta esaten dio moztu egin behar duala. Ia konbentzitzen ote dun.

*Mat.:*

Hauxet entzun biar dezu zuk, seme maitia,  
ile luze hoi dela zuretzat kaltia;  
hobe duzu lenbailen ile hoi moztia,  
bertzela zorriek ere ingo'ute kabia,

*Gor.:*

Nere ama txiki au da buru txorokua,  
eskerrak ez naizela bere modukua!  
Esan ditunak ere badira naikua,  
ez al dakizu ori dala gaurko modakua?

*Mat.:*

Nere semia, hartzen dek modako gradua,  
gaurko askoren gisa abilla galdua,  
Nik ere kurritu diat denboraz mundua:  
ilea luzia baño hobe dek burua!

*Gor.:*

Ama triste au erritaka aldamenian,  
neri asten zait etxeruntza nuanian;  
onekiñ ez da giro gaurko egunian,  
berai buruko illeak galdu zaizkonian.

---

<sup>1</sup>Leitza, 1971-VIII-13.

*Mat.:*

Ni're iletsua nintzen lenago gaztian,  
t'azkenera ikusten det postura tristian.  
Entenituko al du amak esatian?  
Estali ederra du bañan ezer ez azpian!

*Gor.:*

Ama xarrak esate'izkit ainbeste itz trakets;  
onek jardunda neri, nik erantzuna baietz;  
moztuko'etala esanda jarritzen da pozez,  
zuk senarrari agindu ta semiari ez!

Bertsu hauk kantatzeko doinuak:





The image displays a musical score for a single melodic line, organized into seven staves. The first staff is in G major (one sharp) and 2/4 time, marked with square boxes at the beginning and end. The second staff changes to F major (one flat) and 2/4 time. The remaining staves continue in F major. The notation includes various note values, rests, and accidentals.

# Aita-suhi gaiak<sup>1</sup>

---

Pedro Artetxek: Zuk, Joxe Migel, arkitu dezu neskatx gazte lirain bat; eta berarekin hizketa goxoak izan ondoren, eraman zaitu neskatxak bere etxera, bere gurasoak ezagutzera. Eta hor agertzen da zure lagun Mattin, neska horren aita. Ez-takigu hortik aurrera nola konpondu zeraten. Orain hiruna bertsotan, zeuek nahi dezuten doiñu bat hartuta, agertu zaiguzte alkarrizketa hori nolakoxea izan dan. Hasi zaitetz zu, Joxe Migel, bidezkoa danez, besteren etxera joana baitzera.

*J. Mig.:*

Ara zer suertea izan dedan bater'ez genekigula,  
era ontara iritxitzerik enuen uste sekula:  
gaur agertu dit zure alabak biotzez maite niñula,  
aitagai maite, lenen sarreran Jainkuak gau on dizula!

*Mat.:*

Nere alaba maitea daukat nere izardiz hazia,  
ttiki ttikitik lanaren gostuz ekarriz horren bizia;  
ta pena nuke alaba hori nola nahika uztia,  
ta zer moduzko gizona zeran eztet oindik ikasia.

*J. Mig.:*

Zu bezelaxen txikia naiz ta beti portatutzen naiz fin,  
zure alaba etzazu pentsa gaizki dagonik nerekin;  
dantzan plazatik onuntzaraiño ni etorri naiz berekin,  
bi musu eman dizkiot bañan okerrik ez diot egin.

---

<sup>1</sup>Lasarte, 1971-X-16.

*Mat.:*

Horrekin ezkondu baiño lehen kontuak ondo atera,  
ez noa gero nere alaba edozein moduz saltzera;  
baldin txikia izana gatik fiña ta ona bazera,  
nere alabaren eskatzera lasai etortzen al zera!

*J. Mig.:*

Millaka esker, aitagai maite, ongi artu dezu dena,  
au izandu da mutillarentzat zorionik ederrena;  
etorkizunai begira nago, kezka bat daukat urrena:  
raza txikia aterako da, orrek ematen dit pena!

*Mat.:*

Ttipi-haundi ta gora-beherak utzi detzagun aparte,  
askotan haundi eta ederrak berdin ekartzen du kalte;  
ta bihotzetik batek bestia ondo badezute maite,  
nai duzutenian esposatu, nigatik libro zerate!

Bertsu hauk kantatzeko doinuak:





# Mattinek semea beltza

---

Gai emaileak: Xanpun senarra izengo da: Mattin, berriz, emaztea; haur bat sortu dakote, bainan beltza. Aiherran eman bertsuak.

*Xanpun*

Nere kasuan denak badauka zer pentsa,  
bizkitartean ez naiz ba gizon bat mentsa.  
Zer idurikatzen dut ba sortu den horrentza?  
Aita ta ama zuriak eta haurra beltza.

*Mattin*

Senar emazten artean hau da komedia,  
hau erran behar dut okasioneaz balia;  
seme bat beltza dela neri etorria,  
nork erran hura ez dela aita iduria?

*Xanpun*

Aitaren arrazoina gaur ez dabil berdin,  
ta pentsaketak egiten tut noizean behin;  
ni joaten naizelaik norbeit ba etxerat jin,  
beltz hoitaik batek lo ene etxean egin.

*Mattin*

Ez zazula neri erran holako solasik,  
afruntu horrekilan hiltzen nauzu kasik;  
nere ustian ez dut zuri egin hutsik,  
beltzekin ez naiz ibili amentsetan baizik.

*Xanpun*

Naiz kasu bortitz hortan badabiltzan hor lau,  
batzuentzat eguna dena bertzentzat gau;  
huna zer pentsatze'utan ta kontsolatzen nau:  
agian haunditzean aitatzko erranen nau.

*Mattin*

Senarrari sartu nai diot bihotzain erdira  
bixta heda dezala pixka bat mendira;  
egoiten bada artalde hoieri begira,  
zurien artian bildots beltz batzu badira.

*Herria*, 1973-ko hazilaren 1-koa

# Kristaua eta Jainkoa

---

Sujet emaileak: Orai Mitxelena eta Mattin. Mitxelena da beti Jaungoikoari intzirinka ari dena; beti badu zerbait eskas. Jainkoa agertzen zaio eta erraten dio egin ditzala hiru galde. Nahi duena galdetzea libro. Mitxelenak egiten ditu galdeak; eta Mattinek, Jainkoak, egiten diozka errepustak.

*Mitx.:*

Mundu txar onek ainbat naigabe eragiñazten digu ba, Jaungoiko Jauna, gaur nago berriz zure ondora bildua: aber pixka bat samurtzen nazun nere bizitza zaildua, mundu ontako eskatze'izkizut osasuna ta dirua.

*Mat.:*

Nere lagunak galdetzen baitu gaitzaren erremedio, kristau leiala nola haxe den Mattinek emanen dio; dirua eta osasuna're hunexek galdetzen dio, bainan hoik biek zeruratzeko eztute ainitz balio.

*Mitx.:*

Jaungoikoaren eskutatikan omen da nai dan guzia, Zuk nai badezu zerua ere dadukat irabazia; bitarte ortan osasuna ta diruakin det grazia, ortaz gaiñera eskatzen dizut urte askoko bizia.

*Mat.:*

Nere laguna kontseilatzeko etorria naiz gaur huna, orain artian emana zaitut nik zerutik osasuna; bainan haxe da hemendik goiti zuk ikasi bear dezuna: urte guziez berrogoi egun izaten da Garizuma.



*Mitx.:*

Zuk aginduak egiteko nik ez daukat nerez ardurik,  
sinistatu ba iltzeko ere nago ba preparaturik;  
etzaizu faltako Gaizuma ortan, ez, nere oraziorik,  
mundua ondo pasa ta gero ez bazait falta zerurik.

*Mat.:*

Izigarriko kristau leiala daukat nere inguruan,  
penitentzia gutti eginik bizi nahi du munduan;  
erranen zaitut eta ongi hau sartu behauzu buruan:  
zure pisuko saildurikan eztela sartzen zeruan.



Mattin bertsularia.

# Hiriko langilea eta artzaina

---

Mariano Izetak: Lasarte eta Mattin anaiak dira, Baiña Mattin izanen da artzaia; lareun ardirekin beti mendian dabilena; eta Lasarte, herri haundi bateko fabrika batean ari da lanean. Nor dago hobeki? Hori berek erranen dute. Launa bertso. Lasartek hasmenta.

*Las.:*

Mattin, anaiak gera biok gu, baiña gaur zaitut laguna; nik kalean det fabrika baten oso lantoki leguna. Artzaia zera zu mendikua, deskantsurik ez dezuna; gaizki bizitzekotan zertako dezu aberastasuna?

*Mat.:*

Nere anaia kontentu dago bere fabrika-lanian, zortzi orenez egon behar du beti nausien mendian. Ni beti hantxet trankil bizi naiz nere ardien erdian, iruritzen zait hemen errege Mattin dagola mendian.

*Las.:*

Fabrikantiak jarraituko du erantzun on bat emanez, aizu, anaia, gu biok ere osatuak gaude lanez. Zu zaude kontzientzian gaizki, nik pentsatutzen dedanez: lareun ardi darabilzkizu besteren larria jenez.

*Mat.:*

Zu bezin trankil bizitzen bainaiz ardi hoiekin mendian, nork erran dautzu hek dabiltzala bertzen etxeko larrian? Zuk zortzi orduz zintzo jarraiki behar baiduzu lanian, ni beti nere buruain nausi ni bizi naizen tokian.

*Las.:*

Aizu, anaia, artuak dauzkat aspaldi zure usaiak,  
ezagutuak dauzkagu ongi zure ibillera lasaiak.  
Lapur-fama're lautik irutan eramaten du artzaiak,  
orrelakuak izaten dira Jaungoikuaren etsaiak.

*Mat.:*

Hunek fabrika irabazten du eguneroko ogia,  
geruarentzat hunetxek dauka beldur ikaragarria.  
Ni berriz mendian hantxet badaukat segur artalde haundia,  
lanik in gabe pasatzen al dut nik urte bat edo bia.

*Las.:*

Zortzi orduan lana eginda nik fabrikari lagundu,  
nausia ezta orain artean oso asarre egondu.  
Ta anai onek lareun ardi besterenetik mantendu,  
dudarik gabe besteren saillak emandakoa jaten du.

*Mat.:*

Ni fabrikara janean naizela oraindik ez du irrisku,  
nik nahiago mendi gainean nere ardiekin prestu.  
Fabrikarako alderdi hoiek Mattinek ezagutzen tu:  
langile hoiek beti pobre ta nagusiak aberastu.

# Minifalda

---

Basarrik: Zorioneko gona motx edo minfaldak dirala-ta, amaika gurasok badituzte naigabeak beren alabekin: Itxuran jazteko! Erropa geiago erabiltzeko! Baiña... alperrikako jardunak! Zu, Mattin, minifalda oietako bat zera, Zer arraio zabiltza gurasoak samintzen eta negarrez urtu erazten? Adierazi bi bertsotan.

*Mat.:*

Moda zarreko burraso hoiek ez naute uzten bakea, heiek nai dute len hek bezala alabak gaur beztitzea. Ez al dakite hobia dela modaren kanbiatzea? Neri etzaut, ez, gaizki iduritzen izterrak irakustea.

Urterik urte ai dira beti munduan modak berritzen, minifalda hoik gaizki direla neri etzaut iduritzen. Burraso onak, zuek esatia, gauza horrek nau arritzen, apezak ere gaur ez dirare lehen bezala beztitzen.

# Maixua ta mendi-mutilla<sup>1</sup>

---

Teodoro Hernandorenak: Lazkano, zu maixua zera; eta zu, Mattin, baso-mutilla, mendi-mutilla. Zu asiko zera, maixua. Lapurtarrak errienta esaten diote. Zure lagun au gaztetan eskolatik igesi ibiltzen zan; eta orain basoan latz eta gogor saiatuta ogia irabazi bear. Bina bertso.

*Lazk.:*

Mundu onetan bizirik danak nunbaiten bear du jaten, onen guraso zar aiek ere errurikan etzeukaten. Aik eskolara bialdu arren nigana etzan joaten, orain or dabil basa-pizti au mendi tzar aunditxo baten.

*Mat.:*

Eskolak ez bainau behin ere neri ematen grazia, beti mendian ibilia naiz nere denbora guzia; eta eskolan dago an beti maisua edo nausia, alferkerian eramaki du gaizoak bere bizia.

*Lazk.:*

Alperrikan zan guraso eta maixuaren alegiña, onen jokera eguneroko izaten gendun jakiña. Izanez ere eskola ez da astoarentzat egiña, au kalerako ez da egiten da ondo dabil ikazkiña.

*Mat.:*

Eskolan ez naizela ibili ta zuk dala nere kaltea, igualtsu zuen hetsirik ere bere eskolako atea. Nik naiago dut mendia eta kaletikan apartea, biba mendiko euskara eta mendiko libertatea!

---

<sup>1</sup> Leitza, 1970-IV-26.

# Aizkolaria eta aizkoragillea<sup>1</sup>

---

Teodoro Hernandorenak: Mattin, zu aizkolaria zera; Gorrotxategi, zu aizkoragillea. Mattinek joko bat egin du beste onek, Gorrotxategik, egindako aizkorarekin; baiñan galdu. Mattinek asiera:

*Mat.:*

.....  
.....  
.....  
..... behar nuen aizkor ona izan banu.

*Gor.:*

Pentsatu zazu, jokatik daude oso ondoren illunak, negarrezko egunak ondoren zuretzat datozkizunak. Aizkora gaizki zorroztua nik, kirtenak berriz astunak, beti du zerbaiten aitzakia abildaderik eztunak.

*Mat.:*

Ni berriz zure aizkorarekin enaiz juango apustura, beste bateri erosi eta hantxe juango naiz gostura. Aizkoragille ederra da hau salduko balitz pixura, beiratu eta nun dauka hunek langille onaren itxura?

*Gor.:*

Nik zer motibo eman dizut ba zuk neri oi esateko? Zuk galdu dezu zure jokoa ni errudun izateko. Jokorik egin ez bazenduen zuretzat etzan kalteko, gizon txiki samarra zerade marka aundiak egiteko.

---

<sup>1</sup>Leitza, 1970-IV-26. Lehen bertsua mañetofonoak ez zuen hartu.

*Mat.:*

Marka txikia egin badut nik ez da nere utsegiña,  
aizkora txarra naukan orduan naiz naizen langile fiña;  
eta berari esango diot beste batetik jakiña:  
bera tabernan zagon denboran morroiak zuen egiña.

*Gor.:*

Aitzaki ta kejurekin beraz zu ez etorri nigana,  
antzeman dizut, aizkolaria, zu tranposoa zerana.  
Gazte baten aurka jokatu zuk ebakitzera lau kana,  
iruroi kiloko gizonantzat ori ez da eiteko lana.



Mattin eta Basarri, lagun batekin.

## Biek andregai bera

---

Sujet emaileak: Jean Arrossagaray mutiko gazte pobrea da, bainan badu emaztegia. Mattin Ameriketatik heldu da dolarrez betea eta emaztegia kentzen dako.

*Arro.:*

Ene xangrinen kantatzen egun beharko baitut nik hasi, oraino gazte eta luzatuz huna zer dudan irabazi: amerikano aberats batek, eginikan zonbait jauzi, nik neraukan andregia hunek oraino deraut ebatsi.

*Mat.:*

Gazte maite hau beren ustean tuzte gaitzeko oldarrak, bainan ni ere hunat ekarri bainau gaur hala beharrak. Zaharrak ere hausten al ditu gazte haukien indarrak, gaztia baino maiteago tuzte amerikano dolarrak.

*Arro.:*

Hau erran gabe nik xahar hau egun ez dut nahi utzi, afruntu eman baiteraut eta hori baitzeraut itsusi; oraiko neska gaztien maitasun hori ez daike ilusi, dirua orai frogatu baitu maitasunari nagusi.

*Mat.:*

Gazte maite hau bere ustean hemen dago indarrian, ta andregaiak hau're utzi du gaixoa hala beharrian. Huntan baino konfidentzi geio zuen harek dolarrian, nekin ezkondu, promenatuko dut automobil ederrian.



*Arro.:*

Esperantza bat badaukat orai bihotz onaren gainean;  
amodioa segituko dut beti herrazko heinean;  
ez dut penarik hartuko bate hok ezkontzen direnean,  
berdin enekin ezkonduko da Mattin hau hiltzen denean.

*Mat.:*

Adin pixka bat badaukat bainan nago gaitzeko trenpuan,  
ni neskatxetan abiatu naiz hauze zabilan moduan.  
Hau ere gaixoa tronpatuko da bertze askoren kontuan,  
amodioa galtzen errex duk miseria den lekuan.

*Arro.:*

Huntaz mintzatu beharko dut gaur amodioa medio,  
neskatxa horrek dirua zaukan gaur estimatzen kario.  
Horrek ekar dezake menturaz noizbait zerbait ondorio,  
bainan sekulan diruak ez du maitasun on bat balio.

*Mat.:*

Gazte maitea, erranen dautzut gaur umil eta serio:  
apez hoiek e orai artian meza zaukaten kario;  
ehunarentzat berroi ta hamar eman dute emendio,  
ez zuten hoik e hori eginen sosak ez balu balio.

**Mattin Treku**

# **Etxe xokotik kantari**

**(Lehen argitalpena: Auspoa 151, 1981)**

**Auspoa Liburutegia**

# Oharra

---

Liburu hau egiteko har-emanak azken ekainean erabili genituen Mattin zenak eta biok.

Hurrengo lana, harek emanak guk makinaz idatzi. Bainan egiteko hori bururatu orduko, uztailaren 22-an, Mattinen hil berria entzun genuen.

Ehorzketara, liburua nerekin nuela joan nintzen. Santiago egunean, larunbatarekin, egin genion azken agurra Ahetzeko plazan; eta handik bi egunera, astelehenean, ereman nuen liburua inprimerira.

Oso gogotsu ikusten nuen Mattin gizagajoa, liburu hau osatu eta argitaratzeko. Kartsutasun hori zerk ematen ote zion? Seguru aski, bere munduko egunak bukatuxeak ikusten zituen; eta, berak eskaintza egiterakoan dionez, oroipengarri bat utzi nahi zion Euskal Herriari.

Harek liburu hau ez ikusia, pena hartzen dugu noski. Bainan, denbora berean, haren azken nahi hori guk bete izana, poz haundia da guretzat.

Agur, Mattin, eta zu berriz ere bertsutan entzun arte.

A. Z.

# Eskaintza

---

Nere lehenbiziko liburua eman nuela, ez naiz orroitzen zenbat denbora duen. Bainan hamar bat urte izanen dira. Berak jartzen du han nonbeit ere.

Geroztik, bat eta beste batzu etortzen ziren hunat bertsu eskean: hea nik eginen niozkaten. Eta hola egiten nituen.

Beste batzutan, omorean nintzenean eta gogoeta batzu burura etorrita, neroni hasten nintzen bertsu jartzen.

Behin batez, hauzoko basarri xahar bat bada lurrerat ia eroria; gaztean han ibiltzen nintzen, nere aitona ta amona han bizituak ziren ta; pena ematen nintuen lurrerat joaki ikusteak eta hari jarri niozkan bertsuak.

Xalbador hil zenean ere, gogorat etorri eta zortzi-edo jarri nituen, berak ere egingo zituen neri eta.

Eta beste batzutan, nonbeit ere omenaldiren bat zenean, neroni ezin joan etxetik, eta zonbeit bertsu idatzi eta biali egiten nituen, nere partez lagun batek han kantatzeko.

Orain ezin naiz gehiago bertsutuan ibiltzen ahal. Anketarik-eta eri bainaiz.

Bainan burua oraindik ere sano daukat, eta omorea ere bai, eta tarteka, izkiriatuaz eta hola, bertsuak egiten ditut.

Gero, aita Zabala ere aldizka etortzen zen gure etxera, edo lehenago bertsu saioetan elgar ikusten ginduen, eta hea bannen bertsurik jarririk galde egiten nintuen, harek denak biltzen baititu zoko guzietarik. Neronek orroitzen ez nintzenak ere, berak bazituen.

Esplikazione batzu ere eman ditut, bertsuen aintzinetik jartzeko eta hobeki konpreni arazteko gauzak nola pasatu zi-

ren. Eta aita Zabalak esplikazione hoik mañetofonean hartzen zituen.

Hola egin dut liburu hau, Eskual Herri guziari oraindik bi-zi naizela erakusteko; eta omorea beti atxiki dutala; nahiz eri izan, ez naizela behin ere tristatu, nere eritasunarekin kezketan egona gatik ere; eta, ahal den artean, hol-hola jarraitu nahi dutala.

Gostu haundiz eskaintzen diot liburu hau Eskual Herri guziari.

Gipuzkoan, Bizkaian eta Nafarroan oso ongi hartu bainaute beti. Eta Lapurdin, Baxenabarren eta Xuberoan ere bai, gure eskualde hontan ez bagera ere hoinbeste ibili.

Edozein herritara joan eta alkateak, apezak eta denak adixkideak ditut. Denek ezagutzen naute. Oraiko gazte-gazte hoiek ez; bainan beste guziek bai.

Baita neskazar eta hoiek ere, beti hoiekin atakadan ari nintzen eta, jendeari parre puxka bat egin arazteko.

Neronek gostu haundia izaten nuen jendeari parre egin araztea, eta beti nere ahalegina egiten nuen hortarako.

Hori izan da nere bertsutarako dohaina plazetan. Bertsulari sakona baino, hobea nintzen hola: alegera eta omoretsua.

Lehen, bertsutan ibili eta hurrengo egunean etxean banintzen, omorea izaten nuen nik, eta komonera joanta ere bertsu kantari aritzen nintzen.

Orain ezin naiz ibil, gutti besterik, etxetik kanpoan, eta liburu huntako bertsuak ere etxean jarri ditut.

Horregatik, izena ere horixe eman diot liburuari: *Etxe xokotik kantari*.

Euskaltzalek eta bertsuzalek irakurtzea nahi nuke eta nere orroipengarri izatea, ni haiekin egun oroz orroitzen bainaiz.

Mattin Treku

# Auzoko baserri zenari

---

Bertsu batzu behar nituela jarri buruari eman nion, bainan gaia ez nakien zertaz kausi.

Auzoan bazagoen gure aitona-ta bizi izan ziren baserri bat, eroria. Kallardonia zuen izena. Ta hura ta hango haur denborako pasadizoak gogoratuz jarri nituen bertsuak.

Ahetzeko beste kartieran zen baserri hori. Gure amaren aita zen hangoa. Ganix Inarga izen-deiturak. Ta, hura hil zenean, gehiago ez zen han nehor bizi. Maizter baitzen, nausiak gasturik ez zuela egingo ta lurrerat erori.

Orai ardiak ta hola azpian egoiten dira. Paretak bakarrik ditu. Teilatua ere pixka bat badu. Bainan ez du asko falta lurrerat erortzeko ere orai.

Batzutan, han gaindi pasatzen naizenean, orroitzapena gogoratzen zait. Aitonaren ganat joaiten bainintzen. Hura kamintero zen berez, eta neguan-ta xexto egiten aritzen zen.

Ipui asko zekien eta gurekin ipui kontari aritzen zen; ta gu, berriz, hari entzuten.

Kantuan ere bazakien zernahi kantu zahar. Asko. Idazten eta irakurtzen ez zakien, ta ahotik ahora buruz ikasiak. Gaur baino kantu gehiago ikasten zuen orduan jendeak. Ta nik ere asko ikasi niozkan.

Huna bertsuak:

1

Basarri xahar maitagarri bat, oiha baten sahetsean,  
egun guziez ikusten nuen etxetik ateratzean.

Orai lurrerat erori da ta pena daukat bihotzean,  
nigar iten dut hor pasatako egun onez orroitzean.

2

Nik haur denboran basarri hortan nituen josta lagunak,  
beti gogorat etortzen zaizkit hor pasatako egunak.  
Ai zer andana biltzen ginenak ahaide ta ezagunak!  
Bertze mintzorik ez zen gurekin, oro ginen euskaldunak.

3

Uda partean hor biltzen ginen igande arratsaldetan,  
pareta xahar arrailakatu makur heieri pilotan.  
Bero zelarik exeri eta intxaur azpian kartetan,  
ez zen halako telebixtarik guretzat denbora hetan.

4

Neguan ere egina gatik horma ikaragarriak,  
goxotasuna ematen zuen sukalde maitagarriak.  
Bero beroa jartzen gintuen han zagon brasa gorriak,  
atseginekin egoten ginen alki batean jarriak.

5

Sukaldearen bazter batean han zagon berriz labea,  
hameka arto borobil eta ogi zuriak errea.  
Afaltzerako gehienetan taloa eta esnea,  
lo egiteko sano baitzagon ume koxkorren barnea.

6

Oraino ere han berean da suillar tokiko harria,  
pegar batean hor egoten zen iturriko ur garbia,  
amona zarrak buru gainean goizean goiz ekarria.  
Huraxe baino hoberik ez zen kendutzeko egarria.

7

Aitonak berriz iten zituen otarre eta saskiak,  
hari begira egoten ginen hauzoko ume guziak.  
Zer ixtorio pullitak hari ditugunak ikasiak!  
Gogoan daude ume denboran ikasi ta ikusiak.

8

Sasoinekuak aritzen ziren kabalekilan lanian:  
behiak soro zelaian eta ardiak berriz mendian.  
Mando zahar bat ere bazuten bertze guzien erdian,  
ume koxkorak ibiltzen ginen aldizka haren gainian.

9

Egun guzia lanean pasa, afalduta arratsean  
etxeko denak inguratuta aitzen ziren otoitzean.  
Arrosarioa egiten zuten urrian ta maiatzean,  
horiek oro finitu dira baserria erortzean.

10

Hori ikusiz askok iten du «Zer gertatzen da?» galdera.  
Burraso zarrak hil ta joan ziren munduaz beste aldera;  
gazteak berriz lurraren iges herrira edo kalera.  
horra zertarik etorri zaikun baserriaren galera.

11

Estalkirikan gabe jasaten ditu bero eta hotzak,  
horren itxura ikusi eta nigar iten du bihotzak.  
Abere basik baizik ez dauka geiago bizi laguntzat,  
orai horrara biltzen dirare basagatu eta huntzak.

12

Basarri maite, zonbeit bisita gaztean egin dautzut nik,  
asko kantu're ikasi nuen basarri hortan entzunik.  
Ta orai berriz kasik iduri ez dela hauzotasunik,  
hauzo artean ere ez baita lehengo goxotasunik.

13

Oraiko bizi berriak ere badauka bere itzala,  
bakotxa bere kontu ai gira guhaur bagine bezala.  
Erdi lasterka iduri eta beti presan gabiltzala,  
lagun urkoa geio maitatzen Jainkoak lagun gaitzala.



14

Azken agur bat egiten dautzut, basarri maitagarria,  
jende guziek bakarrik utziz gaur lurrean eroria.  
Zu ikusteak hemen uzten nau malkoz beterik begia,  
hola segituz ez da luzaro biziko Eskual Herria.

Argitalpenak: *El Diario Vasco*, 1974-VII-21; *Herria*, 1974-VIII-22;  
*Zeruko Argia*, 1974-X-20. (*Auspoa*-ren oharra.)



Mattin, bertsu kantari.

## «Pare gabeko sujet berri bat...»

---

1

Pare gabeko sujet berri bat herri batean da agertu, ixilik banindauken bainan barniak ezin kabitu. Parregarrizko kontuak dira ongi erraten banitu, gaur publikatzen hastera noa, gusto duenak aditu.

2

Emazte gazte xarmegarri bat kanpaina etxe batian, haurño batekin, senarrik gabe, joan den bortzpasei urtian. Presonier du hemendik urrun Alemaniko partian, gizon gazte bat mutil hartu du hura etorri artian.

3

Itxura oneko presuna arras da gure mutil gaztia, etxekuentzat umila eta lanian ongi ikasia. Guziek behar munduan zerbait pena eta desgrazia: etxetik partituz geroztik da nihork ezin ikusia.

4

Etxeko andria egun batean zaio errenkuratua: «Neure senarra, gizagaixua, etzen zu bezalakua. Bizio arras tristea baita ezin erretiratua, soldata ona izana gatik beti diruz gabetua».

5

Erreportxu hau aditziaz ez da mutil hori koleratu, bere buruari egiña dio behar duela sanjatu: erretirantza hobia eginez sos pixka bat soberatu, zerbeite gisaz behar duela etxeko andria enganatu.

6

Etxeko andria ohartu denian huna zer dion errana:  
«Ez al dakizu bertze batek ni ezin nauela engana?  
Badakit gero espos egunian zer dutan nik hitzemanana:  
fidel egonen naizela beti neure senarraren gana».

7

Mutilak beti segitzen zuen deusik ez balitz bezala,  
esperantzakin etxeko andria noizpeit eroriko zela.  
Ez zuen uste emaztea hoin bihotz flakokua zela,  
azkenian aise enganatu du Satanek Eba bezala.

8

Pentsatu gabe izan dezaken gero zerbait ondorio,  
etxeko andriak bere bihotza mutilari eman dio.  
Senar gaixoaren estimutan promes ederrak adio,  
zonbeit malurus munduan bada gauza hoi dela medio.

9

Ez du oraino ainitz denbora hauk Baionan izaturik,  
etxeko andria eta mutila ederkixko muntaturik.  
Etxerat kontent etorri dira potretian ateraturik,  
beren ganbaran emana dute kurioski kadraturik.

10

Haurrari ere erraiten dio: «Ene maitetxo gaixua,  
zure aitatto etzen, ez, segur hau bezin gizon prestua.  
Besarkaturik eman behar diozu ohera gabe musua,  
bien artian egin dezogun hobeki hunen gustua».

11

.....  
.....  
.....  
.....

12

.....  
.....  
.....

ni zurekilan ezkonduko naiz bertzia ez bazait etortzen».

13

Senar gaixoa pentsamendutan arratseraino goizetik,  
bere andria eta haur hura ezin kenduz bihotzetik,  
kotsolatzeko berriak bakan dituelakotz etxetik,  
lehen segidan izaten zuen ta orai hamabortzetik.

14

.....  
.....  
.....  
.....

Mattinen bertsu zahar batzu, paper xahar batetik. Damurik, zonbeit bertsu falta dira. (*Auspoa*-ren oharra.)

# Eskerrik asko deneri

---

Donostian, 1972-ko urtarrilaren 16-an, nere omenaldi egunean, eskerrak ematearren kantatu nituen bertsuak:

1

Hau baino egun ederragorik neretzat ez da munduan,  
hoinbeste jende aurrean eta lagun onak inguruan.  
Esker onezko sentimenturik besterik ez det goguan,  
zuen artean iduritzen zait hemen naizela zeruan.

2

Egun guziet ezta ikusten holako edertasuna,  
hau ikusita gogoratzen zait gauza bat leno entzuna:  
munduko gauzik onenak dira dirua ta osasuna,  
nik hoiiek baino gorago daukat lagunen maitetasuna.

3

Merezi baino fama geiago egun eman naute neri,  
gaur Donostian hartu binaute presidente bat iduri.  
Hemendik goiti gelditzen naiz ni zorretan Donostiari,  
beste bat arte, euskaldun onak, eskerri asko deneri.

# Pariserat Ahetzetik

---

Gure etxea baserri ttikia da, ta denentzako bizitzekorik etzela hemen. Koinata kartero bainuen, hari erran nion hea bilatuko zuen semearentzat zerbait. Ta harek egiten zuen, sake-lako diru pixka bat egiteko, sartu. Gero segidan hartu zuten ta han hasi zen, Bidarten. Gero erran zioten ofizio hori egin behar zuela etsamina pasata. Pabera joan eta erreusitu zuen. Ta gero obligatua izan zen Pariserat joaitea.

Ni, berriz, seme bakarra, etxeko gure zera, ta hura etxetik joan. Ez nakien zonbat denbora atxikiko zuten, ta ez norat etorriko zen ere. Ederki penatua izan nintzen.

Gaia eman nintuen behin horren gainean Aranaldek, ta nigarra espakatu zitzaitan. Ordu arte ez nintuen nehork sekulan ere nigarrez ikusi. Xalbadorrek orduan jarri zituen bertsuak, hori dela medio: *Mattin nigarrez ikusi dut.*

Holaxet bortz urte pasa ziren. Bainan gero suertea izan zuen tokia Miarritzen izaiteko, etxetik hamar kilometretan. Orai hor dabila. Bere biziko ofizioa hartua du. Trankila bai. Etxera erretiratzen da ta goizetan joaiten da harat.

Etxean ere aritzen da lanean goizetan ta aratsetan. Joan baino lehenago, behiak deitzen ditu, ni ez bainaiz kapable. Ta jaietan ta hola ere bai, ez da beti gogotik aritzen baino.

Ta semea Parisen zelarik, bertsu hauk jarri niozkan.

1

Pertsu paratzen hastera noa Pariserat Ahetzetik, nahigabeak itotzen bainau aratseraino goizetik. Hain maite dutan seme bakarra harat joan zait etxetik, aita ta ama hementxe gaude penatuak bihotzetik.

2

Burrasoentzat gelditzen dituk gure baserriko lanak,  
orai ez gaitik laguntzen ahal seme Pariserat joanak.  
Hire eskasa senditzen diat, naski gehiago amak,  
seme bat nahiz ongi sofrituz mundurat eman hauenak.

3

Familarekin guk badiagu pena frango pasatua:  
bortz gaizki izan, bertze bat galdu, bakarra kontserbatua,  
Gure etxea trixte zioke gaur ezin alegeratua,  
kontsolatzeko seme bat eta orai hartaz gabetua.

4

Hi Pariserat partitu hintzen ttipiegiz ontasuna,  
diru ainitzik ez izan arren baginian osasuna.  
Aberatsentzat hobeago duk Parisko edertasuna,  
bainan hik ez duk hor bilatuko etxeko goxotasuna.

5

Gure etxetik ageri dituk itsasoa ta mendiak,  
pentze guziak lorez jauntziak, sasitik kantuz txoriak.  
Bazter nasaia, aire ona ta eskual baserri xuriak,  
Parisen ez den edertasunik bazaukak Eskual Herriak.

6

Gure herrian ikusten dugu makiñatxo bat holako:  
etxe ttipian ezin bizi ta norapeit joan beharko.  
Aita semeak aparte biziz ixurtzen da zonbeit malko,  
Lapurdi eta Baxenabarren lantegirik ez delako.

7

Ofizioa segurtatzeko joan haiz Parise hirira,  
nik aita gisa gomendatzen haut hor irriskuak baitira:  
egun guzietan otoitz egin zak zeruetara begira,  
joaitean bezain bihotza garbi jiteko Eskual Herrira.

8

Parisen hola pasako dituk hik urte bat edo bia,  
denbora hortan segurtatzeko ofizio bat berria,  
lurrean baino errexkiago irabazteko ogia.  
Jitearekin ez zaik faltako gure ongi etorria.



Ezkerretik: Teodoro Hernandorena, Mattin, Xalbador  
eta Uztapide, Parisen.



# Milesker

---

Hori hemengo *kontseilu jeneral* da. Luberiaga apelidua, Azkaingoa. Kantonamendua erraten diogu hemen. Zortzi edo bederatzí herri badira kantonamendu bakoitzean, eta *kontseilu jeneral* bat izaten da, eta hura da horkoa.

Luberiaga horren gana joan nintzen, ahal bazuen zerbeit egin semea lehenbailehen Paristik ekarrarazteko. Esplikazio-neak eman niozkan nola zen eta zer zen. Ahaleginak egingo zituela erran nintuen, eta egin ere bai.

Etzuen erreusitu, baina etzen haren falta. Saiatu egin zen behintzat. Borondatea izan zuen ahal zituen guziak egiteko.

Eta gero, nere esker ona emateko, karta hau egin nion di-txotan:

Milesker zure kartaz  
eta semearentzat hartzen duzun artaz.  
Nik ere desir dautzut urte bat zoriontsua,  
osasunean egon zaitezten familia osua.

Badakit zure lana ainitz dela neke,  
beharrík duzu gozo, indar ta bertute.  
Gradutan diren askok hoinbertze balute,  
Eskual Herrian zerbeit eginen ginuke.

Estimu handiena daukat nik zuretza,  
entseiatzen baitzira, bai, semearentza.  
Noizbeit konpli baladi nik egin amentsa,  
hori zer atsegina litaken neretza,  
aita izan ez denak ez dezake pentsa.

# Semeari

---

1

Kantuz hastera noa semiaren gainian,  
etxetik kanpo baitzen joan den aspaldian.  
Loriatu naiz berriz etorri denian,  
nigar ongi eginik partitu zenian.

2

Bortz urte luzietan egonik Parisen,  
ez zaiola laketu ni ez naiz harritzen.  
Hiri hortan bada're jendia argitzen,  
han baino gosturago bizi da Ahetzen.

3

Senditu nian hire etxetik joaitea,  
ustez betikotz joan zen hain seme maitea.  
Pixka bat sofritzea ez duk, ez, kaltea,  
gero estimatzen duk ongi izatea.

4

Seme bakar batekin gelditu bainintzan,  
hura iduki nahi ait'amen gerizan.  
Bizi modua gatik bortz urte Parisan,  
gauza hoi sentitzeko aita behaik izan.

5

Hi joan eta laster Añorga herrian:  
bi bertsu kantatzeko semiaren gainian.  
Bihotzaren sumina jasan ezinian,  
kantatu behar eta nigar egin nian.

6

Berriz etorririkan burrasoen gana,  
Ahetzen bizi eta Miarritzen lana,  
Eskual Herri maitean, hau da zoramena;  
pozez xoratzen ziaudek aita eta ama.

7

Nere esker beroak gaur dituk merezi,  
urrun egona gatik ez gaituk ahantzi.  
Eskuaraz irakurri, eskuaraz idatzi,  
seinale hik euskaldun nai dukala bizi.

8

Bizi guziko lana orai Miarritzen,  
geroko ere ez haiz hain gaizki gelditzen.  
Etxia ta ontasuna aldean Ahetzen,  
hoik ere lagunduko baihaute bizitzen.

9

Betitik izatu haiz seme bat prestua,  
burrasoentzat beti errespetutsua.  
Maite duk egitea lagunen gostua,  
nork ez dik maitatuko hi bezalakua?

10

Errespetua behauk munduko bizian,  
nahiz hauzokoekin ta nahiz etxian.  
Gaur gerla gorria duk ia mundu guzian,  
behar den errespetu horren eskasian.

Mattinen esku-idatzi batetik kopiatu bertsuak. *Zeruko Argia* astekar-  
ian agertu ziran, 1978-V-14-an. (*Auspoa*-ren oharra.)

# Ahertzetik Pithivierserat

---

Egun batez, duela urte batzu, letra hau hartu nuen etxean:

«Pithiviers, 1974-eko otsailaren 2-an.

Mattin maitea:

Ez hadiela izi; ez nauk deusen emaiterat heldu, bainan hiri zerbitzu handi baten galde egiterat. Larri larria esplikatuکو haut ene kausa. Heldu den martxoaren bigan baitiat eskualdun lagun multxo bat etortzekoak elgarrekin, Parisen rugby partida baten ikusteko.

Badakik nolakoa naizen, bestan hasten naizelarik –ez nauk kanbiatu– jan, edan eta kantu. Partidak oren bat eta erdi irauten dik, bainan guk bi egun behar ditiagu. Joan den urtean hala egin ginian segurik; aurten gauza bera egiteko desira diagu.

Erraiten haut nor diren oraiko ustez: Audet Mizel, Audet Leon, Bonnet Leon jaun notaria, hoteleko Josep, Kako Yanzi, Mattin Iratzoki, beharbada Josep Laduche. Zer nahi gisaz, zazpi edo zortzi senper-tar.

Joan den urtean, bi egun xoragarriak pasatu gintian. Zer omorea! Zer kantuak! Bainan ni halako uzkur aire batekin ninduan: badik hemezortzi urte hemen naizela eta ainitz kantu arrotzuak edo kasik ahantziak; boza oraino nunbeitan diat; zintzurra maiz busti behar.

Ahazten nian erraiteko zeren ariaz heldu diren. Audeteneko seme gaztena, Auguste, hemen duk jendarme kapitain Pithiviers-en, hemezortzi hhilabete huntan. Orai arte eskualdun bakarra ninduan; azkenean gure Jainkoa urrikaldu zaitak eta lagun bat igorri, eta zer laguna! Mutiko xarmanta duk enetzat.

Huna beraz zer den ene desira. Nahi nitek moldatzen ahal bahitu zoinbeit pertsu, heieri erakusteko zer plazer izigarria dutan heien erre-zibitzea Eskual Herritik urrun. Denbora berean kontent nituzkek Au-

guste kapitainari erraitea kantuz zer estimua dutan harentzat, eta zer hutsa egin ninduken orai parti baladi; eta azken pertsu bat, plazer baduk, gure Jainkoak eman gaitzan grazia, gure zahar urteak iragaiteko hemen bezala elgarri hurbil, bainan hura Ibarrunen eta ni Ahetzen.

Eman nezak, ahal baduk, aire airoso zerbeit. Konparazione: *Suiet eder bat* edo berdin *Xarmegarria, zure berririk*. Funtsean bada-kik nik bainan hobeki.

Erranen duk hire baitan: «Alua presatua duk!». Bainan nahi nikk, hek etorri bainon zoinbeit egun lehenago izaiten ahal banintu. Denbora berean erranen nauk zonbat hautan zor, eta igorriko haut *saria* segidan.

Orain erranen haut osasun onean naizela, andrea eta alaba berdin, eta pentsatzen diat gauza bera dela zuentzat ere.

Ez zakiat hola pasatuko den negua, bainan primaderaren pareko denbora goxo batzu ditiagu.

Beraz, Mattin maitea, egungotz badiat aski erranik eta uzten haut, goraintzi handi bat igorritz. Milesker ainitz eta barkatu ene ausartiaz.

Eduard.

(Olaechea Edouard,

38 rue de Caquereau, 45.300 Pithiviers.)

Bertsu hauk igorri niozkan:

1

Zuen bisitak xoraturikan hastera noa kantari,  
herritarraren maitetasunak zaituzte hunat ekarri.  
Ta hortaz dugun atsegin dena partitzen dugu elgarri,  
Eskual Herriko adixkideak, bihotzez ongi etorri!

2

Hemezortzi bat urte baditu etorri nintzela huna,  
berriki arte bakarra nintzen herri huntan eskualduna.  
Bainan duela zonbeit denbora izatu dut zoriona:  
August(e) jandarma etorri baitzaut, pare gabeko laguna.

3

Herri huntara udazkenetan etortzen nintzen lenbizi,  
izar bat hemen maitatu eta harek nau geldi arazi.  
Norbeitek gaztian erran banintu ez nuen naiko sinetsi  
Eskual Herritik horren aparte beharko nintzela bizi.

4

Bizi bidea murrirxa baitzen gure baserri xokotan,  
gauaz lanean ibiltzen ginen sos batzu izatekotan.  
Zer izerdiak oihan, erreka ta berdin mendi kaskotan!  
Oraino ere amentsetarik han ibiltzen naiz askotan.

5

Bizi beharrak ekarri gaitu Eskual Herria utzita,  
bainan gogoak airatzen dira hartaz mintzatzen hasita.  
Gure bihotzak xoratzen daude zuek hemen ikusita,  
urrun delarik estimatzen da sort herritarren bisita.

6

Gisa berean bildu ginen gu orai duela urtea,  
gure bihotzen xoragarri da zuen hunara jitea.  
Ta ainitz urte desiratzen dut, otoiztuz Jainko maitea;  
ez da dirutan ere ordaintzen holako lagun artea.

7

Gure burraso, haurride eta adixkide on guziak,  
gorputzez urrun egona gatik ez ditugu ahantziak.  
Osagarriaz ongi garela, Jainko onari graziak,  
berriz joatean gure partetik ematzue goraintziak.

8

Gure jandarma hementxe dugu kapitain graduarekin,  
zer estimutan dadukatan nik orai behar luke jakin.  
Beti eskuaraz mintzatzen gira gaudelarik elgarrekin,  
penak errexki ahanzten dira holako lagunarekin.

9

Nahiz ez dutan nik herri huntan kapitainaren itzala,  
bat bertzeari fidatzen gira anaia batzu bezala.  
Hunen ondoan zoriontsu naiz, trixte nindaiké bertzela,  
gure Jainkoak elgarri hurbil luzaz begira gaitzala.

10

Elgarri hurbil erretiratu nai ginuke zahartzera:  
battu Senpere Ibarrunara ta bertzea Ahetzera.  
Pertsu hunekin ausartatzen naiz Jainkoari galdetzera,  
Eskual Herrira ereman gaitzan gure hezurren uztera.

# Urrezko ezteiak

Airea: Xarmegarria zira...

---

Hor, Donibane Lohizunen edo Urruñan, fatur edo kartero ibiltzen den bat etxera etorri zitzaitan.

Arpegiz ezagutzen dut, bainan izena nola duen ez naiz orai orroitzen.

Bera Bidarraikoa da eta andrea Baigorrikoa, eskualdunak biak.

Bere andrearen burrasoek berrogoita hamar urte bazutela ezkondurik, eta urrezko ezteiak egin behar zituztela, eta nahi zituela bortzpasei bertsu, bazkaltzean kantatzeko.

Bainan berak etzakiela bertsurik egiten eta hea nik eginen niozkan bertsuak.

Baietz erran nion eta hauk egin niozkan. Bertsuen bila ere bera etorri zen.

Eta ereman eta kantatuko zituen naski. Bainan ez dakit se-guru nik.

1

Agur, adixkideak, ta ongi etorri,  
barkamendu galdatzen dautzuet orori.  
Ohore egiteko aita ta amari,  
kantatu nahi ditut zenbait pertsu berri.

2

Zoinek ez ditu maite bere burrasoak,  
haurrentzat horrenbeste in duten gaixoak?  
Halere lagundu tu zerutik Jainkoak,  
egin ahal detzaten eztei urrezkoak.



3

Dotzena erdi bat haur mundurat emana,  
horrek kontsolatzen tu aita eta ama.  
Bizitzeko joanak herrietan barna,  
halere bozik jiten gira zuen gana.

4

Neke ta lana frango egin ta onduan,  
zoriontsu zirezte guzien buruan.  
Iloba ttiki hoiek zuen inguruan,  
gauza ederragorik ote da munduan?

5

Elgarrekin bizirik berroita hamar urte,  
ezkont berrian bezain oino elgar maite.  
Gaurko gazte zenbaitek beha balezate,  
etsenplu hartzekoa segur balukete.

6

Gauza onenak ere badu akabantza,  
huna azken agurra orai guzientza,  
Jaunari galdeginez ait-ama onentza,  
oraino ahantz detzan zenbait urterentza.

Bertsu hauk *Herria* astekarian agertu ziren, 1976-IV-29-an. (*Auspoa*-ren oharra.)

# Lagunari agur

---

Bertsu hauk jarri nituen Xalbadorrentzat. Jarri ez; gogoan pasatu. Mixel Itzainak erran zautan, ni beti laguna izana ta bortzasei bertsu bear niozkala kantatu, lagun gisa.

Buruan ibili nituen; idatzi batere ez. Ta gan nintzanean Urepelera, Xalbadorren omenaldi egunean, haren aldean bazkaldu nuen. Xalbadorri erran nion, bortzasei bertsu kantatuko niozkala, eta zer bertsu ziren ere bai, juxtu-juxtu ez, bainan zerbaitu.

Bertsu batean erraten nion bazuela bulta bat elgarrekin genbiltzala; ni haren aldean beti umil egoiten nintzala; hura zela iguzkia ta ni, berriz, haren itzala.

Ta hunela erran zautan:

–Hoi ez diat nahi kantatzea.

Sobera famatzen nuela ta ez zuela nahi. Ta bertzeak kantatu niozkan.

1

Egun agurtu nai nuke hemen Xalbador nere laguna,  
guk hain maite dugun harendako gaur bildu bait gira huna.  
Hoita hamar urtez horrekin nabil, aspaldiko ezaguna.  
Gaur Urepelek eskaini dio merezi zuen eguna.

2

Biak bertsutan ibili gira aspaldi Euskal Herrian,  
hemendik kanpo ere gu biak izanak Kalifornian.  
Hau beti gizon seriosago, ni berriz arrailerian,  
besta batean bikote ona biek egiten ginian.

3

Ni beti trankil ibiltzen nintzen hunekilan nintzenian,  
hauxe bainuen nere gidari beti edo geienian.  
Eta bidetik pixka bat kanpo zeharkatzen naizenian,  
hunek ezarri izatu bainau beti bide zuzenian.

4

Batzutan ere ikusten zuten gu zeharkatzen ginela,  
ta zonbeit aldiz hunek erran nau: «Deabru mutiko ergela!».  
Ez pentsa gero karraixurikan ni baitan utzi duela,  
neonek ere ikusten nuen arrazoina bazuela.

5

Bertsu lanetan hoi etzen aitzen baserriko bulegoan,  
baizik lotarik atzarri eta kanpora beira leihoan.  
Horren bertsuak hantxen zabiltsan buruan edo gogoan,  
ta paperian ezartzen ditu ongi ausnartu ondoan.

6

Euskal Herriak izatu ditu len ere gizon haundiak,  
bainan nik uste gutixko ziren Xalbadorren iduriak.  
Hego aldian nunai badira halako orroit-harriak,  
monumenta bat merexi luke holako gizon argiak.

7

Nik ezagutu ez banu izan enindaike hola mintza,  
hunek herria maite zuen ta bai bere herriko plaza.  
Bainan Jainkoa gogoan dauka, hori dezagula pentsa,  
oroz gaisetik maite baitzuen bataiatu zen eliza.

8

Akabatzeko agur goxo bat nere lagun Xalbadorri,  
ta ber-denboran otoitz umil bat zeruko Jainko Jaunari:  
arimendako leku ttipi bat gorde gaitzala bieri,  
zeruan ere ar gaiten biak bertsutan euskalduneri.

# Azken agurra

Urepeleko elizan, Xalbadorren ehorzketan,  
1976-ko Azilaren 10-ean.

---

1

Hoinbertze ibiliak biak herriz herri,  
azken agurra egun in bear Xalbadorri.  
Jauna, zure aintzina nihor ez da garbi,  
zerua ikus dezan egiozu argi.

2

Bazuen amodio, bazuen bertute,  
Jainkoaren legeak nahiz ongi bete.  
Aingeruek arima ereman diote,  
agur, lagun Xalbador, eta ikus arte.

3

Lapurtarren partetik azken adioa,  
hauxe kantatzen daiat tristerik gogoa;  
Jesukristo bezala mundutik bahoia,  
ondokoeri utziz ebanjelioa.

Hirugarren bertsu hau buruan ereman bai, bainan ez nuen  
kantatu.

# Xalbador zenari

---

Gure herriko patroina San Martin dugu, eta herriko bestak San Martinetan izaten dire. Bainan urte hartan, Xalbador orduan hil berria eta hura ibilki nuen buruan, nola galdu ginuen eta bertsu batzu jarri behar niozkala. Eta, besta izan arren, bertsu hoik jarri nituen. Besta baino gehiago, laguna nuen go-goan.

1  
Nehor ezin gintazke munduan gelditu,  
deia etorritz geroz behar obeditu.  
Jainkoak kristau denak berdin egin gaitu,  
hoberenak gazterik erematen ditu.

2  
Urepelen bilduak bederen bi mila,  
ospatzerat joan eta utzi dugu hila.  
Nahigabetan dena kontsola dadila:  
Jesus bera zerutik etorri da bila.

3  
Bataiatu elizan, igande goizean,  
hire kartsutasuna komuniatzean!  
Bihotza pizten zautak huntaz orroitzean:  
mundutik joan haizela Jesus bihotzean.

4  
Bihotza urtzen zeraut huntaz orroitzean:  
berekin jar arazi bainau bazkaltzian.  
Zonbeit aldiz egona hire sahetsian,  
azken aldikoz zela nork erranen zian?

5

Batzuek joanak eta bertziak joaitekuak,  
han gelditu ginenak mutu harrituak.  
Bildu ziren apezak eta medikuak,  
denen artetik dauku ereman Jainkuak.

6

Egun orroigarria han ginen denentza,  
ohartu gabe ere jin baitzen aratsa.  
Xalbadorrez orduan nork zezaken pentsa  
ematen ari zela bere azken hatsa?

7

Orai gelditzen zaukuk hire liburua,  
Euskal Herriarentzat dote arrarua.  
Jesukristok bezala utzi duk mundua,  
ondokoeri utziz ebanjeliua.

8

Atzo ehorzketa zen, gaur biharamuna,  
gure herriko bestak, San Martin eguna.  
Kantu hauk idatzi tut harturikan luma,  
ezin ahantziz nere Xalbador laguna.

# Senpereko bozak

---

Orai dela lau urte edo hola, Senperen herrietako bozak izan ziren, bertze herri guzietan bezala.

Eta Senpere hori erdia langileria eta bertze erdia laboraria baita, baserritarrak ere kontseiluan presentatu ziren, baina bi bertzerik ez ziran pasa.

Kartieretan ere kontseiluko denak karrikakoak. Hortaz, baserritarrak ez ziren ados, ez ziren kontent: nor behar zituen lagundu. Kontseilariak, denak bertzetarik zirela; borts bakarririk, hogoia ta batetarik, laborariak.

Eta etorri zitzaizkitan hea gertakari horren gainean bertsu batzu emanen nituen, laborarien laguntzeko.

1  
Pertsu berri paratzen orai naiz abian,  
alferrik bainindagon joan den aspaldian:  
jendea emaitako jakinain gainian,  
bozak nola joan diren Senpere herrian.

2  
Bi lixta bagintuen zahar eta berri,  
erdizkaxe joan dira bi alderdieri.  
Bozarik gehienak karrikatarreri:  
hogoita batetarik borts bat laborari.

3  
Gisa hortan baitoa oraiko bizia,  
Senperen ere dugu hori ikasia.  
Eskolatuendako gaurko fantesia,  
enetzat hobea da espedientzia.

4

Frango haundia dugu Senpere herria,  
oihan eta baserriz eremu haundia.  
Zazpi zortzi kartier segurik badia,  
kontseilukorik gabe hirutarik bia.

5

Jendearen erdia dugu laborari,  
eta boza emaiten karrikatarreri.  
Ez badugu laguntzen geiago elgarri,  
harrika ari gire guen burueri.

6

Laborari batzuek naute ni harritzen:  
karrikatarrendako ari bozen biltzen.  
Elgar ez badugu guk hobeki laguntzen,  
laborantza guhaurek ari dugu hiltzen.

7

Gauza guzietarik karriketetan bada,  
mozkinik haundienak joaiten dira hara.  
Guretzat deus gutti ta inposak emenda,  
laborariendako hori izanen da.

8

Dei bat kontseiluari nik akabatzeke:  
Herriko Etxetikan gutaz orroitzeko,  
Senperen laborantza otoi laguntzeko,  
lurra behar baitugu denek bizitzeko.



# Aitatxik alabatxiari komunione egunean

---

Egun batez, auzoko gizon bat etorri zitzaitan etxera. Gizon hori, Mattin Urkia, hemengoa da, Ahetzekoa, Pausalekua etxekoa. Eta bere ofizioa, hargina. Herrikoa eta betitik ezagunak eta adixkideak biak. Adina harek gehixago du: laurogoi urte. Gure aita zenarekin ere laguna zen. Urkia hori, nereza bezala, hango deitura izanen da. Hemen erdiak lehenago handik etorriak baitira. Karlisten gerla denboran edo noizbait ere.

Gizon hori etxera etorri eta hunela erran nintuen: bere ilobaren –alabatxia guk erraten duguna hemen– bataioko aitatxia zela, eta komunionekeo egunean nahi ziozkala bere iloba edo alabatxi horri bertso batzu kantatu, eta hea nik eginen niozkan, bainan nahi zituela berak eginak balira bezala.

Nik baietz erran nion. Gogotik egin niozkan bertsu hoik, eta gero berak kantatu omen zituen komunione egunean, bazkal ondoan edo.

1

Jende maiteak, barkatu eta otoi emazue kasu,  
familietan egun eder hauk ez dira gertatzen usu.  
Karmen maitea, aitatxi gisa baldin on hartzen banauzu,  
zure egun hau ohoratzeko moldatu ditut sei bertsu.

2

Zer zoriona egun goizean bataioaz orroitzean!  
Sekulan baino kartsukiago aitua naiz otoitzean.  
Zuri begira egoki nintzen Jesus errezibitzean,  
nork daki nik zer goxotasuna sendi nuen bihotzean?

3

Egun hau baino ederragorik ez da izaten munduan,  
familia ta adixkideak denak zure inguruan.  
Kontzientzian trankiltasuna, goxotasuna goguan,  
zuen artean iduritzen zait hemen nagola zeruan.

4

Orroitzapen hau behar zinueke gorde zure bihotzian:  
nola ibili behar ginuken munduko gure bizian.  
Errespetua ekarriz beti kanpoan eta etxian,  
estimatua izanen zira zure bizitze guzian.

5

Amodiua bezain handirik ez da mundu huntan deusik,  
zure ta nere artean ez da gaur amodio eskasik.  
Disimolatu nai nuke bainan ixilik ezin dut atxik,  
hortarik ikus, Karmen, zu zonbat maite zaituen aitatzik.

6

Hamabi urte iragan dira zure bataiotik huna,  
eta egunik ederrena da gaur zelebratzen duguna.  
Behin betikotz indartu zira Jesus harturik laguna,  
Hari galdetu behar diogu grazia ta zoriona.

# Eztei urrezkoetan

---

Gure hauzoko batzuek, lehen aipatu Mattin Urkia eta Ernestin bere andrea, bazuten berrogoita hamar urte ezkondurik eta familiako besta bat egin nahi zuten. Koñadua ere bazuten apeza, andrearen anaia, Carrere, Pantxo kantariaren osaba. Hura etorri eta erran nintuen nahi ziozkatela beren urrezko ezteien ohoretan bertsu batzu kantatzea, eta hea nik egingen niozkan.

1

Kantuz hastera noa egun eder huntan,  
jendea ikusirik hemen lorietan:  
haur eta haurrideak oro bildurikan,  
Mattin ta Ernestinen urre ezteietan.

2

Ezkondu zinetela berroita hamar urte,  
ezkontzako legea beti ongi bete.  
Zuek ikusi eta aitortuko nuke:  
orduan bezin elgar duzuela maite.

3

Gaztean maite dela aise da aitortzen,  
maitetasuna ez da zahartzeaz galtzen.  
Adinean girenak girare ohartzen:  
nehoiz ez da elgarrez geiago behartzen.

4

Lau seme alabekin zuen familia,  
hiru haurrekin berriz duzue semia,  
alaba bat serora, gazte bertze bia;  
horixe da familia ohoragarria.

5

Bertze haur bat galdua lau hoiien artetik,  
aingeru ttipi zela joan zen mundutik.  
Kontsolamendu on bat duzue hargatik:  
laguntzen zaituztela gaixoak zerutik.

6

Alaba zaharrena hain maitagarria,  
Jaunaren zerbitzuan gazterik jarria,  
erien artatzeko parerik gabia,  
burrasoendako zer kontsolagarria!

7

Lorentz(e) eta Mayi're onak dira berdin,  
oraino ezkontzeko boturik ez egin.  
Aita ta amarendako ez laike atsegin  
ama gairik onenak gelditzia mutxurdin.

8

Iloba eta koinat anai arrebekin,  
hiru alaba eta semea haurrekin,  
unione osoan denak elgarrekin,  
zer zoriona egun, Ernestin ta Mattin!

9

Bazinuten fagore elgar maitatzeko,  
eta bizi guzia elgarri eskaintzeko.  
Holako batasuna da estimatzeko,  
gaztiak balukete etsenplu hartzeko.

# Kantatzeko gostua

---

Haur denboran plazan bizi ginen. Baserria karrikan ginuen. Eta tabernan-ta mobimentu balin bazen, ni, mutiko tzarra, han izaten nintzen.

Orduan arnoa orai baino gehiago edaten zuten, eta ez zen nehorat ateratzen jendea. Herrian egoten ziren denak.

Eta jai arratsaldeetan hantxet aritzen ziren bertsutan. Ongi edo gaizki ez dakit, bainan afizione bazuten. Bertsu zaharrak ere kantatzen zituzten. Bainan ongi berotu ta gero, berak asmatzen hasten ziren.

Eta ni ere, heieri entzunez, hasi nintzen zerbeit ere mol datzen eta tartean kantatzen.

Gero, hango gerla hasi zenean, hunat igesi etorri eta hemen bizi zena bazen Xaturnino erraten zioten bat. Hunek ere bazuen afizione pixka bat.

Gu gazte ginelarik, lehen erran dutan bezala, Sarako bes-tak izaten ziren hemengo famatuenak eta zer nahi jende bil-tzen zen harat. Pertsulariak ere izaten ziren, eta nik ere gogo-a naukan bertsuak entzuteko.

Behin batean, nik hamazazpi urte nituelarik, beste hau-zoko mutil batekin goizean eguerdi arte arbi jorran aritu, etxean bazkaldu eta arratsaldean, orduan kotxerik ere ez baitzen orai bezala, bizikletan joan ginen.

Bertsulari bakarra ari zen, mahain baten gainean, plazaren erdian. Panpale erraten zioten, Luhusokoa, Larralde apelidoa. Ez zuen lagunik eta laguna galdatzen zuen norbait, eta nehor ez azaltzen.

Azkenean hasi zen erraten, orduko gazteek ez zutela ber-tsutarako alderdirik; nahiago zutela, plazan bertsuak kantatu

baino, ostatura joan eta mozkortu eta han egon; ez zirela lehengoak bezalako gazteak.

Ni, berriz, lagun batzuekin nengoen, eta, edan ez nuelako, ez nintzen atrebitzen. Zerbeit ere edan eta pixka bat berotu izan banintza, kuraia gehiago izango nuen naski.

Bainan lagunek hartu eta aidean ereman ninduten Panpale horren alderat.

Nere doble pisuko gizona zen hura. Ia ehun kilo bai harek; nik, berriz, erdiak,

Bainan ni ere mahain gainean jarri eta, hantxet, nahi ta nahi ez, hasi egin behar. Orduantxet kantatu nuen lehendabizikotz plazan.

Pixka bat lotsa nintzen hastean. Bainan gero baso pare bat arno edan nuen harekin betan eta piztu. Eta, hasian hasi, ongi edo nola ez dakit, bainan hantxet aritu nintzen.

Bertsulari gutti izaten baitzen orduan, jendea dena bero bero eta pozik.

Ordutik, gerla denboran salbu, urtero kantatu dut Saran. Urte Zaharretan hango gazteria Gabon kankantatzen ibiltzen zen; eta dantzan, eta bertsulari bat eta soinulari bat. Eta orduan hasi eta urtero deitzen ninduten, eta bertsulari ibiltzen nintzen hango gazteekin, Urte Zahar egunean, joan den urtea artio. Lehengo urtean ez nintzen joan. Gaizki nengoen eta etxean gelditu behar. Bainan berrogoita sei urtez kantatu dut nik Saran.

Matxin, berriz, Senpertarra zen. Iraola zuen apelidoa. Ikusi izan dut, ni mutil kozkorra nintzela, Uztaritzen bertsutan, eta Getarian ere bai. Txirrita zenarekin ere ari izatua Donostian.

Baserritarra zen. Gaztetan morroi-ta (mutil) ibilia batean eta bestean; eta gero ezkondu eta hor Senperen bizitua.

Panpale eta hori ibiltzen ziren beti. Panpalek boza ederra, eta bera ere gizon ederra. Matxin, ni bezala, kaxkarra; eta ar-

gala ta tximela. Boza ttiki batekin, *tta-tta-tta* kantatzen zuen beti. Bainan bai buruz ernea ta abila. Panpale baino hobea zen askoz ere bertsutan. Malizi gehiago zuen.

Eskolik ez zuen eta ez zakien idazten, ez irakurtzen eta ezer ere. Eta bertsutan entzun eta harrituak egoten ziren asko, nundik ikasten zuen, ez libururik eta deus ere ez zuen ta.

Eta harek, berak erraten zuen, zakizkien denak predikue-tarik ikasten zituela.

Bertsu gutti jarriko zuen harek paperetan. Beharbada bat ere ez. Haren bertsurik gutti aditzen baita. Bakarren batzu ho-la ahotik ahora atxikiak. Bainan bertzelakorik ez.

Bat badakit, Saran kantatua. Ni ez nintzen izan, bainan bertzeri aditu nioten. Arnoa eta ura jarri zioten gaia. Panpale arnoa eta Matxin ura. Bertzeak arnoaren gainean kantatuko zuen, eta Matxinek urari bota zion lehendabiziko bertsua ho-la omen zen:

Arnoa baino askoz hobia derizkiot dela ura,  
garbitzeko're behartu izan naiz ni gauza hortaz ardura.  
Hartaz ninduten ni bataiatu sortu nintzanean mundura,  
ta hari esker esperantza dut joatea gero zerura.

Espainiako gerla hasteko garaian hil zen,

Alaba ere ba omen zuen bertsularia harek. Bainan gazterik joan zen hemendik Bordelera.

Hoik denak gogoan hartuta, bertsu hauk jarri nituen.  
*Sort lekua utziz geroz doinuarekin*, ni ere kantuan nola hasi nintzen.

1

Baserrian sortu nintzen ta baserrian hazia,  
eta beti izatu dut han egoiteko grazia.  
Karrika ondo ondoan nuen orduko gure etxia,  
xahar batzu hantxet entzunez goizik pertsutan hasia.

2

Ostatuan maiz baziren xahar hoiekin kontuak:  
arno xorta bat edan eta iluntzetan berotuak.  
Orduan ez ziren faltatzen kantu xahar ta bertsuak,  
nik laster ikasten nituen gero heki adituak.

3

Kantatzeko gustu hori banuen nere baitarik,  
garai hartan ez zen naski nik ez nakien kanturik.  
Xahar heki hainbertze pertsu ostatuan aditurik,  
neoni ere hasi ninduzun rima errexenatarik.

4

Koblariak bazirela entzuna nuen bertzetan,  
Panpale ta Matxin ziren onenak denbora hetan.  
Elgarrekin ibiltzen ziren ainitz herriko bestetan,  
lehen aldikotz entzun nituen naski hamabi urtetan.

5

Handik urte gutti barne Matxin koblaria hil zen,  
pertsulari ezagunik Panpale bertzerik etzen.  
Sarako besta batzuetan Panpale bera ari zen,  
hamazazpi urte nituen, haren kontra hasi nintzen.

6

Handik goiti hemen ez zen segur ainitz bertsulari,  
hemen erdi bakea ta Espainian gerla ari.  
Asko gazte orduan baitzen hunarat ihes etorri,  
orduan ezagutu nituen Errexil eta Basarri.

7

Ipar alde huntan gero laster galdu zen bertsula,  
guk ere hartu ginuen gerla txarraren kutsua.  
Halere nunbeit oraino bazen segur bertsuen gostua,  
Ernandoren jaunak piztu du itzalia zagon sua.



8

Donibane Lohizunen, orroitzen naiz arras ontsa:  
hamazazpi bertsulari harat bildu zen laguntza.  
Denak zerbait arizan ginen gaizki edo erdi ontsa,  
egun hartan egin nuen nik Xalbadorren ezagutza.

9

Geroztikan izan gira segur gu lagun handiak,  
Ameriketan barnaka ere gira ibiliak.  
Bizkaiara ta Gipuzkoara joaiten ginen beti biak,  
hameka bertsu entzuna dauka gurekin Eskual Herriak.

10

Gipuzkoan gehienik geroztik ibili gire,  
geroztik hor egin dugu guk zer nahi adixkide.  
Hor gaindi ere gizon formalak errez bilatzen baitire,  
lagunik onenak gintuen Basarri ta Uztapide.

11

Gaur toki gehienetan badira pertsulariak,  
bertsuari gustu hartzen dio gaurko gazteriak.  
Zaharrak arras ixildu gabe ugari datoz berriak,  
geroko ere itxaropena badauka Eskual Herriak.

12

Bertsulari berria da gaur agertzen nun nahitik,  
bertsutako su berria berriz piztu da nunbeitik.  
Kontsolamendu hauxe deraukat partitu gabe mundutik:  
xahar batentzat hamabortz gazte heldu direla ondotik.

(1978, martxoa)

Bertsu hauk *Zeruko Argia* astekarian agertu ziren, 1978-VI-4-an.  
(*Auspoa*-ren oharra.)

# Kantuko lanetan

---

Beste behin, Aiherrara joanak ginen bertsutara, eta gai jarzaleak, Mixel Itzainak, hola galde egin nintuen:

Hea bertsutan emanen nuen nola hasia nintzen bertsutan. Eta bertsu hauk kantatu niozkan. Eta harek mañetofonean hartu zituen, eta gero paperean jarri.

1

Noiz hasi izan naizen kantuko lanetan,  
galde hori ez dago arras debaldetan.  
Gazterik hasi nintzen gero igandetan,  
ni orroitzen naizenez hamabi urtetan.

2

Karrikan bizitua gaztea nintzela,  
tabernari hurbiltzen nintzen berehala.  
Zar bat ikusi nuen pertsutan ai zela,  
ni ere entseiatu hur' ai zen bezala.

3

Zar hura aritzen zen moxkortzen zenian,  
botoilatto bat arno zuela aldian,  
lurrean jarri eta bideain erdian.  
Nik arnoa bazela han ikasi nian.

4

Sarako bestetan ni behin nintzan izan  
hango pesten ikusten, bertze askoren gisan.  
Han bertsulari bakar bat baizik ez baitzan,  
hari kontra iteko ni're hasi nintzan.

5

Berrogoita lau urte nunbait han baditu  
ni plazetan nautela bertsutan aditu.  
Zer egin behar nuen neri iduritu:  
Panpale zaharrari alaba galdatu.

6

Aspaldi bazen hura pertsutan ai zela,  
ez zen naski nerekin hasiko bertzela.  
Erran nintuen alaba neretzat etzela,  
harentzako ni naski ttikixko nintzela.

7

Soldado joan eta jarri nintzen sutan,  
lagunekin tabernan bertsutan batzutan.  
Naiz suerterik ez izan lan hortarik ukan,  
neskeri hasi nintzen idazten bertsutan.

8

Lan pullita nuela zautan iduritzen:  
neska gazten artean pertsutan ibiltzen.  
Gero bat gustatu ta ustez ona nintzen,  
neska hura nerekin esposatu baitzen.

9

Betidanik izan dut hola omorea,  
pertsutan egin nion ezkontzaz galdea.  
Hura ere pixka bat hasi zen ordea,  
astelehen goizetan bera da hobea.

10

Su horrek ez zuen, ez, hain luze iraunen,  
konkurso bat ez balitz izan Donibanen.  
Hamaseiren bat lagun harat bildu ginen,  
heietan onenxkoena ni nintzela omen.

11

Orroitzapen bat badut nik egun harekin,  
besteak nola ziren ikustearekin.

Hoberenak ginela bertzek erranakin,  
adixkide ein ziren Xalbador ta Mattin.

12

Ondotik hasi ziren gure komediak,  
lagun haundi eginik Xalbador ta biak.

Ikasi Euskal Herriak daduzkan bidiak,  
Ameriketan ere gira ibiliak.

13

Lan guzietan naski hau da ederrena:  
jende artean usu ibili behar dena.

Bainan gauza batekin nik hartzen dut pena:  
pertsulari denetan ni bainaiz zarrena.

14

Ixildu beharko dut nere predikutik,  
prediku onak ere finitu behar baitik.

Kontsolamendu hunekin joanen naiz mundutik:  
gazte ordainak heldu baitira ondotik.

# Urruñako *Airoski* taldearen hamargarren urte betetzea

---

Urruñan bada talde bat, *Airoski* du izena, dantzan eta kantuz aritzen dena. Alemanian barrena ere ibiliak dira. Eta hango buru egiten duena, izena ez dakit orai nik, etxera etorri zitzaiztan: hamar urte zuela talde horrek hasirik, eta hamargarren urteburuaren karietarat hea zonbeit bertsu jarriko niozkan.

Nik bertsuak eman nituen, eta gero, beren hamargarren urteburu hori ospatu zutenean, berek kantatu zituzten nik egin-takoak. Urte pare bat edo hola badu, bertsu hoiek jarririk. Orai ere segitzen du talde horrek. Beti bezala, kantuz eta dantzan.

Uste dut-eta, joan den urtean ere Alemanian izanak ziren. Gero alemanak ere bai hor, Urruñan.

1

Gazte batzuek ginen elgarretaratu,  
behar ginuela zerbeit Urruñan muntatu.  
Borondate on ainitz zitzaikun gertatu,  
gure *Airoski* taldea hortarik zen sortu.

2

Gazte askok dantzari hartu zuten gustu,  
borondate hoi ez da geroztikan hixtu,  
Ikasten hasi ziren ttuntun eta xixtu,  
nahikunde beroa hortarik da piztu.

3

Talde hori sortu zen orai hamar urte,  
geroztikan gazte hoik bide egin dute.  
Kantari onak ere orai badituzte,  
arrotz herriek ere galdetzen dituzte.

4

Asmu horrentzat ere norbeit behar baitzen,  
bihotz onekuek dute beti elgar aitzen.  
Obra onak eginez ez da nihor galtzen,  
gazteria batek du herria edertzen.

5

Jarraiki gaiten beti holaxet elgarri,  
zaharrak joan eta gaztea etorri,  
errespetu ekarriz batzuek bertzeri,  
ohore egiteko gure Urruñari.

6

Gazte maiteak, segi hartu den bidea,  
alaitasuna baino zer dugu hobea?  
Elgarren maitasuna atxiki gordea,  
biba Urruña eta *Airoski* taldea!

Bertsu hauk Mattinek berak bialdu zizkigun, eskuz idatzitako orri batean, ondotik honela esaten zuelarik:

«Bertze bi pertsu txiki andana bialtzen dauzkitzut, nahi baditutzu nunnabait jarri. Agur eta ikusi arte. Mattin». (*Auspoa*-ren oharra.)

# Biziko egun ederrena

Airea: Sort lekua utziz geroz...

---

1

Uste dut Euskal Herritik jendea hemen dagola.  
ikusi gabe ez nuen hau sinetsiko nihola.  
Gure zainetan kurri dabila hemen euskaldun odola,  
zuen artean iduritzen zait parabisuan nagola.

2

Ahetzen sortu nintzen ta geroztik bizi Ahetzen,  
ta usatua Euskal Herri guzian kantuz ibiltzen.  
Ta aheztaerek ikusi gabe hau ez nintuzten sinesten:  
Euskal Herriko anai arrebek ni zonbat maite ninduten.

3

Biziko egun ederrena gaur hemen dut iragana,  
eta bertsu huntan noa gazte maite hoiengana:  
bihotzetik estimatu dut neretzat in duten lana,  
zuek altxatu duzue gaur gure Ahetzeren fama.

4

Bertze bertsuño bat orai hemen Xalbadorren gatik,  
ezpaitut nik ahantzia omenaldia geroztik.  
Hari kantuz ari ginela juan zen gure artetik,  
desiratzen dut guri begira dagola orai zerutik.

5

Gaur Ahetze jarria da zero ttipi bat iduri,  
zer nahi ohore segur egun egin naute neri.  
Estimaten nautela ainitz hunetan baita ageri,  
ikusi arte, adixkideak, eskerrik asko deneri.

Bertsu hauk Mattinek Ahetzen kantatu zituen, bere omenaldi egunean,  
1978-IV-30-ean.

# Urrezko ezteiak Mugerren

---

Gure herriko jaun erretora, Perugorria, Urruñakoa da, bainan Oleta kartierekoa. Kartier hori Azkaine eta Urruñaren tartean dago. Perugorri hori, apez egin eta, lehenbizi egon zen bikario Ezpeletan. Gero egon zen erretor Amorotzen, Donapaleoko ondoan.

Hara, kermeza egiten zutenean, Xanpun eta biak, eta Xalbador zena ere bai, erematen gintuen bertsutara. Ez dakit zonbat aldiz izan giren hor bertsutan, hori erretor zen denboran.

Gero handik etorri zen Mugerrera. Bainan hor ez gira behin ere bertsutan ibiliak. Herri hori erdi euskalduna eta erdi gaskoina baita, bertsularirik ez zuen ereman harat. Eta, azkenik, abuztuan egingo ditu hirur urte, Ahetzera etorri zen.

Mugerren egon zen denboran, han ere adixkideak egin zituen naski. Hetarikan batzu, Pagadoi baserriko nagusia eta etxeko andrea.

Eta senar emazte hoiek berrogoita hamar urte egin zituztenean ezkondurik, konbidatu zuten hura ere bazkaltzerat.

Bainan joan aintzinetik, jaun erretor hori neri etorri zitzaian: hea bertsu batzu eginen niozkan, berak eginak balira bezala, berak bazkari denboran kantatzeko.

Esplikazioneak ere eman zituen eta hoik egin niozkan, eta berak kantatu omen zituen han, Mugerren.

1

Pertsu berriak moldatu ditut egun hunen ohoretan, onbore onian parte hartzeko zuen bozkario hortan. Zorionian begira gaude eta denak lorietan, xahar maiteak pixkor ikusiz beren urre ezteietan.



2

Lehen pertsuan mintzatuko naiz ni adixkide Felitsi,  
mende erdi bat Mayi duzula espos laguntzat berexi.  
Eta gaur ere horren aldean ez zaitzu segur itsusi,  
hori maitatuz egin baitzinen Pagadoiako nagusi.

3

Familiako aita leiala izatu zira etxean,  
ta igandetan meza denboran beti xintxo otoitzean.  
Handik lekora plazara joanta pilotan eta musean,  
orai pilota utzia duzu nik uste ezin bertzean.

4

Etxeko andre Mayi maitea, ez zaitugu ahantzia,  
obra on iten arizan zira zure bizitze guzia.  
Lanean finki entseaturik familia bat hazia,  
dotzen erdi bat haur ukaiteko izan zinuen grazia.

5

Hetarikan bat galdu zinuten, gazterik joan zen mundutik,  
ixtripu batek ereman zuen burraso onen ondotik.  
Kontsolamendu zerbeit halere baduzue horrengatik,  
pentsaturikan zuen laguntzen ari dela gaur zerutik.

6

Baiona hortan esne partitzen hamar urtetan hasia,  
geroztik hunat hor ibili da bere denbora guzia.  
Gora behera frango bide du hiri hortan ikusia,  
oraino ere ezin hartu du itzuli horren etsia.

7

Mugerren sortu zinen aspaldi ta Mugerre maite duzu,  
bederatzi bat erreter ere hor ezagutu ditutzu.  
Apez etxeko zerbitzua're zonbeit aldiz egin duzu,  
apez hoik beren ama bezala guziek maite zauzte zu.

8

Apezak ere maite dituzu, hori nik ere badakit,  
bederatziek jastatu dugu zuk duzun borondatetik.  
Gostu onean edan baitugu guk Pagadoiko esnetik,  
eta sekulan samurtu gabe prezioaren gainetik.

9

Mende erdi bat pasa duzue biek elgarrez gozaten,  
maitetasuna leiala bada ez da biziki gostatzen,  
atsegabea jiten delarik beti elgar kontsolatzen.  
Gazte ainitzek balukete lan zuekin etsenplu hartzen.

10

Gaztean bezain maitekor zaizte hoin aspaldi ezkonduak,  
espos egunian hartu xedeak ez dituzue galduak.  
Jende onak ere badira beti, hori badaki munduak,  
hortako zauzte beneizionia igorri Aita Sainduak.

11

Sobra prediku luzea ere izaten baita kaltean,  
azken pertsu hau kantatu eta utziko zauztet bakean,  
Jainko onari galde eginez, zuek denekin batean,  
oraino luzaz ahantz zaitzaten hor haurren haurren artean.

Bertsu hauk Mattinek bere eskuz izkiriatu orri batetik hartuak ditugu.  
Bainan *Herria* aldizkariak ere argitaratu zituen, 1979-II-15-ean. (*Auspoa*-  
ren oharra.)

# Etchegaray jaun kardinaleari

Airea: Ttiki ttikitik...

---

Ahetzeko jaun erretora, lehenago, gaztean, bikario egona zen Ezpeletan.

Han adixkide zuen bera baino gazteago zen apezgai bat: Roger Etchegaray. Lagunak ziren, beti elgarrekin-ta ibiltzen.

Apezgai hura egin zen lehenik apeztu. Herrian bertan ordenatu, apezpikua Ezpeletara etorri eta. Eta gero egin zen apezpiku, Marsellako artxapezpiku eta kardinale. Berrehun bat lagun-edo, familiakoak eta ezpeletarrak Erromara abionean joan eta haren kardinale egiteko zerean izan ziren.

Gero, bere jaioterrira etorri zen eta meza-ta eman berak, eta bazkaria ere egin zuen bere adixkide eta familiakoekin, eta gure erretora ere joan arazi zuen.

Joan aurretik, egun batean, jaun erretora etorri zitzaitan, eta lan pixka baten emaitera heldu zela. Ni beste batekin izketan egoki nintzen eta erran nion:

–Toki txarrera heldu zera lan eske. Hemen gehienak alpe-  
rrak gera. Ni, behintzat, beti espakoka ari naiz lanetik, eta orai  
ere ez dut hortarako gogo haundirik.

Orduan erran nintuen nola eta zer zen: kardinale berriaren bazkaritarat gonbit zela eta hea bertsu batzu egingo niozkan, berak eginak balira bezala, kardinaleari kantatzeko.

Ama hemengoa zuen kardinale horrek, Ahetzekoa, Iturbi-  
de baserrikoa, harat ezkondua, Ezpeletara. Bertsu batean erra-  
ten nion nik hoi: amarik izan ez balitz Ahetzetikan, ez zela  
kardinale eginen.

Anaia ere apeza du; apez langilea. Laborariekin-eta artzen  
da, kooperatifa edo zerbeit eginta.

Xehetasun hoik denak bertsuetan ematen niozkan. Eta gure jaun erretora Ezpeletara joan eta hantxet kantatu ziozkan. Nik bazkaldu partez, berak bazkaldu zuen.

1

Bazkal denboran bertsu batzuek kantatu nahi nituzke,  
holako egun xoragarriak merexi ditu nik uste.  
Apez, auzapez, adixkideek, berdin zahar eta gazte,  
kardinala, zure herrian agurtu nahi zaituzte.

2

Ohoratzerat etorri zaitzu gure jaun apezpikua,  
diozesako buruzagia, kristau oroz maitatua.  
Erdal herrian sortua gatik gu bezen euskaldundua,  
borondatea erakusten du, guretzat zer etsenplua!

3

Aita Battitta, euskaldun zintzo, erloi egile handia,  
hark egin obrak toki askotan oraino ikusten dia.  
Bere bizian gizon on eta girixtino ibilia,  
kristautasunik ederrenean altxatu du familia.

4

Bere herria maitatzen baita nunbeit sortua delarik,  
bainan Ahetze maite duzula ez dut egiten dudarik.  
Lehen ez balitz handik etorri Ezpeletarat amarik,  
Eskual Herrian ez zen entzunen gaur kardinale famarik.

5

Laborantzako gidari edo langile apez anaia,  
arriba berriz eskol emaile, argia ta ezkongia.  
Eskualdun izen xoragarria duzue Etxegaraia,  
bainan zuetan amaituko da, hoi da pixka bat domaia.

6

Bihotz bihotzez goستن زائت، زائن كاردinale بريا،  
بurrasoentzat izana zira seme bat maitagarria.  
Gazte gaztetik ikasle ona eta fededun garbia،  
izpirituan sartu zitzaitzun Jaungoikoaren argia

7

Mila bederatzi ehun eta hogoita bian sortua،  
Uztaritzen ta Baionan eta Erroman eskolatua.  
Hoita bortz urte bete orduko herrian ordenatua،  
ordenatzaile zinuelarik Saint Pierre apezpikua.

8

Kardinallea gradu handia، karga geiago oraino،  
argitasunak ekarri zaitu gradu handi hortaraino.  
Eskualdunetan kardinalerik ez dut entzun egundaino،  
Eskual Herria altxatu duzu lurretikan zeruraino.

9

Bakantzetarat jitearekin goxatzen gintutzun ongi،  
urrats ederrak ibiltzen ere zinituen mendiz mendi:  
Basaburutik Mondarrainera eta ere Artzamendi،  
iragaitean agur eginaz Ainoako Birjinari.

10

Musean ere aritzen zinen jaun apezak kontrario،  
elgarrekilan ziren ardura Beheran ta bikario.  
Jokorik gabe musean ere gezurrak guti balio،  
gehienetan galtzaile zinen gauza hoi dela medio.

11

Uzta hilaren lehena aurten zer orroitzeko eguna:  
Aita Sainduak jaun kardinale izendatu zaituena!  
Berrehun lagun baino geiago Erroman zen euskalduna،  
ikusi gabe ezin erran da han sendi zen zoriona.

12

Zu Baionatik Pariseraino lehenik zinen airatu,  
han Frantziako apezpikuen sekretario onartu.  
Jaun kardinale Martik zintuen apezpiku lagun hartu,  
bai eta gero urtea gabe Martsellan artxapezpiku.

13

Ene agurra eskaintzen zaitut orai hemen azkenean,  
bururapen bat izaten baita gauzarik hoberenean.  
Azken desira egiten dautzut eskualdunen izenean:  
gure gidari izan zaitezzen zerurateko bidean.

Bertsu hauk Mattinen izkribu batetik hartuak ditugu. *Herria* aste-  
kariak ere argitaratu zituen, 1979-X-11-n. Bainan bigarren bertsua fal-  
ta da Mattinen izkribuan; eta bortzgarrena ere bai *Herria*-n. (*Auspoa*-  
ren oharra.)

# Patxi Txurrukari

---

Gizon bat etorri zitzaitan, *Bota* firmatzen du, pilotako artikulua hemen periodikoan egiten dituen.

Erran nintuen Patxi Txurruka pilotariari despedida egin behar ziotela Donibane Lohizunen, eta hea bertsu batzu jarriko nituen, eta kantatuko berari Donibaneko frontoian.

Esplikazionea ere eman nintuen: gipuzkoarra zela, Mutrikukoa. Ameriketara asko ibilia zela. Gehiena han. Gero hemen udaran ta hola etortzen zen eta hemen ere jokatzen zuen.

Bertsuak egin nituen eta idatzi. Bainan egun bat lehenago-  
edo etorri zitzaitan *Bota* hori, eta paperetik kantatu niozkan. Ez bainuen izan denborik buruz ikasteko. Lehenbiziko aldiz paperetik bertsuak kantatu nituela. Ez nuen sekulan egin.

Zesta-puntan atzelari (gibeleko) onenetakoa erraten zuten Patxi Txurruka hori. Orai, erretiratu eta, Mutrikun edo ez dakit zuzenik nun biziko den.

1

Adixkide maiteak, ez zaiztela harri,  
barkamendu galdatuz hasten naiz kantari.  
Donibanerat ez naiz gaur hutsik etorri,  
hamar bat pertsu ditut nerekin ekarri,  
bihotzez kantatzeko Patxi Txurrukari.

2

Mutrikun jaio eta Mutrikun hazia,  
gazte gazte zinela pilotan hasia.  
Jaungoikoak emanik hortako grazia,  
pilotako jokua ondo ikasia,  
hortarako zinuen maitasun bizia.

3

Ez zerare bakarrik zu pilotaria,  
lagunentzat umilla ta maitagarria.  
Aho beteka zutaz mintzo da jendia,  
zure izena dago goi maillan jarria,  
jaso dezu pilota ta Eskual Herria.

4

Onen onena zera pilota saillean,  
denak txorutzen tutzu plazan zeranean.  
Kontrakua menderatzen duzu geiengan,  
batean irriztaka, bertzean airean,  
halere beti zera pilotain gainean.

5

Galdu baduzu ere behin edo beste,  
asko frogatu tutzu zahar eta gazte.  
Atzelari hoberik baden ez det uste,  
zuretzat esan oi da, egia nik uste:  
pilotako errege famatzen zaituzte.

6

Pilotan kurriturik Eskual Herri dana,  
gero itsasoaren bestaldera juana.  
Han Miami, Mexico ta berdin Habana,  
ondo egin baituzu pilotako lana,  
denetan zabaldu da Txurrukaren fama.

7

Horrenbeste medaila, horrenbeste kupa,  
merexi zintuela ez ditaik uka.  
Zure lagunetarik nago adituta:  
«Frontoia betetzen zen jendez mukurruka,  
irakurtzen bazuten afixan Txurruka».



8

Gizon leiala eta lagunentzat ona,  
guttitan ikusten da holako pertsona.  
Zer etsenplu ederra uzten gaituzuna!  
Zure lagunetarik daukagu entzuna:  
«Hori duk egiazki, bai, plaza gizona».

9

Ai zer poza duguna zure ikustean!  
Xoratutzen gaituzu hunat etortzean,  
xixtera eskuetan pilotan hastean.  
Hemengo eskualdunek zauzte bihotzean,  
Donibanen zirare gaur zure etxean.

10

Pertsu batzu egin tut frangotto luziak,  
hoinbeste merexi du Patxiren biziak.  
Pertsutan jarri tudan berri hoik guziak,  
jurnalian leituz nitun ikasiak,  
zure adixkide on *Bota*-k idatziak.

11

Plaza guziak tutzu ederki estali,  
seme on bat bezala zaituzte ibili.  
Zuretzat aita bat zen Julian Lertxundi,  
pilotari guziek maite dute ongi,  
hoi gabe zesta-punta fini zen aspaldi.

12

Hein baterat geroztik izaten da aski,  
zahartua den harek hoik denak badazki.  
Pilota uzten duzu orai ohorezki,  
diru mordo pulita gorderikan naski,  
erretira hartzeko ez zaude hain gaizki.

13

Patxiren agurtzeko oraingo pertsua,  
pizturik uzten dezu pilotaren sua.  
Gaztek segi bezate zure etsenplua.  
Huna Mattinen ganik azken abisua:  
neke hoik denen ordain har zazu pausua.

Bertsu hauk Mattinen izkribu batetik hartu ditugu. *Deia* egunkariak ere argitaratu zituen, 1979-XI-1-ean. Bainan 10 eta 11-garren bertsuak falta, eta beste zenbait aldakuntza ere baditu. (*Auspoa*-ren oharra.)

# Arbonako erretor berria sartzeko egunean

---

Bertsu hauk Arbonan kantatu nituen, erretor berria sartzeko egunean. Apez horrek izena nik bezala du: Mattin; eta deitura, Carrere. Pantxo kantariaren anaia da. Angelun sortu zen. Bainan ttikia zela, burrasoak Ahetzera etorri. Aita hemengoaz zen gainera.

Arbonako alkatea etorri zitzaitan, hea bertsu batzu kantatuko nituen. Eta bera ere etorri zen, erretor berria, eta Buruzuritar arraza tartean sartzeko erran nintuen. Horren aitonari, rubio rubioa baitzen, denek Buruzuri erraten zioten. Eta izengoiti hori familiako denek segitzen dute.

Aiton hori Ahetzekoa zen eta zerri hiltzale. Etxez etxe ibiltzen zen. Arbonan ere asko hiltzen zuen, eta han ere denek Buruzuri erraten. Ez zuen beste izenik. Ez zuen nehork haren gatik Carrere esango, berak ere hala esaten zuen ta.

Arbonako bolanjera (okina) ere, andrea, erretor berriaren izeba, Buruzuriren alaba zen. Hortako, Buruzuritar arraza, Ahetzen bezain ondo ezagutzen dute Arbonan. Hemen ez da elizan sekulan txalorik aditu. Bainan egun hartan, bertsuetan Buruzuritar arraza esan nuelarik, hango jende guzia txaloka hasi zen.

Bertsuak, meza artean kantatu nituen. Bainan azkenekoa, bederatzi puntukoa, bukaeran bota nuen. Aperitifa edo merienda ttiki bat ofreitu zuen apezak deneri, trinketa edo frontoi berria bada Arbonan eta hartan. Ziburutik-eta jende asko etorri baitzen laguntzera. Apezak hola erran nintuen:

–Badakizu zer egin behar duzun? Meza bukaeran jendea harat gonbidatu.

Eta hortako kantatu nuen bertsu hori.

1

Angelun sortu eta Ahetzen parte hazia,  
gazterik ukan zinuen apez iteko grazia.  
Ziburun ereman duzu bikarioko bizia,  
orai Arbonan izain zira gure erretor nausia.

2

Aita partetik Ahetzen ezaguna zira ontsa,  
apez gazte alegera, gainera dena bihotza,  
Arbonarrentzat ere ez zira nik uste zu hain arrotza,  
hemen ongi ezagutzen da Buruzuritar arraza.

3

Jaunari diot galdetzen, eskualduna nola naizen,  
Arbona maitagarrian eskuara ai baita galtzen:  
erretor on hau lagun dezala gazteriaren moldatzen,  
guziek elgar maitatzen, elgarren errespetatzen.

4

Aspaldixkoan entzuna burrasoen oihartzuna,  
hauxe da otoitz batean hemen galdetzen zautzuna:  
egin ahalaz beira dezagun arbasoen ontasuna,  
gure aberastasuna, eskualdunen nortasuna

5

Jaun erretor berriak erran nau aixtian:  
«Mattin, moldatu behar duk pertsu batian,  
meza finitu eta hemendik joaitian,  
frontoi berri polit bat ina den tokian,  
orai ixtantian,  
hortxe trinketian,  
ez da apartian,  
mahain on batian,  
trinkatuko dugula denek batian».

## «Kantuz hastera noa...»

---

Mixel Etxeberri etorri zitzaitan, Heletakoa, lehen pilotan-ta aritzen zen bat:

Kantu kazetak bazituela bi eginak eta hirugarren bat egite-ra abian zela, eta neri galde egin nintuen hea bi bertsu molda-tuko niozkan kazetaren hasteko. Gero gainontzekoak berak egingo zituela. Lehenbiziko hoik behar zituela. Eta hoik dira,

Mixel Etxeberri hori bertsulari ez da. Denborarekin ber-tsuak egiten ta hola, bai.

Bi anai aritzen dira kantari. Hoiien kantuak hango radioek ere ematen dituzte.

Kantuz hastera noa Mixel Etxeberri,  
bi kazeta eginik hirugarrenari.  
Gogoak manaturik lotu naiz lanari,  
orotarikan bada xahar eta berri,  
omorea pizteko eskual jendeari.

Pilotan arizan naiz eskualdun legera,  
ixtant bat gelditua eskuak minbera,.  
Hola lehiatu naiz kantuzko lanera,  
hitz berriak ekarriz aire xaharrera,  
adineko ta gazte diton alegera.

# Etienne Salaberry jaun kalonjeari

---

Heletan, hango semea baita Etienne Salaberry jaun kalonjea, omenaldi bat egin zioten, 1979-ko urriaren 16-an. Han zen *Euskaltzaleen Biltzarra*, eta gu ere han ginen bertsutan. Nik bertsu batzu kantatu niozkan.

Gero, handik bulta baten buruan, liburu bat egin behar zuela ta galdetu nintuen hea igorriko niozkan omenaldiaren gainean edo egun horren gainean zonbeit bertsu. Eta orduan izkiriatu *Sort lekua utziz geroz* doinuarekin, eta igorri niozkan.

Lehendik ere adixkidea nuen Salaberry apez hori. Heletan betitik eta gero bertzela ere.

Baionako klinikan nengoela ere, etorri zitzaitan bizpahiru aldiz bisita egitera.

Eta haren artikuluak leitzen ditut *Herria* astekarian. *Herria* astero artzen da eta astero idazten du harek, bai euskeraz ta bai erderaz. Euskerazkoa, *So-Egilea* firmatzen du harek. Erderazkoa ez dut ongi-ongi entenitzen, bainan pixka bat bai. Nik baino erdera hobea baitu harek. Entseiatzen naiz halere.

Ba, apez hoietan badut ainitz adixkide alde guzitan. Nero ni debrua naizela erraten dute, bainan halere apezek maite naute.

1

Agur, agur, jaun kalonjea, aspaldiko ezaguna,  
sortzez zira herri huntako egiazko eskualduna,  
aspaldiko irakaslea, gazteriaren laguna;  
eskualtzalek egin zauzte gaur merexi duzun eguna.

2

Argituenetarik zira nik uste eskualtzaletan,  
gizon jakintsun handi batentzat ezagutua denetan.  
Kontsolatzaile paregabea norbeit delarik penetan,  
zeruan bezin uros zira gaur zure sort herri Heletan.

3

Heleta Garran sortu zinen ta eleketa hor hasia,  
lehenbiziko katixima're hor eskuaraz ikasia.  
Geroztik ezagutu duzu nunbeitan mundu guzia,  
bainan halere ezin ahantzi sortu zinen ohantzia.

4

Jakitatea bildu zinuen eskerrak Jainko Jaunari,  
eta ikasi duzun guzia erakusten ari gazteri.  
Lan ederragorik baden ez zait iduritzen neri,  
omenaldi hau merexi duzu lan hoienguzien sari.

5

Zure artikulu ederrak *Herria*-k ekartzen ditu,  
irakurtu ta zonbeit aldiz xoratua naiz gelditu.  
Eskualdunek behar ginuke asko gehiago argitu,  
zu bezalako bi seme herri bakotxak balitu.

6

Agur bat zuri eskainiaz ixiltzen naiz azkenian,  
ni baino koblari hobeak baitaude hasi nahian,  
Jainko maiteak oraino luzaz utziko zaitu agian,  
zu bezalako beharra baitugu Eskual Herrian.

## «Goazen, goazen, lagun onak...»

---

Donibane-Garazi inguruko jubilatuek egin zuten Xiberora biaje bat, autobusean. Bazkaria ere han, Atarratzen.

Ni, haietaz okupatzen diren bi andereñok ereman ninduten, xahar hoiek pixka bat airosteko eta biajea omorean egiteko, eta Bertsu hauk moldatu nituen, *Jeiki jeiki* airean, denek errepikatzeko gisan. Bertsuak nik kantatu eta xaharrek errepika denek batean.

Bazkaldu eta bertsutan aritu nintzen, bainan bakarrik. Hurrengo urteko beste bat bilatuko zutela erran zuten. Bainan ni behintzat ez ninduten deitu eta ez dakit zer egin zuten.

*Goazen, goazen, lagun onak, kuraia handirekin (bis.)*  
*Omorea galtzen bada ere adinarekin,*  
*gero laster berritzen da goxatuz elgarrekin (bis.)*

1

Kanta kantuz has gaitezen oro omore onian,  
bihotza're pizten baita gu biltzen girenian,  
beti alai behar dugu hirugarren adinian.

2

Dugun aitor umorea gure artean dagola.  
Gazte batzuk ez badute gutaz sobera axola,  
xahar denak hola bilduz dugun elgar kotsola

3

Gauden beti gogoz gazte, izan arren xaharrak.  
Hola berrituko dira galdutako indarrak,  
alegera pasatzeko munduko urte ondarrak.



4

Lagun onak, geldi gaiten zorion ta bakean,  
xede zin bat harturikan bihotzaren betean,  
hola hola elkartzeko berriz hurrengo urtean.



Ezkerretik: Jose Mari Iriondo, Mattin eta  
Imanol Lazkano, Segurako elizan.

## «Ate hegitik mendietarat...»

---

Xalbadorri erran ninduten omenaldia egin behar ziotela urte oroz bezala, eta ni ere deitu ninduten. Bainan eri nintzen eta ez nuen joaiterik, eta penatua nintzen horregatik. Eta pentsatu nuen etxean egin eta bizpahiru bertsu bialiko nituela. Halaxe egin eta biali nituen. Eta han Mixel Xalbadorrek kantatu omen zituen nere partez.

1

Ate hegitik mendietarat beira egon naiz goizean,  
nere lagunak hor zirela ta ni berriz hemen etxean.  
Geiago kantuz ezin naiz ibil osagarri eskasean,  
horri pentsatuz zimiko batzu sendi ditut bihotzean,  
nigar malkoak etortzen zaizkit lagun onez orroitzean.

2

Nere burua kontsolatzeko gero hasi naiz kantari,  
pertsu pare bat behar nuela Urepelerat igorri.  
Onbore ona begiratzen dut egona gatik gaur eri,  
otoitz umil bat eskaintzen diot zeruko Jainko onari:  
urte burua seinalatzeko Xalbador lagun zenari.

3

Zuen pertsuak joanen dira zeruetara menditik,  
eta ni berriz umil umila hasi naiz itsas hegitik.  
Xalbadorren orroitzapena ez zait joaiten burutik,  
mundu hau uso pasaia bat da, hoi ere ongi badakit,  
Mattinen partez agur deneri bihotzain erdi erditik.

Xalbador hil zeneko laugarren urteburua 1980-eko azaroaren 2-an ospatu zen. Mattinek, berak joaterik ez eta biali zituen bertsuak, *Deia*-k 1980-XI-4-an argitaratu zituen; *Herria*-k, 1980-XI-6-an; eta *Diario de Navarra*-k 1980-XI-14-an. (*Auspoa*-ren oharra.)

# Urte berritan

---

*Deia* egunkariak, 1981-eko urtarrilaren 4-an:

«Urte on bat desiratzen dut Euskal Herri guziari» da Mattin bertsulariak Iparraldetik euskaldun guztiei zuzentzen dien agurra eta urte berri zoriontsu baten opakizuna.

Oraintsu arte plazarik plaza ibili den Mattin bertsulari alai eta jostalaria, bere Ahetzeko sukalde xokoan bakarrik da bertsoan ari. Urte berriaren haseran, Iparraldean eta Frantzian egingo diren bozketa edo hauteskundeak ditu batipat gogoan.

Ikuskizun dago bozketa hoiek Iparraldeko euskaldunei ekarriko dietena. «Guk ere behar ginuke Hegoaldean dutena» esango digu bertsulariak; baina dena den, «horien gatik gure artean ez gaiten bederen nahasi» euskaldunok.

1

Atzo urte xaharra zen egun berriz urte berri,  
karia hortarat hemen hastera noa kantari.  
Gogo frango arin daukat izana gaitan eri,  
urte on bat desiratzen dut Euskal Herri guziari.

2

Gora behera frango dut joan den urtean ikusi,  
euskarak ditu libertate pixka batzu ardietsi.  
Alta gehixago ere izanen zuen merexi,  
batalla ederrak dituzte hortarako irabazi.

3

Libertatea gauza bat da munduko ederrena,  
gizona trankil bizitzeko hori da gauza beharrena.  
Guk ere hemen behar ginuke Hego aldean dutena,  
kontent litzaiket aurten baginu horiek izan duten laurdena.

4

Nik gogoia baitut beti Euskal Herriko gauzetan,  
hori dabil euskaldunen gogo eta bihotzetan.  
Gu hemen beti mutil gabiltza, nausiak berriz bertzetan,  
bearbada zerbait sanjatuko da laster heldu den bozetan.

5

Urte berri huntan beraz bozeri buruz goazi,  
ai zer gezur ederra guk beharko dugun sinetsi!  
Bainan buru haundi horier behar dut adierazi:  
horien gatik gure artean ez gaiten bederen nahasi.

6

Desira honen bete nai nuke hasia zaukun urtea,  
bihotz bihotzez agurtzen baitut gure Euskadi maitea.  
Berdin berdina estimatzen dut alde bata ta bertzea,  
guzientzako otoizten baitut zeruko Jainko maitea,  
guziei aurten ekar dezala zoriona ta bakea.

# Irisarri

---

Irisarrin urtero egiten dute bertsu jaialdia Eguberriz, aratsaldean.

Eta Emile Larre, hango erretor berria, oso ezaguna ta bertszalea baita, hari telefonoz erran nion ez nintzela joaiten ahal Irisarrira, bainan banituela lau-bortz bertsu moldatuak eta hek bialiko nituela, bertze batek nere partez hantxet kantatzeko. Eta, telefonoan ari baiginen, erran nintuen etorriko zela eta mañetofonean hartuko zituela, eta han nere boza entzungo zutela.

Hala egin ginuen: nik etxean kantatu, harek mañetofoneoan hartu eta han adierazi.

Gero *Herria* astekariak argitaratu zituen, 1981-eko Urta-rrilaren 8-an: «Bertsu hauk Mattinek Eguberriko Irisarrirat igorri ditu mañetofonean boz oxen batean kantaturik bertsularien entzuleek aditzeko.

Aidea: *Andre Madalen*».

1

Gaur jeikitzean, Eguerri goiza, idekitzean atea,  
zuri pentsatzen egotua naiz, oi Irisarri maitea!  
Ezin jasanez hemen ari naiz penaren karga dorpea,  
kontsolatzeko gogoratu zait Jesus Haurraren sortzea.

2

Argitasun bat atera nahiz nere ideia beltzetik,  
zuri kantari hemen ari naiz aratseraino goizetik.  
Pertsu berri hauk moldatu ditut zuretako bihotzetik,  
Irisarrirat goraintzi batzu igortzeko Ahetzetik.

3

Erdi erdian ordoki eta inguruetan mendia,  
hazkuntza eta laborantzako zer toki xoragarria!  
Beti zintzoki jokatzen baita hor bizi den gazteria,  
maitatzen dute eskuara eta maitatzen dute herria.

4

Asko herritan pertsu saioak ari omen dira galtzen,  
ta Irisarrin oraino ere aintzina dute segitzen.  
Apez berria bertsuzalea nola dutan ezagutzen,  
aurten saiorik etzela izanen ez zitzaitan iduritzen.

5

Erretirua hartu beharra dadukagu zahartzera,  
osagarria mendratu eta etxetik ezin atera.  
Bainan gauza hau sartu nai nuke gazte hoiien bihotzera:  
Euskal Herriko usaia onak ez otoi utzi galtzera.

6

Aspaldixkoan usaia nuen ospatzeko Eguberri,  
zuen herrirat etorri eta lagun artean kantari.  
Gaur ere gogoz hor nago bainan gorputzez ezin etorri,  
agur bihotzez, irisartarrak, eta agur, Irisarri!

Ondotik bertsu hau ere kantatu die Mattinek irisartarrei,  
mañetofondunak eta bere andreak galdaturik: lehenago beza-  
la, azken lerroa goratuz, *Mutil koxkor bat*-en airean. Milesker,  
Mattin. Eta hemen diozuna gerta dadila!

Ene burua ezarria dut mediku hoienean,  
ez jakin nere onetan ala neretzateko kaltean.  
Desira hauxe egiten zautzet bihotza bete betean:  
gure Jainkoak ni uzten banau bizirikan bitartean,  
berriro ere etorriko naiz horrat heldu den urtean.

# Loidisaletxe eta Ernani-txikiari

---

Donostian beti egiten dute jaialdi bat urte sanjan bertsulari guziori, eta aurren Loidisaletxe eta Ernani-txikia ziren. Harat ere pozik joango nintzen, lehenago bertsulari hoiekin kantatu izan nuen ta.

Ernani-txikiarekin Donostiako barrio batean kantatu nuen. Ez dakit nola duen izena. Uztapide-ta elgarrekin ginen. Loidisaletxerekin, berriz, Tolosan. Basarri, Uztapide, Loidisaletxe eta laurak ginen.

Loidisaletxe hori, Errexil bertsulariaren anaia da. Errexil zena gerla denboran Urruñara etorria zen morroi, eta horko neska batekin ezkondu, eta geroztik hor bizi izana. Hura laguna nuen. Asko tokitan ibili ginen elgarrekin bertsutan. Lagun gozoa zen.

Donostira joateko ongi ez nintzela eta bi bertsu egin eta bialli nituen, erakustera emaiteko oino orroitzen nintzela, eta gipuzkoarreri bizi nintzela seinalatzeko. Xanpunek kantatu zituen.

1

Sendagileek esana naute ez joatea hobe zela,  
lagun artean kantatuzeko oraino ahul nintzela.  
Pertsu pare bat moldatu ditut, ezin eginez bertzela,  
Eskual Herrian jakin dezaten oraindik bizi naizela.

2

Zorion asko, Loidisaletxe eta Ernani-ttikia,  
pertsutarako lagun izanak nola bat eta bestia.  
Besarkada bat bialtzen zautzet, begia malkoz bustia,  
agur, eskualdun anai-arrebak, eta agur, Donostia'!

---

<sup>1</sup>Jaialdi hori 1981-I-18-an egin zen. (*Auspoa*-ren oharra.)

# Oiartzungo omenaldia

1981-eko ekainaren 14-an

---

Gaitzeko omenaldia egin ninduten Oiartzunen joan den igandean. Hogoita hamabortz urtez ibili bainaiz han ere kantuan, eta hek orroitu dire. Oso besta ederra izan zen. Jendea erruz eta denak omorean.

Hasieran, Juan Mari Lekuonak bortzpasei minutuz hitzegin zuen, nere lehenagoko liburua eskuan zuela: ni zer izana nintzen, nola ibilia, beti omorekoa eta abar; eta, bestalde, aieka hau nik errepresentatu dutala Gipuzkoan.

Hamasei bertsulari baziren. Lehenbizi, denek bertsu bana kantatu zuten neri buruz. Gero, gaia jarrita, zortzi bertsularik aintzinetik.

Hurrena, hamar minutuko pausa, eta beste zortziek ondolik. Oso bertsu saio ederra izan zen.

Dirua ondo bildu zen, eta erregalo asko izan nituen. Aranaldek, gauzen ekartzeko bi buelta egin beharko nituela erran zuen. Bainan hemendik ere kotxe asko ginen eta buelta batekin aski izan zen.

Gero, bazkari ederra. Berrehun ta hamar lagun izan omen ginen. Omorean zen jende dena.

Beste bertsu saio bat egin zuten han bertsulariek bazkaltean; eta bukatzeko *Gernikako arbola* eta *Agur, jaunak* kantatu ginuen, denek batera, xutik jarrita.

Ni pixka bat nekatua nintzen bazkal denboran, siesta egiteko ohidura baitut. Bainan gero pasatu zitzaitan.

Goizeko saioaren bukaeran, neronek bortzpasei bertsu kantatu nituen, jende guziari eskerrak emateko.



Beste bertsulari denak airosago ikusten nituen, saltoka-ta ibilki. Bainan Uztapide eta biak han ginen xahartuak, laguneri ezin segi.

Berak etxean hiru bertsu idatzi eta hango mutil batek kantatu zituen.

Eta nik ere batto berari kantatu nion eta malkoak espakatu zitzaizkion.

Hona nere bertsuak, *Sort lekua utziz geroz* kantuaren aidearekin:

1

Pozez xoratzen nago gaur galdu arren osasuna,  
nola goretsi liteke hemengo edertasuna?  
Odolak beti tiratzen bainau hunat errex Oiartzuna,  
sustraia ere bertakoa daukat: Lezokoa nuen aitona.

2

Oraindikan gazte nintzen hemen hasi nintzenian,  
hoinbeste kotxe ez zegon plazaren aldamenian.  
Bizikletian etxetik parti, topoan edo trenian,  
halere pozik etortzen nintzen deia izaten nuenian.

3

Gipuzkoako herriak geienak tut ezagunak,  
denetan bilatu ditut bihotzeko euskaldunak.  
Eta gaur agurtu nahi nuzke nik bertsulari lagunak,  
denak bihotzez maitatzen ditut, denak izan dira onak.

4

Uztapide lagun nuen esposatu aintzinian,  
berdin gabeko pertsuna hori gizontasunian.  
Hameka aldiz kantatua det beraren aldamenian,  
aitarekin iduri zuen horrekilan nintzenian.

5

Denbora luze doa ta utzi beharko lanari,  
nere bihotza zuekin dago gain huntarikan kantari.  
Erranen zauztet besterik gabe eskerrik asko deneri,  
bizi zaitezte denak ondo ta egin zazue bazkari.



Mattin eta Uztapide, Oiartzunen, 1981-06-14-an.

# Ahotik ahorako zonbeit bertsu

---

Gure etxean aterpe baten egiten ari ginen. Bi hargin bazi-  
ren, eta aita zena ta ni, mutil kozkorra, heiei laguntzen.

Ez dakit zer zuen, bainan aita kexu zebillen. Gastu haun-  
diak-edo, eta sosa neurrian harek ere.

Eta merienda egiten ari zirela, hek ixil ixilik zeuden. Hi-  
tzik ez zuten egiten. Denak asarre, kara beltzean, aurpegi ilu-  
nean. Eta nik, zirikatu behar nituela eta joan eta bertsu bat bo-  
ta nioten:

Kanbio asko dago gaur egun guzian:  
atsaldean euria, hegoa goizian.  
Jendea kexu dago nere sahetsian,  
hitzik eztute egiten denbora luzian.

Orduan parrez hasi ziren. Hori aski izan zen berriz ere  
gonbertsazioa hasteko.

\* \* \*

Nik neronek kantatu bertsuak ahantzi egiten nituen. Heldu  
zen bezala bota eta ez nioten kasurik egiten gehiago.

Xalbador zenak, aldiz, nereak ere jaso eta gogoan eduki-  
zen zituen. Eta gero, norabeit joaiten eta hola, lagun artean  
gertatu eta kantatzen zituen, neronek botatakoak, berak jaso-  
ak. Harek hortako ere izigarri buru ona zuen.

Bat, Landibarren nik emana, handik denboraren buruan  
ere kantatzen zuen. Hango bestetan ginen, San Martinetan,  
bertsutara joanak. Ni orduko zahartua, bainan musika soinua  
ari zen eta neska batekin dantzan hasi nintzen.

Xalbadorren semea ere han zen, Mixel, eta, ni dantzan ari nintzela, hura etorri zitzaitan, dantza egiteko laguna galde egi-tera, hari prestatzeko.

Neska eman nion, eta Xalbador tabernan bertsutan ari baitzen, haren gana joan nintzen eta nik ere bertsua bota nion, zer gertatu zen:

Plaza hortan gertatu dituk gaur deabruan komediak,  
neska batekin dantzan hire semea ta biak.  
Nik nuen lagun dantzaria harek kendu ziaik,  
ustez pena in nauen atsegin hartu diat.

Ni aspertuta nengoen, eta, neska kendu nintuenean, uztez pena egin nintuen, bainan poz hartu nuen.

\* \* \*

Donapaleun bertsu saio bat egin zuten, eta Oxobi zena zen gai jartzaile. Saint Pierre apezpikua ere han zen. Ondo bazkaldu eta bero bero joan ginen plazara, eta Oxobi ere berez kolorez gorria eta orduan tomatea baino gorriago zegoen. Puntuak harek jartzen zituen eta neri hau eman nintuen:

Mattin, ez dakit zer erraite'ukan behin bi perno edanta...

Eta nik:

Eta ezpanu edaten berriz ez nezake hola kanta.  
Bainan zuk ere maite duzula ezin dezakezu uka,  
seinale baita aise zure kolorieri beiratuta.

Ez zen samurtu ez. Bazakien ba zer adituko zuen.

\* \* \*

Beste bat orroitzen naiz, Saran kantatua. Hau berdexkoa bota nuen, bainan nik ere nolazpeit jarraitu nahi gaiari.

Oxobik puntu zaila zela bazakien eta hartako jarri nintuen,  
ni nahiz-eta poto egin arazi:

Salda ona izateko behar duk biper eta gatz...

Eta nik:

Jauna, hori asmatzia ez zen izigarri gaitz.  
Neri ere emazteak gazia iten nau maiz,  
noiz den amurusean hortarik ohartzen naiz.

\* \* \*

Beste bertsu hau denbora gutti duela bota nuen. Oiartzun-  
go omenaldikoan, *Radio Adour*-etik bertsu bat kantatzea gal-  
de egin ninduten. Hola erran nioten:

–To, batto kantatuko dut ba bakearentzat.

Eta hau kantatu nioten telefonoz:

Aspaldixkoan ez dut iñora agindu,  
zanguak moteldu ta burua arindu.  
Bertsu onik geiago ezin dut berdindu,  
bertsutan ibiltzeko nereak egin du.

# Aurkibidea

---

## Mattin bertsularia

Hitzaurrea .....	7
------------------	---

## Mattin nere gizona

Aintzin solasa .....	11
Bihotzaren barnetik .....	15
Lehen urtea .....	16
Espos lagunak .....	23
Nere berri .....	27
Andredena Mariaren kapera .....	32
Mulienea .....	34
Osaba xaharraren etxaldea .....	39
Semeak .....	41
Alfabetika .....	44
Mahastia .....	48
Ohointza .....	50
Komisionea .....	59
Mobileta berria .....	62
Buhamiak .....	64
Urte Zaharra .....	66
Behi gorria .....	68
Ateraldiak .....	71
Pertsu lanean .....	83
Ameriketarat .....	87
Belarretarat .....	91

Autoaren gidatzaile .....	93
Bideak .....	98
Sarako Mentta .....	102
Piarres Lafitte zena .....	104
Denetzat berdina .....	107
Semea Parisen .....	110
Ura .....	113
Nigar egiteko mementoa .....	117
Mixel Labeguerie .....	119
Oiartzungo omenaldia .....	120
Mattin Gariador .....	123
Ikus arte .....	127
Gogorapenak .....	134
Kristo kurutzean bezala .....	136
Jean Mixel .....	138
Manuel Uztapide .....	141
Mattin maiteari .....	144
Azkena .....	146

## **Ahal dena**

Mattin bertsolaria .....	151
Liburu hau nola egin dan .....	155
Lagunen aitorpena .....	159
Mattinen bertsolari lehen urratsak .....	169
Zonbeiten abilezia .....	171
On hartzea .....	175
Jakintsun bati .....	177
Ahetze maitiarentzat .....	178

Ahetzeko ohointza .....	181
Eskerminak .....	189
Pilotaz .....	191
Oxobi zenari .....	194
Ahetzeri herriko bozez .....	195
Herri bateko bozak .....	197
Txarteletan .....	199
Sorginaren errepostak .....	202
Espos batzueri .....	204
Ahetzetik Mattinek Xalbadorri .....	207
Sanjakor bati .....	209
Hiru penitentzi .....	212
Bozak .....	214
Senar-emazteak .....	218
Errexil zenari .....	223
Mutxurdi bati .....	225
Bas-ahuntza .....	227
Kukusoa .....	231
Portuges bati .....	234
Eskuara ala latina? .....	237
Aberatsa .....	240
Gazteeri .....	242
Pobrea ta aberatsa .....	244
Mattin eta San Pedro .....	247
Kasinotik etxerat .....	250
Astoa .....	252
Moda-denda .....	253
Aita ta semea .....	255



Desafioa .....	257
Aita ta seme kalpar-luzea .....	258
Aita-suhi gaiak .....	262
Mattinek semea beltza .....	266
Kristaua eta Jainkoa .....	268
Hiriko langilea eta artzaina .....	270
Minifalda .....	272
Maixua ta mendi-mutilla .....	273
Aizkolaria eta aizkoragilea .....	274
Biek andregai bera .....	276

### **Etxe xokotik kantari**

Oharra .....	281
Eskaintza .....	282
Auzoko baserri zenari .....	284
«Pare gabeko sujet berri bat...» .....	288
Eskerrik asko deneri .....	291
Pariserat Ahetzetik .....	292
Milesker .....	295
Semeari .....	296
Ahetzetik Pithivierserat .....	298
Urrezko ezteiak .....	302
Lagunari agur .....	304
Azken agurra .....	306
Xalbador zenari .....	307
Senpereko bozak .....	309
Aitatzik alabatxiari komunione egunean .....	311
Eztei urrezkoetan .....	313

Kantatzeko gostua .....	315
Kantuko lanetan .....	320
Urruñako <i>Airoski</i> taldearen hamargarren urte betetzea	323
Biziko egun ederrena .....	325
Urrezko ezteiak Mugerren .....	326
Etchegaray jaun kardinaleri .....	329
Patxi Txurrukari .....	333
Arbonako erreitor berria sartzeko egunean .....	337
«Kantuz hastera noa...» .....	339
Etienne Salaberry jaun kalonjeari .....	340
«Goazen, goazen, lagun onak...» .....	342
«Ate hegitik mendietarat...» .....	344
Urte berritan .....	345
Irisarri .....	347
Loidisaletxe eta Ernani-txikiari .....	349
Oiartzungo omenaldia .....	350
Ahotik ahorako zonbeit bertsu .....	353

## Auspoaren azken liburuak:

- 286-287 Ramos Azkarate  
Galtzaundi berriz ere (I) (II)
- 288 Pedro Juan Etxamendy  
California'ko bertsolari eta  
musikari
- 289 Jose Agustin Garziandia  
Garai bateko Unanuko  
oiturak eta olgak
- 290 Xalbador  
Odolaren mintzoa
- 291 Pedro Migel Urruzuno  
Koroi eder bat
- 292-293 F. Apalategui  
Karliten eta liberalen  
gerra-kontaerak \* Rela-  
tos de guerra de carlistas y  
liberales (I) eta (II)
- 294 Manuel Lasarte  
Gizonak
- 297 Pepe Artola:  
*Ustez laguna detan*
- 298 Mattin eta Mari Treku  
Mattin bertsularia



Mattin Treku

Liburu honek, orain urte mordo atera ziren hiru liburu berriztatzen ditu, hirurak bat eginik: Mattin Treku: *Ahal dena* (1971) eta *Etxe xokotik kantari* (1981); eta Mari Treku: *Mattin, nere gizona* (1982).

Lehenengo biek, Ahetzeko Mattin bertsulari zenaren bertso sorta bana eskaintzen zuten; eta hirugarrenak, hura zer gizon mota izan zen azaltzen. Hirugarrengo hau Mattinek alargunak dotore idatzia. Era hortan, hura bertsulari bezala eta gizon bezala zer izan zen ikusiko dugu. Alderdi guzietarik behatuta, izan diteken alaiena eta maitagarriena, noski.

Hortik hari bertsulari lagunek erantsi dizkioten tituluak: Xalbadorren: "irriaren giltza"; Azpillagak: "Ahetzeko urretxindorra"; bertze batek: "Lapurdiko danboliña"; Lazkao Txikik: "pozak kantatzen dakiena ta penak gordetzen dakiña"...

Laster beteko dira hogei ta bost urte hura ixildu zela. Lurtarrak begi bistatik alde egin eta oroipenetik ere galdu egiten direla egia da noski. Baiña holakorik ez dedila oraingotz behintzat Mattinekin gertatu. Hori da liburu honek nahi lukeana.



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

Kultura Zuzendaritza Nagusia  
Dirección General de Cultura

ISBN 84-7907-515-5



9 788479 075156